



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

GIZARTE-ZERBITZUEN ETA GIZARTE-EKINTZAREN ESTATISTIKA GIZARTE-ZERBITZUEN GASTU PUBLIKOA 2014-2017

Eraitza nagusiak
2019ko abenduaren 10a

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa



AURKIBIDEA

1.Sarrera	5
2.Zerbitzuen eskaintza	9
2.1. Egoitza-plazak.....	9
2.2. Egoitzakoak ez diren plazak	13
3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua	19
3.1. Gastu osoa.....	19
3.2. Gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastua	21
3.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota	21
3.2.2. Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera	30
3.3. Gizarte-prestazioetako gastua.....	33
3.3.1. Prestazio motak.....	33
3.3.2. Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera	36
4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa	39
4.1. Finantzaletaren alderdi orokorrak	39
4.2. Gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketa	40
4.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota	41
Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak	50
4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa	54
4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera.....	56
4.5. Udal-erakundeen parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera	64
5. Gizarte-zerbitzuetako langileak	85
5.1. Alderdi orokorrak	85
5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa	86
5.3. Enpleguaren banaketa profesionala	92
5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera	98
6. Kudeaketa-adierazle nagusiak zentro eta zerbitzuen arabera	103
6.1. Egoitza-zentroak	103
6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak	111

KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA	121
ALDERDI OROKORRAK.....	121
Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak	121
Zentroa edo zerbitzua	122
Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra.....	122
Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea	123
Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea	124
Egoitza-zentro eta -zerbitzuak.....	124
Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)	126
Erabiltzaileak.....	128
SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK.....	129
Plazak	129
Plazen titulartasuna.....	129
GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK.....	130
Gastu arrunta	130
FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK.....	131
Finantzaketa: administrazio-jatorria.....	131
Finantzaketa: izaera.....	132
Finantzaketa-adierazleak	132
LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK.....	133
Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera	133
Langileak, kualifikazioaren arabera	133
Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB.....	134
KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK.....	135
Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea.....	135
Gastu arrunta erabiltzaileko	135
Erabiltzaileko batez besteko kuota	135
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko	135
Langileko (LOB) batez besteko soldata.....	135
LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK	136
Udalerrri motak.....	136



1.Sarrera

Txosten honek garatzen du **Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren, Erakundeen eta Zentroen Estatistikaren** (GZEZE) emaitza nagusien deskribapenaren urteko agiria aurkezteko proiektua. Proiektu hori 2017an taxutu eta zehaztu zen, 2012-2015 aldirako lehen datuak argitaratzearekin batera. Horrela, bada, 2015-2016 aldiari buruzko emaitza berriak aurkeztean, sendotu egin da joan den hamarkadaren erdialdera arte Eustatek gauzatzen zuen hedapen-lanari berriro ekiteko helburua; izan ere, EAEko administrazio publikoen finantza-krisialdian ezin izan baitzitzaion egiteko hari guztiz eutsi.

GZEZEren helburu nagusia da gizarte-zerbitzuekin, gizarteratzeko politikekin eta, oro har, gizarte-ekintzarekin lotutako eskaintza ezagutzea. Norabide horretan, GZEZEek gizarte-zerbitzu- eta prestazioekin lotutako hainbat aldagai ekonomiko biltzen ditu eta sistemaren erabiltzaile eta onuradunen zenbaketa orokorrera gerturaten da. Eragiketa estatistikoak aintzat hartzen ditu, batetik, eskumenen banaketa berezitik eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen zein gizarteratze-politiken munduan aktiboki parte hartzen duten eragileen dibertsitateak sortzen diren askotariko jarioak. Horrekin, sistema osoaren (egoitzak, finantzaketa-jarioak, etab.) ikuspegi bat eman nahi da.

Gizarte-zerbitzuen sektorea beste arlo orokor batzuek estaltzen ez zituzten gizarte-premiei erantzuteko baliabide eta jarduera multzo gisa sortu zen hein handian, eta sektore horren helburua zehazten joan da termino juridikoetan; horri esker, esparru horren azalpen estatistikoa zehaztu da.

Hastapenetan, eta estatistika-termino haietan, gizarte-zerbitzuak sistema ireki gisa zehaztu ziren, pixkanaka mugatzen joateko. 1988. urtean hasi zen estatistika, eta, orduz geroztik, sistematik kanpo geratu dira hainbat zerbitzu, hala nola haurtzaindegi eta adingabekoen erreforma-zentroenak, beste erakunde batzuek hartu baitituzte euren gain.

Enplegu-zentro bereziak autonomo bihurtzea eta lan-sistemarekin lotzea izan da beste funtsezko elementu bat, bai eta diru-sarrerak bermatzeko prestazio batzuk Lanbidera igarotzea ere. Aintzat hartutako zentro eta prestazio askok, aldiz, GZEZEren estatistika-jarraipenaren xede izaten jarraitzen dute. Horren arrazoia da informazioari jarraipena ematea bermatzea, GZEZErik gabe ez baitzen euskal estatistika-ekintzaren testuinguruan jasoko.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuen sistema finkatzeari esker, sektore honi buruzko azterketak gehiago zehaztu ahal izan dira. Hurbilketa estatistikoa, egonkorra izateko bokazioagatik, egungo muga juridikoetan osorik murgildu ezin bada ere (duten aldakortasun-ahalmenagatik), uneotan, gizarte-zerbitzuen sektorearen eta lotutako jardueren (diru-sarrerak bermatzeko eta familia babesteko politikekin zerikusia dutenak) definizio estatistikoa eta juridiko-administratiboa oinarritzko justaposizioan daudela esan daiteke. Hori dela eta, erabilgarria da gizarte-zerbitzuen egungo konfigurazioaren azterlan zehatz bat, euskal administrazio publikoek eta gainerako eragileek, eta, bereziki, hirugarren sektorearekin lotutakoak, aintzat hartzen duten moduan.

Azken urteotan gizarte-zerbitzuen arloko edukiak lortu duen zehaztasun ia-ia behin betikoa aintzat hartuta, txostenean aipatzen diren informazioa tratatzeko bi arlo handiak gizarte-ekintzaren bi alderdi nagusiei lotzen zaizkie: lehena gizarte-zerbitzuen erdiguneari, eta bigarrena prestazioen sistema osagarriari. Bigarren esparru hori lotzen da, batik bat, 1980ko hamarkadaren amaiera aldera ezarritako diru-sarrerak bermatzeko politikarekin, baina baita familiak babesteko ekintzekin ere. Zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuen eta familia-politiken sail eskumendunak bultzatuko zituela adostu zen mendearen hasieratik (une honetan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).

Prestazio horien zati bat, GLLak kasurako, gizarte-zerbitzuen egitura sistematikoaren partetzat hartzen dira. Gainerakoek esparru berezia eta autonomia dute, baina sistemarekin lotuta egoten jarraitzen dute, antzeko eraketa-funtsa dutelako, Gizarte Zerbitzuen eraketa- eta estatutu-eskumenaren garapenarekin lotzen den heinean.

Azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da txosten honek GZEZE eta **Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa** batera ustiutzen dituela. Estatistika osagarri horren helburua da zehaztasunez jasotzea administrazio publikoek gizarte-zerbitzuei, gizarte-prestazioei eta gizarteratzeko prozesuekin lotutako zerbitzuei eustera bideratzen duten gastu publiko arrunta.

Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa aintzat hartzean, asmoa da hedapenean, dokumentu bakar koordinatu baten bitartez, estatistika-eragiketa honen edukia GZEZEkoarenean sartzeari, paraleloki eta gehienbat subsidiarioki (erakunde eta zentroi hurbiltzeko mekanismoei dagokienez). Erabaki hori garrantzitsua da; izan ere, datuen ustiapen-diseinuan ahalegin osagarri bat egitea ekarri du, tradizionalki Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoen estatistiketan jasotako informazioa antolatzeari dagokienez.

GZEZEren eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren 2014-2017ko txostenak, funtsean, 2013-2016 aldian egindako lanean (2018an hedatu zena) zehaztutako lan-ildoarekin jarraitu nahi du. Lan-ildo horren joera da gizarte-zerbitzuak aztertzearekin lotutako estatistika-eragiketen emaitza nagusiak elkarrekin aurkeztea.

Edukiari dagokionez, agiriak alderdi hauek hartzen ditu ardatz gisa:

- a) Gizarte-zerbitzuen sektoreko zentro, zerbitzu eta programen sistemaren aurkezpen orokorra, bereziki aipatuz egungo plazen egitura (egoitza-plazak direnena eta ez direnena).
- b) Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuari lotutako emaitza nagusien deskribapena. Ikuspegiaren ardatza soilik gastu arruntaren analisisa da.
- c) Gastu arruntaren finantzaketa-egituraren analisisa; erreferentzia berezia eginez administrazio publikoen eta erabiltzaileen zereginari.
- d) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko langileen egituraren xehetasunak, aintzat hartuta sektorearen alderdiak nahiz langile horien ezaugarri diren alderdi hertsiki profesionalak.

Hurbilketan, langile azpikontratatuak eta boluntarioen zereginari buruzko alderdiak ere txertatu dira.

- e) Azkenik, gizarte-zerbitzuen sektorea osatzen duten zentro eta zerbitzuen arabera kudeaketaren adierazle handietako batzuen aurkezpena egingo da. Adierazle horiei esker, errazagoa da egungo zentro eta zerbitzu batzuen profil espezifikoa ulertzea.



Datuen aurkezpenarekin batera, adierazitako atal gehienetan, atxikitako lurralde-datu nagusiak adierazten dira, bai lurralde historikoaren ikuspegitik, bai txostenean baliatutako udalerrien multzokatze-sistemaren eta hiriburuen ikuspegitik ere. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde desberdinetan eta udalerrietan ikus daitezkeen aldeak zehaztu nahi dira.



2. Zerbitzuen eskaintza

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek lurralde osoan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta zentroak. Gizarte-prestazioen sistemak bermatzen duen babesaz gain, eskaintza hori plaza-kopuru jakin batean gauzatzen da: egoitza-plazak eta egoitzakoak ez direnak, ondoren aztertuko ditugunak.

2.1. Egoitza-plazak

2017an, 1. taulan ikusten bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sistemak 28.248 egoitza-plaza eskaini zituen guztira. Horrek % 2,1eko gehikuntza adierazten du, 2016an zeuden 27.668 plazen aldean. Beraz, 2012-2013 aldian behera egin eta 2014an egonkortu ondoren, 2014-2015 aldian hasitako gorako joera finkatzen da, orduan % 1,0 gehitu baitzen plaza-kopurua. 2016-2017 aldiko % 2,1eko gehikuntza, hala ere, txikiagoa da 2015 eta 2016 bitartean atzemandako 2,6ko gehikuntza baino.

Egoitza-plazen % 72,5 adineko pertsonen arretaren alorrekoak dira, 2017. urtean 20.475 plaza eskaini baitziren. 2016-2017 aldian, plaza mota honen hazkundera % 0,4koa da; alegia, % 1,7 puntu, aldi horretako batezbesteko orokorraren azpitik, eta 2015-2016 aldian mota horretako plazen % 1,6ko hazkundera baino frankoz ere gutxiago. Zenbaki absolutuetan, 75 plaza garbi sortu ziren 2016 eta 2017 bitartean —2014-2015 aldiko 165 plazen eta 2015-2016 aldiko 314 plazen oso azpitik—.

Bigarren arreta-arlo nagusia gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroei dagokie: 3.379 plaza eskaintzen dira, hau da, plaza guztien % 12. Plaza horietatik, 2.798 (guztien % 9,9) ostatu edo egoitza-zentroetakoak dira, eta 581 (guztien % 2,1) gaueko harrera-zentroetakoak. 2016. eta 2017. urteen artean, berriz ere nabarmentzen da bazterketaren arloko plazen gehikuntza, % 11 hazi baita 2016ko kopurua (3.044 plaza), jarraipena emanda 2015 eta 2016an izandako % 11,4ko gehikuntza-joerari. 2016 eta 2017an, adierazitako hazkundera ostatu edo egoitza-zentroei lotzen zaie (% 13,5 hazi da, puntu bat gehiago 2015-2016 urteetako % 12,5a baino). Harrera-zentroetako bilakaeraren ezaugarria egonkortasuna da, % 0,3 hazi baitziren —2015-2016 aldiko % 7tik urrun—.

Zenbaki absolutuetan, 335 plaza garbi sortu ziren 2016 eta 2017 bitartean —2014-2015 aldiko 33 plazen oso gaineratik, eta 2015-2016 aldiko 311 plazen gaineratik ere bai—. Horrenbestez, 2012tik 2015era bitartean eskaintzan hautemandako jaitziera eta ondorengo egonkortasuna eteteko dinamikari eutsi egin zaio. Hazkundera egoitza-zentroei lotzen zaie; zentro-mota horretan, beharako joera hauteman zen 2015era arte, 2012ko 2.261 plazetatik 2.192 plazara jaitsi baitzen urte hartan. 2015 eta 2016 artean, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan 273 plaza sortu ziren, eta 2016-2017 aldian, berriz, 333 plaza.

Adineko pertsonen kasuan bezala, 2016-2017 aldian nabaria da modu apalean gehitu zirela desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloko plazak (% 0,4 hazi ziren, 2014-2015 aldiko % 1,3 eta 2015-2016 aldiko % 3,5aren azpitik nabarmen). Plaza-kopurua 2017an 2.755 izatera iritsi zen, ozta-ozta 11 plaza garbi gehiago, 2016ko 2.744 plazen aldean. Hala ere, eskaintza modu garbian mantentzen da 2013 eta 2014ko zifren gaineratik, orduan 2.600 baitziren, eta 2012ko 2.566 plazen gaineratik ere bai.

1. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa %-tan)

	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Zentro/Zerbitzu mota									
Egoitza-zentroak	19.903	20.068	20.382	20.457	74,5	74,4	73,7	72,4	0,4
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	18	18	18	18	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	19.921	20.086	20.400	20.475	74,6	74,5	73,7	72,5	0,4
Egoitza-zentroak	2.567	2.608	2.700	2.711	9,6	9,7	9,8	9,6	0,4
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	50	44	44	44	0,2	0,2	0,2	0,2	0,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	2.617	2.652	2.744	2.755	9,8	9,8	9,9	9,8	0,4
Egoitza-zentroak	1.046	1.071	1.047	1.184	3,9	4,0	3,8	4,2	13,1
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	1.046	1.071	1.047	1.184	3,9	4,0	3,8	4,2	13,1
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	166	178	183	207	0,6	0,7	0,7	0,7	13,1
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	249	250	250	248	0,9	0,9	0,9	0,9	-0,8
EMAKUMEAK GUZTIRA	415	428	433	455	1,6	1,6	1,6	1,6	5,1
Ostatu/egoitza-zentroak	2.152	2.192	2.465	2.798	8,1	8,1	8,9	9,9	13,5
Gaueko harrera-zentroak	548	541	579	581	2,1	2,0	2,1	2,1	0,3
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	2.700	2.733	3.044	3.379	10,1	10,1	11,0	12,0	11,0
GUZTIRA	26.699	26.970	27.668	28.248	100,0	100,0	100,0	100,0	2,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika eta Definizioen eranskinean

OHARRA: Ikus atsedena- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu

2. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak (publikoak, itunduak eta pribatuak), zentro/zerbitzu motaren arabera. 2014-2017 (Plaza guztien gaineko %)

	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
Zentro/Zerbitzu mota												
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	36,9	36,6	36,9	36,7	32,5	33,3	31,2	30,3	30,6	30,1	31,9	33,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	32,9	32,2	31,8	29,4	58,5	61,8	62,8	64,4	8,5	6,0	5,4	6,2
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	87,1	86,1	86,5	87,4	11,8	12,9	11,8	11,0	1,1	1,0	1,6	1,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	32,5	35,4	32,8	30,0	32,5	33,7	29,0	32,4	34,9	30,9	38,3	37,7
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	95,6	95,6	95,6	95,6	2,0	2,0	3,2	3,6	2,4	2,4	1,2	0,8
EMAKUMEAK GUZTIRA	70,4	70,6	69,1	65,7	14,2	15,2	14,1	16,7	15,4	14,3	16,9	17,6
Ostatu/egoitza-zentroak	30,3	30,0	29,6	29,8	26,1	24,8	23,9	22,0	43,7	45,2	46,5	48,2
Gaueko harrera-zentroak	75,5	76,5	76,3	77,8	5,8	5,9	9,0	9,0	18,6	17,6	14,7	13,3
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	39,4	39,2	38,5	38,1	22,0	21,1	21,1	19,7	38,6	39,7	40,4	42,2
GUZTIRA	39,2	38,9	39,0	38,7	32,9	33,7	32,2	31,4	27,9	27,3	28,8	29,9

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arreta mantentzen da, betiere, gizarte-zerbitzuen arretaren hirugarren arlo gisa, 2017an plaza guztien % 9,8 arlo horretakoak baitziren (hamarren eskas bat 2016ko % 9,9aren azpitik).

Adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroetako plazak, bestalde, plaza guztien % 4,2 dira, 2016ko % 3,8aren gainera. Kasu horretan, 2016-2017 aldiak nabarmen eten zuen lehenagoko plazak murrizteko joera, izan ere, 2012an 1.144 plaza ziren, 2015ean 1.071 plaza eta 2016an 1.047 plaza ziren. 2017an, berriz, aldaketa nabarmena izan zen eta 137 plaza gehiago sortu ziren, guztira 1.184 plazara iritsi zela kopurua, 2012koa gaindituta. Termino erlatiboetan, 2016-2017 aldiko plaza-hazkundea % 13,1ekoa izan zen.

2012 eta 2015 bitartean emakumeentzako plaza-kopurua 433tik 428ra murriztu ondoren (-% 1,2), 2016an % 1,2 hazi zen eta berriro iritsi zen 2012ko 433ko kopurura. Hazteko joera areagotu zen 2017an, eta 455 plaza izatera iritsi zen kolektibo honentzat, 2016ko kopurutik % 5,1 gora. Hala ere, plaza horiek EAEko gizarte-zerbitzuetako egoitza-eskari osoaren % 1,6 besterik ez dira.

Arretaren arlo horretan, gora egin du plaza-kopuruak, gehienbat, tratu txarren biktima ez diren emakumeentzat atondutako plazen eremuan, 207 plaza baitziren 2017an (2016koak +% 13,1), 2012ko 187 plaza-kopurua gaindituta. Bestalde, eta jadanik 2012-2016 aldian hein handi batean gertatzen zen bezala, egonkortasuna da genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako eskaintzaren ezaugarri nagusia. 2017an 248 plaza zeuden, funtsean 2015ean eta 2016an izandako maila berean, eta 2012an baino zertxobait gainera (246 zeuden orduan).

2. taulan ikusten denez, gizarte-zerbitzu guztiei erreparatuta, egoitza-plazen banaketa titulartasunaren arabera aztertuz gero, ikusten da gehienak plaza publikoak eta itundutako plaza pribatuak direla. 2017an, hain zuzen ere, publikoak eta itunduak % 38,7 eta % 31,4 izan ziren, hurrenez hurren, eta araubide pribatu hutsekoak, berriz, % 29,9. Sektore pribatuaren pisu erlatiboak gorako joerari eusten dio, ordea, 2015eko % 27,3tik abiatuta.

Plaza publikoen eragin erlatibo handiena, 2017an, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan eta adingabe, gazte edo familientzako zentroetan ikusten da, hurrenez hurren, plaza publikoen % 95,6 eta % 87,4 izan zirela. Proporzio hori oso altua da gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroen kasuan ere (% 77,8).

Bestaldeko muturrean, proportziorik eskasena bazterketa-egoeran dauden pertsonen egoitza-zentroetako plazei (% 29,8) eta desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako plazei (% 29,4) dagozkie. Plaza publikoen proportzioa ere baxua da, % 30ekoa, genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima ez diren emakumeen arretari dagokionez. % 30eko atalase horretatik gora egonda ere, adineko pertsonen egoitza-zentro publikoetako plazek iristen duten % 36,7ko proportzioa ere urria da.

Plaza publikoen proportzioa urria da sektore hauetan, eta 2017an ere urria izaten jarraitzen du, arretaren arlo batzuetan. Hala izan da, hain zuzen ere, genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima ez diren emakumeen arretaren arloan, 2015ean plaza publikoak % 35,4 izatetik 2017an % 30 izatera jaitsi baitziren; eta gauza bera desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen egoitza-zentroetan (% 32,9 ziren 2014an, eta % 29,4 ziren 2017an).

Itunpeko plazei erreparatuz, horien pisu erlatiboa altua da, batez ere, 2017an, desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan. Kasu horretan, eskaintzen diren plaza guztien % 64,4 dira, gorako joera argia erakutsita, 2013an % 60,9 zirelarik, 2014an % 58,5 baitziren, 2015ean % 61,8 eta 2016an % 62,8.



EAEko batezbesteko orokorretik (% 31,4) zertxobait beherago daude adinekoentzako eta genero-indarkeriaren arazorik ez duten emakumeentzako egoitza-zentroen proportzioak (% 30,3 eta % 32,4). Adinekoen arretaren kasuan 2012tik atzemandako beherako joerak aurrera jarraitu du, 2017an berriro mailarik eskasena jo baitu, eta indarkeriazko arazorik ez duten emakumeentzako zentroetan, berriz, gora egin du, 2016ko % 29tik 2017ko % 32,4ra.

Adierazitako zentro-mota horietatik oso behera, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan itundutako plazak % 22 dira, eta aurreko urteetako beherako joera luzatzen da. Kasu horretan ere 2017koa da proportziorik eskasena.

Itundutako plazen proportzioa askoz txikiagoa da egoitza-zentroetako arretaren beste arloetan: Adingabe, gazte edo familientzako egoitza-zentroetan % 11 dira, gaueko arreta-zentroetan % 9,0 eta % 3,6 indarkeriaren edo tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan.

Azkenik, nabarmentzekoa da plaza pribatuek bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzu eta egoitza-zentroei dagokienez duten pisua (% 48,2)¹. EAEko batezbestekotik gora daude, orobat, adinekoentzako (% 33,0) eta indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako (% 37,7) egoitza-zentroetako plazak pribatuak. Proportzioa askoz txikiagoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (% 13,3). Plaza pribatuen ehunekoa % 0,8 eta % 6,2 bitartean dago egoitza-zentroetan, Desgaitasuna/gaixotasunak dituzten pertsonen kasuan, gazte eta familien kasuan eta genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima diren emakumeen kasuan ere bai.

Aurreko urteetan ikusitakoaren aldean, 2017an ikusten da da plaza pribatuen proportzioa handitu egin dela, lehendik ere proportzio handia zuten hiru zentro-motetan. Urte horretan, oso argi ikusten da hori bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzu eta egoitza-zentroetan, % 48,2 izan baitira, 2014ko % 43,7 izan zirenetik luzatu den gorako joerari eutsiz. Gorako joera hori nabarmena da, baita ere, adinekoentzako egoitza-zentroetan (2014an % 30,1 ziren, 2015ean % 30,6 eta 2017an % 33) eta genero-indarkeriaren biktima izan ez diren emakumeen zentroetan, 2017ko % 37,7a gehiago da 2014ko % 34,9a baino. Kasu horretan, hala ere, beherakada txiki bat hautematen da, 2016ko % 38,3aren aldean.

Aipatutako hiru egoitza-zentro mota horietan, 2017an plaza pribatuen pisua 2013tik hona erregistratutako mailarik altuenetara iritsi da, 2012an zeuden proportzioetatik oso gertu: % 33 zen 2017an eta % 33,1 zen 2012an, adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan; % 37,7 zen 2017an eta % 40,1 zen 2012an indarkeria-arazorik ez duten emakumeentzako zentroetan; eta % 48,2 zen 2017an eta % 46,3 zen 2012an, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan.

Gainerako egoitza-zentro motetan, plaza pribatuek pisu erlatibo txikiagoa izan ohi dute; 2016 eta 2017 bitartean, aldiz, eskaintza osoan murriztu da plaza pribatuen pisua, desgaitasunen eta gaixotasunen eremuan izan ezik, hor pixka bat igo egin baita, % 5,4 izatetik % 6,2 izatera.

2.2. Egoitzakoak ez diren plazak

3. taulan jasota dago EAEko gizarte-zerbitzuen sistemak duen eskaintza, egoitzakoak ez diren plazei dagokienez. Ikus daitekeen bezala, sistema horrek 2017an egoitzakoak ez diren 14.296 plaza zituen guztira; horrenbestez, % 2,1eko igoera izan da, 2016an zeuden 14.007 plazekin

¹ Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arreta-zerbitzuen kasuan, ñabardura batzuk aintzat hartu behar dira, itundutako plazen eskaintzari dagokienez. Hain zuzen, kontuan hartzekoak dira Kontzeptuen eta Definizioen eranskinean arreta-sektore horretan itundutako plazei buruz egiten diren zehaztapenak.

alderatuta². 2012 eta 2013 bitartean hautemandako igoeraren ondoren (12.683 plazatik 13.151ra), eta 2013 eta 2015 bitartean egonkortu ondoren, 2015-2016 aldiak gizarte-zerbitzuen eskaintzaren susperraldia ekarri zuen egoitzakoa ez den arretan, plaza-kopurua % 5,5 handituta. Hazkundearen eritimoa 2016-2017 aldian apaltzen bada ere, gorako joerari eutsi dio.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen sektorean daude mota honetako plaza gehien: 6.692, hau da, plaza guztien % 46,8. Aipatutako kopuruak % 2,2ko gehikuntza adierazten du, 2015eko 6.548 plazen aldean, baina gorako joera hori apaldu egin da, 2014 eta 2015 bitartean % 4,5 baitzen, eta 2015-2016 aldian % 5,9.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzakoa ez den arretan, eskuragarri dauden plaza gehienak eguneko arreta-zentroetan eta okupazioaren osagaia eransten duten eguneko zentroetan daude. 2017an eguneko arreta-zentroetan 2.106 plaza zeuden, hau da, 2016an baino -% 2 gutxiago, baina joera egonkorra da 2014tik, gorabehera txikiak izan baitira 2.098 eta 2.150 kopuruen artean. Dimentsio okupazionala duten eguneko zentroetan 2.803 plaza daude, hau da, 2016ko 2.755 plazen gainetik % 1,7.

Bestalde, suspertze- eta arreta-zentroek 765 plaza dituzte, 2016an baino -% 6,8 gutxiago, eta kopururik txikiena da, 2014ko 790 plazetatik hona. Laneratzeko zentroen kasuan, berriz, 2017ko 1.004 plaza izateak erakusten du gorako joera iraunkor eta finkoa dagoela, 2014an 296 plaza zirenetik hona.

Adineko pertsonen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren 5.456 plaza zeuden 2017an, guztien % 38,2. 2015-2016ko % 4,4ko gehikuntzaren ondoren, egonkortze-aldi bat atzematen da, % 0,3 besterik ez baita igo 2016an 5.440 plaza zeudenetik. Eguneko arreta-zentroak eskaintzaren funtsezko alderdia dira, 4.464 plaza eskaintzen baitituzte, 2016ko 4.414 plazak baino % 1,1 gehiago, gorakada apalagoa bada ere, 2014-2016 aldiko urteroko % 1,8-1,9ko igoeren aldean.

Adineko pertsonentzako jantokiek, berriz, 658 plaza eskaintzen dituzte. Kasu horretan, areagotu egin da gorako joera indartsua, 2014 eta 2015eko 528 plazen aldean (% 17,9 hazi da 2016 eta 2017 bitartean eta % 5,7 hazi zen 2015-2016 aldian). Gainera, beste 155 plaza daude adineko pertsonentzako bestelako zentroetan.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuetan egoitzakoak ez diren 1.780 plaza zenbatu dira, guztien % 12,5. 2014 eta 2015 bitartean ikusitako beherakadaren ondoren (1.734 plazatik 1.560ra), eskaintzak 2015-2016 aldiko (+ % 8,7) gorako joerari eutsi dio, eta 2016an baino % 5 gehiago dira plazak. 2017an berriz ere plaza gehiago daude 2014ko 1.734ak baino.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroek 1.114 plaza eskaini dituzte 2017an, 2016ko 1.197ak baino -% 6,9 gutxiago, eta, 2013tik hona, kopuru horren azpitik daude 2015eko 1.080 plazak bakarrik. Igoera nabarmena izan da, berriz, jantoki sozialetan, 2017an 643 plazarekin, 2016an zeuden 473 plazak baino % 35,9 gehiago. 2017an nabarmen gainditu dira 2012ko 483 plazak.

² Analisisian sartzen dira, baita ere, egoitzako plazak ez izanik egoitza-zentroetan eskuragarri dauden plazak.



3. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera 2014-2017 (Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa % -tan)

	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Zentro/Zerbitzu mota									
Egoitza-zentroak	89	92	208	87	0,7	0,7	1,5	0,6	-58,2
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	127	122	122	92	1,0	0,9	0,9	0,6	-24,6
Eguneko laguntza-zentroak	4.255	4.330	4.414	4.464	32,4	32,6	31,5	31,2	1,1
Jantokiak	528	528	558	658	4,0	4,0	4,0	4,6	17,9
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	141	141	138	155	1,1	1,1	1,0	1,1	12,3
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	5.140	5.213	5.440	5.456	39,1	39,2	38,8	38,2	0,3
Egoitza-zentroak	36	8	19	14	0,3	0,1	0,1	0,1	-26,3
Atsedeen- eta babes-zerbitzua					0,0	0,0	0,0	0,0	
Eguneko zentroak	2.123	2.098	2.150	2.106	16,1	15,8	15,3	14,7	-2,0
Suspertze- eta arreta-zentroak	790	809	821	765	6,0	6,1	5,9	5,4	-6,8
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	2.674	2.787	2.755	2.803	20,3	21,0	19,7	19,6	1,7
Laneratze-zentroak	296	483	803	1.004	2,3	3,6	5,7	7,0	25,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	5.919	6.185	6.548	6.692	45,0	46,6	46,7	46,8	2,2
Adingabe/familien egoitza-zentroak	4	4		4	0,0	0,0	0,0	0,0	
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	354	320	324	364	2,7	2,4	2,3	2,5	12,3
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	358	324	324	368	2,7	2,4	2,3	2,6	13,6
Ostatu eta egoitza-zentroak.	72	22	25	23	0,5	0,2	0,2	0,2	-8,0
Eguneko zentroak	1.204	1.080	1.197	1.114	9,2	8,1	8,5	7,8	-6,9
Jantoki sozialak	458	458	473	643	3,5	3,4	3,4	4,5	35,9
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	1.734	1.560	1.695	1.780	13,2	11,7	12,1	12,5	5,0
GUZTIRA	13.151	13.282	14.007	14.296	100,0	100,0	100,0	100,0	2,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

4. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak: publikoak, itunduak eta pribatuak. 2014-2017 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
Zentro/Zerbitzu mota												
Egoitza-zentroak	24,7	6,5	8,7	31,0	15,7	15,2	8,7	23,0	59,6	78,3	82,7	46,0
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	71,0	70,6	70,0	69,6	18,8	18,8	18,7	17,9	10,2	10,6	11,3	12,5
Jantokiak	96,2	96,2	96,4	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,8	3,8	3,6	0,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	9,2	9,2	7,2	6,5	56,7	56,7	50,7	0,0	34,0	34,0	42,0	93,5
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	71,8	71,1	69,5	71,4	17,4	17,4	16,8	15,0	10,8	11,5	13,8	13,6
Egoitza-zentroak	0,0	0,0	31,6	14,3	77,8	25,0	36,8	28,6	22,2	75,0	31,6	57,1
Atsedena- eta babes-zerbitzua												
Eguneko zentroak	19,5	19,4	19,0	18,7	73,9	78,0	76,7	75,4	6,6	2,6	4,3	5,9
Suspertze- eta arreta-zentroak	0,0	0,0	0,0	3,4	14,1	16,9	11,6	2,0	85,9	83,1	88,4	94,6
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	21,3	21,2	21,2	20,9	3,3	2,5	2,5	2,5	75,4	76,3	76,2	76,6
Laneratze-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	100,0	100,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	16,6	16,1	15,3	15,1	30,4	29,8	27,8	25,1	53,0	54,0	56,9	59,9
Adingabe/familien egoitza-zentroak	100,0	100,0		100,0								
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	38,4	46,3	45,7	44,0	13,0	0,0	38,3	23,4	48,6	53,8	16,0	32,7
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	39,1	46,9	45,7	44,6	12,8	0,0	38,3	23,1	48,0	53,1	16,0	32,3
Ostatu eta egoitza-zentroak.	26,4	100,0	88,0	87,0	0,0	0,0	0,0	0,0	73,6	0,0	12,0	13,0
Eguneko zentroak	9,6	12,5	11,3	13,2	26,2	31,2	40,1	33,2	64,3	56,3	48,6	53,6
Jantoki sozialak	0,0	0,0	3,2	2,3	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	96,8	97,7
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	7,7	10,1	10,1	10,2	18,2	21,6	28,3	20,8	74,1	68,3	61,5	69,0
GUZTIRA	37,6	37,7	36,4	36,7	23,2	23,3	23,8	20,7	39,2	39,0	39,8	42,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

OHARRA: Ikus atsedena- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Azkenik, egoitzakoak ez diren plazen % 2,6 adingabeko, gazte eta familien arloari dagozkio: 364 plaza, hau da, % 12,3 gehiago, 2016ko 324ak baino. Gainditu dira, halaber, 2014ko 354 plazak eta are 2013ko 363ak ere bai.

4. taulan aztertzen badira egoitzakoak ez diren eta erabilgarri dauden plazen banaketa, ikus daiteke egoitzakoak ez diren plazen % 36,7 publikoak direla, eta % 20,7 itunduak. Gainerako % 42,6 plazak eskaintza pribatu hutsekoak dira.

Plaza publikoak gehienak dira, nabarmen, eguneko laguntza-zentroetan (% 69,6), atseden- eta babes-zentroetan eta adineko pertsonen jantokietan (% 100 bi zerbitzu-mota horietan). Guztira, adinekoen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren plazen % 71,4 dira publikoak. 2017. urteak adierazle honen aldaketa erakusten du, azken urteetako beherako joeraren aldean. Beraz, 2012-2013 aldirian % 71,3tik % 72,8ra igo ondoren, proportzioa era progresiboan jaitsi da: 2015ean % 71,1 eta 2016an % 69,5 izan zen, oraingo % 71,4ra suspertu baino lehen.

Plaza publikoen presentzia handia da, halaber, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan: % 44. Kasu horretan, modu argian eta etengabe handitu da 2012tik (% 30,9) 2015era (% 46,3). 2016tik aurrera, berriz, hein batean jaisten da eskaintza publikoaren proportzioa, oraingo % 44ra iritsi arte.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, plaza publikoen pisua askoz ere txikiagoa da eguneko laguntza-zentroetan, jarduketa okupazionalekin konbinatuak izan ala ez izan (% 18,7 eta % 20,9 hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ere (% 13,2).

Kasu horietan guztietan, gorako joera apala hauteman zen plaza publikoek hartutako pisuan, 2012 eta 2014-2015 bitartean. 2015 eta 2017 bitartean, hala ere, egonkortzea edo beherakada txikia dago desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan (% 21,2tik % 20,9ra jarduketa okupazional elkartuak dituzten zentroetan, eta % 19,4tik % 18,7ra eguneko zentro hutsak ziren zentroetan). Hala ere, 2015-2016 aldirian % 12,5etik % 11,3ra jaitsi ondoren, 2017an berriz ere gora hasten da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, 2017an % 13,2ra iritsiz eta era argian gaindituz 2014ko % 9,6a.

Itundutako plazen pisua oso altua da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, guztien % 75,4 baitira. Proportzio hori, ordea, era progresiboan jaisten da 2015ean % 78 izan ondoren, eta 2017an berriz ere 2012an iritsi zen % 76,2 baino beherago dago.

Plazen % 33,2 itunduta daude bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan. Kopuru horrek finkatzen du 2014an izandako % 26,2tik hona ageri den gorako joera. Hala ere, ez da inolaz ere iristen 2012, 2013 eta 2016an iritsitako % 40ra.

Itundutako plazen presentzia ikusten da, baita ere, adineko pertsonentzako laguntza-zentroetan (% 17,9) eta adingabeko eta familientzako eguneko arreta-zentroetan (% 23,4). Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen suspertze- eta arreta-zentroetan, 2015eko % 16,9ra iritsi arte gora egin ondoren, 2016an % 11,6ra jaitsi zen eta beherakada luzatu zen, 2017an % 2 baitira.

Pribatu hutsak diren plazei dagokienez, oso eskasa da haien eskaintza adineko pertsonen arretaren arloan: hutsaren hurrengoa da jantoki-zerbitzuetan eta nabarmen eskasa eguneko laguntza-zentroetan, joerak nolabait gora egin badu ere, 2014ko % 10,2tik 2017ko % 12,5era.

Bestaldeko muturrean, plaza gehienak pribatuak dira zerbitzu askotan. Esaterako, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, plaza pribatuen proportzioa 2014an % 64,3 izatetik % 48,6ra jaitsi zen 2016an, eta, berriro jarri zen % 50en gainetik 2017an, % 53,6ra iritsita.

Plaza pribatuen pisua oso gaineratik dago desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, % 75en gainetik baitago eguneko zentroetan eta okupazionaletan eta suspertze- eta arreta-zentroetan (% 76,6 eta % 94,6 hurrenez hurren). Arreta pribatu hutsak egonkortasun handiagoa erakutsi du eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan (% 75,4 eta % 76,6 bitarteko proportzioak 2014tik aurrerako urteetan); suspertze- eta arreta-zentroetan, berriz, 2013an % 93 izatetik 2015ean % 83,1era jaitsi ondoren, gora egin du nabarmen 2016an eta 2017an pribatu hutsa den arretak, 2017an % 94,6ra iritsi baitzen.

Bestalde, arreta pribatukoa da desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen laneratze-zentroen % 100, edo hortik hurbil, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan (% 97,7 2017an, 2016ko % 96,8aren gainetik).

Arreta pribatuaren arloan (itundua zein ez) ikusi den aldaketa nagusia adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan gertatu da, 2015 eta 2016 bitartean. Izan ere, itunpeko eskaintza 2016ko eskaintza osoaren % 38,3 izatera igaro zen, babes pribatu hutsak 2015eko % 53,8 izatetik 2016an % 16ra izandako beherakadaren ondorioz. 2017an, arreta pribatuak berriz ere gora jo zuen baina maila apaletara, % 32,7 ingurura, plaza itunduen pisu erlatiboa ere aldi berean jaitsi zelarik % 23,4ra.



3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua

Atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoetako gastu arrunt osoa aztertzen da, zentro/zerbitzu mota eta prestazio mota aintzat hartuta.

3.1. Gastu osoa

Gastuari buruzko datu garrantzitsuenak 5. eta 6. tauletan aurkezten dira. Gizarte-zerbitzuen erdigunean eta prestazioen sisteman eginiko gastua 2.135,03 milioi eurokoa izan zen 2017an. Gizarte-zerbitzuen erdiguneak aztertutako gastu guztiaren % 69,2 jaso zuen, 2017an guztira 1.478,49 milioi hartu zituela. Prestazioen sistemak jaso zuen gainerako % 30,8a, guztira 656,54 milioi hartu zituela. Ia guztia sektore publikoko prestazioei dagokie (651,71 milioi, eta gobernuz kanpoko erakundeek 4,84 milioi kudeatu zituzten).

Oro har, biztanleko gastua 981,25 eurokoa da 2017an. 679,51 euro gizarte-zerbitzuen erdiguneari dagozkio eta gainerako 301,75 euroak prestazioen sistemari.

2017an egindako gastua 2014an gastatutako 1.979,54 milioiak baino % 7,85 gehiago da. Aurreko urteetan hazkundearen erritmoa areagotu ondoren (2014-2015 aldiko % 1,10etik 2015-2016 aldiko % 3,69ra), 2016-2017 aldian ere hazkunde-joera nabarmena izan da, % 2,97koa, 2015-2016 aldikoa baino apalagoa bada ere.

Gastuaren barne-dinamikaren azterketa xehatua egiteko zenbait ñabardura aipatu behar dira. Alde batetik, hazkunde txikixeagoa atzematen da 2016-2017 aldian (% 1,87 izan zen, termino arruntetan % 2,97koa delarik), baina 2015-2016 aldiko % 2,05etik hurbil mantentzen da eta, nolahi ere, 2014-2015 aldiko 0,79aren gainetik dago nabarmen. Bestetik, dinamika ez da hain ona biztanleko gastu konstantearen bilakaerari erreparatuz gero, 2015 eta 2016 artean % 1,68 areagotu baita, 2014-2015 aldiko % 0,78 baino askoz gehiago, baina 2015-2016 aldiko % 2,11tik urrun samar.

Daturik deigarriena eta azpimarragarriena, ordea, zera da, 2016-2017 bitarteko gastuaren gehikuntza, funtsean, gizarte-zerbitzuen erdiguneko dinamikari lotzen zaiola, 2015 eta 2016 bitartean gertatu zen bezala, eta joera on nabarmenari eusten diola.

Beraz, gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastua 2016-2017 bitartean % 5,51 hazi da termino arruntetan, % 4,38 termino konstanteetan eta % 4,19 biztanleko gastu konstanteari dagokionez. Dinamika horrek eutsi egiten dio 2015-2016 bitartean atzemandako suspertzeko joerari. Horrenbestez, 2014-2015 aldian gastuaren egiazko beherakada izan ondoren (-% 0,68 gutxiago termino arruntetan eta -% 0,99 zenbaki konstanteetan), zenbaki nominalak handiagotu dira % 5,11ra 2015-2016 aldian eta are gehiago, % 5,51ra 2016-2017 aldian, oso hurbil 2013-2014 aldiko mailatik, non gastuaren hazkunde nominala % 5,79koa izan zen.

Azken aldiko hobetzeko joera nabarmena da, baita ere, 2017ko prezio konstanteei dagokienez: 2016-2017 aldian % 4,38 eta 2015-2016 aldian % 3,53 zen, oraindik urrun, hala ere, 2013-2014 aldiko % 6,49tik. Oso antzekoa bada, azken aldiko hobekuntza txikiagoa da biztanleko gastuaren terminoetan, prezio konstanteetan, % 4,19 handitu baita 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldian % 3,60 hazi zela.

5. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2014-2017 (Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta gastuaren %-aren urte arteko bariazioa)

Gastu mota	2014				2015				2016				2017				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2014/2017
Gastu arrunta guztira	1.979,54	100	2,98	911,02	2.001,34	100	2,92	920,92	2.073,39	100	2,91	954,65	2.135,03	100	2,89	981,25	1,10	3,60	2,97	7,85
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.342,29	67,8	2,02	617,75	1.333,14	66,6	1,95	613,44	1.401,25	67,6	1,97	645,18	1.478,49	69,2	2,00	679,51	-0,68	5,11	5,51	10,15
Gizarte-prestazio publikoak	633,12	32,0	0,95	291,37	663,53	33,2	0,97	305,32	669,86	32,3	0,94	308,42	651,71	30,5	0,88	299,52	4,80	0,95	-2,71	2,94
Gizarte-prestazio pribatuak	4,13	0,2	0,01	1,90	4,67	0,2	0,01	2,15	2,28	0,1	0,00	1,05	4,84	0,2	0,01	2,22	12,95	-51,08	111,69	16,97

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

6. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2014-2017 (Gastua 2017ko prezioetan -euroak milioitan- eta urte arteko bariazioa %-tan)

Gastu mota	2014	2015	2016	2017	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2014/2017
Gastu arrunta guztira	2037,70	2053,82	2095,87	2135,03	0,79	2,05	1,87	4,78
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1381,72	1368,10	1416,44	1478,49	-0,99	3,53	4,38	7,00
Gizarte-prestazio publikoak	651,72	680,93	677,12	651,71	4,48	-0,56	-3,75	0,00
Gizarte-prestazio pribatuak	4,26	4,79	2,31	4,84	12,61	-51,82	109,42	13,63

(Gastua 2017ko prezioetan -euro/biztanleko- eta urte arteko bariazioa %-tan)

Gastu mota	2014	2015	2016	2017	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2014/2017
Gastu arrunta guztira	937,79	945,06	965,00	981,25	0,78	2,11	1,68	4,63
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	635,90	629,53	652,17	679,51	-1,00	3,60	4,19	6,86
Gizarte-prestazio publikoak	299,93	313,33	311,77	299,52	4,47	-0,50	-3,93	-0,14
Gizarte-prestazio pribatuak	1,96	2,20	1,06	2,22	12,59	-51,79	109,05	13,48

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



2012 eta 2015 bitartean gizarte-prestazio publikoetarako gastuaren hazkundeak izan duen eginkizun funtsezkoarekin kontrajarrita, gastu hau $-2,71\%$ jaitsi da 2016-2017 aldian, eta lehenengo aldiz zenbaki negatiboak agertzen dira, aurreko urteetan jadanik atzematen zen gastu-murrizketaren ildo beretik. Hain zuzen ere, 2013tik 2014ra $10,41\%$ hazi ondoren, hazkundera $4,80\%$ jaitsi zen 2014tik 2015era, eta ozta iritsi zen $0,95\%$ 2015-2016 bitartean.

Gastu konstanteari dagokionez, beherako bilakaera argiagoa da: $11,13\%$ gehikuntza izan zen 2013 eta 2014 bitartean, $4,48\%$ 2014 eta 2015 bitartean, eta $0,56\%$ jaitsiera izan da 2015 eta 2016 bitartean. Jaitsiera areagotu egin da 2016-2017 aldian, $3,75\%$ koa izan baita. Hala eta guztiz ere, termino konstanteetan, gizarte-prestazio publikoetan egindako gastua 2017an, 2014an egiten zenaren antzekoa da (651,71 eta 651,72, hurrenez hurren). Gastuaren ahalegina, prezio konstanteetan, aldi horretan, gizarte-zerbitzuen erdigunean zentratzen da, $7,00\%$ ko hazkundera erakusten duela 2014 eta 2017 bitartean.

Prestazioetako gastua, berriz, atzera ere piztu da, 2016 eta 2017 bitartean, eremu pribatuan. Kasu horretan, gastu arrunt nominala $111,69\%$ hazi da, 2015-2016 bitartean $51,08\%$ murriztu ondoren.

Aipatutako aldaketek eragina dute gastu arrunt osoaren banaketan, eta gizarte-zerbitzuen erdigunearen pisu erlatiboak gora egin du. Hark guztizko gastuari egindako ekarpena $68,7\%$ zen 2013an, $66,6\%$ jaitsi zen 2015ean. Baina $67,6\%$ igo zen 2016an, eta $69,2\%$ 2017an. 2017ko proportzioa handiagoa da 2014ko $67,8\%$ koa eta 2013ko $68,7\%$ baino.

Gizarte-zerbitzuetako eta prestazioetako gastuak BPGd-an duen pisua gutxitu da 2017an eta $2,89\%$ jaitsi da. 2013ko $2,84\%$ gairatzen badu ere, 2014an $2,98\%$ izatetik hona jaisten den joeran jarraitzen du, 2015ean eta 2016an $2,91\%$ eta $2,92\%$ erakutsiz, hurrenez hurren. 2014koaren aldean, gizarte-zerbitzuetako gastuak BPGd-aren gainean duen pisu eskasagoak eragina ere eskasagoa du gizarte-zerbitzuetako erdiguneari dagokionez. BPGd-aren gaineko pisua 2013an $1,95\%$ izan zen eta 2014an $2,02\%$ izan ondoren, 2015ean berriz $1,95\%$ izan zen eta hortik 2017ko $2,00\%$ iragaro zen, 2014ko mailatik bi hamarren eskas behera.

Determinatzaileagoa da prestazio publikoen dinamika. 2012tik lehenengo aldiz, 2015 eta 2016 bitartean prestazio publikoek zuten parte-hartzea murrizten zen: $0,97\%$ tik $0,94\%$ ra. Joera hori areagotu da 2017an, urte horretan prestazio horiek BPGd-an duten pisua $0,88\%$ koa izan baitzen. Gastuaren portzentajea 2017an 2013ko maila berean kokatzen da.

3.2. Gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastua

3.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota

7. eta 8. taulek erakusten dute gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastu arrunta, gastu-sektorearen eta zentro edo zerbitzu motaren arabera.

7. taulan ikus daitekeen bezala, 2017an gizarte-zerbitzuen erdiguneari esleitutako 1.478,49 milioi euroetatik gehiena mendekotasuna duten biztanleen arretara eta adinekoen edo desgaitasun edo gaixotasunen arloko arazoak dituzten pertsonen arretara bideratu zen. 2017an, gastuaren $73,7\%$ bideratu da kolektibo horrengana, hau da, 1.088,97 milioi euro.

Gastu-sektore horretan, zati nagusia adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuei dagokie, gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastu osoaren $44,1\%$ jaso baitzuten (651,61 milioi). Desgaitasun

edo gaixotasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetara bideratutako diru-partida gastu osoaren % 14,2 (209,22 milioi) da, eta horren ondoren mendekotasuna dutenentzako prestazioek hartzen dute % 8,9 (130,90 milioi). Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babeserako programek aztertutako gastuaren % 6,6 hartzen dute (97,23 milioi).

Mendekotasuna edo desgaitasun-gaixotasuna duten biztanleentzako eta adineko pertsonentzako arretaren gastu-lerroak nabarmen hazten jarraitzen du 2016-2017ko aldian, % 3,96ko gehikuntza nominala izan baitu aztertutako aldian. Hazkunde-erritmo hori baxuagoa da 2015-2016 aldian atzemandako % 4,11ren aldean, baina prezio konstanteen terminoetan izandako hazkundera handiagoa da 2016-2017an: % 2,85 aldi horretan, 2015-2016an % 2,55 izan zelarik.

2015 eta 2016 bitartean gertatu zen bezala, mendekotasuna edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen nahiz adineko pertsonen arretaren arloko gastuaren hazkundera, berriz ere, 2016-2017ko gizarte-zerbitzuetako erdiguneko batezbestekoaren azpitik geratu da. Horrekin finkatu egin da gizarte-zerbitzuetako erdigunearen testuinguruan gastu-lerro horrek duen pisu erlatiboa murrizteko joera, 2015etik atzematen dena. Izan ere, pisu hori 2013an % 76 izan zen, 2015ean % 75,5 zen, 2016an % 74,8 eta 2017an % 73,7. Hala ere, zifra hori 2012. eta 2014. urteetan erregistratutako % 74tik beherako zifretatik hurbil geratu da.

Aztertutako programen barruan (mendekotasuna, adinekoak eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonak), oso dinamika desberdinak ikus daitezke 2016 eta 2017 artean izandako gastuaren bariazioan, zentro, zerbitzu edo programa motaren arabera. Gorako joera argiena etxeko laguntzari, telelaguntzari eta zaintzaileen laguntzari dagokie. Kasu horretan, gastua % 6,88 handitu zen 2016-2017 aldian, (% 5,73 termino konstanteetan). Dinamika hori ez dator bat 2015-2016 aldian ikusitakoarekin, gehikuntza nominala % 1,01 urria izan baitzen, termino konstanteetan gastu errearen murrizketa islatzen zuena (-% 0,50).

Bilakaeraren funtsezko alderdia, 8. taulan ikus daitekeen bezala, etxeko laguntzaren gastuak izan duen suspertze nabarmena da. Azken urteetan lehenengo aldiz, 2015-2016 aldian gastuak termino nominaletan berriz gora egin bazuen ere (+% 0,24), termino konstanteetan aurreko aldiatiko beherako joera mantentzen da, -% 1,26ko murrizketa markatuta. 2016-2017 aldian etxeko laguntzako gastu arrunta, berriz, % 8,6 hazi zen (% 7,43 termino konstanteetan). Gizartearen esku-hartzeko arlo horretako gastua suspertu izana 2016-2017 aldiko aldiririk onenetako bat da.

2016-2017 aldian, berriz, -% 7,96 murrizten da telelaguntzako gastua, pertsona zaintzaileen babeserako programen multzo berean begiratuta; dinamika hori funtsean lotzen da programa horren kudeaketa-kostuen murrizketarekin. 2017ko gastua, hala ere, 2014an egindako gastuaren gainetik % 8,44 gehiago da.



7. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta gastu-sektorearen arabera. 2014-2017 (Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2014-2017, nominala eta 2017ko prezioetan)

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2016-2017 aldian	
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Arrunta	2017ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
GASTU-SEKTOREA										
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.342.285.860	1.333.143.130	1.401.251.572	1.478.488.049	100	100	100	100	5,51	4,38
Egitura orokorra (defizita/superabita)	97.008.906	67.421.180	81.941.791	77.544.634	7,2	5,1	5,8	5,2	-5,37	-6,38
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	97.939.091	100.032.383	103.902.703	132.789.052	7,3	7,5	7,4	9,0	27,80	26,43
EGITURAREN GASTUA	194.947.997	167.453.563	185.844.494	210.333.686	14,5	12,6	13,3	14,2	13,18	11,96
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	595.989.493	611.830.963	630.951.935	651.613.538	44,4	45,9	45,0	44,1	3,27	2,17
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	198.896.556	192.715.394	200.394.544	209.221.280	14,8	14,5	14,3	14,2	4,40	3,29
Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	90.206.046	90.064.125	90.974.870	97.233.029	6,7	6,8	6,5	6,6	6,88	5,73
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	106.393.390	111.520.144	125.136.069	130.904.487	7,9	8,4	8,9	8,9	4,61	3,49
GASTUA MENDEKOTASUNA, ADINEKOAK, DESGAITASUNA	991.485.485	1.006.130.626	1.047.457.418	1.088.972.334	73,9	75,5	74,8	73,7	3,96	2,85
Haur, gazte eta familientzako eta emakumeentzako zentro eta zerbitzuak	73.739.818	75.316.250	78.829.668	87.523.874	5,5	5,6	5,6	5,9	11,03	9,84
Tratu txarren, harreraren, adopzioaren arloko arretarako programak eta familiako esku-hartzearen arloko programak	38.668.082	39.708.398	42.258.054	42.935.253	2,9	3,0	3,0	2,9	1,60	0,51
Tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoak	876.708	922.866	897.156	1.068.408	0,1	0,1	0,1	0,1	19,09	17,81
GASTUA HAUR, GAZTE, FAMILIA (tratu txarren prebentzioa/arreta barne)	113.284.608	115.947.514	121.984.878	131.527.535	8,4	8,7	8,7	8,9	7,82	6,67
GASTUA BAZTERKETA	42.567.770	43.611.427	45.964.782	47.654.494	3,2	3,3	3,3	3,2	3,68	2,56

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

8. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2014-2017 (Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2016-2017 bariazioa, nominala eta 2017ko prezioetan)

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2016-2017 aldian	
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Arrunta	2017ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
Zerbitzu mota										
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.342.285.860	1.333.143.130	1.401.251.572	1.478.488.049	100	100	100	100	5,51	4,38
Egitura orokorra (defizita/superabita)	97.008.906	67.421.180	81.941.791	77.544.634	7,2	5,1	5,8	5,2	-5,37	-6,38
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	97.939.091	100.032.383	103.902.703	132.789.052	7,3	7,5	7,4	9,0	27,80	26,43
EGITURA	194.947.997	167.453.563	185.844.494	210.333.686	14,5	12,6	13,3	14,2	13,18	11,96
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	538.849.118	552.158.949	569.669.073	588.394.522	40,1	41,4	40,7	39,8	3,29	2,18
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	110.029.366	113.053.812	117.307.554	120.399.510	8,2	8,5	8,4	8,1	2,64	1,54
Adingabeentzako/familientzako egoitza-zentroak	64.328.161	64.574.190	66.793.735	74.016.355	4,8	4,8	4,8	5,0	10,81	9,62
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	5.086.089	5.852.371	6.477.572	6.542.123	0,4	0,4	0,5	0,4	1,00	-0,09
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	32.286.265	33.630.796	35.346.655	37.690.315	2,4	2,5	2,5	2,5	6,63	5,49
EGOITZA-ZENTROAK	750.578.999	769.270.118	795.594.589	827.042.825	55,9	57,7	56,8	55,9	3,95	2,84
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	56.103.109	58.472.319	60.096.117	61.810.463	4,2	4,4	4,3	4,2	2,85	1,75
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	33.319.409	34.899.592	35.334.280	34.356.388	2,5	2,6	2,5	2,3	-2,77	-3,81
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	47.649.312	36.049.470	38.391.707	43.709.450	3,5	2,7	2,7	3,0	13,85	12,63
Adingabe/familientzako eguneko arreta	2.068.144	2.590.978	2.948.756	4.262.654	0,2	0,2	0,2	0,3	44,56	43,01
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	8.142.314	8.004.870	8.867.857	8.433.338	0,6	0,6	0,6	0,6	-4,90	-5,92
EGUNEKO ZENTROAK	147.282.288	140.017.229	145.638.717	152.572.293	11,0	10,5	10,4	10,3	4,76	3,64
ETXEKO LAGUNTZA	82.192.108	81.337.202	81.533.374	88.542.862	6,1	6,1	5,8	6,0	8,60	7,43
TELELAGUNTZA ETA ZAINZTAILEENTZAKO BABESA	8.013.938	8.726.923	9.441.496	8.690.167	0,6	0,7	0,7	0,6	-7,96	-8,94
ESKU-HARTZE ETA EKINTZA FAMILIARREKO PROGRAMAK	40.925.506	42.007.109	44.867.659	45.637.995	3,0	3,2	3,2	3,1	1,72	0,63
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK ETA BESTE	107.270.098	112.443.010	126.033.225	131.972.895	8,0	8,4	9,0	8,9	4,71	3,59
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	11.074.926	11.887.976	12.298.018	13.695.326	0,8	0,9	0,9	0,9	11,36	10,17

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



7. taulara itzulita, 2016-2017 aldian mendekotasunen prestazioen hazkundeak nabarmena izaten jarraitzen duela egiaztatzen da (% 4,61 nominala eta % 3,49 termino konstanteetan). 2015-2016 aldiko zenbakiak baino nabarmen txikiagoak badira ere (% 12,21 eta % 10,53, hurrenez hurren), betiere finkatu egiten da gastuaren gorako joera, prestazio mota horretan. 2015-2017 aldiko dinamika bestelakoa da prestazio horien arloko gastuak 2014ra arte izandako hazkuntza mugatuarekin alderatuta, urte hartatik aurrera hasi baitzen gastua handitzen.

Hazkunde nabarmena izan du, baita ere, 2016-2017 aldian, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako gastuak (% 4,40 termino nominaletan eta % 3,29 prezio konstanteetan) eta neurri handian, halaber, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan (% 3,27 termino nominaletan eta % 2,17 prezio konstanteetan). Datu aipagarri hori bat dator, batez ere, hazkunde-erritmoen areagotzearekin prezio konstanteetan, 2015-2016 aldiarekin konparatuta (% 2,43tik % 3,29ra desgaitasun/gaixotasunen kasuan; % 1,58tik % 2,17ra, adineko pertsonen kasuan). Gastuaren hazkundearen maila gizarte-zerbitzuen erdigunearen batezbestekotik behera badago ere, datu horiek finkatu egiten dute zentro mota horietarako gastuak 2012-2017 aldi osoan izandako gorako joera.

Haur, gazte eta familien arretara bideratutako zentro, zerbitzu eta programetan egindako gastua, barne direla genero-indarkeriaren eta tratu txarren aurkako prebentziora eta borrokara bideratutako ekintzak ere, 131,53 milioi eurora iritsi zen 2017an, gizarte-zerbitzuen erdiguneari lotutako gastu osoaren % 8,9.

Gastu horren erdigunea haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokie, gastu osoaren % 5,9 hartzen baitute (87,52 milioi euro). Tratu txarraren arreta, harrera, adopzio eta esku-hartze familiarreko gainerako programek hartzen dute gastuaren % 2,9 (42,94 milioi). Gainerako % 0,1a genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoek dagokie (1,07 milioi).

Arretaren eremu horretan, 2012 eta 2016 bitartean jadanik ikusi zenaren ildotik, 2016-2017 aldian gastuak izan zuen hazkundera betiere handiagoa izan zen, gizarte-zerbitzuen erdigunearen multzoari zegokiona baino, hazkunde nominala % 7,82 izan baitzen (% 6,67 termino konstanteetan).

Kasu honetan ere, ordea, alde handiak ikusten dira barnean. Hazkunderik handiena tratu txarren biktimentzako prestazioei egokitu zaie 2016-2017 aldian, % 19,09 hazi baitzen (% 17,81 termino konstanteetan). Hazkunde hori gizarte-zerbitzuetako erdigunearen batez besteko % 5,51ren oso gainetik dago. Tratu txarren arretak murrizketa handia izan zuen 2015-2016 aldian (-% 4,24 zenbaki konstanteetan). Beraz, azken urtean berreskuratu da 2014-2015ean esku-hartzearen arlo horretako gastuan izandako hazteko joera. Termino nominaletan, 2017an tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoetako gastua % 21,9 handiagoa da 2014koa baino.

2016-2017 aldian, gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastuaren hazkunde orokorreko erritmoa ere gainditu zen, haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokienez (+ % 11,03). Termino konstanteetan, hazkundera % 9,84koa da, 2016-2017 aldiko % 3,1eko hazkunde handia halako hiru ia.

Zentro eta zerbitzu mota horietan ikusitako hazkuntza-erritmoa areagotzearen ondorioz, 2014-2015 aldian hauteman zen joera-aldaketa egonkortu da; hala, 2013-2014 aldian izandako murrizketa handiaren ondoren, 2012-2015 aldiko gastu-maila ia guztiz egonkortu da, eta gorako joera leun-leuna ere sumatzen da.

Emakumeen, adingabekoen eta familien eguneko arretako programa desberdinetako gastuaren hazkuntza-erritmoa ere areagotu da: % 12,10 izan zen 2015-2016an, eta % 43,01 2016-2017an, prezio konstanteetan. Esku-hartzearen arlo horrek gastuaren gehikuntza nominala erakutsi zuen 2014 eta 2017 bitartean, % 106,1ekoa.

7. taulan ikusten da, orobat, haur, gazte eta familien aldeko ekintzaren arloan, gastuaren aurrerapen garbi txikiena tratu txarren, harreraren eta adopzioaren programetan eta familiako esku-hartzeen gainerako programetan egin dela, gizarte-zerbitzuetako maila orokorraren azpitik, 2016 eta 2017 bitartean. Programa horiek gastuaren hazkunde handia ezagutu zuten 2012-2016 aldian, batez ere 2015 eta 2016 bitartean (% 4,83 prezio konstanteetan). 2016-2017 aldian, hazkundearen erritmoa moteldu zen, % 1,60 izan baitzen termino nominaletan, eta % 0,51 prezio konstanteetan. 2017ko gastua, hala ere, 2014koa baino % 11,0 handiagoa izan zen.

2017an, gizarte-zerbitzuetako erdiguneko batezbesteko orokorra baino gehiagoko aurrerapen-lerroa atzematen da haur, gazte eta familien sektorearen gastuan, eta horrek gehikuntza txikia baina esanguratsua adierazten du, erdigune horrek gastu osoan duen parte-hartzeari dagokionez. 2014ko % 8,4tik 2015 eta 2016ko % 8,7ra igo ondoren, 2017ko % 8,9ko datuak berriz ere jartzen du sektore horretako gastuak gizarte-zerbitzuetako gastu osoan 2013an atzematen zen maila berean.

Gizarte-bazterketaren aurkako zentro, zerbitzu eta programetako gastua guztira 47,65 milioikoa izan zen 2017an, gizarte-zerbitzuetako erdigunearen gastu guztiaren % 3,2, hau da, 2012ko % 3,1aren gaineratik eta 2015 eta 2016ko % 3,3a baino pixka bat gutxiago. Gizarte-zerbitzuetako gastuak 2015-2016an izandako batez besteko hazkuntza-erritmoa gairitu ondoren, % 3,82 hazi baitzen termino konstanteetan, nolabaiteko motelaldia hauteman da 2016 eta 2017 bitartean. Aldi horretan, gastua % 3,68 hazi da termino nominaletan eta % 2,56 prezio konstanteetan, -% 1,26 gutxiago 2015-2016koa baino.

Gizarte-zerbitzuetako egituraren gastua gastu guztiaren % 14,2 izan da 2017an, hau da, 210,33 milioi euro. Horietatik, 132,79 milioi oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatu orokorre dagozkie, hau da, gastu osoaren % 9. Gastuaren % 5,2 egitura orokorrari dagokio, 77,54 milioi, eta partida horren barruan dago urteko emaitza (defizita edo superabita).

2015-2016 aldian gastu nominalean izandako % 10,98ko hazkunde sendotik abiatuta (% 9,32 prezio konstanteetan), 2016-2017an finkatu egin da gizarte-zerbitzuen egitura horretako gastuaren hazkuntza-lerroa. Gastu nominala % 13,18 handitu da aldi horretan (+% 11,96 termino konstanteetan).

Deigarriagoa da, ordea, 2016-2017 aldian gastuaren hazkunderik handiena jadanik ez lotzea egitura orokorrari, defizit/superabit binomioaren dinamikaren eraginagatik. Izan ere, prezio konstanteetako hazkunde % 19,72koa izanik 2015-2016 aldian, 2016-2017 aldian partida -% 6,38 jaitsi da 2017ko prezioetan.



Hazkunderik handiena, beraz, oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta espezializatuei dagokie. Zerbitzu horien gastua % 27,80 handitu zen 2016-2017 aldian (+ % 26,43 prezio konstanteetan), eta horrek hazkunde handia erakusten du gizarte-zerbitzuetako ekintzan erabakigarria den arlo horretako gastuan. Izan ere, 2015-2016 aldian gastua suspertu izanak % 2,31ko isla eskasa zuen prezio konstanteetan, alegia, oraindik ere gizarte-zerbitzuetako erdiguneko gastuaren batez besteko gastuaren azpitik zegoela haren hazkundera.

2012-2013 aldian izandako beherakada handiaren ondoren, 2016-2017 aldiko dinamikak bultzada berria ekarri zion gastuaren suspertzeari oinarrizko zerbitzuetan eta espezializatuetan; joera hori jadanik igartzen zen 2013an, baina 2016an oraindik ere gastu nominala (103,90 milioi) 2012ko 105,01 milioien azpitik mantentzen zen. 2017ak erabateko aldaketa dakar egoera horri dagokionez, 132,79 milioiko gastuarekin, dagoeneko 2012an egindako gastua baino % 26,4 handiagoa, termino nominaletan.

Aztertutako zerbitzuen barruan, eta 7. edo 8. tauletan egindako bereizketa alde batera utzita, komeni da aipatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuen bilakaera, zentzu hertsian, hobeaz azken urteetan, baina hazkundera nolabait moteldu dela 2015etik aurrera. Oinarrizko egiturako gainerako zerbitzuetan ez bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak goraka egin zuen etengabe 2012-2015 aldian, eta % 15,2ko hazkundera izan zuen guztira (40,29 milioi 2012an eta 46,43 milioi 2015ean). 2014-2015 bitartean ikusitako gorakada argiaren ostean (+% 7,4), 2015-2016 aldiko dinamikak hazkunde-erritmoaren apaltze arin bat erakusten du, baina oraindik gorako joera argia da, % 4,5eko hazkundera eta 48,52 milioiko gastua izan baita 2016an. Hazteko erritmoaren moteltzea areagotu egin da 2016-2017 aldian eta % 2an kokatzen da, termino nominaletan, gastu-kopurua 49,48 milioi eurotan dagoela. Hala ere, 2017ko gastua 2012ko gastu nominala baino % 22,8 handiagoa da.

2014ko % 3,2aren gainetik mantentzen bada ere, gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastu osoan oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak duen pisu erlatiboa 2015eko eta 2016ko % 3,5etik 2017ko % 3,3ra jaitsi da.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastua gehiago mugatu izanaren ondorioetako bat da oinarrizko gizarte-zerbitzuen, gizarte-larrialdien eta zerbitzu espezializatuaren gastuan 2016-2017 aldian izandako aurrerapen nabarmena benetan zerbitzu espezializatuaren kontzentratu dela. EAEko administrazio publikoen finantzaketa-krisiaren ondorioak gainditu ondoren, aztertutako aldian lortu da langile-egitura espezializatuaren gastuaren maila berriz ere gora eramatea. Egitura horien gastua igaro da 2014-2016 aldian 52 milioi euro izatetik 2017an 80,83 milioi euro izatera. Neurri handi batean, krisi finantzarioaren ondorengo urteetan administrazio horiek jasan zuten finantzaketa-defizitari eusteko gaitasuna lortu izanaren ondorioa da.

Zentro, zerbitzu edo programa motaren ikuspegiari erreparatuta, eta 8. taulan jasotako datuei berriro helduz, gastuaren xede nagusia egoitza-zentroak direla egiazta daiteke. Zentro horietako gastua 2017an 827,04 milioi eurora iritsi da, alegia, gizarte-zerbitzuetako erdigunearen gastu osoaren % 55,9ra. Zatik handiena adineko pertsonentzako egoitzei dagokie, haiek bakarrik gastu osoaren % 39,8 baitira (588,39 milioi). Azken kasu horretan finkatu egin da aipatutako proportzioaren beherako joera, 2013tik eta 2015etik behera baitzeturten, % 41,1 eta % 41,4 hurrenez hurren. 2017ko % 39,8ko proportzioa, izan ere, 2012ko % 39,6tik hurbil dago.

Adineko pertsonentzako egoitzen gastuaren pisu erlatiboa oso gainetik dago desgaitasuna duten pertsonen dagokien % 8,1etik (120,40 milioi) eta adingabeei dagokien % 5etik (74,02 milioi). Beste % 2,5 bat bideratu da bazterketa-egoeran dauden pertsonen ostatu-, harrera- eta egoitza-

zerbitzuetara (37,69 milioi), eta % 0,4 osagarri bat, ostatu eta egoitza emateko emakumeei, genero-indarkeria eta tratu txarren arazoa izan nahiz halako arazorik ez izan (6,54 milioi).

2015-2016 aldiaren bezala, 2016-2017 aldiaren egoitza-zentroetarako gastu nominalaren gehikuntza orokorra da. Gorako joera nabarmenena adingabe, gazte nahiz familiekiko esku-hartzeei dagokie. Kasu horretan, gastuaren maila gizarte-zerbitzuetako batezbestekoaren gainetik nabarmen igo da, % 10,81. 2012 eta 2014 bitartean behera etorri ondoren, 2014-2015 aldiaren suspertu eta gora jarraitzen du geroztik, batez ere 2016-2017 aldiaren. Aldi horretan, gastua % 9,62 igo zen prezio konstanteetara, 2015-2016 aldiko % 1,89aren gainetik.

Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zerbitzuei dagokienez, genero-indarkeriaren eta tratu txarren arazoa izan ala ez izan, prezio konstanteetako gastua 2015-2016 aldiaren % 9,02 igo ondoren, 2016-2017 aldiaren beherakada txiki bat atzematen da (-% 0,09koa, gastu erreala praktikan egonkortuta). Eraitza horiek eten egin dute 2012-2016 aldiaren zerbitzu horiek erakutsi zuten hazkundera, batezbestekoa gaitzen zuena. Terminonomenetan, 2017ko gastua, hala ere, 2014koa baino % 28,6 handiagoa izan zen.

Gizarte-zerbitzuetako gastuaren 2015-2016 aldiko batezbestekoa hazkunde-erritmoetara hurbildu ondoren, 2016-2017 aldiaren hazkundera batezbesteko horren gainetik dago, bazterketa-egoeraren pertsonentzako egoitza-zentroei dagokienez, hazkunde nominala % 6,63koa zela (+% 5,49 terminonomenetan, 2015-2016 aldiko % 3,53aren gainetik).

2015-2016 aldiaren bezala, 2016-2017 aldiaren gastuaren hazkundera gizarte-zerbitzuetako erdigunearen batezbestekoaren azpitik dago adineko pertsonentzako edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan. 2016-2017 aldiaren, 2015-2016 aldiaren aldean, hazkunderaren erritmoak nolabait gora egin zuen adineko pertsonentzako zentroetan (% 1,63tik % 2,18ra prezio konstanteetara), beherakada txikia atzematen da desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan (% 2,21etik % 1,54ra prezio konstanteetara). Nolanahi ere, oraingo gorako joerak berak, moteldu bada ere, 2012 eta 2014 bitartean gizarte-zerbitzuetako batezbestekoaren gainetik izandako gastu-hazkunderari jarraipena ematen dio.

Guztia begiratuta, 2016-2017 aldiaren egoitza-zentroetako gastua % 3,95 hazi zen (+% 2,84 terminonomenetan), gizarte-zerbitzuetako erdigunean izandako gastuaren hazkunde orokorraren azpitik. Hazkunde konparatu txikiago horren ondorioz, zerbitzu-eremu horren gastuaren pisuak beherako joera finkatu eta 2015eko % 57,7tik jaitsi zen 2016ko % 56,8ra eta 2017ko % 55,9ra, betiere 2013ko % 57,4aren azpitik. Beraz, 2017ko erregistroa % 56aren azpitik kokatu zen, 2012 eta 2014ko erregistroetatik hurbil.

Zentro, zerbitzu edo programen araberrako gastua aztertuz gero, gastuaren bigarren arlo aipagarria eguneko zentroen arloa da: gastua, guztira, 152,57 milioi eurokoa izan da, hau da, 2017ko gastu osoaren % 10,3.

Kasu honetan, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arretarako zentro mota desberdinek biltzen dute gastuaren zatirik handiena, 78,07 milioi, guztizkoaren % 5,3. Adinekoentzako eguneko zentroetara bideratutako partida 61,81 milioi eurokoa da, guztizkoaren % 4,2. Gainerako % 0,9a adingabe, gazte, familia eta gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako eguneko arretarako zentroei dagokie, 12,70 milioi euro.



Gastua handitu egin da eguneko arretako zenbait zentro motatan. 2012-2016 aldian jadanik gertatu zen bezala, hazkunderik handiena adingabeko, gazte eta familientzako zentroei dagokie. Kasu honetan, urte arteko hazkunderaren tasek modu garbiam gaintitu zuten % 10 nominala (% 44,56, % 43,01 prezio konstanteetara, 2015-2016 aldian jadanik handia zen % 12,10aren gaintetik).

Gaixotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko beste zentroetan ere (hertsiki laguntza-zentroak ez direnak) batezbesteko orokorra gaintitu da; talde horretan daude eguneko okupazio-zentroak³. Kasu honetan ere hazkunderaren erritmoak % 10aren gaintetik daude 2016-2017 aldian termino nominaletan (+% 13,85, % 12,63 termino konstanteetan). Horrekin luzatzen da 2015ean hasitako gorako joera nabarmena. Hala ere, zentro-mota horretan, 2017ko gastua oraindik ere 2014koaren azpitik mantentzen da.

2015-2016 aldian jadanik gertatzen zen bezala, 2016-2017 aldian hazkundera motelagoa da, eta gizarte-zerbitzuetako batezbestekoa baino txikiagoa, adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroen kasuan. Kasu honetan, hazkunde nominala % 2,85ekoa da, % 1,75ekoa termino konstanteetan, betiere 2015-2016 aldiko % 1,24aren gaintetik. Horrekin mantentzen da zentro horietan 2012tik ohikoa den gastuaren hazkunde argia.

Aipatutako zentro-mota horietan ez bezala, gastuak behera egin du egoitzakoa ez den beste arreta-zentro edo -zerbitzuetan. Hortaz, 2012-2016 aldian ez bezala, 2015-2016 aldian hazkunde sendoa izan ondoren (+% 9,12 termino konstanteetan), 2016-2017 aldian -% 4,90 jaitsi da gastua gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako eguneko arretan (-% 5,92 termino konstanteetan).

Beherako joera nabarmenena, hala ere, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroei dagokie. Kasu honetan, % 1,25eko hazkunde nominalak 2015-2016an jadanik ezkutatzen zuen gastua egonkortzeko joera argia, aurreko urteetako hazkunderen ondoren. Beraz, zenbaki konstanteetan, eguneko zentro horietako gastuak -% 0,27ko beherakada erakusten zuen 2015-2016 aldian. Joera hori areagotu egin zen 2016-2017 aldian, gastu nominala -% 2,77 erori baitzen (-% 3,81 termino konstanteetan).

Espezializatutako zentro, zerbitzu edo programa nagusien hirugarren mota garrantzitsua etxeko laguntza da, 2017an 88,54 milioi jaso baitzituen, 2016ko 81,53 milioiak baino gehiago. Lehen ere esan denez, zenbaki horrek funtsezko aldaketa eragin du aurreko urteetan atzematen zen gastu nominalaren egonkortzeari eta egiazko gastu konstantearen beherakadari dagokienez. Etxeko laguntzako gastuaren pisua % 6,9tik % 5,8ra jaitsi zen gizarte-zerbitzuen erdiguneari dagokion guztizkoarekiko, 2012 eta 2016 bitartean, eta 2017an % 6ra igo zen, betiere 2014-2015 aldiko % 6,1aren azpitik.

³ Zehaztu behar da kasu honetan, okupazio-zentroen eta enplegu-zentroen arteko jardueraren alboratze-eta konbinazio-dinamikak baldintzatzen duela bilakaera, eta horrek bat-bateko aldaketak eragin ditzakeela (zentro bat enplegu-zentro bereziko plazak soilik eskaintzen hastea, adibidez) benetako dinamika estrukturalik islatu gabe.

3.2.2. *Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera*

2017an, gizarte-zerbitzuetako erdigunera bideratutako gastu arrunteko zenbait desberdintasun mantendu ziren lurralde historikoetan, 9. taulan jasotako biztanleko gastuetan ikus daitekeenez. Gasturik handiena Arabako lurralde historikoari dagokio berriro: 779,64 euro biztanleko. Ondoren, Gipuzkoa dago (725,10 euro) eta, azkenik, Bizkaia (622,55 euro).

Ikusten diren alde horiek azaldu daitezke, neurri batean, kontuan hartzen bada 2012-2015 artean gizarte-zerbitzuen erdigunean gastu arruntaren hazkunderik txikiena Bizkaian izan zela. Joera hori mantendu egin zen 2015-2016 aldirian, % 4,84ko hazkunde nominalarekin, betiere Arabako % 5,05a eta Gipuzkoako % 5,53a baino eskasagoa bazen ere. Hala ere, datuek hurbilpen handia erakusten zuten aldi horretan, 2016-2017 aldirian errota zena, gutxienez Bizkaia eta Arabako kasuei zegokienez. Adibidez, 2016-2017 aldirian Bizkaiko gastuaren hazkundera (% 3,67) Arabakoa (% 3,14) baino handiagoa izan zen. 2016-2017 aldiriko hazkundearen moteltzea Bizkaiko lurraldera ere hedatu bazen ere, gastuaren hazkundera Arabak zeraman abantaila aldatu zen aurreko aldiaren aldean (2015-2016 aldirian -% 0,21 puntu galtzetik 2016-2017 aldirian +% 0,54ra haztera igaro zen).

Gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastuak Araban eta Bizkaian bizi duen hazkunde-erritmoa moteltzeko dinamika ez dator bat Gipuzkoan bizi duen bizkortzearekin. Lurralde honetan, 2014-2015 aldiriko hazkundera -% 2,69koa izan zen, +% 5,53ra igaro zen 2015-2016 aldirian, eta % 9,40ko hazkunde handia izan zuen 2016-2017 aldirian.

2014-2017 ikuspegian, Araban 2014-2015 aldirian izandako hazkundeak (+% 3,12koa, Bizkaian eta Gipuzkoan behera jo zuelarik) aukera eman dio Gipuzkoaren antzeko dinamika bat mantentzeko, aldi horretan antzeko hazkundeak erakutsiz (% 11,73 Araban eta % 12,34 Gipuzkoan). Bizkaia azpitik geratzen da, 2014-2017 aldirian gastuaren % 8,06ko hazkundearekin.

Horren ondorioz, Bizkaiak jarraitzen du pisua galtzen Euskadiko gizarte-zerbitzuen erdigunean gastu arruntak duen banaketan. Izan ere, Bizkaiaren parte-hartzea 2012an % 49,5koa zen, % 48,8 eta % 49 artekoa 2014-2016 aldirian, eta % 48koa 2017an.

Atzemandako dinamika horren beste ondorioetako bat da BPGd-an Bizkaiko gizarte-zerbitzuen erdigunearen gastuak duen eragina 2017an oraindik ere beste bi lurraldeetan baino baxuagoa izatea: Bizkaian % 1,90ekoa da, Gipuzkoan eta Araban % 2,11koa delarik. Arabako gastuaren joera 2014tik mantentzen da, BPGd-aren % 2,08 eta % 2,11 bitartean. Gipuzkoan, 2015ean % 1,98ra jaitsi ondoren, gorako joera hartu zuen, 2016an % 2,01 izan zen eta bultzada sendoa izan zuen ondoren, 2017an Arabaren parean, % 2,11ra iritsi arte. Bizkaian, 2014-2015 aldirian % 1,95etik % 1,88ra jaitsi ondoren, BPGd-aren gaineko gastuaren maila egonkortu zen nolabait, eta hazkunde txikia erakusten dute zenbakiek ordutik, 2017ko % 1,90era iritsi arte.

Nolanahi ere, datuek betiere BPGd-aren eta gizarte-zerbitzuetako biztanleko gastuaren arteko korrelazioa erakusten dute (handiagoa Araban Gipuzkoan baino, eta Bizkaian txikiagoa). Hala ere, dagoeneko ez da zuzena ondorioztatzea BPGd-aren maila txikiagoa izan eta gizarte-zerbitzuen erdiguneari bideratutako gastuak BPGd-an duen pisu erlatiboa txikiagoa dela. Barne Produktu Gordina txikixeagoa izan arren, 2017an Gipuzkoa Arabaren parean kokatu da, gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastuak BPGd-aren gainean duen eraginari dagokionez.



9. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea), lurralde historikoen arabera. 2014-2017 (Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta urte arteko bariazioa gastuaren %-tan)

	2014				2015				2016				2017				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2014/2017
Lurralde historikoa	1.342,29	100	2,02	617,75	1.333,14	100	1,95	613,44	1.401,25	100	1,97	645,18	1.478,49	100	2,00	679,51	-0,68	5,11	5,51	10,15
Araba	225,79	16,8	2,09	705,54	232,85	17,5	2,08	723,63	244,61	17,5	2,11	758,86	252,28	17,1	2,11	779,64	3,12	5,05	3,14	11,73
Gipuzkoa	460,06	34,3	2,10	649,23	447,69	33,6	1,98	630,56	472,44	33,7	2,01	664,75	516,85	35,0	2,11	725,10	-2,69	5,53	9,40	12,34
Bizkaia	656,43	48,9	1,95	573,70	652,60	49,0	1,88	571,74	684,21	48,8	1,89	600,79	709,35	48,0	1,90	622,55	-0,58	4,84	3,67	8,06

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

10. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, gastu motaren eta lurralde historikoen arabera. 2017 (BPGd-aren %-a eta bariazioa 2016-2017 gastuaren %-tan)

Gastu mota	BPGd % 2017				Bariazioa 2016/2017 aldian %-tan			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	2,11	2,11	1,90	2,00	3,14	9,40	3,67	5,51
Egitura orokorra	0,11	0,18	0,06	0,11	18,48	96,10	-56,85	-5,37
Egitura espezifikoa	0,20	0,17	0,18	0,18	-2,20	32,51	40,22	27,80
EGITURAREN GASTUA GUZTIRA	0,32	0,34	0,24	0,28	4,31	58,97	-8,46	13,18
Adinekoentzako zentro/zerbitzuak	1,00	0,87	0,85	0,88	3,80	1,87	4,04	3,27
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako zentro/zerbitzuak	0,28	0,28	0,29	0,28	1,07	6,03	4,44	4,40
Haur/gazte/familientzako zentro/zerbitzuak	0,15	0,12	0,11	0,12	10,29	7,01	14,62	11,03
Bazterketa-egoeran daudenentzako zentro/zerbitzuak	0,05	0,07	0,06	0,06	-8,51	8,92	3,56	3,68
ZENTRO ETA ZERBITZUETAKO GASTUA GUZTIRA	1,48	1,35	1,31	1,35	3,38	3,53	4,89	4,17
Mendekotasunaren arloko programak	0,15	0,11	0,14	0,13	5,48	-1,04	11,99	6,88
Familien arloko programak eta beste batzuk	0,05	0,07	0,05	0,06	-9,48	8,02	-0,04	1,60
PROGRAMEN GASTUAK GUZTIRA	0,20	0,18	0,19	0,19	1,58	2,29	8,33	5,21
Mendekotasunen arloko prestazioak	0,12	0,24	0,15	0,18	-0,82	1,79	9,21	4,61
Tratu txarren biktima direnentzako prestazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	39,13	7,29	14,72	19,09
PRESTAZIOEN GASTUAK GUZTIRA	0,12	0,24	0,15	0,18	-0,17	1,82	9,25	4,71

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

BPGd-aren gaineko gastuan lurraldeen arteko alderik handienak erakutsi dituzten zentro, zerbitzu edo programen analisiak datu osagarriak eskaintzen ditu, 2017an oraindik ere aipagarriak direnak. Gai horiek aztertu daitezke 10. taulan jasotako informaziotik abiatuta.

Arabako egoera aztertzean, 2017an gastu diferentziala atzematen da lurralde horretan, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez eta, neurri txikiagoan bada ere, gizarte-zerbitzuetako egitura espezifikoarekin lotutakoei dagokienez (oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdia eta zerbitzu espezializatuak), haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokienez eta mendekotasunari aurre egiteko programei dagokienez. Eredu horiei dagokienez, gastuaren eta lurraldearen BPGd-aren arteko lotura % 1,50ekoa da Araban, % 0,23 eta % 0,22 puntu gehiago Gipuzkoako % 1,27 eta Bizkaiko % 1,28 baino, hurrenez hurren.

Alde horiek, neurri handi batean, 2012 eta 2016 bitartean adinekoen zentro eta zerbitzuen arloko gastuan izandako hazkunde diferentziala islatzen dute, eta dinamika hori mantendu zen 2015 arte Araban haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuetan. Baina horren ondoan gastua murriztu zen lurralde horretan, 2012-2013 aldian, batez ere gizarte-zerbitzuen egitura espezifikolari dagokion eremuan (oinarrizko zerbitzuak, gizarte-larrialdia eta zerbitzu espezializatuak). Hala ere, gastu-mota horrek Araban 2015-2016 aldian izandako hazkunde handiak ere (% 9,51 Araban, % 1,91 Gipuzkoan eta Bizkaian % 2,41 zelarik) finkatzen zituen aldeak 2016an, gastuaren alderdi horri dagokionez.

Interesgarria da, berriz, egiaztatzea aztertutako eremuetan atzematen dela Bizkaiak egin zuela gastu-ahaleginik handiena 2016-2017 aldian, BPGd-aren gaineko gastua handitu baitu, 2016ko % 1,21etik oraingo % 1,28ra. Hazkunde handi hori hautematen da aztertutako lau eremuetako edozeinetan, eta gastuan egindako bariazioa kasu guztietan handia da 2016-2017 aldian. Hobekuntza nagusia oinarritzko gizarte-zerbitzuen, gizarte-larrialdien eta zerbitzu espezializatuen egitura espezifikolari dagokie. Bizkaian, arlo horretan, BPGd/gastua 2016an % 0,13 izatetik 2017an % 0,18 izatera igaro da.

Araba eta Gipuzkoa ia egonkor daude, 2016an jadanik % 1,50 eta % 1,26ko gastua zutela, hurrenez hurren. Araban egitura espezifikolari lotutako BPGd/gastua -% 2,20 jaitsi izana aipatu ondoren, Gipuzkoan, Bizkaian bezala, joera da BPGd/gastua nabarmen handitzea, oinarritzko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatuak dagokienez, % 0,13tik % 0,17ra arteko hazkundearekin. Hazkunde horren ondoan, ordea, jaitsiera txikiak atzematen ditugu Gipuzkoan BPGd/gastuaren ahaleginean, adinekoentzako zentro eta zerbitzuei edo mendekotasunarentzako programei dagokienez.

Aztertutako lau arloetatik harago, 2017an Gipuzkoa eta Bizkaia Arabaren gainetik daude mendekotasunerako prestazioen gastu-mailari dagokionez, 2016an bezala. 2016an BPGd-aren % 0,24rekin, Gipuzkoak argi gainditzen du Arabako % 0,12a, eta Bizkaia ere gainetik dago, % 0,15arekin. Prestazio horietarako gastua -% 0,82 jaitsi da Araban 2016-2017 aldian, Gipuzkoan % 1,79 hazi da, eta Bizkaian % 9,21, lurralde hori delarik azken urtean gastuaren ahalegin diferentzialik handiena egin duena arlo horretan.

Gainerako zentro, zerbitzu eta programetan (Desgaitasuna/gaixotasuna, bazterketa, mendekotasuna, familia eta bestelako programa espezifikokoak edo tratu txarren biktimentzako prestazioak), egitura orokorrari dagokion zati erlatiboa alde batera utzita, BPGd/gastua harremanak 2017an oso antzekoa izaten jarraitzen du EAEko hiru lurraldeetan, Araban % 0,38koa dela, eta pixka bat gehiago Bizkaian, % 0,41ekoa eta Gipuzkoan, % 0,42koa. Zifrak 2016an jasotako antzekoak dira (% 0,40; % 0,41 eta % 0,42, hurrenez hurren).



Errealitatean, BPGd/gastuaren desberdintasun asko, Bizkaia konparatuta Araba eta Gipuzkoarekin, 2017an sistemaren egitura orokorrari lotzen zaizkio⁴. Bizkaian partida hori 2016-2017 aldian BPGd-aren % 0,14tik % 0,06ra jaisten delarik, Araban egonkor mantentzen da BPGd-aren % 0,10 edo % 0,11ren inguruan eta Gipuzkoan nabarmen hazi zen % 0,09tik % 0,18ra.

Egitura orokorrari dagokion zatia baztertzen bada, Bizkaia Arabara eta Gipuzkoara hurbildu izana da, azken buruan, 2016-2017 aldiko aldaketa aipagarrienetako bat. Beraz, Araba BPGd/gastuaren % 2aren inguruan mantentzen delarik, Gipuzkoan % 1,93tik % 1,94ra igo da, eta hazkunderik handiena Bizkaian atzematen da, han BPGd gastua 2016-2017 aldian % 1,77tik % 1,84ra igo baitzen.

3.3. Gizarte-prestazioetako gastua

3.3.1. Prestazio motak

Gizarte-prestazioek, oro har, pertsoneri eta familiei eginiko transferentziek, 656,54 milioi euro jaso zituzten guztira 2017an, barne zirela transferentzia publikoak (651,71 milioi euro) nahiz hirugarren sektoreko erakundeetan eginikoak (4,84 milioi).

Egindako gastua diru-sarrerak bermatzeko sistemara bideratu da nagusiki, honako hauetara, hain zuzen: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). DBE/EPO/GLL sistemak 516,04 milioi euroko gastua izan zuen 2017an, EAEko pertsona eta familientzako transferentzietako gastu osoaren % 78,6; hau da, 2016ko % 77,7a eta 2015eko % 77,2a baino gehiago.

Gastuaren funtsezko zatia DBEri dagokio, 395,41 milioi 2017an, hau da, gastu osoaren % 60,2, gehiago 2015eko % 59,6 eta 2016ko % 59,7 baino. Etxebizitzako Prestazio Orokorra 2017an % 13,4 da, guztira 88,25 milioi, eta gutxiago zen 2016an, % 13,5. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen pisua % 4,9ra igo zen, nabarmen 2014ko % 4,4a baino gehiago. Kasu horretan, guztizko gastua 32,38 milioi eurokoa izan zen 2017an.

Prestazio horien gorako joera mantentzen zen 2015-2016 aldian termino nominaletan, % 1,20ko gehikuntza eginda. Prezio konstanteetan, hala ere, jadanik -% 0,31ko murrizketa atzematen zen, 2016-2017 aldian areagotzen zena eta lehenengo aldiz termino nominaletan ere atzematen dena. Era horretan, DBE/EPO/GLL sisteman gastu nominala -% 1,16 murriztu zen aldi horretan, -% 2,22 prezio konstanteetan.

Beharakada hori, besteak beste, ekonomiaren eta enpleguaren hobekuntza islatzen duena, eta onuradunen kopuru txikiagoan atzematen dena, neurri handi batean DBEren bilakaerari lotzen zaio. Kasu honetan gastuaren -% 1,48ko jaitsiera nominala atzematen da 2016-2017 aldian, termino konstanteetan -% 2,54ko jaitsieraren baliokidea, 2015-2016 aldiko -% 0,76ko jaitsiera halako hiru.

⁴ Hein batean, egitura orokorraren barruan ezartzen diren lurraldeko erakunde publiko edo pribatuen defizit/superabit faktoreari zor zaio hori.

11. taula. Gizarte-prestazioak (familiantzako transferentziak) 2014-2017 (Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017, nominala eta 2017ko prezioetan)

Prestazio-mota	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2016-2017 aldian	
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Nominala	2017ko prezioak
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%-tan	%-tan
GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA	637.253.306	668.198.661	672.142.270	656.543.647	100	100	100	100	-2,32	-3,37
LISMI	700.864	641.401	571.052	462.833	0,1	0,1	0,1	0,1	-18,95	-19,82
KGP/GOF	57.627.448	59.587.446	61.327.170	62.667.680	9,0	8,9	9,1	9,5	2,19	1,09
LISMI/KGP/GOF GUZTIRA	58.328.312	60.228.847	61.898.222	63.130.513	9,2	9,0	9,2	9,6	1,99	0,90
DBE	388.123.359	398.372.575	401.369.381	395.414.968	60,9	59,6	59,7	60,2	-1,48	-2,54
EPO	84.277.514	88.510.073	90.964.126	88.247.164	13,2	13,2	13,5	13,4	-2,99	-4,03
GLL	28.119.671	29.012.874	29.759.950	32.382.214	4,4	4,3	4,4	4,9	8,81	7,64
DBE/EPO/GLL GUZTIRA	500.520.544	515.895.522	522.093.457	516.044.346	78,5	77,2	77,7	78,6	-1,16	-2,22
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	29.649.024	27.713.936	26.502.437	25.835.404	4,7	4,1	3,9	3,9	-2,52	-3,56
Familia eta lana kontziliatzea	17.302.967	31.302.795	29.316.925	23.911.838	2,7	4,7	4,4	3,6	-18,44	-19,31
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA	46.951.991	59.016.731	55.819.362	49.747.242	7,4	8,8	8,3	7,6	-10,88	-11,83
Gizarte-larrialdiko laguntzak	4.703.561	8.564.361	2.063.577	8.938.408	0,7	1,3	0,3	1,4	333,15	328,51
Beste prestazio ekonomiko batzuk	22.615.230	19.824.102	27.983.628	13.847.982	3,5	3,0	4,2	2,1	-50,51	-51,04
BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA	27.318.791	28.388.463	30.047.205	22.786.390	4,3	4,2	4,5	3,5	-24,16	-24,98
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA	633.119.638	663.529.563	669.858.246	651.708.491	99,4	99,3	99,7	99,3	-2,71	-3,75
Familiantzako transferentzia pribatuak	4.133.668	4.669.098	2.284.024	4.835.156	0,6	0,7	0,3	0,7	111,69	109,42
FAMILIANTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUETAKO GASTUA GUZTIRA	4.133.668	4.669.098	2.284.024	4.835.156	0,6	0,7	0,3	0,7	111,69	109,42

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Beherako joera EPOra iritsi da 2016-2017 aldian, gastua are gehiago murriztuz: -% 2,99 prezio nominaletan eta -% 4,03 termino konstanteetan. 2015-2016an, EPOren gastua oraindik hazten zen % 1,23 prezio konstanteetan⁵.

GLL gastuak bakarrik egin du gora 2016-2017 urteetan, bai termino nominaletan eta bai prezio konstanteetan ere. Prestazio horietako gastua haztea areagotzen da, gainera, % 8,81 haziz termino nominaletan eta % 7,64 prezio konstanteetan. Azken urteetan hazkundearen erritmo horiek gizarte-zerbitzuen erdigunekoak baino handiagoak dira eta 2015-2016 aldian jasotako oso gainera daude, aldi hartan % 1,04 hazten baitziren prezio konstanteetan. Termino erlatiboetan, GLLko gastuaren hazkundea 2016-2017 aldian DBE-EPO gastu bateratuan atzematen den beherakadaren % 30,2 da.

EAEko DBE/EPO/GLL prestazio-sistemaren gastuaren joerak aldaketa ageri du barne-banaketan. Alde batetik, DBEko gastuaren pisu erlatiboa urritu egin da, 2014ko % 77,5etik 2017ko % 76,6ra. Haren ekarpena handitzen ikusi ondoren, 2014ko % 16,8tik 2016ko % 17,4ra, parte-hartze hori berriz murrizten da 2017an, % 17,1arekin, 2015eko % 17,2ren azpitik. Bestalde, GLLren pisuak gora egin du. Prestazio horiek 2014 eta 2016 bitartean prestazio-sistema horren gastu osoaren % 5,6 eta % 5,7 artekoak izan ondoren, 2017an % 6,3ra hazi da haien pisua.

LISMI, GOF eta, funtsean, kotizatu gabeko pentsioen (KGP) gastua bigarren tokian agertzen da, DBE/EPO/GLL sisteman egindako gastutik urruti badago ere. 2017an pertsona eta familientzako transferentzietara bideratutako guztizko gastuaren % 9,6 izan zen (63,13 milioi euro), gorako joera progresiboa eginez 2015eko % 9ren gainera, baina artean ere 2013an iritsitako % 9,7 gorenetik urruti. Gastuaren hazkundea prestazio-multzo horretan % 1,99koa da 2016-2017 aldian (% 0,90 termino konstanteetan, beherako joeran, 2015-2016 aldiko % 1,23koaren aldean).

Barne-desberdintasun handiak atzematen dira aztertutako prestazioen dinamikei dagokienez. Izan ere, 2016-2017 aldian, LISMI prestazioetako gastuak nabarmen murrizten jarraitu badu ere, -% 18,95 jaitsita (-% 19,82 prezio konstanteetan, 2015-2016 aldiko -% 12,30 baino gehiago ere) KGP/GOF partida % 2,12 igo da (% 1,09 prezio konstanteetan). Azken kasu horretan ere gastua murrizten da, ordea, 2015-2016 urteen aldean (aldi horretan % 1,38 igo zen prezio konstanteetan).

Hirugarren gastu-arlo nagusia familientzako prestazioen arloa da. 2017an, gastu hori 49,75 milioira iritsi zen, hau da, transferentzietako gastuaren % 7,6. Laneko eta familiako bizitza kontziliatzeko gastua 23,91 milioikoa da (guztiaren % 3,6) eta familia eta seme-alabentzako prestazioetara bideratutakoa 25,84 milioi (guztiaren % 3,9).

Jaiotze-tasaren beherakadarekin batera, 2016-2017 aldiko dinamika betiere familia-prestazioen gastua murriztekoa da, haien multzoan guztira -% 10,88 jaitsi baitira, (-% 11,83 termino konstanteetan). Horrek azaltzen du prestazioentzako gastuaren multzoan haiek duten parte-hartzea betiere beherako joeran egotea. Izan ere, 2015ean iritsi zen % 8,8 izatera, 2014an atzemandako gastuaren joera berpiztu ondoren, 2016an % 8,3 eta 2017an % 7,6 izan zen (oraindik 2014ko % 7,4aren gainera).

⁵ Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren gaineko arautegia garatu izana, tartean dela Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren aplikazioan egindako aurrerapena, aipagarria da, horrek azaltzen duelako gehiago murriztu izana EPO gastua DBE gastua baino.

Gainerako prestazio publikoek, gizarte-larrialdiko laguntzek eta beste prestazio ekonomiko batzuek 22,79 milioi euro hartu zituzten⁶. Kasu horretan, 2016-2017 aldiko joerak erabat eten du 2012-2016 aldiko ezaugarri nagusia izan zen gastuaren igoera deigarria. Adibidez, -% 24,16ko jaitsiera nominala erregistratu zen gastuaren partida horretan 2016-2017 aldian (-% 24,98 prezio konstanteetan), kontrastea egiten duena 2015-2016 aldiko igoerarekin (+% 4,26 termino konstanteetan). Gastuan duen parte-hartzea, 2012an % 2,6koa zena, 2016an % 4,5 izatera iritsi zen. 2017an nabarmen murriztu zen % 3,5era.

Gobernuz kanpoko erakundeetako pertsonen eta familientzako transferentziak guztira 4,84 milioi euro izan dira, hau da, aztertutako gastu guztiaren % 0,7. 2016koaren aldean nabarmen handitu eta 2014tik izandako maila altuena termino nominaletan iristen badute ere, prestazioetako gastu osoan duten parte-hartzea oraindik 2012ko % 0,9aren azpitik geratzen da.

3.3.2. Gastuaren aldeak lurralde historikoen arabera

Prestazioetako gastuaren datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, interes handiko aldeak jartzen dira agerian. Araudi komunari lotuta egon arren, eta pobrezia-errealitate desberdinek baldintzatu arren, 2017an deigarria da DBE eta EPO gastuak lurraldeen arabera duen eragin desberdina.

Bi partida horien gasturik handiena Bizkaikoa da oraindik, lurraldearen BPGd-aren % 0,79arekin, ondoren dela Araba, % 0,67arekin. Gipuzkoa urrun dago, gastua haren BPGd-aren % 0,45 dela. Hiru lurraldeetan gastuaren beherakada handia atzematen da, kasu guztietan Araban handiagoa dela Gipuzkoan baino, eta Bizkaia delarik beherako joera apalena duena. DBEri dagokionez, beherakada termino nominaletan, Araban, -% 3,93koa da, Gipuzkoan -% 2,54koa eta Bizkaian -% 0,40koa. Murrizketa askoz ere handiagoa da EPOn, Araban -% 6,88koa izan baita, Gipuzkoan -% 3,05ekoa eta Bizkaian -% 1,86koa.

Aipatutako joerak agertzen dira BPGd-aren gaineko ekarpenaren beherakada handiago batean Araban (-% 0,056 puntu behera, 2016ko % 0,72tik 2017ko % 0,67ra). Beherakada -0,037 puntukoa da Bizkaian (% 0,82tik % 0,79ra) eta -0,034 puntukoa Gipuzkoan (% 0,49tik % 0,45era).

Gipuzkoako DBE/EPO gastuak harreman zuzena du lurralde horretan beste prestazio ekonomiko batzuetan egindako ahalegin diferentzialarekin, prestazio horietan BPGd-aren % 0,06 gastatu baitzuen, Araban % 0,04 eta Bizkaian % 0,01 gastatu zutelarik. 2012-2015 aldian atzemandako igoera handiaren ondoren, 2016an apalagoa izan zena eta neurri handian Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren (DBL) agerpenari lotua zegoena, 2016-2017 aldian beste prestazio ekonomiko batzuetako gastu nominalaren beherakada oso handia atzematen da (-% 30,61ekoa, Arabako -% 19,18 handia baino gehiago). Bizkaian, berriz, ekarpena aldi horretan % 5,24 hazi zen, lurralde hartako gastuaren abiapuntua Arabakoa eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa zela.

BPGd-ari dagokionez, beste prestazio mota horietako gastuaren ekarpena Gipuzkoan 2016ko % 0,09tik 2017ko % 0,06ra igaro zen, eta Araban % 0,05etik % 0,04ra. Gastua handitu arren, BPGd-arekiko harremanean % 0,01 eskas batean mantentzen da 2017an.

⁶ Diru-partiden definizioan izaten diren ausazko aldaketak direla medio, gizarte-larrialdiko laguntzen eta prestazioen atal honetan sartzen diren gainerako gizarte-prestazioen bilakaera tentu handiz aztertu beharrekoa da. Arrazoi horregatik, txostenean jarraitutako tratamendua beste prestazio batzuetan izandako gastua multzoan aztertzea izan da.



2015-2016 aldiko datu azpimarragarri bat zen lurraldeko gastua GBLan berdindu zela, 2016an parekatuz BPGd-aren % 0,04an lurralde historiko desberdinetan. Berdintze hori lotzen zen GBLan Araban 2015-2016 aldiaren atzetan zen gastu-murrizketa handiarekin (-% 6), Bizkaian eta Gipuzkoan gastua % 4 eta % 5,7, hurrenez hurren, hazten ari zen testuinguru batean. Aldaketa deigarri horrek Araban 2012tik 2015era partida horri dagokion gastuan izandako handitzeko joera diferentziala hausten zuen (urte horietan % 109,8 handitu zen Araban, Gipuzkoan % 70,9 eta Bizkaian % 43,6).

2016-2017 aldiaren Araban berriz ere gorako joera ageri da, gastua % 6,14 handituz, Bizkaiko % 8,52aren azpitik, hala ere. Bi lurralde horiek GBLrako BPGd/gastua handitu zuten % 0,05era. Gipuzkoa, berriz, % 0,04an mantendu zen, partida horretan 2016-2017 aldiaren gastua gehien handitu zuen lurraldea izan bazen ere (% 10,96).

Aldeak txikiak dira betiere, bestalde, KGPetan eta GOFen egindako gastuari dagokionez, baina gastua handixeagoa izan zen Bizkaian: % 0,10 Bizkaian, % 0,08 Gipuzkoan eta % 0,07 Araban. Datuak egonkor daude 2016koen aldean.

Familientzako prestazioetako BPGd/gastua ere antzekoa da, Araban % 0,08 baita, Bizkaian % 0,07 eta Gipuzkoan % 0,06. Araban eta Gipuzkoan BPGd/gastua jaitsi zen 2016an, % 0,10 eta % 0,08rekin, eta Bizkaian urte hartako 0,07 mantendu zen. Hori gertatu da kontziliazioaren partida 2016-2017 aldiaren gutxiago murriztu delako eta lurralde bakarra delako aztertutako aldiaren familientzako eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoaren gastua handitzen duena (% 5,08).

12. taula. Gizarte-prestazioetako gastua (familientzako transferentziak) lurralde historikoen arabera. 2017 (Gastu nominala eurotan, BPGd-aren %-a eta urte arteko bariazioa 2016-2017 gastuaren %-tan)

	BPGd % 2017				Bariazioa 2016/2017 aldiaren %-tan			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa
GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA	0,90	0,69	1,02	0,89	-5,61	-5,69	0,27	-2,32
LISMI	0,00	0,00	0,00	0,00	-11,95	-38,09	-9,36	-18,95
KGP/GOF	0,07	0,08	0,10	0,08	4,47	2,55	1,50	2,19
LISMI/KGP/GOF GUZTIRA	0,07	0,08	0,10	0,09	4,29	2,14	1,40	1,99
DBE	0,55	0,36	0,64	0,54	-3,93	-2,54	-0,40	-1,48
EPO	0,12	0,09	0,14	0,12	-6,88	-3,05	-1,86	-2,99
GLL	0,05	0,04	0,05	0,04	6,14	10,96	8,52	8,81
DBE/EPO/GLL GUZTIRA	0,71	0,49	0,83	0,70	-3,85	-1,68	-0,19	-1,16
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	0,04	0,03	0,03	0,03	-13,08	-6,94	5,08	-2,52
Familia eta lana kontziliatzea	0,04	0,03	0,03	0,03	-22,90	-21,76	-14,41	-18,44
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA	0,08	0,06	0,07	0,07	-18,35	-14,43	-5,32	-10,88
Gizarte-larrialdiko laguntzak	0,03	0,02	0,00	0,01	1.936,20	327,28	-13,17	333,15
Beste prestazio ekonomiko batzuk	0,01	0,04	0,01	0,02	-89,11	-47,69	11,73	-50,51
BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA	0,04	0,06	0,01	0,03	-19,18	-30,61	5,24	-24,16
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA	0,90	0,69	1,01	0,88	-5,50	-5,91	-0,35	-2,71
Familientzako transferentzia pribatuak	0,01	0,00	0,01	0,01	-19,02	1.239,60	174,63	111,69
FAMILIENTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUEN GASTUA GUZTIRA	0,01	0,00	0,01	0,01	-19,02	1.239,60	174,63	111,69

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Oro har, prestazio-sisteman nagusi diren DBE eta EPO prestazioetan Bizkaiak egiten duen ekarpen diferentzialak BPGd/prestazioetako multzoko gastu handiago bat dakar: BPGd-aren % 1,02 Bizkaian, Araban % 0,90 eta Gipuzkoan % 0,69. Bizkaian gorako diferentzial horri gehitzen zaio ekarpen handixeagoa egiten duela LISMI/KGP/GOF prestazioetan.



4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa

Txostenaren atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta horiekin lotutako gizarte-prestazioetako gastu arrunt osoaren finantzaketa-egitura aztertzen da. Azterketaren ardatza zentro/zerbitzu motak eta prestazio motak dira berriro ere, bai eta lurraldeen alderdi osagarriak ere. Hurbilketak zehatz-mehatz ezartzen du, gainera, era espezifikoan, finantzaketan erabiltzaileek duten partaidetza eta foru-aldundiek eta udalek finantzaketan duten finantzaketa-eginkizuna.

4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak

Gizarte-zerbitzuen erdigunea eta gizarte-prestazioak multzo bakarrean aztertuta, 13. taulan egiazta daiteke foru-aldundiek jarraitzen dutela izaten sistemaren finantzatzaile nagusiak. 2017an gastu arruntaren % 41,4 estali dute, finantzaketa mota horrek 2014an iritsi zuen % 41,2ko gorenaren gainetik. Hazkundearen erritmoa 2015-2016 aldiko % 5,29 baino txikiagoa bada ere, oraindik handia da 2016-2017 aldian, % 3,76arekin, batez besteko % 2,97ko hazkundearen gainetik.

Eusko Jaurlaritza da bigarren finantzabidea. Gastua 2016-2017 aldia -% 0,66 jaitsi zenez, haren ekarpena ere murriztu zen eta 2014-2016 bitartean % 30,8 eta % 31,0 artekoa izatetik 2017an % 29,8 izatera igaro zen.

13. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta finantzabidearen arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017 aldian gastuaren %-tan)

Finantzabidea	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016-2017 aldian %-tan
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu arrunta guztira	1.979,54	2.001,34	2.073,39	2.135,03	100	100	100	100	2,97
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	53,28	64,17	72,46	102,00	2,7	3,2	3,5	4,8	40,77
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	609,38	620,21	640,29	636,08	30,8	31,0	30,9	29,8	-0,66
Foru-finantzaketa	814,93	809,83	852,71	884,78	41,2	40,5	41,1	41,4	3,76
Udal-finantzaketa	177,23	185,58	178,07	171,09	9,0	9,3	8,6	8,0	-3,92
Finantzaketa pribatua	324,72	321,55	329,87	341,07	16,4	16,1	15,9	16,0	3,40
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.342,29	1.333,14	1.401,25	1.478,49	100	100	100	100	5,51
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	53,28	64,17	72,46	102,00	4,0	4,8	5,2	6,9	40,77
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	69,54	52,45	68,77	77,22	5,2	3,9	4,9	5,2	12,28
Foru-finantzaketa	739,66	732,59	774,01	810,96	55,1	55,0	55,2	54,9	4,77
Udal-finantzaketa	159,22	167,05	158,43	152,07	11,9	12,5	11,3	10,3	-4,01
Finantzaketa pribatua	320,59	316,89	327,58	336,24	23,9	23,8	23,4	22,7	2,64
Gizarte-prestazioak	637,25	668,20	672,14	656,54	100	100	100	100	-2,32
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	539,84	567,76	571,52	558,86	84,7	85,0	85,0	85,1	-2,21
Foru-finantzaketa	75,27	77,24	78,70	73,82	11,8	11,6	11,7	11,2	-6,19
Udal-finantzaketa	18,01	18,53	19,64	19,02	2,8	2,8	2,9	2,9	-3,17
Finantzaketa pribatua	4,13	4,67	2,28	4,84	0,6	0,7	0,3	0,7	111,69

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Arlo publikoan udalen ekarpena hirugarren postuan agertzen da % 8arekin. 2012ko % 8,7tik 2015eko % 9,3ra igo ondoren, 2016ko datuak aldaketa nabarmena erakusten du, udalen ekarpen erlatiboa bere mailarik baxuenera daramana 2012tik hona, % 8,6arekin. Joera aldatzetik urrun, gastu nominala 2016-2017an berriz jaitsi da udalen markoan (-% 3,92), eta 2017ko Udalen eta Mankomunitateen ekarpen finantzarioa % 8 soilean uzten du.

Erkidegoz gaindiko finantzaketak, berriz, gorako joerari eusten dio. Finantzaketan zuen parte-hartze erlatiboa 2013ko % 4,4tik 2014ko % 2,7ra jaitsi ondoren, 2017an mantendu egin da 2014tik 2016ra atzeman zen gorako joera, % 4,8ko ekarpena eginez sistemari. Termino nominaletan, guztizko gastuaren finantzaketak erkidegoz gaindi izandako ekarpena, mendekotasunaren arloko sistemari dagokiona, batik bat, jadanik % 12,91 areagotu zena 2015 eta 2016 bitartean, % 40,77raino igo da 2016-2017 aldian⁷.

Sektore pribatuari dagokio gastuaren finantzaketaren gainerako % 16,0a. Horrekin eten da protagonismoa galtzeko 2013tik atzematen zen joera, urte hartan % 16,8koa izanik, 2016an % 15,9ra jaitsi baitzen, 2012tik izan den txikienera, alegia. Gastuaren finantzaketa pribatua % 2,59 handitu zen termino nominaletan 2015-2016 aldian, eta pixka bat areagotu zen 2016-2017 aldian, hazkundea % 3,40ra eramanez, aldi horretako % 2,97ko batezbesteko orokorraren gainetik.

4.2. Gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketa

Zerbitzu eta prestazio guztiak batera aztertzean ikusitakoarekin alderatuta, 13. taulak erakusten du, baita ere, foru-aldundien finantzaketak pisu handiagoa duela, eta nagusia dela gizarte-zerbitzuen erdigunean. Kasu honetan, hain zuzen ere, foru-aldundiek % 54,9ko ekarpena egin diote finantzaketari 2017an. 2014-2016 aldiko zenbakien azpitik bada ere, proportziorik gorenean mantendu da zenbakia, 2012ko % 53,5etik. 2016. urtetik 2017.era, foru-erakundeek gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketari egin dioten ekarpen absolutua handitu da % 4,77 eta hazkunde-erritmoa 2015-2016 aldiko % 5,65etik hurbil mantendu da.

2017an, Udalek gizarte-zerbitzuetako erdigunearen finantzaketaren % 10,3 eman dute. Kasu horretan 2012tik erregistratutako ehunekorik txikiena errepikatzen da, aurreko 2016ko minimoaren ondoren (% 11,3). Gizarte-zerbitzuen erdiguneari egindako ekarpen absolutua murriztu da, izan ere, 2016-2017 aldian, -% 4,01, betiere erritmo apalagoan, 2015-2016 aldiko -% 5,16a baino.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen finantzaketan, erkidegoaren ekarpena 2017an ozta da % 5,2koa erkidegoz gaindiko instituzioei dagokien % 6,9aren azpitik⁸. Bi kasuetan ere, jadanik 2016an gertatzen zen bezala, proportzio horiek gorako joera nabarmena erakusten dute 2015eko zenbakien aldean (% 3,9 eta % 4,8 hurrenez hurren), eta 2014koen aldean ere, erkidegoz gaindiko ekarpenari zegokionez (urte hartan % 4). Izan ere, 2017an gainditu zen 2012tik atzemandako ekarpen erlatiborik gorena (% 5,2 Eusko Jaurilaritzaren kasuan 2014an, eta % 6,4 2013an, estatuko eta Europako erakundeei zegokienez).

Goranzko joera hori, nolana ere, finantzaketaren ekarpena nabarmen handitzearekin lotuta dago, 2016 eta 2017 artean % 40,77 igo baita erkidegoz gaindiko erakundeei dagokien zatian eta % 12,28 erkidegoko erakundeei dagokien zatian.

⁷ 2016-2017 aldian, handitzeko joera neurri batean lotua dago 2017an zenbait partida handiren atzerapenak iritsi izanarekin, batez ere SAADek zenbait foru-aldundiri egindako ekarpenei dagokienez. Horrek eragina du, halaber, gizarte-zerbitzuetako erdigunean gastuak duen banaketan.

⁸ Ikus 7. oharra



Finantzaketa pribatuaren pisua % 22,7 izan zen, eta beherakada jarraitua izan du 2013ko % 24,2tik, 2017an erakutsiz 2012tik erregistratu den mailarik baxuena. Termino absolutuetan, berriz, finantzaketa pribatuak gorako joera mantendu du, % 2,64 handituz 2016-2017 aldian, jaitsiera erlatiboan jarraituz, 2015-2016 aldiko % 3,38koaren aldean. Finantzaketa pribatuak pisu erlatiboa galdu izanaren arrazoa da ekarpenaren hazkundera urriagoa izan dela foru-aldundiei, Eusko Jaurlaritzari eta erkidegoz gaindiko erakundeei dagokiena baino.

4.2.1. Arloa eta zentro/zerbitzu mota

14. taulan ikustenenez, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean (sektoreko zerbitzu orokorrak), ekarpenik handiena foru-aldundiei dagokiena da, % 33,2arekin (% 33,0koa, gastuaren gaineko ekarpen garbia egiten duten administrazioak bakarrik aintzat hartuz gero). 2012-2013 aldian % 45,5etik % 54,1era handitu ondoren, ordutik aurrera beherako joera atzematen da, 2014tik 2016ra jaitsiera moderatuak erakutsi ondoren, % 47koa 2016an, 2017an areagotu dena. Esaterako, foru-erakundeen gastua egitura orokorrean -% 33,17 jaitsi da 2016-2017 aldian, eta dinamika horretan defizitaren gaineko gastuaren kontroleko prozesuak garrantzitsuak izan dira.

14. taula. Gizarte-zerbitzuen egiturako gastu arrunta finantzabidearen arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak - euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

									Bariazioa 2016- 2017 aldian
	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	
Gastu-sektorea eta finantzabidea	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
EGITURA GUZTIRA	194,95	167,45	185,84	210,33	100	100	100	100	13,18
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,09	0,55	0,04	0,18	0,0	0,3	0,0	0,1	307,51
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	44,42	27,46	40,27	47,77	22,8	16,4	21,7	22,7	18,63
Foru-finantzaketa	98,09	81,62	89,86	108,60	50,3	48,7	48,4	51,6	20,85
Udal-finantzaketa	51,35	56,55	53,43	53,85	26,3	33,8	28,8	25,6	0,79
Finantzaketa pribatua	0,98	1,27	2,24	-0,08	0,5	0,8	1,2	0,0	-103,40
Egitura orokorra (defizita/superabita)	97,01	67,42	81,94	77,54	100	100	100	100	-5,37
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,55	0,03	0,18	0,0	0,8	0,0	0,2	582,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	40,25	23,94	35,44	45,29	41,5	35,5	43,3	58,4	27,78
Foru-finantzaketa	49,21	32,44	38,49	25,72	50,7	48,1	47,0	33,2	-33,17
Udal-finantzaketa	6,92	9,22	6,61	6,67	7,1	13,7	8,1	8,6	0,88
Finantzaketa pribatua	0,60	1,27	1,38	-0,31	0,6	1,9	1,7	-0,4	-122,45
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	97,94	100,03	103,90	132,79	100	100	100	100	27,80
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,07	0,00	0,02	0,00	0,1	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,17	3,52	4,83	2,49	4,3	3,5	4,6	1,9	-48,50
Foru-finantzaketa	48,88	49,18	51,38	82,88	49,9	49,2	49,4	62,4	61,32
Udal-finantzaketa	44,43	47,33	46,82	47,19	45,4	47,3	45,1	35,5	0,78
Finantzaketa pribatua	0,38	0,00	0,86	0,23	0,4	0,0	0,8	0,2	-72,77

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Dimentsio horretan, finantzaketa autonomikoaren pisua da handiena, % 58,4ra iristen dela 2017an (gastuaren gaineko ekarpen garbia egiten duten administrazioak bakarrik kontuan hartuz gero % 58,2), 2012tik izan den proportziorik altuena. 2016 eta 2017 artean, egitura orokor horretan egindako gastua % 27,78 areagotu da autonomia-erkidegoan.

Udal erakundeek sektoreko egitura orokorraren finantzaketaren % 8,6 jartzen dute, 2016ko % 8,1aren gainetik. 2015-2016 aldian -% 28,35 jaitsi ondoren, dimentsio horretako gastuaren egonkortasuna islatzen du horrek, are % 0,88ko hazkunde txiki batekin ere.

Erkidegoz gairik finantzaketarik ez da ia izan gizarte-zerbitzuen esparru horretan, baina positiboa da, finantzaketa pribatuari dagokionez ikusi denaz bestela. Azken kasu horretan, jaitsiera nabarmenak ikusten dira egitura orokorraren gaineko ekarpenari dagokionez, eta finantzaketaren ekarpen garbi negatiboa, egitez erakusten duena superabit joera bat dagoela instituzio horietan 2016-2017 aldian.

14. taulak erakusten duenez, oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatuei dagokienez, foru-aldundien eta udalen ekarpena oraindik nagusi da 2017ko finantzaketan.

Foru-aldundien kasuan, haien ekarpenak oinarrizko egitura horren gastuaren % 62,4 finantzatzen du. Proportzio horrek hazkunde handia erakusten du zerbitzu horien finantzaketan foru-erakundeek egiten duten ekarpenean, bai 2016ko % 49,4aren aldean, bai 2012ko % 56,1aren aldean ere. Izan ere, 2013tik oinarrizko zerbitzuei eta espezializatuei aldundiek egiten zieten ekarpen absolutua handitzen bazen ere, 2015-2016 aldian, % 4,46ko hazkunde erantsiarekin, 2016-2017 aldian ikusten den % 61,32ko gehikuntzak aldaketa kualitatiboa dakar. 2017an, lehenengo aldiz 2012tik gairitzen da, modu argian gairitu ere, urte hartako ekarpen kuantitatiboa (82,88 milioi 2017an, 2012an 58,93 milioi, eta 2016an oraindik 51,38 milioi).

Zerbitzu hauen finantzaketan udalek egiten duten ekarpenari dagokionez, 2012ko % 38tik 2015eko % 47,3ra igo ondoren, 2016an jaitsi da % 45,1era eta 2017an % 35,5 urri batera. Portzentaje hori lotzen da, alde batetik, 2016-2017 aldian foru-erakundeek ekarpenean izandako hazkunde handiarekin eta bestetik, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan udalen gastua geldiarazi izanarekin (% 0,78 eskas bat igo da, 2015-2016 aldian -% 1,08 jaitsi ondoren).

Egonkortze-prozesu horrek ondorio nabarmenak ditu gastuan. Adibidez, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan udalen gastuaren hazkundera 2012 eta 2015 bitartean mantentzen zelarik, 39,90 milioitik 47,33 milioira igaroz, 2015 eta 2017 bitartean egonkortzen da gastua, 2017an 47,19 milioi gastatu baitziren. Termino nominaletan 2012tik izandako bigarren ekarpenik altuena bada ere, esparru horretan ere ikus daiteke gizarte-zerbitzuen arloko udal gastuaren gaineko kontrol-dinamika.

2016-2017 aldian erkidegoaren ekarpenak nabarmen behera egin ondoren, administrazio hori bazterreko lekuan geratzen da oinarrizko zerbitzu horien finantzaketari dagokionez. Izan ere, 2016an aztertutako gastuaren % 4,6 estaltzera iritsi ondoren, proportzioa % 1,9ra jaitsi da 2017an, joera horrek erantzuten diolarik, hala ere, Euskadin gizarte-zerbitzuen sistemarako ezarritako eskumen-banaketari.

Aztertu den gizarte-zerbitzuen oinarrizko sektorearen mantenuaren finantzaketa pribatuari dagokionez, berriz, hutsaren hurrengoa da, 2017ko % 0,2arekin.



15. taulak adinekoentzako, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketaren egitura aurkezten du. Taula horrek erakusten du, orotara, foru-aldundiek finantzatzeko dutela sektoreko gastuaren % 52,7, horren gainetik zeudela 2014 eta 2016 bitarteko % 53,5 eta % 54,1 arteko portzentajeak. Gizarteko esku-hartzearen arlo horretako finantzaketan foru-erakundeek duten parte-hartzea handitu ondoren, 2012ko % 51,2 hartatik, 2017ak aldaketa ekarri du, protagonismo erlatiboa galtzeko bidean jarrita. Izan ere, 2016-2017 aldian, foru-erakundeek gastuaren hazkunde-eritmoa apaldu zen, % 1,26 igo baitzen, 2015-2016 aldiko % 5,29aren oso azpitik, eta adinekoentzako eta mendekotasuna nahiz Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuetako gastuaren eman den hazkunde orokorraren azpitik ere.

15. taula. Adinekoentzako eta Desgaitasuna/gaixotasunak nahiz mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastu arrunta, finantzabidearen arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

	2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016- 2017 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu-sektorea eta finantzabidea	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOA GUZTIRA	991,49	1006,13	1047,46	1088,97	100	100	100	100	3,96
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	52,98	63,34	70,77	97,64	5,3	6,3	6,8	9,0	37,97
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	15,47	15,55	19,13	19,40	1,6	1,5	1,8	1,8	1,44
Foru-finantzaketa	532,66	538,27	566,74	573,90	53,7	53,5	54,1	52,7	1,26
Udal-finantzaketa	77,37	79,05	72,23	67,30	7,8	7,9	6,9	6,2	-6,83
Finantzaketa pribatua	313,01	309,92	318,59	330,72	31,6	30,8	30,4	30,4	3,81
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	595,99	611,83	630,95	651,61	100	100	100	100	3,27
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	27,53	36,09	38,52	54,70	4,6	5,9	6,1	8,4	42,01
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,34	0,16	3,52	2,80	0,1	0,0	0,6	0,4	-20,57
Foru-finantzaketa	266,26	268,36	275,36	272,72	44,7	43,9	43,6	41,9	-0,96
Udal-finantzaketa	35,28	36,65	34,25	31,05	5,9	6,0	5,4	4,8	-9,35
Finantzaketa pribatua	266,59	270,57	279,30	290,34	44,7	44,2	44,3	44,6	3,95
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	198,90	192,72	200,39	209,22	100	100	100	100	4,40
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	12,80	13,90	16,62	19,75	6,4	7,2	8,3	9,4	18,88
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	9,95	9,27	9,00	10,85	5,0	4,8	4,5	5,2	20,59
Foru-finantzaketa	138,67	140,93	146,45	149,86	69,7	73,1	73,1	71,6	2,33
Udal-finantzaketa	2,03	0,58	0,82	0,65	1,0	0,3	0,4	0,3	-20,55
Finantzaketa pribatua	35,46	28,02	27,52	28,11	17,8	14,5	13,7	13,4	2,15
Etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	90,21	90,06	90,97	97,23	100	100	100	100	6,88
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	2,94	2,93	3,42	7,30	3,3	3,3	3,8	7,5	113,61
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	5,18	6,12	6,61	5,76	5,7	6,8	7,3	5,9	-12,89
Foru-finantzaketa	31,06	27,88	32,05	36,32	34,4	31,0	35,2	37,4	13,33
Udal-finantzaketa	40,06	41,82	37,13	35,58	44,4	46,4	40,8	36,6	-4,17
Finantzaketa pribatua	10,97	11,32	11,77	12,27	12,2	12,6	12,9	12,6	4,26
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	106,39	111,52	125,14	130,90	100	100	100	100	4,61
Erkidegoz gaidiko finantzaketa	9,72	10,42	12,22	15,89	9,1	9,3	9,8	12,1	30,02
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	
Foru-finantzaketa	96,67	101,10	112,89	115,00	90,9	90,7	90,2	87,9	1,87
Udal-finantzaketa	0,00	0,00	0,03	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	
Finantzaketa pribatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Foru-erakundeen finantzaketaren bilakaera neurri handi batean erkidegoz gaindiko ekarpenaren hazkundeari lotzen zaio. Ekarpenera hori % 37,97 hazi zen 2016-2017 aldirian, 2015-2016 aldiriko % 11,74aren gainetik ere. Gehikuntza horren osagai handi bat Administrazio Zentralak zailtasun finantzarioak izan zituen aldirian aurreikusiak zeuden baina atzerapenez egikaritu ziren finantzaketaren doikuntza da⁹. Erkidegoz gaindiko administrazioen finantzaketa gora dator nabarmen 2014ko % 5,3tik, eta 2017an adinekoen, Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuetako gastuaren % 9 finantzatzen dute. Horrenbestez, susperraldia etorri den urteetan lehenengo aldiriz gainditu dira 2012-2013 aldirian iritsitako % 8,2a eta % 8,4a.

Eusko Jaurlaritzaren ekarpenera, berriz, 2017an % 1,8an mantentzen da, alegia, 2016ko maila berean. Erkidegoaren ekarpenera 2015-2016 aldirian bizkor hazi ondoren (+% 23,01), ekarpen mota horrek egonkortzeko joera hartu zuen 2016-2017 aldirian (% 1,44).

Udalen ekarpenera murrizteko joera bere horretan mantentzen da, 2016-2017 aldirian udalen gastua -% 6,83 jaitsi baita, 2015-2016 aldiriko -% 8,63 murrizketaren ildotik jarraiki. Horren ondorioa da udalen ekarpenera murriztu dela 2017an: 2012 eta 2015 bitarteko aldirian nolabait egonkor iraun ondoren, ekarpenera % 7,6 eta % 8,1 bitartekoa zela, orduetik hona murrizketa nabarmena egiteko joera ikusten da, 2016an % 6,9koa eta 2017an % 6,2koa izan baita.

Gizarte-zerbitzuen esparru honetan, finantzaketa pribatuaren pisua nabarmena da, eta 2017an mantentzen da 2016an lortutako % 30,4an. Behera egin du, ordea, 2012 eta 2014 bitarteko datuekin alderatuta (% 31,0 eta % 31,6). Sektore honen finantzaketa pribatuak kopuruak handitzeko joera ageri du, batez besteko gastu osoaren azpi samarretik bada ere. Beraz, finantzaketa pribatuaren hazkundera 2015-2016 aldiriko % 2,80tik 2016-2017 aldiriko % 3,81era igo da.

Sektorearen barruan izandako esku-hartze mota desberdinak aztertuta, foru-aldundien finantzaketaren pisuak gailurra mendekotasunerako prestazioetan jo duela ikusten da, % 87,9arekin. Kasu horretan, 2015-2016 aldirian ikusitako % 11,66aren aldean, foru-erakundeek ekarpenaren hazkundera % 1,87ra mugatzen da.

Lehen esan den bezala, hori lotzen da erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpenaren eguneraketarekin, funtsean SAADen ekarpenen bidez. Kasu honetan finantzaketa % 30,02 hazi da 2016-2017 aldirian, 2015-2016 aldiriko % 17,25 handiaren gainetik ere. Prestazio horien osoko finantzaketari egiten zaion ekarpenera % 12,1era iritsi da 2017an, nabarmen gora eginez 2014ko % 9,1aren, 2015eko % 9,3aren eta 2016ko % 9,8aren aldean. Hala ere, ez da iristen 2013an iritsitako % 14,1era.

Horrek krisialdian mendekotasunaren finantzaketaren ekarpenean izandako jaitsiera handia erakusten du: 2012an eta 2013an 13,20 eta 14,94 milioi euro, hurrenez hurren; 2014an 9,72 milioi, 2015ean 10,42 milioi eta 2016an 12,22 milioi. Finantzaketaren errealitate osoa islatzen ez badute ere, ordainketa horien barnean atzerapenak gehitzen direlako, 2017ko 15,89 milioiak lehenengo aldiriz daude 2013ko 14,94 milioien gainetik, bai termino nominaletan bai konstanteetan.

Foru-aldundiek parte-hartze handia dute, halaber, desgaitasun edo edo gaixotasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen arloan. Kasu honetan, foru-erakundeek finantzaketa sektorearen finantzaketa osoaren % 73,1era iritsi zen 2016an, 2015eko proportzio bera, baina nabarmen gaindituta 2012 eta 2014 bitarteko % 68,4 eta % 69,7 arteko kopuruak. Erkidegoz gaindiko finantzaketa berriz sendotzen ari delarik, proportzioa hala ere jaitsi egin da pixka bat

⁹ Ikus 7. oharra



2017an, eta % 71,6an kokatu da. Foru-erakundeek ekarpena finantzaketan, hala ere, gora bidean da, 2016-2017 aldian % 2,33arekin, baina hazkunderaren erritmoa apalduta 2015-2016 aldiko % 3,91ren aldean.

Desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonen arretari dagokionez, erkidegoz gairik erakundeek ekarpena % 9,4koa izan zen 2017an. Ehuneko horrek gora egin du 2014ko % 6,4tik baina, hala ere, ez da iristen 2012an izandako % 9,7ra. Zenbateko absolutuetan, erkidegoz gairik ekarpena 2012ko 17,25 milioi eurotik 2014ko 12,80 milioira jaitsi zen. Hala ere, 2015-2016 aldian gastua % 19,53 eta 2016-2017 aldian % 18,88 hazi ondoren, 2017ko 19,75 milioiak kopururik handiena dira 2012tik.

2017an, erkidegoak sektorearen finantzaketari egin dion ekarpena % 5,2koa da, nabarmen 2016ko % 4,5etik gora. Sektore horretarako erkidegoaren gastua 2016-2017 aldian nabarmen hazi izanak (+% 20,59) aldatu egin du 2015-2016 aldiko beherako joera ez ezik (-% 2,99), erakunde horien ekarpenean 2012ko % 5,4tik atzematen zen beherako joera ere.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen zentro eta zerbitzuen finantzaketan udalek egin duten ekarpena oso txikia da 2017an ere (% 0,3 besterik ez).

Desgaitasuna/gaixotasunaren arloan, finantzaketa pribatua berriro pizten da nolabait, % 2,15 hazi baita 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldian sektoreari egin zion ekarpenean izandako -% 1,82ko jaitsiera itzulikatuz. Hala ere, sektorearen batezbestekoaren azpitik hazi denez, oraindik ere mantentzen da haren ekarpen erlatiboaren beherako joera. 2012tik 2014ra % 15,2tik % 17,8ra igo ondoren, gastuan duten ekarpenak behera egin du, 2016an % 13,7an eta 2017an % 13,4an kokatu dela. Zenbateko absolutuei erreparatu gero, ekarpen pribatuaren 2017ko 28,11 milioi euroak 2012ko zenbatekotik (27,04 milioi) gertuago daude, 2014an 35,46 milioi eurora iritsi ondoren.

Adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, foru-erakundeek finantzaketa orokorrari egindako ekarpena % 41,9koa da. 2012ko % 40,7tik gora dago baina, hala ere, behera egin du 2014an lortutako % 44,7aren aldean. Murrizketa gogor samarra da 2015eko % 43,6 eta 2016ko % 43,9 zenbakien aldean. Neurri handian hori lotzen da 2016-2017 bitartean foru-erakundeek ekarpenean izandako erabateko jaitsierarekin, -% 0,96 jaitsi baitzen, foru-aldundien finantzaketan murrizketa izan duen lerro bakarra, mendekotasuna, desgaitasuna nahiz gaixotasuna duten edo adinekoak diren pertsonen arretaren sektorean. Hala ere, 2015-2016 aldian dagoeneko nabarmentzen hasia zen adineko pertsonen arretaren gastua zela sektore horretan foru-erakundeek gastuan hazkunderik txikiena erakusten zuena (% 2,61 hazi zen, aztertutako arreta-sektore osoa % 4,11 hazi zen bitartean).

Berriz ere, erkidegoz gairik erakundeek ekarpenaren hobekuntza egon daiteke, neurri handi batean, foru-erakundeek finantzaketaren bilakaeraren azalpena. Erakunde horiek adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketari egin dioten ekarpena 2014an % 4,6 soila izatetik, % 8,4ra igo zen 2017an, 2012ko % 7,2aren oso gainetik. Zenbateko absolutuei begira, ekarpena 27,53 milioi eurotik 54,70 milioi eurora igo da 2014tik 2017ra, 2012 eta 2013 urteetako 40 milioi inguruko zenbatekoen gainetik. Aurrerapen nabarmen hori 2016-2017 aldian erkidegoz gairik ekarpenaren bolumen absolutuan izandako % 42,01eko hazkunderaren ondorioa da.

Finantzaketan udalek egiten duten ekarpenari dagokionez, beherako bidean jarraitzen du eta 2017an % 4,8an kokatzen da. 2012tik izandako mailarik txikienean da, eta 2012-2013 urteetako ehunekoetatik (% 6,5- 6,6) aldentzen da, baita 2014-2015 aldiko mailetatik ere (% 5,9-6,0), eta 2016ko % 5,4tik ere bai. Hain zuzen ere, udalek adinekoentzako zentro eta zerbitzuei egindako ekarpen absolutua -% 9,35 jaistearen ondorioa da, 2015-2016 aldian ikusitako -% 6,55eko jaitsiera areagotzen baitu.

Zentro eta zerbitzu mota horretan nabarmena da ekarpen pribatuen pisua, gastu osoaren % 44,6 estaltzen baitute, aurreko urteen antzera nolabait, 2013 eta 2015 bitartean % 44,2 izan baitzen, eta % 45,5 berriz, 2012an. Hala ere, gorako joera txikia ageri du aipatutako 2013tik. 2015 eta 2016 urteen artean % 3,22 eta 2016-2017 aldian % 3,95 igo ondoren, termino kuantitatiboetan ekarpena 2012 eta 2013 urteetako 255 milioi euro ingurutik 290,34 milioi euroko gorenera handitu da 2016an.

Mendekotasuna, desgaitasuna nahiz gaixotasuna duten edo adinekoak diren pertsonen arretaren sektorean, foru-aldundien ekarpen erlatiborik urriena etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren arloari dagokio. Kasu honetan, 2016an foru-aldundiek % 37,4ko ekarpena egin zioten finantzaketa osoari. 2012ko % 37,1etik etengabe behera egin ondoren, proportzioa % 31ra iritsi zen 2015ean, eta urte hartatik gorako joera hartu du oraingo % 37,4ra arte, nolabait 2012aren gainetik dagoen proportziara. Horrekin atzematen da aztertutako gizarteko esku-hartzearen arloan foru-erakundeek ekarpenak gorako joera hartu duela. Gorako joera hori nabarmena da termino kuantitatiboetan, gastua 2015-2016 aldian % 14,96 hazi baita, eta neurri batean hala jarraitzen du 2016-2017 aldian, % 13,33 haziz. 2017ko 36,32 milioiak jadanik 2012ko 35,75 milioien gainetik daude.

2012 eta 2013 bitartean % 40,5etik % 37,5era jaitsi ondoren, etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren arloko programen finantzaketan udalek egiten duten ekarpena 2015ean % 46,4ra igo zen. Orduetik aurrera nabarmen behera hasten da programa horien finantzaketaren parte-hartzea, eta 2016an % 36,6an jarri zen, lehenengo aldiz foru-aldundien ekarpenaren azpitik. Izan ere, murrizketa nabarmena atzematen da udalek eta mankomunitateek programa mota horien finantzaketan egiten duten ekarpen absolutuan. Beherakadarik handiena 2015-2016 aldian atzematen da, -% 11,21 jaitsi baitzen, baina joerak bere horretan jarraitu zuen 2016an eta 2017an, -% 4,17 jaitsi baitzen udalen ekarpena finantzaketan. Izan ere, 2015ean 41,82 milioi eurora igo ondoren, 2017ko 35,58 milioiak 2013ko 34,39 milioiak soilik gainditzen dituzte.

Kontrako norabidean, erkidegoaren finantzaketa igo zen 2012 eta 2013ko % 5,2tik, 2014an % 5,7ra, 2015ean 6,8ra eta 2016an % 7,3ra. 2017an ekarpena jaitsi izanak (-% 12,89), funtsean zerbitzuen kudeaketan kostuak murrizteko prozesuen ondorioz, hala ere, berekin dakar parte-hartzearen jaitsiera programa hauen finantzaketan. Adierazlea, beraz, % 5,9ra jaitsi da, 2014ko % 5,7tik hurbil. 2017an gastatutako 5,76 milioiak 2015 eta 2016ko 6 milioien azpitik geratzen dira.

2017an, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa erkidegoz gairik ekarpenen azpitik geratzen da. Gastuaren hazkunde nabarmenaren ondorioa da, 2014 eta 2016 bitartean 3 milioiko gastua zena 2017an 7,30 milioikoa baita. 2013an programa horien finantzaketan % 10,5 izatera iritsi ondoren, erkidegoz gairik erakundeek ekarpena 2014-2016 bitarteko % 3 eta % 4tik 2017an % 7,5 izatera iritsi da.



Aztertutako programentzako ekarpen pribatua % 12,6koa da 2017an. Proporzio hori neurri batean jaitsti da, 2016ko % 12,9aren aldean, baina 2012tik atzematen diren maila altuenetan mantentzen da, 2015ean atzemandako % 12,6aren parean. Ildo horretatik, ez du adierazten aldaketa nabarmenik dagoenik, ekarpenaren hazkundean 2012ko % 10,7tik atzematen den joeran. Izan ere, 2016-2017 aldian ekarpen pribatuak % 4,26 egin zuen gora, 2015-2016 aldiko % 3,97aren gainetik. Aztertutako programen finantzaketa pribatua 12,27 milioira iritsi da 2017an.

Esan behar da, hala ere, aztertutako jarduketetan finantzaketa asko aldatzen dela programa mota batetik bestera. Telelaguntzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzak 2017an bere gain hartu du finantzaketaren funtsa, % 74,2arekin, eta proporzio hori behera dator 2012ko % 88,5etik. Horrekin batera, ekarpen pribatuaren pisua % 11,5etik % 25,8ra igo da 2012 eta 2017 bitartean.

Etxeko laguntzari dagokionez, 2017ak aldaketa nabarmena ekarri du, udalen ekarpena, lehenengo aldiz 2012tik, ez delako nagusi zerbitzu horren finantzaketan (% 39,7 udalena eta % 40,4 foru-erakundeena). Aipatutako % 39,7 horrek nabarmen adierazten du beherako joera, 2014an % 48,1 izan baitzen, 2015ean % 50,7 eta 2016an % 45,1. Hala ere, udalen gastuaren jaitsierarik handiena benetan 2015-2016 aldian gertatu zen, orduan -% 10,8 jaitsti baitzen gastu hori. Beherako joera 2016 eta 2017 bitartean betiere nabarmena izan bada ere, apaldu egin da eta -% 4,4an geratu da. Hain zuzen ere, 2015 eta 2017 bitartean, udalen finantzaketa -% 14,7 jaitsti da: 41,21 milioi eurotik 35,15 milioi eurora.

Foru-aldundiek etxeko laguntzari egindako ekarpena, berriz, % 14,3-14,5eko erritmo iraunkorrean hazi da 2015 eta 2017 artean. 2012 eta 2015 bitartean % 39,7tik % 33,6ra jaitsti ondoren, foru-aldundiek ekarpena areagotu dute 2016-2017 aldian eta guztizkoaren % 40,4 izatera iritsi da 2017an, 2012ko % 37,1aren gainetik nabarmen.

Erkidegoz gaindiko ekarpena ere nabarmen hazi da 2016-2017 aldian. 2014-2015 aldian 3 milioi euroren azpitik kokatu ondoren, 3,42 milioira igo zen 2016an eta 7,30 milioira 2017an. Etxeko laguntzaren osoko gastuaren finantzaketaren ekarpena 2014-2015 aldian % 3,6 izatetik 2016an % 4,2 eta 2017an % 8,2ra igo da.

Etxeko laguntzaren finantzaketan ekarpen pribatuak ere gorako joera erakusten du, 2015-2016 aldian % 2,1 hazi baitzen, eta 2016-2017 aldian % 2,4. Foru-erakundeen eta erkidegoz gaindiko erakundeen gastuak nabarmen handitzen ari direlarik, ordea, alderdi pribatuaren azken ekarpena murriztu da 2016ko % 12,4tik 2017ko % 11,7ra. Horrenbestez, eten egin da zerbitzuaren finantzaketan ekarpen pribatuak zuen gorako joera, 2012an % 10,9 izatetik 2016an % 12,4ra igo baitzen.

Pertsona zaintzaileen babeserako programak kuantitatiboki gutxiago hornituak dira, eta 2017an nagusi da horien finantzaketan foru-erakundeek duten ekarpena, % 41ekoa baita, udalen % 31,6aren, Eusko Jaurlaritzaren % 23aren eta ekarpen pribatuaren % 4,4aren gainetik.

Hala ere, 2016-2017 bitartean udalen gastuak gora egiten duen zerbitzu edo programa mota gutxietako bat da hau, % 14,4 hazi baitzen aztertutako aldian. Erkidegoaren gastuak ere gora egin zuen nabarmen. Ondorioz, udalek eta erkidegoak egindako ekarpen konbinatua, 2016an % 41,2 batzen zuena, 2017an % 54,6ra iritsi zen, foru-erakundeek egindako % 41eko ekarpenaren gainetik.

16. taulak, haur, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen finantzaketak izan duen bilakaera aurkezten du.

Haur, gazte eta familientzako programen finantzaketari dagokionez, foru-erakundeek ekarpenaren pisua funtsezkoa da, 2017an % 80,9 izan baitzen. Portzentaje horrek erakusten du foru-erakundeek ekarpenak nabarmen gora egin zuela 2014ko % 77,8tik aurrera, eta itzulikatu egin zuela 2012ko % 79,5etik hasia zuen beherakada. 2017an jasotako proportzioa puntu luze bat dago 2012ko portzentajearen gainetik.

Eremu honetan ekarpen pribatua ia hutsaren hurrengoa da eta, beraz, udalen finantzaketa da beste iturri nagusia, gastuaren % 15 estaltzen baitu. 2015-2016 aldiaren parte-hartze hori % 16,9tik % 17,4ra igo ondoren, 2017an berriz ere behera egin du, 2014-2015 aldiaren bezala, nabarmen behera egin ere, azkenean 2014-2016 aldiko % 16,9 eta % 17,4ko zenbakien oso azpitik geratu arte.

Erkidegoaren finantzaketa, berriz, % 4,2koa da 2017an, 2012tik egindakoaren ildo beretik, izan ere, 2013an % 3,9koa eta 2015ean % 4,4koa izan baitzen.

16. taula. Haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen gastu arrunta, finantzabidearen arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017 aldiaren %-tan)

	2014				2015				2016				2017				Bariazioa 2016- 2017 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan		
Gastu-sektorea eta finantzabidea																	
HAUR, GAZTE ETA FAMILIAK GUZTIRA (tratu txarrak barne)	113,28	115,95	121,98	131,53	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	7,82		
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,02	0,02	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-13,12		
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,88	5,07	4,86	5,52	4,3	4,4	4,0	4,2	4,3	4,4	4,0	4,2	4,3	4,4	13,51		
Foru-finantzaketa	88,12	91,23	95,82	106,39	77,8	78,7	78,6	80,9	77,8	78,7	78,6	80,9	77,8	78,7	11,02		
Udal-finantzaketa	19,39	19,62	21,27	19,75	17,1	16,9	17,4	15,0	17,1	16,9	17,4	15,0	17,1	16,9	-7,16		
Finantzaketa pribatua	0,87	0,00	0,00	-0,15	0,8	0,0	0,0	-0,1	0,8	0,0	0,0	-0,1	0,8	0,0			
Adingabeen egoitza-zentroak	64,33	64,57	66,79	74,02	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	10,81		
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,00	0,02	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	33,55		
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,13	0,11	0,09	0,68	0,2	0,2	0,1	0,9	0,2	0,2	0,1	0,9	0,2	0,2	675,16		
Foru-finantzaketa	62,35	62,75	65,02	73,59	96,9	97,2	97,3	99,4	96,9	97,2	97,3	99,4	96,9	97,2	13,18		
Udal-finantzaketa	1,79	1,75	1,76	0,04	2,8	2,7	2,6	0,1	2,8	2,7	2,6	0,1	2,8	2,7	-97,82		
Finantzaketa pribatua	0,05	-0,06	-0,07	-0,29	0,1	-0,1	-0,1	-0,4	0,1	-0,1	-0,1	-0,4	0,1	-0,1	288,43		
Tratu txarren arretako programak (tratu txarren biktimen prestazioak, harrera, adopzioa eta familiako beste esku-hartzeak barne). Beste ostatu-programa batzuk	48,96	51,37	55,19	57,51	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	4,20		
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,01	0,02	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-14,78		
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,75	4,96	4,77	4,84	9,7	9,7	8,6	8,4	9,7	9,7	8,6	8,4	9,7	9,7	1,39		
Foru-finantzaketa	25,77	28,47	30,81	32,80	52,6	55,4	55,8	57,0	52,6	55,4	55,8	57,0	52,6	55,4	6,46		
Udal-finantzaketa	17,60	17,87	19,51	19,71	35,9	34,8	35,4	34,3	35,9	34,8	35,4	34,3	35,9	34,8	1,03		
Finantzaketa pribatua	0,82	0,06	0,08	0,14	1,7	0,1	0,1	0,2	1,7	0,1	0,1	0,2	1,7	0,1	84,33		
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	42,57	43,61	45,96	47,65	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	3,68		
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,19	0,26	1,62	4,16	0,4	0,6	3,5	8,7	0,4	0,6	3,5	8,7	0,4	0,6	156,51		
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,77	4,37	4,51	4,52	11,2	10,0	9,8	9,5	11,2	10,0	9,8	9,5	11,2	10,0	0,26		
Foru-finantzaketa	20,79	21,47	21,58	22,07	48,8	49,2	47,0	46,3	48,8	49,2	47,0	46,3	48,8	49,2	2,25		
Udal-finantzaketa	11,10	11,82	11,49	11,17	26,1	27,1	25,0	23,4	26,1	27,1	25,0	23,4	26,1	27,1	-2,83		
Finantzaketa pribatua	5,72	5,69	6,76	5,74	13,4	13,1	14,7	12,0	13,4	13,1	14,7	12,0	13,4	13,1	-15,10		

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Ekarpen absolutuaren terminoetan, haur, gazte eta familien arloko 2016-2017 aldiko dinamikan azpimarragarria da, batez ere, foru-aldundien gastuaren hazkundera. 2016an 95,82 milioi eman zirelarik, 2017ko 106,39 milioiek % 11,02ko hazkundera eragin dute, nabarmen gora ekarriz 2015-2016 aldian erregistratutako % 5,04koa. Erkidegoaren ekarpenak, berriz, 2015-2016 aldian behera egin ondoren (-% 4,16), berriro gora egin zuen (+% 13,51), oro har gastua nabarmen murrizten bazen ere (5,52 milioi 2017an).

Udalen gastua 2015-2016 aldian oso nabarmen handitu zen (% 8,42), baina 2016-2017 aldian berriz behera egin zuen (-% 7,16), 2016an 21,27 milioi eta 2017an 19,75 izan baitziren, oraindik 2014ko eta 2015eko erregistroen gainetik bada ere (19,39 eta 19,62 milioi).

Gastuaren sektorekako arlo desberdinak aztertuz gero, adingabekoen egoitza-zentroetako finantzaketan finkatu egiten da foru-erakundeek ekarpenaren nagusitasuna, 2017an % 99,4koa izan baitzen, udalen ekarpena % 0,1ekoa zelarik (% 99,0 eta % 0,1 kontuan hartu gabe sektore pribatuaren superabit garbia). Egindako gastuari dagokionez, foru-erakundeek finantzaketa % 13,18 hazi zen 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldiko % 3,60aren gainetik. Adingabekoen egoitza-zentroetako udalen gastua aldi horretan egonkortu ondoren, % 0,84 eskas hazi baitzen, -% 97,82 murriztu zen 2016-2017 aldian eta, praktikan, desagertzeko bidean da. Ez da 0,04 milioi baino gehiago, foru-aurrekontuetatik datozen 73,59 milioien ondoan. Euskadin gizarte-zerbitzuen sistemaren antolakuntza berregituratzeko prozesuaren ondorio deigarrietakoa da hori, foru-erakundeek gain geratzen baita zentro mota horren finantzaketa.

Haur, gazte, familia eta emakumearen arretaren arloko gainerako programei dagokienez, 2017an foru-erakundeek ekarpena % 57koa da, udalena % 34,3koa eta erkidegoarena % 8,4koa direlarik. Joerarik azpimarragarriena da foru-erakundeek gastuaren hazkundera, 2015-2016 aldian % 8,20 hazi baitzen, oso antzera mantenduz hazkundera 2016-2017 aldian (% 6,46). Udalen finantzaketari dagokionez, 2015-2016 aldian gastua handitu zen % 9,16 eta 2016-2017 aldian, berriz, hazkundera nabarmen moteldu zen, % 1,03 soilik hazi baitzen gastua. Nolanahi ere, 2012tik jasotako daturik gorena jo zuen, 2017an berriz ere, udal nahiz foru-erakundeek gastuak programa hauetan. Erkidegoaren finantzaketari dagokionez, 2015-2016 aldian -% 3,79 murriztu zen, eta 2016-2017 aldian berriz ere gorako joera txikia erakutsi zuen (% 1,39).

Baztertutako pertsonen arretaren arloari dagokionez, finantzaketaren zati nagusia foru-aldundietatik dator, % 46,3 estaltzen baitute. 2016an gertatu zen bezala, proportzio hori 2012tik aurrera izandako baxuena da, eta gorenak 2013ko % 48,3 eta 2015eko % 49,2 izan ziren. Izan ere, foru-aldundien ekarpenak egonkortzeko joera argia erakutsi du, % 0,52 soilik igo baita 2015. eta 2016. urteen artean eta % 2,25, berriz, 2016-2017 aldian.

Bazterketaren arloan udalek egiten duten ekarpenari dagokionez, 2012ko % 22,6tik abiatuta, % 26,1 eta % 27,1 bitartean jarri zen 2013 eta 2015 bitarteko aldian. Urte hartatik aurrera, jaitsiera erlatiboko prozesu bat hasi zen udalen eta mankomunitateen ekarpenean, eta 2017an % 23,4an jarri zen. Sektore horretan udalen gastuak ekarri duen beherako joera jarraituaren ondorioa da, -% 2,76 jaitsi baitzen 2015-2016 aldian eta -% 2,83 berriz, 2016-2017 aldian.

Bazterketaren arloan erkidegoek ekarpena 2015-2016 aldian % 3,19 handitu bazen ere, 2016-2017 aldian egonkortu zen eta % 0,26 besterik ez zen hazi. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartze erlatiboaren epe luzeko murrizketa finkatu zen: 2012ko % 11,7tik 2017ko % 9,5era.

Erkidegoz gaindiko ekarpenak, berriz, nabarmen gora egin zuen, 2014-2015 aldian ia hutsak eta sinbolikoak ziren zenbakietatik 1,62 milioi eurora 2016an eta 4,16 milioira igo baitzen 2017an. Termino erlatiboetan, arloaren finantzaketari egindako ekarpena 2014-2015 aldian % 0,5 ingurukoa izatetik, 2016an % 3,5 eta 2017an % 8,7 izatera igaro zen, jadanik erkidegoari zegokion finantzaketaren % 9,5etik hurbil.

Bazterketaren arloko finantzaketaren ekarpen pribatuak 2015-2016 aldian nabarmen gora egin ondoren, % 18,71 hazi baitzen gastu mota hori, 2016-2017 aldian kontrako bidea hartu eta behera jo zuen, -% 15,10 murriztuta. Horrekin berriz indartu zen finantzaketaren ekarpen pribatua murrizteko hasierako joera, 2012an % 16,7koa izanik 2015ean % 13,1era murriztu baitzen. 2016an suspertu ondoren, arloaren finantzaketari % 14,7ko ekarpena eginez, 2017ko % 12,0ko ekarpena berriro txikiena da 2012tik.

Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoa

17. taulan ageri denez, gizarte-zerbitzuen eta -zentroen finantzaketan erabiltzaileen ekarpenari dagozkion datuetan alde nabarmenak ikusten dira zentro edo zerbitzu motaren arabera. Elementu bereizle nagusia, betiere, erabiltzaileek adineko pertsonentzako egoitza-zentroen finantzaketan egiten duten ekarpen handiarekin lotua dago. 2012 eta 2013ko % 45,8 eta % 45,9tik, proportzioa % 47ra hazi zen 2016an, eta 2017an maila horretan mantentzen da.

Parte-hartzea % 20aren gainetik dago adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan. 2012 eta 2013 artean % 21,2tik % 23,4ra handitu ondoren, proportzioa % 22ra murriztu zen 2014an, eta berriz gora egin du 2015ean % 22,6ra eta 2016an % 23ra, 2017an % 24,1 gorena jo arte.

17. taula. Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera. 2014tik 2017ra (finantzaketa osoaren %-a)

	2014	2015	2016	2017
Zerbitzu mota	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	46,7	46,8	47,0	47,0
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	12,2	13,8	12,5	11,7
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,1	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,4	0,3	0,3	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	2,4	3,0	3,7	3,5
EGOITZA-ZENTROAK	35,4	35,7	35,7	35,3
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	22,0	22,6	23,0	24,1
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	10,2	10,3	7,4	10,8
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	2,4	5,5	6,2	3,4
Adingabe/familientzako eguneko arreta	2,1	0,1	0,0	0,0
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	2,7	3,4	6,3	2,6
EGUNEKO ZENTROAK	11,6	13,6	13,3	13,3
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	14,6	14,3	13,7	14,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzekeko gastuaren estatistika
Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

Oharra:



Erabiltzaileen parte-hartzea askoz ere txikiagoa da, eta beherako joera orokorra erakusten du, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen kasuan. 2015ean % 13,8an kokatu ondoren, 2013ko % 13,5aren gaineratik ozta, proportzioa % 12,5era jaitsi zen 2016an eta % 11,7ra ondoren, 2017an. Proportzio hori 2012 eta 2014 bitarteko % 12,1 eta % 12,2 proportzioak baino are txikiagoa da.

Beherako joera hori 2016ra arte atzematen zen, populazio mota horrentzako eguneko laguntza-zentroetan ere, urte hartan izan zela txikiena, % 7,4arekin. 2017an, ordea, erabiltzaileek finantzaketan egin zuten ekarpenak nabarmen gora egin eta % 10,8ra iritsi zen, 2014-2015 aldiko % 10,2ko eta % 10,3ko mailen gaineratik.

Kontrako bidean, erabiltzaileen parte-hartzeak behera egin du desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan. 2014ko % 2,4tik 2016an % 6,2ra iritsi ondoren, ekarpena % 3,4ra jaitsi da 2017an. Bilakaera hori bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroen erabiltzaileei dagokienaren antzekoa da. Era horretan, 2017an eten egin da erabiltzaileen ekarpenean 2013ko % 2,7tik 2016ko % 6,3ra izandako gorako joera. 2017ko % 2,6a berriro kokatu da 2013an ohikoak ziren parametroetan.

Aldaketa hain nabarmena izan ez bada ere, bilakaera antzekoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu- eta harrera-zentroetan. Kasu honetan, 2015-2016 aldian % 3tik % 3,7ra atzematen den susperraldiak finkatu egiten zuen 2014ko % 2,4tik finantzaketaren ekarpenean gertatzen ari zen gorako joera. Gainera, 2012ko eta 2013ko % 3,7 eta 3,9ko mailetara itzultzea zen. 2017ko % 3,5a, beraz, 2016ko mailen aldean jaistea zen, baina 2012an eta 2013an, eta 2016an ere, atzemandako parametroetatik hurbil.

Gainerako egoitza-zentro edo eguneko zentroetan, batez ere, adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloetan, erabiltzaileen parte-hartzerik ez dago ia.

Egoitza-zentroak eta eguneko zentroak ez diren beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, erabiltzaileen parte-hartzea 2012an % 9,1 izatetik 2013an % 15 izatera igo zen. Urte horretatik aurrera, proportzioa jaitsi egin zen apurka-apurka, 2016an % 13,7 izatera iritsi arte. Beherako joera horretan aldaketa ekarri zuen 2017ko % 14,4ak baina 2014-2015 aldiko parametroen barruan, orduan % 14,3ko eta % 14,6ko proportzioen artean mantendu baitzen.

Erabiltzaileek zentro eta zerbitzuen finantzaketan duten parte-hartzea desberdina da lurralde historikoaren eta zentro edo zerbitzu motaren arabera, 18. taulan ikus daitekeen bezala. Erabiltzaileek parte-hartze handiagoa duten arloak aintzat hartuta, alde nabarmenak ikusten dira.

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan, erabiltzaileen parte-hartzea handiagoa da Bizkaian, lurralde hartan finantzaketaren erditik gorakoa baita (% 52,7 Bizkaian, Gipuzkoan % 42,8 eta Araban % 38,3 delarik). Baina parte-hartze hori egonkor mantentzen da Bizkaian 2012koaren aldean (% 52,7 orain, lehen % 53,2 zela), Araban handitu delarik (% 37tik % 38,3ra, hamarren eskas batzuk 2016ko 38,6aren azpitik) eta Gipuzkoan ere bai (% 39,3tik % 42,8ra). Parte-hartzea nolabait egonkor mantendu zen 2016-2017 aldian, Bizkaian eta Araban jaitsiera txikiekin, -% 0,1 eta -% 0,3 eta Gipuzkoan +% 0,2ko igoera eginda.

18. taula. Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera eta lurralde historikoen arabera. 2016 eta 2017 (finantzaketa osoaren %)

	2016				2017			
	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	47,0	38,6	42,7	52,8	47,0	38,3	42,8	52,7
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	12,5	14,6	15,4	9,9	11,7	14,4	14,8	8,7
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,3	0,0	0,0	0,6	0,1	0,0	0,0	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	3,7	3,3	2,2	5,3	3,5	2,4	2,0	5,3
EGOITZA-ZENTROAK	35,7	29,9	32,2	40,1	35,3	29,8	31,8	39,5
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	23,0	27,0	24,9	18,4	24,1	25,1	27,5	19,5
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	7,4	5,2	11,2	5,1	10,8	8,5	12,1	10,1
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	6,2	3,3	5,4	7,7	3,4	5,4	4,8	2,0
Adingabe/familientzako eguneko arreta	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	6,3	1,8	2,4	8,5	2,6	0,3	1,7	3,3
EGUNEKO ZENTROAK	13,3	15,1	16,0	10,5	13,3	14,7	17,1	9,6
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	13,7	37,4	1,7	5,0	14,4	38,4	2,2	6,3

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika
Oharra: Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, Bizkaia nabarmentzen da erabiltzaileek finantzaketan parte-hartzerik txikiena dutelako, % 8,7arekin, urrun samar Arabako % 14,4 eta Gipuzkoako % 14,8tik. 2012koaren aldean, parte-hartzea txikixeagoa da Gipuzkoan (% 14,8 orain, eta orduan % 16,6), antzekoa Bizkaian, % 8,7 inguru, eta handixeagoa Araban (% 14,4 orain, 2012an % 13,8 zela). Nolanahi ere, hiru lurraldeetan murrizketa orokorra atzematen da 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldian gertatu zen bezala. Beraz, biurteko honen ikuspegitik, 2015 eta 2017 bitartean, Araban % 15,1etik % 14,4ra jaitsi da, Bizkaian % 10,4tik % 8,7ra eta Gipuzkoan are gehiago, % 18,6tik % 14,8ra.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonen ostatu, harrera eta egoitza-zentroetan, erabiltzaileen parte-hartzea murriztu da Araban 2016-2017 aldian, % 3,3tik % 2,4ra, eta horrenbestez itzuli da 2015eko % 2,5etik hurbil dauden zenbakietara. Gipuzkoan ere, parte-hartze hori murrizteko joera iraunkorra dago, 2015eko % 2,7tik, 2016an % 2,2ra eta 2017an % 2ra jaitsi baita. Bizkaian, berriz, 2015-2016 aldian % 3,4tik % 5,3ra igo ondoren, erabiltzaileen parte-hartzea egonkor mantendu da lehen aipatutako % 5,3aren inguruan.

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, ekarpen erlatiborik handiena 2017an Gipuzkoari dagokio, % 27,5ekin, ondoren dago Araba % 25,1ekin eta azkenik Bizkaia % 19,5ekin. Egoera hori bi bilakaera-prozesu desberdinekin lotzen da. Beraz, Gipuzkoan parte-hartze horren gorako joera mantentzen da, 2015eko % 23,4tik, % 1,5 igoz 2015-2016 aldian eta are gehiago, % 2,6 berriz, 2016-2017 aldian; Araban, ordea, 2012ko % 20,8tik 2016ko % 27ra izandako +% 6,2ko igoera neurri batean konpentsatzen da 2016-2017 aldian. Hau da, Arabako erabiltzaileen parte-hartzea murriztu da 2016-2017 aldian, % 27tik % 25,1era.



Gipuzkoak bezala, Bizkaiak ere gorako joera erakusten du erabiltzaileen parte-hartzeari dagokionez 2016-2017 aldian, puntu bat inguru igo baita 2016ko % 18,4tik 2017ko % 19,5era. Bizkaiaren parte-hartze hori Gipuzkoan edo Araban baino proportzio txikiagoetatik abiatzen zen, eta puntu bateko igoera horrek konpentsatzen du, besterik gabe, 2015eko % 19,4tik 2016ra izandako puntu bateko jaitsiera.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eguneko laguntza-zentroen erabiltzaileen ekarpen erlatiboa txikia da Araban, 2016-2017 aldian % 5,2tik % 8,5era igo bazen ere, 2012ko % 7,6aren gainetik jadanik. Parte-hartzea askoz ere handiagoa da Bizkaiaren 2017an, % 10,1era iritsi baitzen, 2015eko % 8,4aren gainetik. Gipuzkoan ere handitu da 2016ko % 11,2tik 2017ko % 12,1era, eta horrenbestez lurralde hori kokatzen da erabiltzaileek finantzaketan parte-hartzerik handienak dituzten artean. Gipuzkoan 2012ko % 12,6ra hurbiltzen da berriro, baina oraindik urrun da 2015ean iritsitako % 15a.

Nolanahi ere, hiru lurraldeetan gora egin du 2016-2017 aldian laguntza-zentro mota horren finantzaketan erabiltzaileek duten parte-hartzea. Araban eta Bizkaiaren gehiago handitzen da (portzentajezko 3,3 eta 5,0 puntu, hurrenez hurren, Gipuzkoako 0,9 puntuen gainetik), eta horren ondorioz gehiago berdintzen dira erabiltzaileen parte-hartzeak lurralde historikoetan.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan, erabiltzaileen parte-hartzea handitu da Araban 2,2 puntu, 2016ko % 3,3tik 2017ko % 5,4ra igaroz, eta lurralde hori da erabiltzaileen parte-hartzerik handien duena, Gipuzkoako % 4,8aren eta Bizkaiko % 2aren gainetik. 2015-2016 aldian % 3,5etik % 3,3ra pixka bat jaitsi ondoren, Araba 2017an nabarmen urruntzen da 2012ko % 0,8ko parte-hartze urritik.

Gipuzkoan eta Bizkaiaren, 2016-2017 aldiak parte-hartze horren beherako joera erakusten du. Beherakada hori txikia da Gipuzkoan, 2016an % 5,8 izatetik 2017an % 4,8ra jaitsi baita, eta parte-hartze hori mantendu da, Araban bezala, 2012ko % 3,7aren gainetik. Bizkaiaren jaitsiera askoz ere nabarmenagoa da, 2016an erabiltzaileen parte-hartzea % 7,7koa izan baitzen eta 2017an, berriz, % 2koa soilik. Horrenbestez, eten egin da parte-hartzeak 2012ko % 5etik 2016ko % 7,7ra izan zuen gorako joera.

Gizareratze-arloko beharrak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan, parte-hartzea kasu guztietan beherantz doa. Araban eta Gipuzkoan portzentajezko -0,7 eta -1,5 puntu artekoak dira murrizketak, erabiltzaileen parte-hartzea geratzen dela % 2aren azpitik eta are txikiagoa, Arabaren kasuan, % 1aren azpitik. Jaitsierarik handiena Bizkaiaren gertatu da, 2016ko % 8,5etik 2017ko % 3,3ra murriztu baita, parte-hartzea berriz ere kokatuz 2015eko % 3,6tik hurbil.

Gainerako zentro eta zerbitzuetan, erabiltzaileen ekarpen erlatiboa oso handia da Araban, eta joera gorakoa da, gainera, lurralde horretan. 2012an % 5,5 izatetik 2015ean % 30,7ra igo zen, 2016an % 37,4ra eta 2017an % 38,4ko gorenera. 2015-2016 aldian jaitsi ondoren, parte-hartze horrek berriz ere gora egin du beste lurraldeetan ere. Parte-hartze horren zenbakiak 2017an, hala ere, Arabakoak baino txikiagoak dira Gipuzkoan, % 2,2rekin (2015eko % 9,3tik oso urrun) eta Bizkaiaren ere bai, % 6,3rekin.

4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa

19. taulan daude jasota EAEko gizarte-prestazioen finantzaketari buruzko oinarrizko datuak. Gizarte-zerbitzuen erdiguneari egiten dion ekarpena mugatua bada ere, Eusko Jaurlaritzak da prestazio ekonomikoen finantzaketaren protagonista nagusia. 2017ko % 85,1a zenbaki egonkorra da, 2013an eta 2016an ikusitakoen ondoren. Ekarpenera hori gaitzen duen bakarra 2012ko % 86,9koa da.

Foru-aldundiek prestazio horien % 11,2 estali zuten 2016an. 2013-2014 aldiko % 11,8aren ondoren joerak beherakada txikia erakusten badu ere, parte-hartze hori 2012ko % 10,8aren gainetik mantendu da.

Udalen ekarpena oso murriztu da, % 2,9arekin, +% 0,1 eskas bat 2014-2015 aldiko erregistroen gainetik. Hala ere, parte-hartze horren mailak gaitzen ditu 2012ko % 1,4a eta 2013ko % 2,4a. 2015 eta 2016 bitartean udalen gastua prestazio horietan +% 6,02 hazi zen, foru-erakundeetan +% 1,88aren eta erkidegoaren +% 0,66aren gainetik, baina 2016-2017 aldian udalen gastuaren joerak bat egin zuen gastu horren murrizketarako joera orokorrarekin. Ildo horretatik, aldi horretan foru-erakundeen gastua -% 6,19 murriztu zen, erkidegoaren gastua -% 2,21 jaitsi zen eta udalen finantzaketaren murrizketa bien artean kokatzen da, -% 3,17rekin.

Ekarpenera pribatua oso txikia da, 2017an % 0,7 besterik ez, 2014an eta 2015ean ikusitako ildotik, eta 2012ko % 0,9aren azpitik. 2015-2016 aldian ez bezala, gastu mota horrek gora egin zuen 2016-2017 aldian, eta berriz ere 2014-2015 aldiko mailak gaitzen zituen (4,84 milioi, hurrenez hurren 4,13 milioi eta 4,67 milioiren ondoan).

19. taula. Gizarte-prestazioetako gastu arrunta (familiantzako transferentziak) finantzabidearen arabera. 2014-2017 (Datu absolutuak, % bertikalak eta bariazioa 2016-2017 %-tan)

	2014				2015				2016				2017				Bariazioa 2016-2017 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu mota																	
LISMI/KGP/GOF	58.328.312	60.228.847	61.898.222	63.130.513	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	1,99
Foru-finantzaketa	58.328.312	60.228.847	61.898.222	63.130.513	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	1,99
DBE/EPO	472.400.873	486.882.648	492.333.507	483.662.132	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	-1,76
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	472.400.873	486.882.648	492.333.507	483.662.132	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	-1,76
FAMILIA-PRESTAZIOAK	46.951.991	59.016.731	55.819.362	49.747.242	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	-10,88
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	46.931.767	58.956.122	55.722.125	49.683.788	100	99,9	99,8	99,9	99,9	99,9	99,9	99,9	99,9	99,9	99,9	99,9	-10,84
Udal-finantzaketa	20.224	60.609	97.237	63.454	0,0	0,1	0,2	0,1	0,0	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	-34,74
BESTE BATZUK (GLL eta GKE barne)	59.572.130	62.070.435	62.091.179	60.003.760	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	-3,36
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	20.507.358	21.919.295	23.461.453	25.517.497	34,4	35,3	37,8	42,5	34,4	35,3	37,8	42,5	34,4	35,3	37,8	42,5	8,76
Foru-finantzaketa	16.943.348	17.013.460	16.798.131	10.692.673	28,4	27,4	27,1	17,8	28,4	27,4	27,1	17,8	28,4	27,4	27,1	17,8	-36,35
Udal-finantzaketa	17.987.756	18.468.582	19.547.571	18.958.434	30,2	29,8	31,5	31,6	30,2	29,8	31,5	31,6	30,2	29,8	31,5	31,6	-3,01
Finantzaketa pribatua	4.133.668	4.669.098	2.284.024	4.835.156	6,9	7,5	3,7	8,1	6,9	7,5	3,7	8,1	6,9	7,5	3,7	8,1	111,69
GIZARTE-PRESTAZIOAK.	637.253.306	668.198.661	672.142.270	656.543.647	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	-2,32
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	539.839.998	567.758.065	571.517.085	558.863.417	84,7	85,0	85,0	85,1	84,7	85,0	85,0	85,1	84,7	85,0	85,0	85,1	-2,21
Foru-finantzaketa	75.271.660	77.242.307	78.696.353	73.823.186	11,8	11,6	11,7	11,2	11,8	11,6	11,7	11,2	11,8	11,6	11,7	11,2	-6,19
Udal-finantzaketa	18.007.980	18.529.191	19.644.808	19.021.888	2,8	2,8	2,9	2,9	2,8	2,8	2,9	2,9	2,8	2,8	2,9	2,9	-3,17
Finantzaketa pribatua	4.133.668	4.669.098	2.284.024	4.835.156	0,6	0,7	0,3	0,7	0,6	0,7	0,3	0,7	0,6	0,7	0,3	0,7	111,69

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Prestazioen azterketa xehatuak erakusten du foru-aldundiek osorik finantzatzen dituztela LISMI/GOF/KGP prestazioak 2017an, eta Eusko Jaurlaritzak osorik hartzen duela bere gain DBEren eta EPOren finantzaketa. Erkidegoaren finantzaketa % 99,9koa da familientzako prestazioen kasuan, eta udalen ekarpena % 0,1 besterik ez da.

Gainerako prestazioen azterketa (GLLak, larrialdiko laguntzak eta antzeko prestazioak, bai eta ekarpen pribatua ere) bereziki interesgarria da, gizarte-larrialdi edo -urgentziekin lotutako alderdietan edo diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko jardueretan oinarritzen baita hein handi batean. Prestazio horiei dagokienez, parte-hartze sakabanatu samarra ikusten da, 2017an % 15 baino gehiagoko ekarpena duten hiru finantzabide baitaude.

Iturri nagusia erkidegoarena da: % 42,5eko parte-hartzea izan du gastuaren finantzaketan. Parte-hartze horrek gora egin du 2014ko % 34,4tik eta 2015eko % 35,3tik, eta horrez gain hurbildu da 2012an iritsitako % 43,9ra, 2016-2017 aldian nabarmen gora egin ondoren. Prozesu horrek erakusten du gastuak gora egin duela etengabe 2012tik aurrera. Prestazio horiei egiten zaien ekarpenaren hazkundera, GLLetan zentratua, % 7,04koa izan da 2015 eta 2016 artean, baina % 8,76ra iritsi da 2016-2017 aldian.

Finantzaketaren bigarren ekarpenik handiena udalek eta mankomunitateek egin dute, gainerako prestazioei % 31,6ko ekarpena egin baitiete. 2015ean hautemandako jaitsieraren ondoren (% 29,8 urte hartan, eta 2014an % 30,2), 2016koa da zifrarik altuena 2012tik, urte hartakoa (% 21,2) baino altuagoa, zalantzarik gabe, 2016ko % 31,5en aldean jadanik egonkorra. Prestazio osagarrien sistema horren finantzaketan udalen ekarpenak 2015-2016 aldian % 5,84 hazi ondoren, 2016-2017 aldian behera egin zuen -% 3,01 eta horrek agerian jartzen du prestazio-mota horren finantzaketa osoan udalek duten parte-hartzeko portzentajearen egonkortasuna, egiaz, gastuak beste instituzio batzuetan izan duen beherako bilakaera bizkorrago batekin lotzen dela.

Beherako bilakaera bizkorrago hori ikusten da, hain zuzen ere, Foru Aldundien gastuan. Kasu horretan, ekarpenaren jaitsiera jadanik 2015-2016 aldian ikusi zen, -% 1,27 murriztuta, baina areagotu egin zen 2016-2017 aldian, -% 36,35 murriztu baitzen. Hori islatzen da foru-erakundearen parte-hartzearen jaitsiera nabarmen batean, gizarte-prestazio mota horren finantzaketan, besteak beste GLL edo antzekoetan. Erreferentziazko proportzioa jaitسي da, beraz, 2014an % 28,4 izatetik 2015-2016 aldiko % 27ra eta 2017ko baxuenera, % 17,8arekin, are txikiagoa 2012ko % 21,5a baino.

Finantzaketaren beherakada izan delarik, foru-aldundiei, udalei eta mankomunitateei dagokienez, aztertutako prestazio horien finantzaketan erakunde partikularrek egin duten gastua handitu izanak gainerako prestazioetan finantzaketa pribatuak egiten duen ekarpenak ere gora egitea ekarri du. Dinamika horrek aldaketa kualitatibo azpimarragarria ekarri du, haien dimentsioa oraindik bigarren mailakoa bada ere. Babesaren eremu pribatuan, aztertutako prestazioen finantzaketan zuten parte-hartzea modu nabarmenean murriztu zen % 13,4tik % 6,9ra 2012 eta 2014 bitartean. 2015ean aldi batez % 7,5era goratu bazen ere, 2016an berriz ere beheratu eta % 3,7ko gutxienekoa jo zuen. Erakunde pribatuen finantzaketak 2017an berriz gora egin du % 8,1era, horren gainetik bakarrak 2012ko % 13,4a eta 2013ko % 9,2a zeudela.

4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

20 taulan egiaztatzen denez, 2017an Gipuzkoa da foru-erakundeen (edo batez ere foru-aldundiak kudeatutako) biztanleko gasturik handiena duena gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan¹⁰. Izan ere, Gipuzkoak 518,02 euro gastatzen ditu biztanleko, Arabak gastatzen dituen 493,56 euroen gainetik ozta. Bizkaia dago atzetik nabarmen, 401,81 euroekin.

Deskribatutako egoera lotzen da Gipuzkoak 2016-2017 aldian gastuan egiten duen ahalegin handiagoarekin, biztanleko gastua % 9,3 hazi baita, Araban % 4,3 eta Bizkaian % 5 hazi delarik.

20. taula.

Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu mota eta lurralde historikoa						
Gastu arrunta guztira	EAE	925.168.308	986.784.813	425,97	453,52	6,5
	Araba	152.570.672	159.711.312	473,33	493,56	4,3
	Gipuzkoa	336.804.674	369.245.895	473,91	518,02	9,3
	Bizkaia	435.792.962	457.827.606	382,66	401,81	5,0
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	846.471.955	912.961.627	389,74	419,59	7,7
	Araba	144.396.400	150.994.939	447,97	466,62	4,2
	Gipuzkoa	302.727.633	341.073.233	425,96	478,50	12,3
	Bizkaia	399.347.922	420.893.455	350,66	369,39	5,3
Gizarte-prestazioak	EAE	78.696.353	73.823.186	36,23	33,93	-6,4
	Araba	8.174.272	8.716.373	25,36	26,94	6,2
	Gipuzkoa	34.077.041	28.172.662	47,95	39,52	-17,6
	Bizkaia	36.445.040	36.934.151	32,00	32,41	1,3

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika gairik erakundearen ekarpena barne

Erkidegoz

Gizarte-zerbitzuen erdigunean, foru-erakundeen biztanleko gastua (edo batez ere foru-aldundiak kudeatutakoa) 2017an 478,50 eurokoa izan zen Gipuzkoan, Arabako 466,62 eurokoa baino 11,88 euro gehiago. Bizkaiko gastua oso atzetik dago, biztanleko 369,39 eurokoa baita. Gizarte-ekintzaren eremu horretan, 2016 eta 2017 bitartean, Gipuzkoan nabarmena da biztanleko gastua % 12,3 hazi dela, Arabako % 4,2ko hazkundea halako hiru ia. Bizkaiko biztanleko gastuan izandako hazkundea ere Arabakoaren gainetik dago % 5,3 hazita, baina Gipuzkoan ikusitakoaren oso azpitik dago.

Prestazioen arloan, Gipuzkoak egin zuen foru-gastu handiena 2017an (39,52 euro biztanleko); atzetik Bizkaia dugu, biztanleko 32,41 euroekin. Kasu honetan, Arabak egiten du ekarpen txikiena (26,94 euro biztanleko).

¹⁰ Txostenaren atal honetako zenbait taulatan ikusten dira batera foru-erakundeen gastua eta haren ondoan batez ere foru-aldundiak kudeatzen duten erkidegoz gairik erakundearen gastua. Helburua da erkidegoz gairik transferentzien atzerapenen kudeaketak gastuaren norabidean izan ditzakeen ondorioak kontrolatzea, arrazoi horrekin lotutako beherakada nabarmenak izan direlarik, zenbait lurraldetan (ikus 7. oharra). Gastu bateratua erakusten duten taulak 20.a eta 22.a dira. Gainerakoetan, eragin zuzenik jasaten ez dutenez, hurbilketa mantentzen da foru-erakundearen gastuan zentsu hertsian.



Hala ere, dagoeneko 2015 eta 2016an gertatzen zen bezala, Arabak berriz ere moztu du 2016-2017 aldian beste bi lurraldeetatik bereizten zuen aldea. Izan ere, aldi horretan biztanleko gastua % 6,2 handitu zuen, Bizkaiko % 1,3aren oso gainetik eta Gipuzkoan izandako beherakadarekiko erabateko kontrastea eginez. Lurralde horretan, DBLen programa era progresiboan ezabatu izanaren ondorioz beherako joera mantendu da biztanleko gastuan, gizarte-prestazioetan (-% 17,6 2016-2017 aldian).

21. taulak jasotzen du foru-erakundeen gastu arruntaren bilakaera gizarte-zerbitzuen egituran, lurralde historikoen arabera, 2016-2017 aldian.

21. taula.
Gizarte-zerbitzuen egiturako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
Gastu mota eta lurralde historikoa		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
EGITURA ETA EMAITZA OROKORRA	EAE	38.486.778	25.722.242	17,72	11,82	-33,3
	Araba	1.335.567	3.229.474	4,14	9,98	140,9
	Gipuzkoa	4.442.325	22.688.595	6,25	31,83	409,2
	Bizkaia	32.708.886	-195.827	28,72	-0,17	-100,6
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	EAE	7.427.020	9.873.521	3,42	4,54	32,7
	Araba	3.066.207	3.216.933	9,51	9,94	4,5
	Gipuzkoa	392.790	410.843	0,55	0,58	4,3
	Bizkaia	3.968.023	6.245.745	3,48	5,48	57,3
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	EAE	585.640	758.506	0,27	0,35	29,3
	Araba	0	247.443	0,00	0,76	0,0
	Gipuzkoa	511.001	511.063	0,72	0,72	-0,3
	Bizkaia	74.639	0	0,07	0,00	-100,0
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	43.362.719	72.247.596	19,97	33,20	66,3
	Araba	10.248.467	9.742.868	31,79	30,11	-5,3
	Gipuzkoa	10.459.634	20.654.243	14,72	28,98	96,9
	Bizkaia	22.654.618	41.850.485	19,89	36,73	84,6
EGITURA ESPEZIFIKOA	EAE	51.375.379	82.879.623	23,65	38,09	61,0
	Araba	13.314.674	13.207.244	41,31	40,81	-1,2
	Gipuzkoa	11.363.425	21.576.149	15,99	30,27	89,3
	Bizkaia	26.697.280	48.096.230	23,44	42,21	80,1
EGITURA GUZTIRA	EAE	89.862.157	108.601.865	41,38	49,91	20,6
	Araba	14.650.241	16.436.718	45,45	50,79	11,8
	Gipuzkoa	15.805.750	44.264.744	22,24	62,10	179,2
	Bizkaia	59.406.166	47.900.403	52,16	42,04	-19,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Taula horretan egiazta daitekeen bezala, biztanle bakoitzeko foru-gastuak, gizarte-zerbitzuen egitura, Gipuzkoan jo zituen mailarik altuenak 2017an: 62,10 euro Gipuzkoan, Araban 50,79 euro eta Bizkaian 42,04 euro.

Gastu mota horren bilakaeran eragin handia du gizarte-zerbitzuen arloaren defizit/superabitean Foru Aldundi bakoitzak egiten duen ekarpenean aldaketa nabarmenak izateak, batez ere gastuaren murrizketa edo hazkunde handiko garaietan, izan ere, halakoak izan baitira EAEn azken urteetan. Hain zuzen ere Bizkaiak 2016-2017 aldian gastuaren murrizketa handia lortu zuen bide horretatik (Egitura eta Emaiza Orokorra), eta 2016an biztanleko 28,72 euro gastatzen 2017an -0,17 emaitzara iritsi zen. Arabak eta Gipuzkoak, susperraldi argiko testuinguru batean, gastu-egitura horri lotutako hazkunderen aldeko apustua egin dute (Arabak 2016an 4,14 eurotik 2017an 9,98 eurora, eta Gipuzkoan 6,25 eurotik 31,83 eurora).

Egitura espezifikoko oinarrizko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen sistema biltzen du; horri dagokionez, 2017an Bizkaia dago lehen postuan (42,21 euro biztanleko), Arabaren (40,81 euro) eta Gipuzkoaren (30,27 euro) gainetik. Bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, gastuaren hazkunde handia izan du partida horrek 2016-2017 aldian, eta Araban gastu horrek egonkortzera egin du, -% 1,2ko murrizketa txiki batekin.

2017an, datuok zuzenean lotuta daude foru-egiturako zerbitzu tekniko espezializatuen dinamikarekin; horiek dira, izan ere, arlo honetako jardunaren ardatza, eta Bizkaian 36,73 euroko biztanleko gastua dute, Araban 30,11 eurokoa eta Gipuzkoan 28,98 eurokoa. Ekonomiaren susperraldiak berriro baliabideak zerbitzu espezializatuen partida horretarako bideratzeko aukera eman du itsasertzeko bi lurraldeetan, eta % 80 baino gehiagoko hazkundeak ezarri dituzte, Araban -% 5,3ko beherakada egin badu ere. Ondorioz, 2017an, zerbitzu espezializatuetako biztanleko gastuaren egitura oso antzekoa da lurralde guztietan.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako ekarpenari dagokionez, foru-gastu adierazgarriena Arabari dagokio berriro ere: biztanleko 9,94 eurokoa, Bizkaian 5,48 eurokoa eta Gipuzkoan 0,58koa soilik delarik. Eremu horretan nabaria da, batez ere, 2016-2017 aldian finantzaketak Bizkaian izan duen hazkunde handia, 2016an biztanleko 3,48 euro eman baitu (+% 57,3 termino erlatiboetan). Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako biztanleko gastua Bizkaian 2012 eta 2015 bitartean % 41 hazi ondoren, -% 3,3 murriztu zen 2015-2016 aldian. 2016-2017 aldiko zenbakiek, beraz, gizarte-zerbitzuetarako foru-erakundearen gastuan bultzada berri handia erakusten dute.

2015-2016 aldian biztanleko gastua % 14,6 hazi ondoren, segida emanez 2012-2015 bitartean izandako % 67,1eko hazkundeari, Arabak gastuaren hazkunderen moteltze bat erakusten du. Hala eta guztiz ere, Arabako foru-erakundeek gizarte-zerbitzuetako gastuan egindako % 4,5eko hazkundera azpimarragarria da 2016-2017 aldian ere (Gipuzkoako % 4,3aren gainetik ozta, honen kasuan aipatutako gastuaren maila oso txikietatik abiatu bazen ere). Hazkunde horrek Araba lehenengo lekuan finkatzen du, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako foru-erakundearen gastuari dagokionez.

Adinekoen, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen arretaren arloan, 22. taulako datuei erreparatuta egiazta daiteke Araba dela, era berean, biztanleko gastu-maila handiena duena: 348,26 euro 2016an, foru-erakundearen gastuan edo foru-aldundiek kudeatutako gastuan. Arabaren atzetik, Gipuzkoa (344,02 euro) dago, eta urrunago, Bizkaia (275,26 euro).



2016 eta 2017 bitartean Bizkaian izan da, berriz ere, biztanleko gastuaren hazkunderik handiena, arretaren eremu horretan, % 9,6 hazi baitzen, Gipuzkoan % 2,3 hazi eta Araban -% 0,3 murrizten zelarik. Lehendik ere, 2012 eta 2015 bitarteko aldian, Bizkaia nabarmen zen arretaren eremu horretan, biztanleko gastua gehien handitzen zuen lurraldea zelako. 2015-2016 aldian lurraldeak hazkunde-erritmo bizia zeraman, aldi hartan Arabak zeraman erritmoaren gainetik eta Gipuzkoan erregistratutakoa baino pixka bat beherago. 2016-2017 aldian, beraz, Bizkaiak aurrera jarraitu du ahalegina egiten Arabatik eta Gipuzkoatik bereizten duen alde handia murrizteko.

Biztanleko gastua, egoitza-zentroei dagokienez, 2016an Araban nabarmen handiagoa da adineko pertsonentzako baliabideei dagokienez Araban 176,20 euro; Gipuzkoan 140,54 eta Bizkaian 110,73 euro. Kasu horretan, Arabak foru-gastuaren hazkunde handiagoari eusten dio, 2012-2016 aldian jadanik hala baitzen, eta 2016-2017 aldian % 8,1 hazi da, Bizkaiko % 4,1aren eta Gipuzkoako % 2aren gainetik.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroen arloan ere mantendu dira Arabaren eta gainerako lurraldeen arteko aldeak, nahiz eta ez diren hain deigarriak. 2017an, biztanleko foru-ekarpena 52,63 eurokoa izan zen Araban, 48,71 eurokoa Gipuzkoan eta 47,84 eurokoa Bizkaian. Joera betiere gastua gehiago handitzekoa da bi lurralde horietan, eta aldeak, beraz, murrizteko bidean dira. Ildo horretatik, 2016-2017 aldian gastuaren hazkunderik handiena Bizkaiari dagokio, % 5,6arekin, Gipuzkoaren % 5,3tik hurbil. Kasu bietan ere, hazkundera Arabako % 2,4ko hazkundera halako bi da.

Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroei erreparatuz gero, Gipuzkoa da beste behin biztanleko foru-ekarpenik handiena egin duen lurraldea. Lurralde historiko horrek 27,46 euro bideratu ditu biztanle bakoitzeko; Arabak 23,13 euro eta Bizkaiak 14,64. Alde horiek hor egonda ere, Bizkaia da berriz ere gastua gutxien handitu duena esku-hartzearen eremu horretan, % 2,8 handitu baitu, Gipuzkoaren % 3,3aren azpitik. 2016-2017 aldian hazkunderik handiena Arabari dagokio, % 8,6arekin, era horretan murrizten duela Gipuzkoarekiko zuen aldea.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetarako foru-erakundeen gasturik handiena, Gipuzkoak egin du berriro, 2017an biztanleko 16,60 euro gastatuta, Bizkaiaren 12,86 euroen eta Arabaren 10,81 euroen gainetik. Araban eta Bizkaian 2016-2017 aldian biztanleko gastuan % 12aren inguruko murrizketak egiten zirelarik, hurrenez hurren, -% 11,4 eta -% 12,6, Gipuzkoan gastu hori +% 17,9 handitu zen.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan, okupazio-zentroak barne, biztanleko foru-ekarpena 20,62 eurokoa izan zen Araban, Gipuzkoako 9,91 euroen eta Bizkaiko 9,57 euroen gainetik nabarmen. 2012 eta 2015 bitartean izandako beherakadaren ondoren, Araba da foru-erakundeen gastua gehien handitu duena, % 7,6 hazi baitzen 2016-2017 aldian. Gastua % 5,1 gehituta, Bizkaia Gipuzkoara hurbildu da, azken honetan partida -% 2,6 murriztu baitzen 2016-2017 aldian.

22. taula.

Desgaitasuna/gaixotasunak edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuen foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	EAE	271.640.517	283.358.945	125,07	130,23	4,1
	Araba	52.558.275	57.016.261	163,05	176,20	8,1
	Gipuzkoa	97.928.327	100.176.594	137,79	140,54	2,0
	Bizkaia	121.153.915	126.166.090	106,38	110,73	4,1
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak	EAE	101.043.694	106.262.605	46,52	48,84	5,0
Gaixotasuna (atsedena barne)	Araba	16.573.398	17.029.854	51,42	52,63	2,4
	Gipuzkoa	32.879.197	34.717.916	46,26	48,71	5,3
	Bizkaia	51.591.099	54.514.835	45,30	47,84	5,6
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	372.684.211	389.621.550	171,59	179,07	4,4
	Araba	69.131.673	74.046.115	214,47	228,83	6,7
	Gipuzkoa	130.807.524	134.894.510	184,05	189,25	2,8
	Bizkaia	172.745.014	180.680.925	151,68	158,57	4,5
Adineko pertsonentzako eguneko zentroak	EAE	41.963.212	43.734.028	19,32	20,10	4,0
	Araba	6.862.488	7.484.186	21,29	23,13	8,6
	Gipuzkoa	18.885.434	19.571.072	26,57	27,46	3,3
	Bizkaia	16.215.290	16.678.770	14,24	14,64	2,8
Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	EAE	30.707.284	29.986.323	14,14	13,78	-2,5
	Araba	3.934.147	3.499.413	12,21	10,81	-11,4
	Gipuzkoa	10.003.492	11.829.440	14,08	16,60	17,9
	Bizkaia	16.769.645	14.657.470	14,73	12,86	-12,6
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	EAE	23.780.214	24.642.863	10,95	11,33	3,4
	Araba	6.178.411	6.671.388	19,17	20,62	7,6
	Gipuzkoa	7.235.211	7.067.361	10,18	9,91	-2,6
	Bizkaia	10.366.592	10.904.114	9,10	9,57	5,1
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	96.450.710	98.363.214	44,41	45,21	1,8
	Araba	16.975.046	17.654.987	52,66	54,56	3,6
	Gipuzkoa	36.124.137	38.467.873	50,83	53,97	6,2
	Bizkaia	43.351.527	42.240.354	38,07	37,07	-2,6
ETXEKO LAGUNTZA	EAE	34.695.887	43.066.652	15,98	19,79	23,9
	Araba	11.133.301	5.374.239	34,54	16,61	-51,9
	Gipuzkoa	12.029.399	10.688.674	16,93	15,00	-11,4
	Bizkaia	11.533.187	27.003.739	10,13	23,70	134,0
ZAINZAILLEENTZAKO BABESA	EAE	770.575	556.768	0,35	0,26	-27,9
	Araba	36.542	35.980	0,11	0,11	-1,9
	Gipuzkoa	285.703	132.215	0,40	0,19	-53,9
	Bizkaia	448.330	388.573	0,39	0,34	-13,4
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK	EAE	125.107.554	130.887.710	57,60	60,16	4,4
	Araba	14.183.747	14.085.571	44,00	43,53	-1,1
	Gipuzkoa	58.379.705	59.420.448	82,14	83,36	1,5
	Bizkaia	52.544.102	57.381.691	46,14	50,36	9,2
BESTE ZENTRO/ZERBITZUAK	EAE	7.804.446	9.050.276	3,59	4,16	15,8
	Araba	1.180.309	1.495.756	3,66	4,62	26,2
	Gipuzkoa	1.331.764	1.614.670	1,87	2,27	20,9
	Bizkaia	5.292.373	5.939.850	4,65	5,21	12,2
ADINEKOAK/DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA GUZTIRA	EAE	637.513.383	671.546.170	293,53	308,64	5,1
	Araba	112.640.618	112.692.648	349,45	348,26	-0,3
	Gipuzkoa	238.958.232	245.218.390	336,23	344,02	2,3
	Bizkaia	285.914.533	313.635.132	251,06	275,26	9,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizareratzeko gastuaren estatistika
Erkidegoz gairako erakundearen ekarpena barne



23. taula. Adingabe, gazte, familia, emakumeentzako eta baztertutako pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/bi z.	Gastua/bi z.	Gastua/bi z.
Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa						
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	65.016.488	73.586.938	29,94	33,82	13,0
	Araba	10.499.184	13.163.563	32,57	40,68	24,9
	Gipuzkoa	26.001.497	27.689.054	36,59	38,85	6,2
	Bizkaia	28.515.807	32.734.321	25,04	28,73	14,7
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	EAE	5.010.526	4.945.301	2,31	2,27	-1,5
	Araba	958.745	809.272	2,97	2,50	-15,9
	Gipuzkoa	1.229.226	1.182.702	1,73	1,66	-4,1
	Bizkaia	2.822.555	2.953.327	2,48	2,59	4,6
Ostatu, harrera eta egoitza-zentroak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat	EAE	17.032.821	17.203.017	7,84	7,91	0,8
	Araba	1.080.460	1.350.775	3,35	4,17	24,5
	Gipuzkoa	8.267.189	8.694.187	11,63	12,20	4,9
	Bizkaia	7.685.172	7.158.055	6,75	6,28	-6,9
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	87.059.835	95.735.256	40,08	44,00	9,8
	Araba	12.538.389	15.323.610	38,90	47,35	21,7
	Gipuzkoa	35.497.912	37.565.943	49,95	52,70	5,5
	Bizkaia	39.023.534	42.845.703	34,27	37,60	9,7
Adingabe/familientzako eguneko arreta	EAE	967.194	2.318.384	0,45	1,07	139,3
	Araba	204.077	1.506.149	0,63	4,65	635,2
	Gipuzkoa	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaia	763.117	812.235	0,67	0,71	6,4
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	EAE	4.551.600	4.841.792	2,10	2,23	6,2
	Araba	250.790	270.389	0,78	0,84	7,4
	Gipuzkoa	989.613	915.844	1,39	1,28	-7,7
	Bizkaia	3.311.197	3.655.559	2,91	3,21	10,3
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	5.518.794	7.160.176	2,54	3,29	29,5
	Araba	454.867	1.776.538	1,41	5,49	289,0
	Gipuzkoa	989.613	915.844	1,39	1,28	-7,7
	Bizkaia	4.074.314	4.467.794	3,58	3,92	9,6
FAMILIAKO ESKU-HARTZE ETA EKINTZAREN ARLOA	EAE	24.829.997	25.534.726	11,43	11,74	2,7
	Araba	4.030.325	4.307.573	12,50	13,31	6,5
	Gipuzkoa	11.066.702	11.716.431	15,57	16,44	5,6
	Bizkaia	9.732.970	9.510.722	8,55	8,35	-2,3
ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	EAE	117.408.626	128.455.328	54,06	59,04	9,2
	Araba	17.023.581	21.407.721	52,81	66,16	25,3
	Gipuzkoa	47.554.227	50.198.218	66,91	70,42	5,2
	Bizkaia	52.830.818	56.849.389	46,39	49,89	7,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Osoko gastuaren barnean dago Beste Zentro eta Zerbitzuetako gastua, hondar-atala, grafikoan ageri ez dena.

Etxeko laguntzaren arloan, foru-erakundeek gastua biztanleko 2017an gorenean jarri zen, 23,70 euroekin, Arabako 16,61 euroen eta Gipuzkoako 15,00 euroen gainetik. 2016-2017 aldian Bizkaia da foru-erakundeek gastuaren partida hau hazten den lurralde bakarra, gainera nabarmen hazten baita, beste bi lurraldeetan murrizketa nabarmenak egin direlarik. Joera horrek finkatu egiten du 2015-2016 aldian jadanik ikusi zen dinamika.

Mendekotasunen arloko prestazioetan, biztanleko foru-ekarpenik (eta erkidegoz gaindikorik) handiena Gipuzkoan egin zen (83,36 euro), Bizkaiaren (50,36 euro) eta Arabaren (43,53 euro) gainetik. Gastuaren dimentsio horretan, Bizkaia da biztanleko gastua 2016-2017 aldian gehien handitu zuen lurraldea, % 9,2arekin, Gipuzkoako % 1,5aren gainetik. Arabako biztanleko gastua, berriz, -% 1,1 murriztu zen.

Zaintzaileen babesari dagokionez, biztanleko foru-ekarpena 0,11 eurokoa izan zen Araban, 0,19 eurokoa Gipuzkoan eta 0,34 eurokoa Bizkaian. Hiru lurraldeetan ere gastu-lerro hori murriztu egin zen 2016-2017 aldian.

2016-2017 bitartean, foru-ekarpena lurralde guztietan handitu da adinekoak diren edo Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako beste zerbitzu batzuei dagokienez (Bizkaian % 12,2, Gipuzkoan % 20,9 eta Araban % 26,2). Biztanle bakoitzeko foru-gasturik txikiena, 2017an, Gipuzkoan egin da (2,27 euro biztanleko) eta handiena Bizkaian (5,21 euro biztanleko); Araba bien artean dago (4,62 euro biztanleko).

23. taulan ikus daitezke adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloko eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen arloko foru-gastu arruntari buruzko datuak. Esku-hartzearen esparru horretan, 2017an, foru-ekarpenik handiena Gipuzkoan egin zuen berriro, 70,42 euroekin, Arabako 66,16 eta Bizkaiko 49,89 euroen gainetik. Gipuzkoaren aldean, Arabak eta Bizkaiak berreskuratzen dute galdutako eremuaren zati bat, biztanleko gastua nabarmen igoarazi baitute, % 25,3 eta % 7,6, hurrenez hurren, Gipuzkoako % 5,2aren gainetik. 2016 eta 2017 bitartean, gastuaren hazkundera era berezian nabarmendu zen Araban, hor handitu baitzen gehien gastua 2012-2015 bitartean, baina 2015-2016 aldian bertan gelditu zen.

2016-2017 aldian Arabako gastu-mailaren susperraldia bereziki deigarria da adingabekoen edo gazteen egoitza-zerbitzuei dagokienez, % 24,9 hazi baitzen, lurralde hori berriro jarriz biztanleko foru-gastuaren lehenengo lekuan 2017an: 40,68 euro Araban; Gipuzkoan 38,85 eta Bizkaian 28,73 euro. 2012 eta 2015 bitartean lurralde horretan ikusi ziren beherakaden ondoren, 2015-2016 aldian Bizkaia da bere foru-gastua gehien hazten ikusi zuen lurraldea. 2016-2017 aldian Arabaren azpitik geratzen bada ere, aldi horretako hazkundera areagotu egin zen, % 14,7 hazi baitzen, 2015-2016 aldiko % 4,6aren aldean. Beste bi lurraldeetan aurrerapen handiak zeuden testuinguru horretan, Gipuzkoan izan zen hazkunderik txikiena biztanleko gastuan, 2016-2017 aldian, egoitza-zerbitzu mota horren arloan (% 6,2).

Nolanahi ere, Gipuzkoak jarraitzen du izaten biztanleko foru-ekarpenik handiena egiten duen lurraldea, baztertutako pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroetarako. 2017an, lurralde historiko horretako 12,20 euroek gaintu egiten dituzte Bizkaiko 6,28 euroak eta Arabako 4,17ak. Bizkaia izanik 2016-2017 aldian biztanleko gastua murriztu duen lurralde bakarra (-% 6,9), Araba nabarmendu da hazkunde handiagatik (+% 24,5 han, eta Gipuzkoan, berriz, +% 4,9). Horrenbestez, 2012 eta 2015 bitartean ikusitako egoera errepikatzen da, bi lurralde horietan gastuaren hazkunde handiagoarekin, 2015-2016 aldian behera egin ondoren, urte horietan gastuaren hazkundearen buru Bizkaia zelarik.



Egoitzen arloan, 2017an, emakumeentzako zentroetarako biztanleko foru-gastua 1,66 eurokoa da Gipuzkoan; Bizkaian da handiena, 2,59koa, eta tartean dago Araba 2,50 euroko gastuarekin. 2016-2017 aldian Araban eta Gipuzkoan emakumeentzako egoitza-zentroetako biztanleko gastuak behera egin zuelarik, Bizkaian nabarmentzen da % 4,6ko hazkundera gastuan, Arabaren aurretik kokatuz 2017an.

Gizarteratzeko premien arretarako eguneko zentroetan, biztanleko gastua Arabako 0,84 euroen eta Bizkaiko 3,21 euroen artekoa da (1,28 eurokoa Gipuzkoan). Biztanleko gastuaren hazkundera % 10aren gainetik egon da 2012-2015 bitartean, eta 2015-2016 aldian Gipuzkoan bakarrik hazi zen foru-gastua (+% 2,6), Araban -% 2,5 eta Bizkaian -% 6 jaisten zelarik. Gastua berreskuratu zen 2016-2017 aldian bai Bizkaian, +% 10,3 haziz eta lurralde horrek biztanleko foru-gastuan duen lehenengo lekua finkatuz, eta bai Araban ere (+% 7,4). Gipuzkoan, baina, gastu hori -% 7,7 jaitsi da.

Adingabekoen, gazteen eta familien eguneko arretari dagokionez, foru-ekarpen nabarmen bakarra Arabak du, 2016-2017 aldian modu nabarmenean hazi dena, biztanleko 4,65 euroarekin. Bizkaian, berriz, biztanleko 0,71 euro gastatu ziren.

Azkenik, familiako esku-hartze eta ekintzarako programetan, 2017an Gipuzkoa dago, berriz ere, lehenengo postuan, 16,44 euroko foru-ekarpena baitu biztanleko, eta ondoren datoz Araba (13,31) eta Bizkaia (8,35). 2012 eta 2015 urteen artean lurralde desberdinetan ikusitako gastuaren gorakada indartsuen ostean –gehiago Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino–, arlo honetako esku-hartzean Gipuzkoak izan du gorakadarik handiena 2015-2016 aldian. Gorako bidea mantendu egin da Gipuzkoan 2016-2017 aldian, % 5,6arekin, baina Araban gehiago hazi zen % 6,5arekin. Bizkaian, berriz, gastu hori -% 2,3 murriztu da.

Gizarte-prestazioen arloan, lurraldeen ekarpenak gehien bereizten diren eremua GLL, gizarte-urgentzia eta EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko antzeko zeregina duten beste babes-prestazio batzuekin lotutakoa da. Arlo horiei dagozkien datuak 24. taulan bildu dira.

24. taula. GLL, gizarte-urgentziako eta antzeko beste prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

	2016		2017		Bariazioa 2016/2017 aldian
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Prestazio mota eta lurralde historikoa					
Beste gizarte-prestazio batzuk	16.798.131	10.692.673	7,73	4,91	-36,5
EAE					
Araba	289.982	493.913	0,90	1,53	69,7
Gipuzkoa	15.742.889	9.445.677	22,15	13,25	-40,2
Bizkaia	765.260	753.083	0,67	0,66	-1,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Kasu honetan, datu esanguratsuena Gipuzkoako gastu konparatuaren maila handia da. Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren kudeaketa historikoak, haren inplikazioak hein batean 2017an mantentzen direla, Gipuzkoan biztanleko 13,25 euroko gastura iristea eragin zuen. Datuok kontrastea egiten dute Araban nahiz Bizkaian eginiko biztanleko foru-ekarpen oso txikiarekin (1,53 eta 0,66 euro, hurrenez hurren). Hala ere, partida horretako gastua -% 40,2 murriztu da Gipuzkoan 2016-2017 aldian.

4.5. Udal-erakundeen parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

25. taulan egiazta daitekeen bezala, 2017an, udal-erakundeek, udalen edo mankomunitateen bidez, zerbitzuetan eta gizarte-prestazioetan 78,63 euro gastatu zituzten herritar bakoitzeko. Zenbaki horrek -% 4,1eko jaitsiera islatzen du 2016ko 81,99 euroen aldean, horiek ere lehendik izanik 2015eko 85,39 euroen gaineko murrizketa handi samarra. Beraz, 2016-2017 aldian gastu mota horren murrizketa-lerroa luzatu zen, 2015-2016 aldiko -% 4,0 murrizketa-erritmoaren oso antzera.

Gastuan udalen artean izaten diren aldeak deigarriak dira betiere, eta lurraldearen luze-zabalean dinamika oso desberdinak daudela islatzen dute, berriz ere, 2016-2017 aldian. Udalen ekarpenik handiena, 2017an, Gasteizek egin zuen berriz ere, biztanleko 172,69 euro gastatuta. Donostian eta Bilbon ere gastua gainerako udalen batezbestekoaren oso gainetik dago, baina ez da iristen Gasteizen mailara: 109,68 euro biztanleko Donostian eta 93,51 euro Bilbon.

Bai Gasteizen, bai Bilbon, biztanleko gastuak behera jo du 2016-2017 aldian, hurrenez hurren -% 2,7 eta -% 2,8 murriztuta. Lehen aipatutako -% 4,1eko murrizketak markatu zuen testuinguru orokorrean, murrizketa horiek txikiagoak dira. Gasteizko kasuan, gastuaren murrizketa ez da 2015-2016 aldian izandako +% 3,7ko hazkundera bezain bestekoa, eta horri esker biztanleko gastua 2017an Gasteizen 2015eko gastuaren gainetik mantentzen da (orain 172,69 euro eta orduan 171,14). Bilbon, ordea, lehenagoko beherakada luzatu eta areagotu da 2016-2017 aldian (-% 5,0), eta beraz garbi urruntzen da 2015eko zenbakietatik (93,51 euro 2017an eta 2015ean 101,28 euro, beraz, -% 7,7).

Gastuaren dinamika, aldiz, gorakoa da Donostian. 2015-2016 aldian murrizketa gogorra (-% 6,6) egin ondoren, 2016-2017 aldian nabarmen gora egin zuen berrir, +% 2,9 hazi baitzen, gastua kokatuz 2015eko gastutik hurbil (109,68 euro 2017an eta 114,09 euro 2015ean).

Gipuzkoako gainerako udalerrri handietan gastuaren bilakaera hobea da, Donostia baino hobeto jasan zutelako haiek 2015-2016 aldiko biztanleko gastua murrizteko joera (-% 1,7 beste udaletan eta -% 6,6 Donostian). Udalerrri horietan, biztanleko gastua % 6,2 hazi zen 2016-2017 aldian, eta 73,69ra iritsi zen 2017an, oso gainetik 2015eko 70,63en aldean (+% 4,3) eta EAEko batezbestekotik hurbil (78,63 euro).

Gastuaren maila horrekin, 2017an Gipuzkoako udalerrri nagusiek, hiriburua aparte, Bizkaiko udalerrri nagusiek egiten duten gastua gaintzen dute. Udalerrri-multzo horretan, izan ere, 2015-2016 aldian gastua murrizteko joera gogorra mantendu da, orduan -% 9,6 eta 2016-2017 aldian -% 9,5 murriztu baitzen. 2015ean, biztanleko gastua gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan 83,04 eurokoa izan zen Bizkaiko udalerrri nagusietan, EAEko batezbestekoa baino % 2,35 gutxiago. 2017an kopurua 67,96 eurora murriztu zen, aipatutako batezbestekoaren azpitik hamar puntu luze.

Ekarpen-maila baxuenetan, biztanleko udal-gastua 58,59 eurokoa izan zen Gipuzkoako gainerako udalerrrietan. 2017an udalerrri horietako gastua, berriz, % 4,7 hazi da 2016ko 55,95 euroen aldean. Bilakaera horrek Gipuzkoako udalerrri horietako biztanleko gastua Arabako edo Bizkaiko pareko udalerrrien gainetik bultzatzen du (14,71 eta 36,49 euro biztanleko, hurrenez hurren, 2017an). Araban zenbaki horrek pixkanaka behera egin du 2016ko 15,58 euroetatik (-% 5,6), eta Bizkaian beherakada gogorragoa izan du, 2016ko biztanleko 48,13 euroen aldean -% 24,2 murriztuta.



Gipuzkoako udalerrri txikiagoen biztanleko gastua mantendu da, 2017an, Arabako udalerrri nagusiei dagokienaren gainetik, Gasteiz aparte. Udalerrri horietan, 2017an biztanleko egindako 37,82 euroen gastuak +% 0,5eko hazkunde eskasa gehitzen du 2016ko 37,64 euroen gainetik, modu argian eten duelarik 2015-2016 aldiko % 11,4ko hazkunde bizkorra.

25. taula. Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2016-2017
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Gastu eta udalerrri mota		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu arrunta guztira	EAE	178.071.299	171.092.452	81,99	78,63	-4,1
	Gasteiz	42.852.015	41.834.126	177,48	172,69	-2,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	1.077.056	1.086.310	37,64	37,82	0,5
	Arabako gainerakoak	814.533	774.207	15,58	14,71	-5,6
	Donostia	19.209.050	19.804.080	106,61	109,68	2,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	8.797.303	9.345.614	69,41	73,69	6,2
	Gipuzkoako gainerakoak	22.591.373	23.755.028	55,95	58,59	4,7
	Bilbo	32.939.879	32.017.073	96,18	93,51	-2,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	31.948.102	28.917.357	75,06	67,96	-9,5
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	17.841.988	13.558.657	48,13	36,49	-24,2
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	158.426.491	152.070.564	72,94	69,89	-4,2
	Gasteiz	36.082.873	36.900.842	149,44	152,32	1,9
	Arabako beste udalerrri nagusiak	686.895	710.501	24,01	24,74	3,0
	Arabako gainerakoak	750.760	746.702	14,36	14,19	-1,2
	Donostia	15.319.342	15.930.028	85,02	88,23	3,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	7.741.895	8.330.446	61,09	65,68	7,5
	Gipuzkoako gainerakoak	20.555.334	21.106.327	50,91	52,06	2,3
	Bilbo	31.814.358	31.208.933	92,89	91,15	-1,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	29.379.297	25.543.555	69,02	60,03	-13,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	16.095.737	11.593.230	43,42	31,20	-28,1
Gizarte-prestazioak	EAE	19.644.808	19.021.888	9,05	8,74	-3,3
	Gasteiz	6.769.142	4.933.284	28,04	20,36	-27,4
	Arabako beste udalerrri nagusiak	390.161	375.809	13,64	13,09	-4,0
	Arabako gainerakoak	63.773	27.505	1,22	0,52	-57,2
	Donostia	3.889.708	3.874.052	21,59	21,46	-0,6
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.055.408	1.015.168	8,33	8,00	-3,9
	Gipuzkoako gainerakoak	2.036.039	2.648.701	5,04	6,53	29,6
	Bilbo	1.125.521	808.140	3,29	2,36	-28,2
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	2.568.805	3.373.802	6,03	7,93	31,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.746.251	1.965.427	4,71	5,29	12,3

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Udal gastuaren barne egitura aztertuta, biztanleko 69,89 euro eskaintzen zaizkio, 2017an, gizarte-zerbitzuetako erdiguneari. Horrek esan nahi du -% 4,2ko beherakada izan dela 2016-2017 aldian, gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako udal gastu osoan ikusitako -% 4,1eko murrizketaren antzekoa. Horrekin 2015-2016 aldiko beherakadaren erritmoa apaltzen da, -% 5,1 jaitsi baitzen orduan, gizarte-zerbitzuetako -% 4,0ko murrizketa orokorra baino handiagoa. 2017ko biztanleko 69,89 euroak, jadanik, 2012ko 70,52 euroen azpitik kokatzen dira.

Udalen gastuak batez ere jarduketa-esparru horretara bideratzen direnez, lurraldeen arteko aldeak gorago aipatu diren aldeen oso antzekoak dira. Izan ere, udalen ekarpenik handiena Gasteizek egin zuen 152,32 euroekin, zenbaki hori are gehiago hazi zela 2016-2017 aldian (+% 1,9 hazi zen, 2015-2016 aldian izandako +% 2,1eko hazkundeari jarraiki).

Biztanleko 88,23 euro gastatuta, Donostiak handitu du nabarmen gastua 2016-2017 aldian: +% 3,8ko gehikuntza, 2016ko 85,02 euroen gainetik. Gastuaren maila hori, -% 7,2ko murrizketa zuena 2015ekoaren aldean, 2016an Bilboren 92,89 euroko gastuak gainditu zuen. Hala ere, Bilbon 2016-2017 aldian gastuaren beherako joera mantentzen zen (-% 1,9ko murrizketa apalagoa, 2015-2016 aldiko -% 5,8koa baino), eta horren ondorioz 2017an Donostiako gastua Bilboko gastuaren mailara hurbildu zen. Bilbok, hala ere, 2017an, gizarte-zerbitzuen erdiguneko gastuan zuen bigarren postuari eutsi zion, biztanleko 91,15 euro gastatuta.

2015-2016 aldiko beherako joera eten egin zen, baita ere, Gipuzkoako udalerrri nagusietan. Aldi hartako -% 5,5eko murrizketaren aldean, biztanleko gastua +% 7,5 handitu zen 2016-2017 aldian. Gastua 65,68 eurora iritsi zen, 2015eko 64,67 euroen gainetik. Hiriburu handiak aparte, 2017an hori da biztanleko gasturik handiena EAEn, 2016an oraindik Bizkaiko udalerrri handiei zegokien arren.

Bizkaiko udalerrri nagusi horiek ere, Bilbo aparte, parte hartzen dute gastua murrizteko lerroan, 2016-2017 aldian Bizkaiko lurralde osora hedatu baitzen. Izan ere, murrizketa hori -% 13koa izan da biztanleko gastuari dagokionez, 2015-2016 aldiko -% 10,2ko murrizketari segida emanez. 2017an biztanleko 60,03 euro gastatuta, udalerrri horiek modu oso argian urrundu dira 2015eko 76,83 euroetatik.

Murrizketarik handiena, ordea, Bizkaiko gainerako udalerriei dagokie, -% 28,1ekoa baita 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldiko -% 13ko murrizketa are gehiago sakonduz. 2017ko biztanleko 31,20ko euroak nabarmen urruntzen dira, udal horietan, 2016ko 43,42 eurotik eta 2015eko 49,91etatik. Beherako joera hori ez dute partekatzen Gipuzkoako gainerako udalerriek, 2016-2017 aldian gastua handitu baitzuten +% 2,3. Udalerrri horietako gastuaren 52,06 euroak gehiago dira Bizkaiko gainerako udalerrietako 31,20 euroak baino, Arabako udalerrri nagusietako 24,74 euroak baino, eta Arabako gainerako udalerrietako 14,19 euroak baino. Biztanleko gastua Arabako udalerrri txikienetan -% 1,2 murriztu zen 2016-2017 aldian, baina +% 3,0 handitu zen Arabako udalerrri nagusietan.

Prestazioen arloan udal-erakundeek udalen edo mankomunitateen bidez egiten duten gastua biztanleko 8,74 eurokoa da 2017an. Kasu honetan, kopuruak -% 3,3ko murrizketa islatzen du 2016ko 9,05 euroen aldean. Beherakada horrek kontrastatzen du 2012-2016ko hazkunde iraunkorreko ildoarekin.



Gastuaren mailan izan den beherakada nagusietakoa Gasteizen ikusi da, $-% 27,4$ murriztu baita biztanleko gastua, 2016ko 28,04 eurotik 2017ko 20,36 eurora. Donostiak ere bere gastua murrizten badu ere, beherakada $-% 0,6$ koa besterik ez da izan, 2016ko 21,59 eurotik 2017ko 21,46ra. Horren ondorioz, urte horretan, Donostiak Gasteiz gainditu zuen gizarte-prestazioen biztanleko gastuan. Bi hiriburuetan biztanleko gastua 2015ean erregistratutakoaren azpitik geratzen da (Gasteizen orain 20,36 euro eta orduan 24,75 eta Donostian orain 21,46 euro eta orduan 22,45 euro).

Arabako udalerrri nagusietan, udal-ekintzaren eremu honetan ere gastua EAEko 2017ko batezbestekoa baino zertxobait altuagoa da. Kasu honetan, gastua 2017an 13,09 eurora iristen da. 2015-2016 aldiko $\% 46,8$ ko hazkunde handiaren ondoren, gastuaren beherakada nolabait apala da 2016-2017 aldian udalerrri horietan ($-% 4,0$) eta horrek azaltzen du aipatutako 13,09 euro horiek 2015eko 9,29 euroen gainetik egotea nabarmen.

Aipatutako arabar udaletan ikusitako joera Gipuzkoako udalerrri nagusietako bilakaeraren antzekoa da. 2016-2017 aldian gastua $\% 39,9$ handitu ondoren, 2016-2017 aldiko beherakada ere apala da kasu honetan ($-% 3,9$) eta 2017ko biztanleko 8 euroko gastua nabarmen dago 2015eko 5,95 euroen gainetik.

2015-2016 aldian $-% 2,8$ jaitsi ondoren, Bizkaiko udal nagusien gastua nabarmen hazi zen 2016-2017 aldian ($+% 31,4$). 2015-2016 aldian 6,21 eurotik 6,03ra jaitsi ondoren, biztanleko gastua 2017an hurbildu da Gipuzkoako udal nagusietan egiten den gastura (7,93 euro biztanleko eta 8,00 euro).

Gastuaren maila hobetzeko joera hau nabarmena da, baita ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan. 2015-2016 aldian egonkortu edo beherakada txikia izan ondoren, biztanleko gastua gizarte-prestazioetan handitu egin zen 2016-2017 aldian, $\% 12,3$ Bizkaian eta $\% 29,6$ Gipuzkoan. 2017an, udalerrri txikiak gastuaren zenbakiak udalerrri nagusietako gastuaren zenbakietara hurbildu dira: Bizkaian 5,29 euro eta Gipuzkoan 6,53 euro. Joera horretatik aparte geratzen dira Arabako gainerako udalerrriak bakarrik, beherakada gehiago izan baitira han, biztanleko gastua 0,52 euro eskasera eraman dutela 2017an.

Billboko kasua berezia da, izan ere, gizarte-prestazioetako biztanleko udal gastua 2016-2017 aldian berriro murriztu ondoren, haren maila ozta-ozta 2,36 eurotan geratzen da biztanleko, 2017an. Kopuru hori, Gasteizen eta Donostian ikusitako kopuruetatik ez ezik, Bizkaiko eta Gipuzkoako nagusiak ez diren udalerrietako kopuruetatik ere aldentzen da, salbuespen bakarra direla Arabako gainerako udalerrriak. Araban nagusiak ez diren udalerrri horiek, gastuari esleitutako 0,52 euroekin, gizarte-prestazioetarako biztanleko gasturik txikiena dutelako nabarmentzen dira.

26. taularen bitartez azter daiteke gizarte-zerbitzuen erdigunea osatzen duten alor bakoitzean egindako udal-gastua. Gizarte-zerbitzuetako egituratik hasita, egiaztatu daiteke 2017an udalen ekarpena egitura horren finantzaketarako biztanleko 24,75 eurokoa dela. Kopuru hori 2016ko 24,60 euroen gainetik hazi da, $\% 0,6$ besterik ez bada ere, baina argi dago eten egin duela 2015-2016 aldian egikaritutako gastuan atzeman zen $-% 5,5$ eko murrizketa. Beraz, 2017ko kopurua 2012ko 23,11 euroen gainetik dago.

Gasteizko eta Donostiako udalek gastatu dute gehien arlo honetan; hain zuzen ere, 47,92 eta 32,80 euro biztanleko, hurrenez hurren. Gipuzkoako udalerri nagusien gastua ere zenbaki horretara hurbiltzen da, biztanleko 28,65 euroekin.

Maila horietatik urrunago, Bilbo dago EAeko batezbestekotik hurbil, biztanleko 24,52 euroekin. Neurri horren gaintik hein batez, Gipuzkoako gainerako udalerriek antzeko gastua mantentzen dute biztanleko (25,37 euro).

EAeko batezbestekoen azpitik daude Arabako udalerri nagusiak (21,46 euro), Bizkaiko udalerri nagusiak (16,80 euro) eta Bizkaiko gainerako udalerriak (15,63 euro). Gutxien Arabako gainerako udalerriek gastatu dute, 8,29 euro biztanleko, hain zuzen.

Azken aldiko bilakaeran nagusi izan da gastuaren hazkundera zenbait udaletan edo udal taldetan. Hazkunde nagusiak izan dira, ildo horretatik, 2016-2017 aldian, Arabako udalerri nagusietan (% 20,9) eta Bilbon (% 7,5). Hazkundera handia da, halaber, nagusi ez diren Gipuzkoako udalerrietan (% 5,4). Horren azpitik, baina gehikuntzak betiere, izan dira bai Gasteizen bai Bizkaiko nahiz Gipuzkoako udalerri nagusietan, % 1,9 eta % 3,5 bitartekoak. Aipatutako lurralde-eremu horietan, Gasteizen bakarrik zetorren lehenagotik gorako joera, 2015-2016 aldian % 2,2ko gehikuntza izan zuelako, hain zuzen ere. Aztertutako gainerako eremuetan, udalen gastua gizarte-zerbitzuen egituran murriztu egin zen aldi horretan, -% 4 eta -% 13,8 bitartean. Izan ere, Gasteiz eta Arabako udalerri nagusietan izan ezik, gizarte-zerbitzuetako egituraren gastua biztanleko are txikiagoa da 2017an, 2015ean baino.

Biztanleko gastua txikiagoa da 2016-2017 aldian Donostian eta Arabako nahiz Bizkaiko udalerri txikienetan. Gipuzkoako hiriburuan, horrek aurreko beherako joera luzatu zuen (-% 7koa 2015-2016 aldian eta are handiagoa, -% 8,3koa, 2016-2017 aldian). Arabako gainerako udalerrietan izan ezik, azken aldiko beherakaden ondorioz, biztanleko gastua 2017an 2015ekoaren azpitik dago.

Hala ere, gizarte-zerbitzuen egituran gertatutako gastuaren beherakada, kuantitatiboki, aipatutako udaletan, egitura eta emaitza orokorrek lotuta dago, horrek alde on bat duela, alegia, kudeaketaren emaitza orokorrean defizitari eutsi zaiola. Egiaz, 2016-2017 aldian Gasteizen eta Arabako udalerri nagusietan ikus daiteke egitura orokor horri lotutako gastuaren hazkundera, eta ez beste inon, gainerako lurralde-eremuetan beherakadak, oso nabarmenak gainera, direlako nagusi. Termino absolutuetan, defizita gainditzeko prozesu horrek lurraldeko udalerri txikienei egin die mesede gehien, batez ere Araban eta Gipuzkoan, baina Bizkaia eta Gipuzkoako udalerri nagusiei ere bai, hiriburuak barne.

Egitura orokorreko udal gastua murrizteko lerroa zerbitzu tekniko espezializatuetara ere hedatzen da, eta 2016an biztanleko 3,71 eurotik 3,57 eurora murriztu da 2017an, -% 3,6ko murrizketa, 2016-2017 aldiko -% 8,8ko murrizketa luzatuz. Beherakada bakarrak, ordea, 2016-2017 aldian, Donostian eta Gipuzkoako gainerako herrietan izan ziren. Nabarmena da, ordea, gastu mota horren gorakada Bilbon eta Bizkaiko udalerri nagusietan (% 7,8 eta % 6,9), eta Gasteizko egonkortasuna ere aipagarria da. Azken udalerri horrek mantendu zuen zerbitzu espezializatuetako biztanleko gasturik handiena: 16,46 euro, Bilboko 5,92 euroen eta Bizkaiko udalerri nagusietako 2,75 euroen oso gaintik, EAeko gainerako lurraldeetan 1,33 euroko gastua edo gutxiago egin zela.



26. taula. Gizarte-zerbitzuen egiturako udal gastu arrunta, udal motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Gastu eta udalerrri mota		2016	2017	2016		2017		Bariazioa
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	aldian
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (gizarte-urgentziak barne)	EAE	38.769.279	39.409.085	17,85	18,11			1,5
	Gasteiz	6.126.824	6.055.659	25,38	25,00			-1,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	427.099	462.423	14,93	16,10			7,9
	Arabako gainerakoak	314.189	370.900	6,01	7,05			17,3
	Donostia	4.648.439	4.905.972	25,80	27,17			5,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	2.540.573	2.874.926	20,05	22,67			13,1
	Gipuzkoako gainerakoak	9.045.481	10.005.692	22,40	24,68			10,2
	Bilbo	6.287.412	6.385.320	18,36	18,65			1,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	5.883.495	5.743.223	13,82	13,50			-2,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	3.495.767	2.604.970	9,43	7,01			-25,6
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	8.052.358	7.777.182	3,71	3,57			-3,6
	Gasteiz	3.976.446	3.987.997	16,47	16,46			0,0
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00			
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00			
	Donostia	696.432	107.995	3,87	0,60			-84,5
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	123.899	168.384	0,98	1,33			35,8
	Gipuzkoako gainerakoak	229.039	176.283	0,57	0,43			-23,3
	Bilbo	1.880.601	2.025.983	5,49	5,92			7,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.092.818	1.168.267	2,57	2,75			6,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	53.123	142.273	0,14	0,38			167,2
Egitura eta emaitza orokorra	EAE	6.609.113	6.667.156	3,04	3,06			0,7
	Gasteiz	1.246.822	1.565.460	5,16	6,46			25,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	80.831	153.829	2,83	5,36			89,6
	Arabako gainerakoak	134.660	65.297	2,58	1,24			-51,8
	Donostia	1.099.024	908.358	6,10	5,03			-17,5
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	885.041	590.860	6,98	4,66			-33,3
	Gipuzkoako gainerakoak	442.344	101.525	1,10	0,25			-77,1
	Bilbo	-357.504	-16.569	-1,04	-0,05			-95,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	-67.695	236.935	-0,16	0,56			-450,1
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	3.145.590	3.061.461	8,49	8,24			-2,9
EGITURA GUZTIRA	EAE	53.430.750	53.853.423	24,60	24,75			0,6
	Gasteiz	11.350.092	11.609.116	47,01	47,92			1,9
	Arabako beste udalerrri nagusiak	507.930	616.252	17,75	21,46			20,9
	Arabako gainerakoak	448.849	436.197	8,59	8,29			-3,5
	Donostia	6.443.895	5.922.325	35,76	32,80			-8,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.549.513	3.634.170	28,01	28,65			2,3
	Gipuzkoako gainerakoak	9.716.864	10.283.500	24,06	25,37			5,4
	Bilbo	7.810.509	8.394.734	22,81	24,52			7,5
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	6.908.618	7.148.425	16,23	16,80			3,5
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	6.694.480	5.808.704	18,06	15,63			-13,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Udal gastua egitura orokorrean eta zerbitzu espezializatuetan murriztu izanaren ondorio on bat da oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastua suspertu dela. Biztanleko udal-gastua kasu horretan handitu egin da 17,85 eurotik 18,11 eurora 2016-2017 aldian, hazkunde erlatiboa % 1,5koa dela, 2015-2016 aldiko % 0,8aren gainetik.

Lurralde-eremuetako dinamika, ordea, askotarikoa da. Hazkunderik handienak, % 10aren gainekoak, Araba eta Gipuzkoako udalerri txikiei dagozkie, eta Gipuzkoako udal nagusiei ere bai, Donostiari izan ezik. Kasu horietan guztietan, biztanleko gastua 2017an 2015ean baino handiagoa da. Gauza bera gertatzen da Arabako udalerri nagusietan eta Donostian, eremu horietan 2016-2017 aldiko biztanleko gastuaren hazkundera, mugatuagoa izanik ere, azpimarragarria baita (% 7,9 eta % 5,3). Bilbok ere hobekuntza izan zuen. Udal horretan gastuaren hazkundera 2016-2017 aldian % 1,6koa besterik ez bada ere, horri eransten zaio 2015-2016 aldiko % 8,9ko hazkundera, ondorioz biztanleko gastuaren kopuruak 2015ekoak baino handiagoak direlarik.

Eremu batzuetan, ordea, 2016-2017 aldian biztanleko gastua murriztu zen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, esaterako Gasteizen eta Bizkaiko udalerrietan, Bilbon izan ezik. 2016-2017 aldiko gastuaren beherakadaren ondorioak, 2017an, Bizkaiko udalerri txikietan bakarrik islatzen dira, gastua nabarmen azpitik baitago 2015ekoaren aldean (-% 30,8). Bizkaiko udalerri nagusietan beherakadak luzatu egin ziren 2015 eta 2017 bitartean, baina ez dira oso nabarmenak (-% 2,8 aldi osoan). Gasteizen, 2016-2017 aldiko -% 1,5ak beherako egonkortasuna adierazten du, 2015-2016 aldian % 12,3 hazi ondoren.

2017an, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako biztanleko gastuak maila gorenean jarraitzen du Gipuzkoako udalerrietan: 27,17 euro Donostian, 22,67 euro udalerri nagusietan, eta 24,68 euro Gipuzkoako gainerako udalerrietan. Lurralde horretatik kanpo, kopuru horietara hurbiltzen den ekarpen bakarra Gasteizena da, biztanleko 25,00 euro gastatuta. Bilbo azpitik kokatzen da, 18,65 euroekin, eta atzetik daude Arabako udalerri nagusiak (16,10 euro) eta Bizkaiko udalerri nagusiak (13,50 euro). Arabako eta Bizkaiko udalerri txikiek batez beste 7 euro baino gehixeago gastatu dute (7,05 eta 7,01 hurrenez hurren).

27. taulan daude jasota mendekotasunaren arretarekin, adinekoen arretarekin eta desgaitasuna/gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretarekin lotutako jarduketetara bideratzen den udal-gastuaren inguruko datu nagusiak.

Adineko pertsonen arretarekin hasita, egiaztatu da 2017an kolektibo horretara bideratutako udal-gastua 14,27 eurokoa izan dela biztanleko; zifra hori 2016ko 15,77 euroak baino -% 9,5 urriagoa da. Horrekin 2015-2016 aldian atzemandako beherakada areagotzen da, aldi hartan -% 6,5 jaitsi baitzen, 2015eko 16,87 euroen aldean.

Adineko pertsonen aldeko udal gastuaren eremuan, biztanleko 12,39 euro dagozkie egoitza-zentroei eta 1,88 euro eguneko zentroei eta adineko pertsonentzako beste zentro eta zerbitzuei. 2016aren aldean, gastuaren beherakada handiagoa da egoitza-zentroetan (-% 10,1 jaitsita 2016ko 13,78 euroak, 2016-2017 aldian -% 7,5eko murrizketa areagotuz). Hala ere, kualitatiboki nabarmenagoa da adineko pertsonentzako eguneko zentroei eta beste zentro edo zerbitzuei dagokienez. Era horretan, 2015-2016 aldian gastuan izandako % 0,8ko hazkunderaren ondoan, 2016-2017 aldian biztanleko udal-gastuan izandako murrizketa nabarmenak egoitzakoak ez diren zentro hauetara hedatu dira (-% 5,6).



27. taula. Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Egoitza-zentroak	EAE	29.924.419	26.956.540	13,78	12,39	-10,1
	Gasteiz	10.645.744	8.104.041	44,09	33,45	-24,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	21.170	0,00	0,74	
	Arabako gainerakoak	0	15.869	0,00	0,30	
	Donostia	1.830.845	2.500.536	10,16	13,85	36,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.368.677	1.496.537	10,80	11,80	9,3
	Gipuzkoako gainerakoak	3.952.560	2.901.795	9,79	7,16	-26,9
	Bilbo	2.647.520	3.138.296	7,73	9,17	18,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	7.629.085	7.189.737	17,92	16,90	-5,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.849.988	1.588.559	4,99	4,28	-14,3
Eguneko zentroak eta beste zentro/zerbitzu batzuk	EAE	4.328.733	4.095.548	1,99	1,88	-5,6
	Gasteiz	2.563.256	2.388.842	10,62	9,86	-7,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	37.297	21.688	1,30	0,76	-42,1
	Arabako gainerakoak	228.810	250.616	4,38	4,76	8,8
	Donostia	-77.363	-77.967	-0,43	-0,43	0,6
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	66.889	74.273	0,17	0,18	10,6
	Bilbo	165.078	168.380	0,48	0,49	2,0
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.233.375	1.101.692	2,90	2,59	-10,6
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	111.391	168.024	0,30	0,45	50,5
ADINEKO PERTSONAK	EAE	34.253.152	31.052.088	15,77	14,27	-9,5
	Gasteiz	13.209.000	10.492.883	54,71	43,31	-20,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	37.297	42.858	1,30	1,49	14,5
	Arabako gainerakoak	228.810	266.485	4,38	5,06	15,7
	Donostia	1.753.482	2.422.569	9,73	13,42	37,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.368.677	1.496.537	10,80	11,80	9,3
	Gipuzkoako gainerakoak	4.019.449	2.976.068	9,95	7,34	-26,3
	Bilbo	2.812.598	3.306.676	8,21	9,66	17,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	8.862.460	8.291.429	20,82	19,49	-6,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.961.379	1.756.583	5,29	4,73	-10,6

27. taula. Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Jarraipena

		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	EAE	820.712	652.065	0,38	0,30	-20,7
	Gasteiz	15.000	0	0,06	0,00	-100,0
	Arabako beste udalerrri nagusiak	860	920	0,03	0,03	6,6
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	379.980	42.181	2,11	0,23	-88,9
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	69.516	62.902	0,17	0,16	-9,9
	Bilbo	34.612	72.547	0,10	0,21	109,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	272.059	383.183	0,64	0,90	40,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	48.685	90.332	0,13	0,24	85,1
ETXEKO LAGUNTZA (zaintzaileen babesa barne)	EAE	37.156.562	35.596.536	17,11	16,36	-4,4
	Gasteiz	1.801.141	8.434.231	7,46	34,82	366,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	7.699	10.000	0,27	0,35	29,4
	Arabako gainerakoak	51.895	23.394	0,99	0,44	-55,2
	Donostia	3.281.898	4.038.416	18,21	22,37	22,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.334.084	1.678.074	10,53	13,23	25,7
	Gipuzkoako gainerakoak	3.970.574	4.329.280	9,83	10,68	8,6
	Bilbo	12.013.681	10.214.337	35,08	29,83	-15,0
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	9.575.314	5.351.233	22,50	12,58	-44,1
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	5.120.276	1.517.571	13,81	4,08	-70,4
ADINEKOAK/DESGAITASUNAK/MENDEKOTASUNA GUZTIRA	EAE	72.230.426	67.300.689	33,26	30,93	-7,0
	Gasteiz	15.025.141	18.927.114	62,23	78,13	25,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	45.856	53.778	1,60	1,87	16,8
	Arabako gainerakoak	280.705	289.879	5,37	5,51	2,6
	Donostia	5.415.360	6.503.166	30,06	36,02	19,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	2.702.761	3.174.611	21,33	25,03	17,4
	Gipuzkoako gainerakoak	8.059.539	7.368.250	19,96	18,17	-8,9
	Bilbo	14.860.891	13.593.560	43,39	39,70	-8,5
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	18.709.833	14.025.845	43,96	32,96	-25,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	7.130.340	3.364.486	19,23	9,06	-52,9

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Udalen eremuan, Gasteiz nabarmentzen da betiere 2017an gastuaren arlo honetan, biztanleko 43,31 euro eskainita adinekoen arloari, EAEko batezbestekoa halako hiru ia. Hala ere, udalaren gastua biztanleko 2016ko 54,71 euroak baino $-20,8\%$ txikiagoa da. Murrizketa horrek nabarmen eten zuen 2015-2016 aldian ikusitako egonkortasuna, orduan $-0,4\%$ besterik ez baitzen jaitsi gastua.

batezbestekoaren gaineratik daude Bizkaiko herri nagusiak ere, Bilbo izan ezik, biztanleko 19,49 euroko gastuarekin. Udalerri horietan ere murriztu da gastua 2016-2017 aldian, $-6,4\%$; kasu horretan jaitsiera nabarmenak egin ondoren 2015-2016 aldian ($-8,4\%$) orduan jadanik aldaketa erakusten zutela 2012-2015 aldian izandako gorako joeraren aldean.

Tarteko posizioetan, EAEko batezbestekoaren azpitik betiere, daude Donostia eta Gipuzkoako udalerrri nagusiak, adinekoentzat esleitutako biztanleko gastua 13,42 eta 11,80 euro bitartekoa zutelarik, hurrenez hurren. Udal horien guztien ezaugarria da partida horri eskainitako gastua nabarmen hazi zela 2016-2017 aldian ($37,9\%$ eta $9,3\%$). Hazkunde hori baino lehen, hala ere, jaitsiera nabarmenak izan ziren (30% inguru edo gehiagokoak) 2015-2016 aldian, eta beraz, biztanleko gastuaren maila 2017an 2015ekoen azpitik geratzen da (13,42 euro 2017an, 2015eko 17,40 euroen partez Donostian, eta 11,80 euro, lehengo 15,21 euroen partez, Gipuzkoako udalerrri nagusietan). Hala ere, 2016-2017 aldiko gorakada azpimarragarria da Gipuzkoako udalerrri nagusietan, etenaldi nabarmena ekartzen baitu 2012tik 2016ra luzatu zen beherako joeraren aldean.

Biztanleko gastua adineko pertsonen arloan 9,66 eurokoa da Bilbon. EAEko batezbestekotik urrun badago ere, kasu gutxitan izan da, han bezala, biztanleko gastuaren hazkunde iraunkorra 2015 eta 2017 bitartean, $5,8\%$ hazi baitzen 2015-2016 aldian eta $17,6\%$ 2016-2017 aldian. Multzoari erreparatuta, Bilboko gastua biztanleko, adineko pertsonen arloan, 2017an $24,4\%$ hazi zen, 2015eko $7,76\%$ euroen aldean.

EAEko udalerrri txikietan, biztanleko gastua 4,73 euro eta 7,34 euro bitartean kokatzen da. Hurbila da Araban eta Bizkaian (5,06 eta 4,73 euro), eta handixeagoa Gipuzkoan (7,34 euro). Dinamika deigarriena azken lurralde horri dagokiona da, biztanleko gastuak oso behera egin baitzuen 2016-2017 aldian ($-26,3\%$), eta berriro ere jarri zuen 2012-2015 aldiko beherako bidean, 2015-2016 aldian nabarmen gora egin ondoren ($+19,8\%$). Bizkaiko gainerako udalerrietan biztanleko gastuaren murrizketa 2015eko -10% baino gehiagokoa delarik, Arabako gainerako udalerrietan $+15,7\%$ handitu da gastua 2016-2017 aldian, han maila baxuagoetatik abiatu bazen ere.

Adinekoen arretarako gastuaren maila txikiena 2017an Arabako udalerrri nagusietan kokatzen da 1,49 euroekin, Gasteiz alde batera utzita. 2015eko 0,79 euroetatik hazten bada ere, udal horiek oraindik ere nabarmentzen dira adineko pertsonen arretaren eremuari eskainitako gastu eskasagatik.

Zentro-motaren arabera aztertuta, adineko pertsonen arretan, azpimarratu behar dira zenbait salbuespen biztanleko gastuaren beherakadan. Egoitza-zentroei dagokienez, salbuespen nagusiak dira 2016-2017 aldian izan diren gastu-gehikuntzak, Donostian ($36,3\%$), Gipuzkoako udalerrri nagusietan ($9,3\%$) eta Bilbon ($18,6\%$).

Dinamika horri esker Donostia jartzen da EAeko egoitza-zentroetako biztanleko batez besteko gastuaren gainera 2017an (13,85 euro, batezbestekoa 12,39 delarik). Gipuzkoako udalerri nagusietan ere, 2017ko 11,80 euroko gastua ere batezbesteko horretara hurbiltzen da. Bi kasu horietan ere, hala ere, zenbakiak urrun geratzen dira 2015ekoetatik (17,83 euro Donostian eta 15,21 euro Gipuzkoako udalerri nagusietan). 2016-2017 aldian izandako gorakadak ez ditu berdintzen, beraz, 2015-2016 aldiko gastuaren beherakadak, -% 30 inguru edo gehiagokoak izan baitziren Gipuzkoako udalerri horietan.

Bilbo oraindik EAeko batezbestekotik urrun dago, biztanleko 9,17 euro gastatuta. Hala ere, udal horren gastuak nabarmen gora egin du aztertutako aldian (2015-2016 aldian % 4,4 eta 2016-2017 aldian % 18,6).

Kontrako lekuan, gastuaren murrizketa nabarmena da Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerri txikiengan ez ezik, baita adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan biztanleko gasturik handiena duten udalerrietan ere. Hala gertatzen da Gasteizen eta Bizkaiko udalerri nagusietan, Bilbo alde batera. Kasu horietan gainera, beherako joera 2015etik mantendu da. Izan ere, 2015eko biztanleko 45,87 eurotik 33,45era jaitsi da, hau da, -% 27,1 gutxiago Gasteizen, 2015-2017 bitartean; eta Bizkaiko udalerri nagusietan, berriz, 19,78 eurotik 16,90era jaitsi da, alegia, -% 14,6 murriztu da, 2015-2017 aldian.

Eguneko zentroetan eta adineko pertsonentzako beste zerbitzuetan, 2016-2017 aldian azpimarragarria da gastuaren gorako joera, EAeko udalerri txikiengan multzoan. Azpimarragarriena Arabako udalerri nagusietakoa da, % 8,8 hazi baitzen 2016-2017 aldian, era horretan finkatu direla udalerri horiek bigarren lekuan, gastu mota horri dagokionez (biztanleko 4,76 euro 2017an eta 4,34-4,38 euro 2015-2016 aldian). Beste muturrean, beherako joera mantentzen da Bizkaiko udalerri nagusietan, Bilbo aparte, 2015ean 2,95 eurotik 2017an 2,59 eurora jaitsi baitzen biztanleko gastua.

Beherako joera 2016-2017 aldian Gasteizera hedatu zen, han biztanleko gastua 10,62 eurotik 9,86 eurora jaitsi baitzen, hau da, -% 7,1. Arabako hiriburua, ordea, lehenengo lekuan mantentzen da gastu-mailari dagokionez, Bilboko edo Donostiako udalek esku-hartze mota horretan duten parte-hartze eskasaren oso bestelako posizioan.

Etxeko laguntzari eta zaintzaileen babesari dagokienez, EAeko batez besteko udal-ekarpena oso esanguratsua da oraindik 2017an, biztanleko 14,27 eurotik gorakoa baita adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetara bideratzen den kopurua. Izan ere, udal-gastua biztanleko programa horretan 16,36 eurora iritsi zen 2017an. Hala ere, 2015etik 2016ra 19,24 eurotik 17,11 eurora, -% 11,1eko jaitsiera nabarmena egin ondoren, beherako joera luzatu da 2016-2017 aldian. Beraz, 2017an 16,36 euro gastatu izanak adierazten du berriz ere jaitsi dela biztanleko gastua (-% 4,4), oraingo jaitsiera apalagoa bada ere, 2016ko gastuaren aldean. Programa horren udal-gastua, izan ere, 2012ko 17,89 euro baino txikiagoa izan da 2017an.

2016-2017 aldiko beherako joera, hala ere, lurraldearen zenbait eremutan bakarrik zentratu da: Bizkaian eta Arabako udalerri txikiengan. Etxeko laguntzarako gastuak Bizkaiko udalerrietan behera egin duelarik, EAeko gainerako udalerrietan gora egin du aldi horretan, batez ere Gipuzkoan eta Gasteizen.

2015-2016 aldian ikusitako beherakada 2016-2017 aldian luzatu da, eta azpimarragarria da, batez ere, Bizkaikoa; jaitsiera txikiena Bilbon izan da, -% 15ekoa; Bizkaiko udalerri nagusietan -% 44,1ekoa, eta Bizkaiko gainerako udalerrietan handiena, -% 70,4koa. Murrizketak 2015ean etxeko laguntzan eta zaintzaileen babesean biztanleko gastuaren mailarik altuenetan zeuden hiru lurralde-eremuak jo ditu.



Bilboko kasuan, 2015 eta 2017 bitartean 38,71 eurotik 29,83 eurora jaitsi da gastua, eta Gasteizen, berriz, gora egin du nabarmen, 2015-2016 aldian biztanleko 7,00 eurotik, 2017an 34,82 eurora igo baita biztanleko gastua. Urte honetan, Gasteiz jarri da etxeko laguntzan eta zaintzaileen babesean egindako biztanleko udal-gastuaren buru, nabarmen gaindituz Bilboko 29,83 euroak; hiri hau jarri da, 2017an, gastu horren bigarren lekuan.

Bizkaiko gainerako udalerrietan ikusitako joerek ere ondorioak dituzte, lekuak galdu baitituzte hurrenkeran, EAEko beste eremu batzuen aldean. Udalerri nagusien kasuan, 2015ean 26,63 euro gastatzetik, 2017an 12,58 euro gastatzera jaitsi da eta, horrenbestez, urte horretan Donostiaren eta Gipuzkoako udalerri nagusien azpitik kokatzen dira, gastuaren hurrenkeran. Azken bi kasu horietan, gastuak 2015ean erakutsitako gorako joera nabarmen areagotu da 2016-2017 aldian, % 22,8 eta % 25,7 handitu baita, hurrenez hurren. Biztanleko gastua etxeko laguntzan eta zaintzaileen babesean, beraz, 2015etik 2017ra 16,90 eurotik 22,37ra igo da Donostian, aurretik daudela Bilbo eta Gasteiz bakarrik, eta 10,17 eurotik 13,23ra igo da Gipuzkoako udalerri nagusietan, Bizkaiko udalerri nagusietako gastuaren gainetik.

Bizkaian eta Gipuzkoan biztanleko gastuan izandako bilakaera desberdinak errepikatzen dira udalerri txikienen eremuan ere. 2015 eta 2017 bitartean gastu hori 19,54 eurotik 4,08 eurora jaitsi da Bizkaiko udalerri txikienetan, eta Gipuzkoakoetan, berriz, 9,56tik 10,68 eurora igo da.

Ezin bestela izan eta, etxeko laguntzan eta zaintzaileen babesean udal-gastuak izan duen beherakadaren parean, gastu hori 2017an 2012koaren azpitik geratu baita, lurralde horretan 2015 eta 2017 bitartean programa horietan foru-erakundeek egindako (edo gehienbat haiek kudeatutako) gastuaren hazkunde bizkorra dago. Bizkaiko foru-erakundeen gastua 3,01 aldiz biderkatu da 2015 eta 2017 bitartean, Gipuzkoan behera egin zuelarik eta Araban are modu nabarmenagoan.

Urrun geratzen dira azkenik Arabako udalerririk, Gasteiz aparte, biztanleko gastua etxeko laguntzan eta zaintzaileen babesean 0,45 eurokoa baita.

27. taulako datuek, bestalde, berretsi egiten dute oso bigarren mailan dagoela, udalen biztanleko gastuan, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen eskaintzen zaiena. Udal-gastu hori oso baxua da 2017an ere, biztanle bakoitzeko 0,30 eurokoa besterik ez baita. 2015eko 0,27 euroen gainetik bada ere, 2016ko 0,38 euroen azpitik dago berriro. Gastu-mota horrek kopuru aipagarria Bizkaiko udalerri nagusietan bakarrik iristen du, Bilbo aparte, eta gainera gorako joera mantentzen du eremu horretan, 2015-2017 aldia osorik hartuta. 2017an, erreferentziako gastua 0,90 eurora iritsi zen udalerri horietan, 2015eko 0,57 euroen gainetik.

Guztira, udalek adineko pertsonen, desgaitasun/gaixotasunen bat dutenei eta mendekotasuna duten pertsonen bideratzen dieten biztanleko zenbatekoa urteko 30,93 eurokoa izan zen 2017an, hau da, 2016ko 33,26 euroak baino -% 7,0 gutxiago, lehendik ere, 2015eko 36,38 euroak -% 8,6 murriztu zituen beherakada luzatuz. Gastua, gainera, 2012ko 34,96 kopurutik are gehiago urruntzen da, horrek egiaztatzen duela programa horietan, oro har, udalek egiten duten gastuak 2015-2017tik ekarri duen beherakada aintzat hartzekoa dela.

Hurbilketa orokor honetan, biztanleko gasturik altuena 2017an Gasteizi dagokio betiere, 78,13 euroekin, 2016ko 62,23 euroetatik % 25,6 gora egin baitzuen. Hazkunde handi hori lotzen da etxeko laguntza eta zaintzaileen babesa bermatzeko politikari eman zaien bultzadarekin, era horretan konpentsatu nahi zelarik adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan, batez ere egoitza-zentroetan, izandako beherakada.

Etxeko laguntzarako gastuak behera egin du etengabe 2015etik (-% 7,5 jaitsi zen 2015-2016 aldian eta -% 8,5 ondoren, 2016-2017 aldian); hala ere, eremu horretan, Bilbo mantentzen da bigarren lekuan, biztanleko 39,70 euroko gastuarekin. Donostia ere, 2016-2017 aldian gorakada nabarmena egin ondoren, gastu-maila horretara hurbiltzen da 36,02 euroekin (2016ko 30,06 euroak baino % 19,8 gehiago). Gainera, 2016-2017 aldian Bizkaiko udalerrri nagusien biztanleko gastua ere gainditu du Donostiak. Udalerrri horietan, etxeko laguntzako gastuaren beherakada ez da konpentsatu, Bilbon bezala, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastua handituta, eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako gastuaren hazkunde apalak ere ez du hutsunea bete. Udalerrri horietan, biztanleko gastuak, mendekotasuna edo/eta Desgaitasuna/gaixotasuna duten nahiz adinekoak diren pertsonen arretan, behera egiten jarraitzen du, 2015eko 49,93 eurotik 2016ko 43,96 eurora eta 2017ko 32,96 eurora.

Tarteko leku batean, EAEko batezbestekotik behera jadanik, biztanleko 25,03 eurotan dago gastua Gipuzkoako udalerrri nagusietan, eta 18,17 eurotan Gipuzkoako gainerako udalerrietan. Donostian eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan ez bezala, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan izandako gastu-murrizketa handia, 2016-2017 aldian, gastuaren beherakada batean islatzen da (biztanleko 19,96 eurotik 18,17 eurora, -% 8,9ko jaitsiera), baina hori ez da nahikoa izan konpentsatzeko 2015eko 17,88 euroetatik 2016ra izan zen gorakada.

Aztertutako lurralde-eremu horien azpitik geratzen dira Bizkaiko gainerako udalerrriak, eremu horretan izan delako sektorearen beherakadarik handiena 2015 eta 2017 bitartean. Mendekotasuna, desgaitasuna edo gaixotasuna duten nahiz adinekoak diren pertsonentzako arretarako biztanleko gastua 2015eko 25,99 eurotik 2016ko 19,23ra eta 2017ko 9,06ra jaitsi zen.

Bide beretik, Gasteiz aparte, Arabako gainerako udalerrietan sektore honetako gastu konparatua oso baxua da (1,87 euro biztanleko udalerrri nagusietan eta 5,51 euro gainerako udalerrietan).

Nolanahi ere, termino erlatiboetan, 2016-2017 aldian mendekotasuna, desgaitasuna edo gaixotasuna duten nahiz adinekoak diren pertsonentzako arretarako biztanleko udal-gastuak izan duen joerak agerian jarri ditu udalerrien artean dauden desberdintasunak. Biztanleko gastua Araba eta Gipuzkoako hiriburuetan eta udalerrri nagusietan % 15 edo gehiago hazi da, baina behera egin du Bilbon (-% 8,5) eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan (-% 8,9) eta are gehiago, -% 25 Bizkaiko gainerako udalerrietan. Arabako gainerako udalerrietan egonkortasuna da nagusi, gastuak % 2,6ko hazkunde apala izan duela.

Mendekotasun-arazoak dituzten kolektiboen, adineko pertsonen edo desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloarekin alderatuta, haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera bideratutako udal-gastua askoz ere urriagoa izan da 2017an, 28. taulan egiazta daitekeen bezala.



28. taula. Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota	2016		2017		Bariazioa 2016/2017 aldian	
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.		
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	1.763.142	38.483	0,81	0,02	-97,8
	Gasteiz	1.763.142	38.483	7,30	0,16	-97,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Bilbo	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	0	0	0,00	0,00	
Tratu txarren arreta (emakumeak)	EAE	2.540.651	1.911.569	1,17	0,88	-24,9
	Gasteiz	1.319.214	243.677	5,46	1,01	-81,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	357	207	0,01	0,01	-42,2
	Arabako gainerakoak	1.049	0	0,02	0,00	-100,0
	Donostia	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	
	Gipuzkoako gainerakoak	25.259	22.966	0,06	0,06	-9,4
	Bilbo	302.185	265.181	0,88	0,77	-12,2
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	686.441	1.141.408	1,61	2,68	66,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	206.146	238.130	0,56	0,64	15,3
Familietaiko esku-hartzea (harrera/adopzioa barne)	EAE	16.970.382	17.800.421	7,81	8,18	4,7
	Gasteiz	2.196.719	2.230.464	9,10	9,21	1,2
	Arabako beste udalerrri nagusiak	126.590	37.767	4,42	1,32	-70,3
	Arabako gainerakoak	14.521	15.406	0,28	0,29	5,4
	Donostia	1.353.091	1.414.401	7,51	7,83	4,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	744.107	758.740	5,87	5,98	1,9
	Gipuzkoako gainerakoak	2.577.226	3.129.060	6,38	7,72	20,9
	Bilbo	5.181.672	5.267.307	15,13	15,38	1,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	2.788.449	2.805.966	6,55	6,59	0,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.988.007	2.141.310	5,36	5,76	7,5
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	EAE	21.274.175	19.750.473	9,80	9,08	-7,3
	Gasteiz	5.279.075	2.512.624	21,86	10,37	-52,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	126.947	37.974	4,44	1,32	-70,2
	Arabako gainerakoak	15.570	15.406	0,30	0,29	-1,7
	Donostia	1.353.091	1.414.401	7,51	7,83	4,3
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	744.107	758.740	5,87	5,98	1,9
	Gipuzkoako gainerakoak	2.602.485	3.152.026	6,45	7,77	20,6
	Bilbo	5.483.857	5.532.488	16,01	16,16	0,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	3.474.890	3.947.374	8,16	9,28	13,6
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.194.153	2.379.440	5,92	6,40	8,2

28. taula. Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Jarraipena

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		2016	2017	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	
Egoitza- eta harrera-zentroak	EAE	8.951.866	8.706.388	4,12	4,00	-2,9
	Gasteiz	3.551.281	3.188.050	14,71	13,16	-10,5
	Arabako beste udalerrri nausiak	6.162	2.497	0,22	0,09	-59,6
	Arabako gainerakoak	5.636	5.220	0,11	0,10	-8,0
	Donostia	1.796.655	1.688.523	9,97	9,35	-6,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nausiak	472.092	481.109	3,73	3,79	1,8
	Gipuzkoako gainerakoak	173.367	301.386	0,43	0,74	73,1
	Bilbo	2.688.021	2.699.222	7,85	7,88	0,4
	Bizkaiko beste udalerrri nausiak	227.456	327.795	0,53	0,77	44,2
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	31.196	12.586	0,08	0,03	-59,7
Beste egoitza-zentro eta -zerbitzuak	EAE	2.539.274	2.459.591	1,17	1,13	-3,3
	Gasteiz	877.284	663.938	3,63	2,74	-24,6
	Arabako beste udalerrri nausiak	0	0	0,00	0,00	
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	
	Donostia	310.341	401.613	1,72	2,22	29,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nausiak	273.422	281.816	2,16	2,22	3,0
	Gipuzkoako gainerakoak	3.079	1.165	0,01	0,00	-62,3
	Bilbo	971.080	988.929	2,84	2,89	1,9
	Bizkaiko beste udalerrri nausiak	58.500	94.116	0,14	0,22	60,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	45.568	28.014	0,12	0,08	-38,7
BAZTERKETA	EAE	11.491.140	11.165.979	5,29	5,13	-3,0
	Gasteiz	4.428.565	3.851.988	18,34	15,90	-13,3
	Arabako beste udalerrri nausiak	6.162	2.497	0,22	0,09	-59,6
	Arabako gainerakoak	5.636	5.220	0,11	0,10	-8,0
	Donostia	2.106.996	2.090.136	11,69	11,58	-1,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nausiak	745.514	762.925	5,88	6,02	2,3
	Gipuzkoako gainerakoak	176.446	302.551	0,44	0,75	70,8
	Bilbo	3.659.101	3.688.151	10,68	10,77	0,8
	Bizkaiko beste udalerrri nausiak	285.956	421.911	0,67	0,99	47,6
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	76.764	40.600	0,21	0,11	-47,2
ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA- EGOERA GUZTIRA	EAE	32.765.315	30.916.452	15,09	14,21	-5,8
	Gasteiz	9.707.640	6.364.612	40,21	26,27	-34,7
	Arabako beste udalerrri nausiak	133.109	40.471	4,65	1,41	-69,7
	Arabako gainerakoak	21.206	20.626	0,41	0,39	-3,4
	Donostia	3.460.087	3.504.537	19,20	19,41	1,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nausiak	1.489.621	1.521.665	11,75	12,00	2,1
	Gipuzkoako gainerakoak	2.778.931	3.454.577	6,88	8,52	23,8
	Bilbo	9.142.958	9.220.639	26,70	26,93	0,9
	Bizkaiko beste udalerrri nausiak	3.760.846	4.369.285	8,84	10,27	16,2
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.270.917	2.420.040	6,13	6,51	6,3

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Aipatutako taulak agertzen duenez, adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal-gastua biztanleko 14,21 eurokoa da 2017an. Beraz, 2017an -% 5,8 behera egin du biztanleko udal-gastuak 2016ko 15,09 euroen aldean, ordura arte gora egin ondoren, 2012ko 12,44 eurotik 2016ko 15,09 eurora.

Lurraldeei erreparatuta ere aldaketa nabarmenak ikusten dira gastuaren dinamikan 2016-2017 aldian, asko jaitsi baita Araban, batez ere udalerrri nagusietan, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, handitu egin baita, gehiago edo gutxiago.

Gastuaren beherakada deigarrienetakoa Gasteizen izandakoa da, -% 34,7 jaitsi baita biztanleko udal gastua 2016-2017 aldian. Termino erlatiboetan, murrizketa are handiagoa da Arabako udalerrri nagusietan (-% 69,7). Jaitsiera horiek biak lotuta daude aldi berean % 25,3 handitu izanarekin foru-erakundeen gastua Araban 2016-2017 aldian, horretan islatzen baitzen gizarte-zerbitzuen EAEko sistemaren berregituraketa-prozesua.

Ondorio nagusia da Gasteiz 2017an dagoeneko ez dela EAEn biztanleko gasturik handiena egiten duen lurralde-eremua. Gasteizek biztanleko gastatzen dituen 26,27 euroen gainetik daude orain Bilbok gastatzen dituen 26,93 euroak. Donostiak gastatzen dituen 19,41 euroak ere hurbiltzen dira 2017an. Biztanleko gastuak, nolahi ere, egonkortzera egin du Bilbon eta Donostian ere, 2016-2017 aldian % 0,9ko eta % 1,1eko hazkunde txikiak eginda.

Biztanleko gastua nabarmen urriagoa da Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan: 12,00 euro eta 10,27 euro, hurrenez hurren, bi kasuetan ere EAEko batezbestekoaren azpitik. Biztanleko gastuaren hazkundearen erritmoa esandako udalerrri gipuzkoarretan apaldu delarik (2015-2016 aldiko % 16,2tik 2016-2017 aldiko % 2ra), kontrako joera atzematen da mota horretako udalerrri bizkaitarretan (gastua asko handitu zuten 2015-2016 aldiko % 2tik 2016-2017 aldiko % 16,2ra).

Biztanleko gastua 6,51 euro eta 8,52 euro artean gelditu da Bizkaiko eta Gipuzkoako beste udalerrrietan 2017an. Aipatutako udalerrri bizkaitarretan 2016-2017 aldian % 6,3 handitu da gastu hori, 2015-2016 aldiko % 2,4ko hazkundearen gainetik. Gipuzkoako udalerrrietan, berriz, hazkundera % 23,8koa izan da (era horretan itzulikatuz 2015-2016 aldian udalerrri horietan izandako -% 4,6ko beherakada).

Gasteiz alde batera, Arabako gainerako udalerrrietako gastuaren beherakada jarraitua da 2015-2016 alditik eta udalerrri horiek are gehiago aldentzen ditu batez besteko gastutik adingabe, familia eta bazterketaren arloan, EAEko gainerako lurralde-eremuek baino askoz gutxiagoko gastua dutelako. Gastu hori 1,41 euro biztanleko besterik ez da udalerrri nagusietan, 2016an izandako 4,65 euroen oso azpitik, eta Arabako nagusi ez diren udalerrriek 0,39 euroko gastu urria dute.

Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko gastuari soilik erreparatuz gero, 2017an udal-gastua, batez ere, familiako esku-hartzera bideratzen da: 8,18 euro arlo horretan, genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktima izan diren biktimen arretara, berriz, 0,88 euro eta adingabeentzako egoitza-zentroetara, 0,02 euro eskas.

Gastua -% 24,9 murriztu zen 2016-2017 aldian genero-indarkeriaren biktimen arretan (2015-2016 aldian, ordea, % 58,6 handitu zen, eta horri esker 2017an gastua 2015eko 0,74 euroen gainetik mantendu da). Beherakadarik handiena, hala ere, -% 97,8koa, adingabeen egoitza-zentroetan izan da, batez ere Gasteizen zentratua. Zentro mota horren finantzaketa foru-erakundeek bere gain hartu izanaren ondorioa da.

2016-2017 aldian, berriz, familietako esku-hartzearen arloan % 4,7 handitu da udalen biztanleko gastua, era horretan segida emanez 2015-2016 aldiko % 4,4ko hazkundeari.

Gizarte-zerbitzuen haur, gazte, familia eta emakumeen arloko jarduketetan, guztira, biztanleko udalen gastua 2016ko 9,80 eurotik 2017ko 9,08ra jaitsi zen, hau da, 2015eko 9,03 euroko gastuaren antzeko zenbakietara. 2016-2017 aldiko beherakada -% 7,3koa da, eta neurri handi batean 2015-2016 aldian izandako % 8,5eko hazkundea konpentsatzen du.

Haur, gazte, familia eta emakumeen arretako arlo espezifikoan, sektore osoarentzat adierazitako joerak egiaztatzen dira, bazterketa-egoeren arloa barne dela. Era berezian murriztu da Gasteizko udalaren ekarpena, -% 52,6 erori baita biztanleko gastua, 2016ko 21,86 eurotik 2017ko 10,37 eurora. Beherakada horren zati handi bat lotzen da udalerrri horren jarduketaren egokitzapenarekin, adingabeen egoitza-arretari dagokionez (biztanleko 7,30 eurotik, 2016an, 0,16 eurora jaitsi zen 2017an, lehen aipatutako finantzaketen berregituraketa-prozesuen ondorioz). Tratu txarren arretan gastuak izan duen beherakada ere nabarmena da (2016an 5,46 eurotik 2017an 1,01era).

Gastua Gasteizen jaitsi ondoren, Bilboren udal-ekarpena jarri da lehenengo lekuan haur, gazte, familia eta emakumearen arretaren arloko gastuari dagokionez. Bilboren gastua 2017an 16,16 eurokoa da, 2016koa baino % 0,9 gehiago soilik, baina 2015-2016 aldian hazkunde handia izan ondoren (% 13,3).

Donostiako udal-gastua 2017an horren oso azpitik dago: 7,83 euro biztanleko, % 4,3 gehiago 2016ko 7,51 euro baino. Nolanahi ere, joera haztekoa da udalerrri horretan, 2015-2016 aldian % 7,4ko hazkundea izan delako.

Arabako gainerako udalerrriak salbuespena dira, ordea: udalerririk txikienetan biztanleko gastua ez da 0,29 eurotik igotzen, eta udalerrri nagusietan gehienez 1,32 euroko gastua egin dute (Gasteizen izan ezik); EAEko gainerako eskualdeetan, berriz, udal-gastua biztanleko 5,98 eta 9,28 euro artekoa izan da arlo honetan.

Arabako udalerrietan sektore honetako gastua murriztu delarik, Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan handitzeko joera erakusten du. Gutxi hazi da, ordea, Gipuzkoako udalerrri nagusietan, Donostia aparte, 2016-2017 aldian % 1,9 soilik hazi baita. Eredu hori, biztanleko 5,98 euro gastatuta, Bizkaian eta Gipuzkoan hiriburuak ez diren udalerrietatik aldentzen da, hauen gastua % 20,6 hazi baita Gipuzkoan, % 13,6 Bizkaiko udalerrri nagusietan, eta % 8,2 gainerako udalerrri bizkaitarretan. Udalerrri-multzo horretan gasturik altuena 2017an Bizkaiko udalerrri nagusiei dagokie, Bilbo aparte, 9,28 euroekin, Gipuzkoako gainerakoen 7,77 euroen eta Bizkaiko gainerakoen 6,40 euroen gainetik. Bizkaiko udalerrri nagusien gastua 2017an Donostiaren 7,38 euroen eta Gasteizen 10,37 euroen gainetik dago.

Bilbon izan ezik, Bizkaiko udalerrietan 2016-2017 aldian izan den gastuaren hazkunde handia lotua dago tratu txarren biktima diren emakumeen arretaren gastuan izandako hazkunde bizkorrarekin. Biztanleko gastua 1,61 eurotik 2,68 eurora hazi zen lurraldeko udalerrri nagusietan, eta 0,56 eurotik 0,64 eurora Bizkaiko udalerrri txikienetan. Deigarria da egiaztatzea 2017an Bizkaiko udalerrri nagusietan, Bilbo aparte, izan dela EAEko gasturik handiena tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arretako programetan, Gasteizko udalarekin batera (1,01 euro biztanleko).



Azpirarragarria da, aldi berean, esku-hartze familiarreko programetan Gipuzkoako gainerako udalerrietan izan den gorako bilakaera. Kasu honetan, biztanleko gastua 6,38 eurotik 7,72 eurora handitu da 2016-2017 aldian, eta Donostiako 7,38 eurora hurbildu da. Gizarteko esku-hartzeen arloko biztanleko gastua, udalerrri-multzo horren kasuan, Gasteizko 9,21 euroen eta Bilboko 15,38 euroen azpitik bakarrik dago. Ikusitako aurrerapen handia, neurri batean, 2015-2016 aldian Gipuzkoako udalerrri nagusiek arlo horretan egindako ahalegin handiaren ondorioa da, baina batez ere, udalerrri horietako batzuetan 2015etik argi agertzen ziren ekintza mota horren aldeko aukeraren ondorioa da, haien gastua hiriburuaren gastuaren parera hurbildu baitzuten, lurraldeko gainerako udalerrri nagusien gaineratik jarritz.

28. taulan ikusten denez, 2017an bazterketa-egoeren aurka egiteko udal-gastua biztanleko 5,13 eurokoa da. 2012-2015 aldiko gorako joeraren ondoren, gastuak behera egin du, izan ere, 2015-2016 aldian $-2,7\%$ eta 2016-2017 aldian $-3,0\%$ jaitsi baitzen (aldi osoa kontuan hartuta $-5,6\%$ jaitsi zen). 2017an, udal gastua biztanleko 4,00 eurokoa da ($-4,3\%$ gutxiago 2015eko 4,18 euroak baino). Kopurua 1,13 eurokoa da, bazterketaren arloko gainerako zentro eta zerbitzuetan, jaitsiera metatua $-10,0\%$ delarik 2015eko 1,26 euroen aldean.

Bazterkeriari aurka egiteko programetan, Gasteizen egindako gastua nabarmen altuagoa da gainerakoekin alderatuta, herritar bakoitzeko 15,90 euro bideratu baititu programa horietara. 2012-2015 aldian izandako areagotzearen ostean, zifra horrek $-20,5\%$ jaitsiera erakutsi du, 2015eko 20 euroekin alderatuta ($-8,3\%$ 2015-2016 aldian eta $-13,3\%$ 2016-2017 aldian). Biztanleko gastuaren 4,10eko jaitsiera arlo guztietakoa bada ere, zatirik handiena lotua dago gizarteko esku-hartzearen arlo horretako egoitzez kanpoko ekintzarekin.

2017an, gastua EAEko batezbestekoaren oso gaineratik dago Bilbon eta Donostian ere, 11,58 eta 10,77 euroekin, hurrenez hurren, aldaketa oso txikiak ikusten direla 2016an ikusitako zenbakien aldean (-1% Donostian eta $-0,8\%$ Bilbon).

Gainerako lurralde-eremuetan bazterkeriari aurka egiteko udal-gastua oso eskasa da biztanleko, 1,00 euro edo gutxiago. Salbuespen bakarra Gipuzkoako udalerrri nagusiak dira, biztanleko 6,02 euroko ekarpena egin baitute. 2016-2017 aldian gastua $2,3\%$ hazi izanak gastu horren gorako joera mantentzen du aipatutako udalerrri gipuzkoarretan, eta $6,4\%$ ko hazkunde metatua dute 2015eko gastuaren aldean.

29. taulak, azkenik, GLLen, gizarte-urgentzien eta antzeko prestazioen udal-gastuari buruzko adierazleak aurkezten ditu. Prestazio horietan, 2017ko biztanleko gastua 8,71 eurokoa izan zen. 2012-2015 aldian biztanleko gastua $130,3\%$ hazi ondoren, 2015-2016 aldian gorako joera mantentzen zen, 2015eko 8,50 euroen aldean $5,9\%$ hazita. 2017an, prestazio horietako biztanleko gastua lehenengo aldiz jaitsi da, $-3,2\%$ hain zuzen.

Gastuaren beherako joera nagusitzen da EAE ia osoan. Araba osoari eragiten dio, Bilbori eta Gipuzkoako udalerrri nagusiei ere bai. Donostian murrizketa apala da ($-0,6\%$ eskas), baina Arabako eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan, Gasteiz aparte, $-3,9\%$ eta $-4,1\%$ ko murrizketak izan dira. Jaitsierarik nabarmenenak, ordea, Gasteizi eta Bilbori dagozkie, $-27,4\%$ eta $-28,2\%$ jaitsi baitziren, hurrenez hurren ($-71,4\%$ ko jaitsierarik handiena Arabako gainerakoei dagokie, baina eragina du prestazio hauetan gastu oso urria zuen eremu batean).

Donostian eta Arabako gainerakoetan izan ezik, 2015-2016 aldirian jadanik biztanleko udal-gastua murriztu zela, gainerako eremuetan 2016-2017 aldiriko beherako joerak etenaldi handia eragin zuen lehenago gastuak zekarren hazteko joeran. Hala ere, Araba eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan, hiriburuak aparte, 2017ko biztanleko gastua 2015ekoaren gainetik mantentzen da.

EAEko eremu batzuetan, hala ere, gastuaren hazkundera ikusten da 2016-2017 aldirian, oro har hazkunde handiak gainera, % 15,2 eta % 31,6 artekoak. Hala gertatu zen Bizkaia osoan, Bilbo aparte, eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan, lurraldeko udalerrri nagusietan izan ezik. Lurralde-eremu horietan 2015-2016 aldirian aztertutako gastua jaitsi edo egonkortzen bazen ere, guztietan ere 2017an egindako biztanleko gastuak gaintu egin zuen 2015ean egindakoa.

Ikusitako askotariko bilakaera horiek gorabehera, biztanleko gasturik altuena prestazio horietan Gasteiz eta Donostiako udaletan egin zen berriro ere. Hala ere, Donostian gastua egonkortzeko joera zegoen, eta Gasteizen berriz, behera egin zuenez nabarmen, 2017an Donostia izan zen gasturik handiena egin zuen hiriburu: 21,46 euro, Gasteizen 20,36 gastatu zirelarik. Maila horietatik nahiko beherago dago, baina EAEko batezbestekoaren gainetik, Arabako gainerako udalerrri nagusietako biztanleko ekarpena: 12,74 euro.

Maila askoz baxuagoetan, biztanleko gastua 8,00 eta 7,91 eurokoa izan zen Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, hurrenez hurren. Gipuzkoan aztertutako udalerrietan beherakada handia jaso bazen ere, Bizkaikoetan nabarmen gora egin izanari esker, 2016an ikusitako desberdintasunak (biztanleko 8,33 euro eta 6,01 euro, hurrenez hurren) murriztu ziren. Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan 2016-2017 aldirian gastua nabarmen handitu izanak aipatutako gastuaren mailatik hurbil jartzen ditu udalerrri horiek, biztanleko 6,52 eta 5,22 euroko gastua eginda, hurrenez hurren.

29. taula. GLLko, gizarte-urgentziako eta antzeko beste prestazioetako udal-gastu arrunta, udal motaren arabera. 2016-2017 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldirian %-tan)

Gastu eta udalerrri mota	2016		2017		Bariazioa 2016/2017 aldian
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Beste gizarte-prestazio batzuk	19.547.571	18.958.434	9,00	8,71	-3,2
EAE					
Gasteiz	6.769.142	4.933.284	28,04	20,36	-27,4
Arabako beste udalerrri nagusiek	380.161	365.809	13,29	12,74	-4,1
Arabako gainerakoak	53.185	15.303	1,02	0,29	-71,4
Donostia	3.889.708	3.874.052	21,59	21,46	-0,6
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiek	1.055.408	1.015.168	8,33	8,00	-3,9
Gipuzkoako gainerakoak	2.036.039	2.641.901	5,04	6,52	29,2
Bilbo	1.125.521	808.140	3,29	2,36	-28,2
Bizkaiko beste udalerrri nagusiek	2.557.805	3.363.802	6,01	7,91	31,6
Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.680.602	1.940.975	4,53	5,22	15,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Prestazioetako gasturik txikiena 2017an berriro Bilbokoa da (2,36 euro, 2016ko 3,29 euroen aldean gutxiago) eta harekin batera Arabako gainerako udalerrietakoa (0,29 euro).



5. Gizarte-zerbitzuetako langileak

Atal honetan xehetasunez aztertzen da gizarte-zerbitzuen erdigunean diharduten langileen egitura, langile multzo horren ezaugarri sektorialak ez ezik, lanbideari berez dagozkion alderdiak ere aintzat hartuz.

5.1. Alderdi orokorrak

30. taulan ikus daitekeen bezala, 2017ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuen erdiguneak 19.295 langile propio zituen. Langile-kopuruak aurreko urteetan etengabe gora egin ondoren (+% 8,3 gora 2012 eta 2015 bitartean eta +% 4,0 hazi zen 2015-2016 aldian), 2016-2017 aldian gorako joera garbia mantendu eta +% 4,2 hazi zen 2015eko 18.521 langile-kopurua.

Urteko batez besteko langile-kopurua aintzat hartuz gero, langile propioen kopurua aipatutakoa baino zertxobait altuagoa zen, 19.385 langile hain zuzen ere. Hazkundea, ordea, txikixeagoa da 2016-2017 aldian, % 3,1 hazi baitzen (2015-2016 aldiko % 3,0ko hazkundearen ildo beretik).

LOB langileei dagokienez¹¹, 2017ko abenduaren 15ean langile propioak 15.912 ziren, 2016an baino % 3,6 gehiago, hazkunde handiagoa eginez 2015-2016 aldiko % 3,1ekoa baino. LOB faktorea aintzat hartuta, urteko batez besteko langileak, benetan, abenduaren 15erako emandako datua baino gutxiago direla ikusten da, 15.652 pertsona enplegatuak, urte arteko hazkundea neurri batean apalduta ageri direla. Urteko batez besteko langileen kopuruak, beraz, % 2,5 egin zuen gora 2016ko 15.270 langileen gainetik, ia puntu bat gutxiago 2015-2016 aldian ikusitako % 3,4a baino.

30. taula. Gizarte-zerbitzuen erdiguneak zituen langileen adierazleak (Datu absolutuak eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Adierazleak	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
Langileak abenduaren 15ean: Propioak	17.446	17.815	18.521	19.295	4,2
Urteko langileak batez beste: Propioak	17.809	18.254	18.794	19.385	3,1
Langileak guztira: Azpikontratatuak	6.509	6.682	7.041	7.863	11,7
Langileak guztira: Boluntarioak	2.431	2.739	2.911	3.167	8,8
Langileak abenduaren 15ean LOB: Propioak	14.484	14.889	15.352	15.912	3,6
LOBeko urteko langileak batez beste: Propioak	14.420	14.771	15.270	15.652	2,5
LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak	5.359	5.512	5.644	5.861	3,9
LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	285	274	275	358	30,4
LOB GUZTIRA	20.064	20.558	21.188	21.872	3,2
Propioak %	71,9	71,9	72,1	71,6	
Azpikontratatuak %	26,7	26,8	26,6	26,8	
Boluntarioak %	1,4	1,3	1,3	1,6	

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

¹¹ LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu eta urtean 1.600 ordu).

Langile azpikontratatuak kopuruak gora egin du nabarmen 2016-2017 aldian. Era horretan, langile horien kopuru zenbatetsia 7.863koa da 2017an, 2016ko kopurua baino % 11,7 gehiago eta bi bider gaudituz 2015-2016 aldiko % 5,4ko hazkundea. LOB faktorea aztertuta, kopurua 5.861ekoa da, 2016ko 5.644 langileen kopurua % 3,9 handituta. Hazkundea areagotu zela egiaztatzen da kasu honetan ere, modu apalagoan bada ere, 2015-2016 aldian % 2,4 hazi baitzen.

Sektoreko boluntarioen kopurua aipagarria bada ere (3.167 lagun 2017an), ez da hain nabarmena LOB terminoetan neurtuta. 358 pertsona bakarrik dira lanaldi osoko baliokideak. Datuek, ordea, agerian jartzen dute berriz gora egin zuela 2016koaren aldean, % 30,4 handituta urte hartan baliokideak ziren 275 pertsonen kopurua, 2015-2016 aldian egonkortu ondoren (+% 0,2). 2017an gaudituz dira, izan ere, 2012an enplegatutako pertsona baliokideen 322ko kopurua.

Orotara, gizarte-zerbitzuen erdigunean, LOB enpleguari dagokionez, 2017an 21.872 langile egon direla zenbatetsi da. Langile kopuruak etengabe gora egin zuen 2012-2015 aldian, % 8,2 handituz 2012ko enplegatuen kopurua. 2015-2016 aldian gorako joerak bere horretan iraun zuen, % 3,1eko hazkundearekin, neurri batean areagotu zena 2016-2017 aldian, % 3,2 hazi baitzen 2016an enplegatutako 21.188 pertsonen kopurua.

Kolektibo horren barruan, LOB langile propioen pisu erlatiboa 2012an % 73,2 izatetik 2013an % 71,6 izatera jaitsi zen, eta ordudanik gora egin du etengabe, 2016an % 72,1era iritsi arte. 2016-2017 aldian, ordea, beharazko bideari ekin dio berriro, hazkundea % 71,6koa izan baita, 2013koaren ondoren maila minimora eramanez proportzioa.

Langile azpikontratatuak pisu erlatiboak, ordea, berriz gora egin zuen 2016-2017 aldian (% 26,6tik % 26,8ra). Azpikontratatuak langileen kopurua handitu zen gehien 2013ra arte, 2012an guztien % 25,2 izatetik 2013an % 26,9 izatera igaro baitzen urte hartan. Baina ordutik aurrera proportzioak behera egin zuen, modu apalean bada ere, eta 2016an % 26,6koa zen (2014an % 26,7koa eta 2015ean % 26,8koa izan ondoren). 2013tik aurrera ikusitakoaren aldean aldaketa handirik gabe, proportzioak betiere % 26,6 eta % 26,9 bitartean mantenduz, 2017an, ordea, berriz ere gora egin zuen, 2012an ikusitako parametrok altuenetan kokatuz.

Langile boluntarioen pisuak ere berriz gora egin zuen 2017an, % 1,6an kokatuz, 2015-2016 aldian zuen % 1,3aren aldean.

5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa

31. eta 32. taulek enpleguaren sektorekako banaketari buruzko informazioa ematen dute, arreta-sektorearen arabera, bai zifra orokorretan (31. taula) eta bai LOB zenbakietan (32. taula).

Gizarte-zerbitzuetako langileen barne-banaketa LOB kontuan hartuta aztertzean (gehiago doitzen baitzaio enpleguaren epe luzeko jarraipenari), ikus daiteke enplegu gehienak adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen inguruan biltzen direla. Jardueraren eremu horrek 2017an 13.575 LOB enplegu biltzen ditu, guztien % 62,1. Proportzioa pixka bat igo da 2016ko % 61,8tik, arreta-sektore honetan LOB enplegua pixka bat gehiago hazi delako (% 3,7 hazi zen 2016-2017 artean, batez besteko hazkunde orokorra % 3,2koa izanik). Izan ere, 2014tik aurrera enpleguaren gorako joera ikusten da adineko pertsonen arretaren arloan.



31. taula. Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. Datu orokorrak (Datu absolutuak, gutzitzaoketikiko %-a adierazle bakoitzean eta bariazioa 2016-2017 aldian % -tan)

		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%
Arreta-sektorea										
EGITURA	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	2.285	2.338	2.350	2.324	13,1	13,1	12,7	12,0	-1,1
	Urteko langileak batez beste: Propioak	2.335	2.383	2.370	2.326	13,1	13,1	12,6	12,0	-1,9
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	310	349	276	281	4,8	5,2	3,9	3,6	1,8
	Langileak guztira: Boluntarioak	0	26	1	4	0,0	0,9	0,0	0,1	300,0
ADINEKO PERTSONAK										
	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	9.969	10.315	10.702	11.116	57,1	57,9	57,8	57,6	3,9
	Urteko langileak batez beste: Propioak	10.214	10.625	10.866	11.184	57,4	58,2	57,8	57,7	2,9
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	4.379	4.471	4.758	5.221	67,3	66,9	67,6	66,4	9,7
	Langileak guztira: Boluntarioak	501	563	555	629	20,6	20,6	19,1	19,9	13,3
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA										
	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	3.777	3.753	3.968	4.214	21,6	21,1	21,4	21,8	6,2
	Urteko langileak batez beste: Propioak	3.833	3.835	4.031	4.223	21,5	21,0	21,4	21,8	4,8
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	424	482	546	612	6,5	7,2	7,8	7,8	12,1
	Langileak guztira: Boluntarioak	483	493	647	1.027	19,9	18,0	22,2	32,4	58,7
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIA										
	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	356	387	413	455	2,0	2,2	2,2	2,4	10,2
	Urteko langileak batez beste: Propioak	362	385	416	456	2,0	2,1	2,2	2,4	9,6
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	1.193	1.179	1.245	1.474	18,3	17,6	17,7	18,7	18,4
	Langileak guztira: Boluntarioak	82	104	95	71	3,4	3,8	3,3	2,2	-25,3
BAZTERKETA										
	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	1.059	1.022	1.088	1.186	6,1	5,7	5,9	6,1	9,0
	Urteko langileak batez beste: Propioak	1.065	1.026	1.111	1.196	6,0	5,6	5,9	6,2	7,7
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	203	201	216	275	3,1	3,0	3,1	3,5	27,3
	Langileak guztira: Boluntarioak	1.365	1.553	1.613	1.436	56,1	56,7	55,4	45,3	-11,0
GUZTIRA										
	Langileak abenduaren 15ean: Propioak	17.446	17.815	18.521	19.295	100	100	100	100	4,2
	Urteko langileak batez beste: Propioak	17.809	18.254	18.794	19.385	100	100	100	100	3,1
	Langileak guztira: Azpikontratatuak	6.509	6.682	7.041	7.863	100	100	100	100	11,7
	Langileak guztira: Boluntarioak	2.431	2.739	2.911	3.167	100	100	100	100	8,8

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

32. taula. Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. LOB datuak (Datua absolutuak, guztizkoarekiko %-a adierazle bakoitzeko eta bariazioa 2016-2017 aldian % -tan)

Arreta-sektorea		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	Bariazioa 2016/2017 aldian
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%
EGITURA	Langileak abenduaren 15ean LOB:	1.962	2.029	2.029	2.031	13,5	13,6	13,2	12,8	0,1
	LOBeko urteko langileak batez beste:	1.945	2.026	2.018	2.006	13,5	13,7	13,2	12,8	-0,6
	LOBeko Langileak guztira:	239	267	187	195	4,5	4,8	3,3	3,3	4,2
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	0	13	0	0	0,0	4,8	0,0	0,1	720,5
	LOB GUZTIRA	2.184	2.306	2.204	2.201	10,9	11,2	10,4	10,1	-0,2
	Propioak %	89,0	87,8	91,5	91,1					
	Azpiktratatutak %	11,0	11,6	8,5	8,8					
Boluntarioak %	0,0	0,6	0,0	0,0						
ADINEKO PERTSONAK	Langileak abenduaren 15ean LOB:	8.663	8.983	9.282	9.651	59,8	60,3	60,5	60,7	4,0
	LOBeko urteko langileak batez beste:	8.705	8.963	9.251	9.525	60,4	60,7	60,6	60,9	3,0
	LOBeko Langileak guztira:	3.595	3.707	3.787	3.886	67,1	67,3	67,1	66,3	2,6
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	53	62	58	164	18,6	22,8	21,2	45,7	181,1
	LOB GUZTIRA	12.353	12.733	13.096	13.575	61,6	61,9	61,8	62,1	3,7
	Propioak %	70,5	70,4	70,6	70,2					
	Azpiktratatutak %	29,1	29,1	28,9	28,6					
Boluntarioak %	0,4	0,5	0,4	1,2						
DESGAITASUNA/ GAIXOTASUNA	Langileak abenduaren 15ean LOB:	2.855	2.888	3.032	3.151	19,7	19,4	19,8	19,8	3,9
	LOBeko urteko langileak batez beste:	2.788	2.820	2.993	3.070	19,3	19,1	19,6	19,6	2,6
	LOBeko Langileak guztira:	340	349	369	376	6,4	6,3	6,5	6,4	1,9
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	77	37	52	59	27,0	13,3	18,9	16,5	13,3
	LOB GUZTIRA	3.206	3.206	3.414	3.505	16,0	15,6	16,1	16,0	2,7
	Propioak %	87,0	88,0	87,7	87,6					
	Azpiktratatutak %	10,6	10,9	10,8	10,7					
Boluntarioak %	2,4	1,1	1,5	1,7						
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIA	Langileak abenduaren 15ean LOB:	309	324	353	401	2,1	2,2	2,3	2,5	13,7
	LOBeko urteko langileak batez beste:	303	320	353	401	2,1	2,2	2,3	2,6	13,8
	LOBeko Langileak guztira:	1.030	1.054	1.167	1.260	19,2	19,1	20,7	21,5	8,0
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	13	12	26	16	4,6	4,5	9,6	4,4	-40,5
	LOB GUZTIRA	1.346	1.387	1.546	1.677	6,7	6,7	7,3	7,7	8,5
	Propioak %	22,5	23,1	22,8	23,9					
	Azpiktratatutak %	76,5	76,0	75,5	75,1					
Boluntarioak %	1,0	0,9	1,7	0,9						
BAZTERKETA	Langileak abenduaren 15ean LOB:	694	666	656	678	4,8	4,5	4,3	4,3	3,2
	LOBeko urteko langileak batez beste:	679	641	655	650	4,7	4,3	4,3	4,2	-0,8
	LOBeko Langileak guztira:	154	135	134	145	2,9	2,4	2,4	2,5	7,9
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	142	150	138	120	49,8	54,6	50,3	33,4	-13,4
	LOB GUZTIRA	975	926	927	914	4,9	4,5	4,4	4,2	-1,4
	Propioak %	69,6	69,3	70,6	71,1					
	Azpiktratatutak %	15,8	14,6	14,5	15,8					
Boluntarioak %	14,6	16,2	14,9	13,1						
GUZTIRA	Langileak abenduaren 15ean LOB:	14.484	14.889	15.352	15.912	100	100	100	100	3,6
	LOBeko urteko langileak batez beste:	14.420	14.771	15.270	15.652	100	100	100	100	2,5
	LOBeko Langileak guztira:	5.359	5.512	5.644	5.861	100	100	100	100	3,9
	LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	285	274	275	358	100	100	100	100	30,4
	LOB GUZTIRA	20.064	20.558	21.188	21.872	100	100	100	100	3,2
	Propioak %	71,9	71,9	72,1	71,6					
	Azpiktratatutak %	26,7	26,8	26,6	26,8					
Boluntarioak %	1,4	1,3	1,3	1,6						

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzeta (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Langileen banaketan eragin askoz ere txikiagoa badute ere, lanpostu ugari biltzen dituzte desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen arreta emateko zerbitzuek ere. Kasu honetan, LOB enplegua 2017an 3.505 lanpostutan kokatzen da. 2015-2016 aldian % 6,5eko hazkunde handia izan ondoren, 2016-2017 aldiko hazkundearen erritmoa apaldu zen, % 2,7 hazi baitzen 2015eko 3.414 enpleguen gainetik, % 0,5 gutxiago gizarte-zerbitzuetako batezbesteko orokorraren aldean. Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, langileen pisua pixka bat gutxitu da % 16ra, 2015ean guztien % 15,6 izatetik 2016an % 16,1 izatera igo ondoren. Proporzio hori, ordea, 2012-2014 bitartean ohikoak ziren % 16 eta % 16,2 bitartean mantendu da.

Sektorekako arreta-esparruan, LOB langileen beste % 7,7 bat haur, gazte, emakume eta familien sektoreari dagokio (1.677 LOB enplegu). Kasu honetan lanpostuen hazkunde handiko sektore bati buruz ari gara, % 11,5 hazi baitzen LOB enplegua 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian % 8,5. Aldi batez enplegu guztiaren % 6,6 eta % 6,9 artean egon ondoren, proporzioa 2014-2015 aldian % 6,7 izatetik 2016an % 7,3 eta 2017an % 7,7 izatera igaro zen.

Bazterketaren arloak beste 914 LOB enplegu bildu zituen, guztien % 4,2. Esku-hartzearen arlo honetan -% 5,1eko jaitsiera handia ikusi zen 2014-2015 aldian, LOB enplegatutako pertsonen kopurua 975etik 926ra jaitsi baitzen. Lanpostuen kopurua bere horretan gelditu zen 2015-2016 aldian, 0,1 eskas bat handituz, baina 2016-2017 aldian berriro ere -% 1,4 murriztu zen eta 2017an 914 enplegura iritsi zen (2014an zeuden 975 enpleguak baino -% 6,3 gutxiago). Bazterketaren arloko enpleguaren pisua epe luzera jaitsi da, 2014an % 4,9 izatetik orain % 4,2ra.

Azkenik, gizarte-zerbitzuen egiturari dagokion enpleguak 2.201 LOB lanpostu biltzen ditu. Kasu honetan ere ez da ona enpleguaren bilakaera. 2016-2017 aldian egonkortasuna nagusitu bazen ere, 2016ko 2.204 LOB enpleguen -% 0,2 besterik ez baitzen jaitsi, urte horretan jarraitu egin zuen lehendik zetorren beherakada, 2015ean zeuden 2.306 lanpostuetatik -% 4,4 murriztu baitziren. LOB enpleguak gizarte-zerbitzuen egituran duen pisua jaitsi egin da 2015eko % 11,2tik 2017ko % 10,1era, hau da, proporziorik txikienera 2012tik.

LOB enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2016-2017 biurtekoak ildo dibergenteak erakusten ditu. Alde batetik, haur, gazte, emakume eta familien arloko enplegua nabarmen hazi zen (% 8,5). Hazkundera handi samarra da, arestikoa baino apalagoa bada ere, adineko pertsonen laguntzaren arloan (% 3,7) eta txikiagoa Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan (% 2,7). Gizarte-zerbitzuen egiturako lanpostuen kopurua, berriz, ez da mugitu (-% 0,2) eta bazterketaren arloan berriro beherako joera hartu zuen (-% 1,4).

Langile propioak, LOB enpleguetan neurtuta, nagusi dira oraindik jarduera-esparru ia guztietan, 32. taulan egiazta daitekeen bezala. Gorena 2017an lortu zen, % 90 inguruko zenbakiekin, gizarte-zerbitzuen egituran (% 91,1) eta Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretan (% 87,6). Maila txikiagoetan bada ere, proporzioa altua da bazterketa-egoeran dauden herritarren arretan (% 71,1) eta adineko pertsonen arretan ere bai (% 70,2). Haur, gazte, emakume eta familien arretan, berriz, langile propioen proporzioa oso txikia da, % 23,9 besterik ez. Gizarte-zerbitzuetako multzo osoari erreparatuta, LOB enplegua guztien % 71,6 langile propioak dira.

Azpikontratutako langileen pisu erlatiboa xehetasunez aztertzerakoan, 33. taulan ikus daiteke 2016an era horretako langileak nagusi zirela haur, gazte, emakume eta familiak artatzeko zerbitzuetan, LOB enpleguaren % 75,1 baitzen azpikontratatua. Gutxiengoa badira ere, era horretako lanpostuek pisu aipagarria dute adineko pertsonen arretan (% 28,6). Zenbateko hori % 15etik beherako mailetan dago gizarte-zerbitzuen egituran (% 8,8), gaixotasun edo desgaitasuna duten pertsonen arretan (% 10,7) eta bazterkeriaren aurkako arloan (% 15,8).

33. taula. Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak zentro/zerbitzu motaren arabera (LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2016-2017 aldiko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %-tan)

	LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2016/2017 aldian	
	2014 %	2015 %	2016 %	2017 %	Abs.	%
Zentro/Zerbitzu mota						
Zerbitzu orokorrak (publikoak)	22,7	26,9	17,7	21,6	28	23,3
Zerbitzu tekniko espezializatuak	3,8	3,0	3,0	0,2	-19	-94,2
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	88,4	73,3	97,3	97,3	0	0,0
Oinarritzko gizarte-zerbitzuak	1,8	1,6	1,6	1,5	0	-2,4
EGITURA	11,0	11,6	8,5	8,8	8	4,2
Egoitza-zentroak	26,2	26,4	25,9	25,8	103	3,3
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	83,7	83,9	83,7	80,3	-4	-20,8
Eguneko laguntza-zentroak	62,7	60,6	63,1	60,8	0	-0,1
Beste zentro/zerbitzuak	5,1	3,3	4,4	7,9	0	73,2
ADINEKO PERTSONAK	29,1	29,1	28,9	28,6	99	2,6
Egoitza-zentroak	13,4	13,9	13,9	13,9	6	2,1
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	7,1	8,0	7,5	11,1	1	54,2
Eguneko laguntza-zentroak	11,5	10,7	9,5	9,3	-5	-6,3
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	0,1	0,3	0,3	0,7	2	162,0
Laneratze-zentroak	8,4	4,8	4,1	1,5	-1	-62,0
Tutoretza/Tutoretza-fundazioak	0,2	0,1	0,1	0,1	0	58,7
Laguntza goiztiarra	36,4	33,5	54,1	58,4	4	48,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	10,6	10,9	10,8	10,7	7	1,9
Adingabeen egoitza-zentroak	78,1	77,8	77,6	78,0	88	8,4
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnentzat)	26,7	23,5	26,7	19,7	0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnentzat)	80,6	85,3	84,0	84,4	-1	-3,4
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	51,1	54,2	40,7	40,5	3	10,6
Tratu txarrak jasan dituzten pertsonen arreta	100,0	100,0	100,0	100,0	4	9,0
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	76,5	76,0	75,5	75,1	93	8,0
Ostatu eta egoitza-zentroak.	16,2	14,6	13,7	15,2	9	12,3
Gaueko harrera-zentroak	29,3	25,5	26,6	27,5	1	2,9
Eguneko zentroak	8,0	9,7	10,0	11,3	0	2,5
Jantoki sozialak	7,0	5,8	8,9	7,9	0	-10,2
BAZTERKETA	15,8	14,6	14,5	15,8	11	7,9
GUZTIRA	26,7	26,8	26,6	26,8	218	3,9

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Esan bezala, gizarte-zerbitzuen multzo osoan dagoen LOB erako enpleguaren % 26,8 azpikontratatuta dago. 2012ko % 25,2aren gainetik bada ere, 2013-2017 bitartean tarte handienez mantentzen da, % 26,6 eta % 26,9 bitarteko bariazioekin.

Azpikontratazioaren pisu erlatiboaren egonkortasuna, ordea, ez da berdin gertatzen gizarte-zerbitzuen ekintzaren arlo guztietan, eta arloen artean zenbait desberdintasun ikus daitezke. Egonkortasunik handiena egiaz desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloari dagokio, hor azpikontratazioaren eragina, 2014-2017 aldian, % 10,6 eta % 10,9 bitartekoa baita. Maila gorena 2015ean lortu zuen, eta geroztik behera egin du, 2017an % 10,7ra iritsi arte.

Nolabaiteko egonkortasun baten parametroetan, beherako joera atzeman da enplegu ugariako beste arlo batean ere, alegia, adineko pertsonen arretan, 2014-2017 aldian % 28,6 eta % 29,1 bitarteko gorabeherak erakutsi baitzituen. Kasu honetan, proportzioa argiago murriztu zen 2014-2015 aldiko % 29,1etik 2017ko % 28,6ra.

Beherako joera nolabait apala izan zen haur, gazte, emakume eta familientzako zerbitzuen arloan ere, baina iraunkortasunez luzatu zen 2013an lortutako % 77,6 proportziotik. Kasu honetan, azpikontratazioaren pisua betiere handia izan bada ere, -% 2,5 murriztu zen 2017ko % 75,1era iritsi arte.

Aztertutako gizarte-zerbitzuetako bi arlotan azpikontratazioaren berpizte arin bat atzeman zen 2016-2017 aldian. Horietako bat egitura orokorra da. 2014-2015 aldian % 11tik % 11,6ra handitu ondoren, nabarmen jaitsi zen azpikontratazioaren pisua arlo horretan % 8,5era, eta gero berriz gora egin zuen 2017ko % 8,8ra arte.

Gorako joera hartu du berriro, batez ere, bazterketaren arloan, 2016-2017 aldian % 14,5etik % 15,8ra handitu baita. 2014-2016 bitartean izandako beherakadaren ondoren, arlo horretan 2014an zegoen langile azpikontratatuaren % 15,8ra itzuli zen.

Nolanahi ere, garrantzitsua da azaltzea 2017an mantendu direla azpikontratatuaren enpleguen proportzioak, betiere 2012koen antzera edo hortik gora. Azpikontratazio-prozesuetan epe luzerako gorako joerarik dagoenik egiaztatu ezin bada ere, ez da murrizteko bide argirik hautematen aztertutako arlo bakar batean ere.

Azpikontratatuaren enpleguak LOB erako enpleguan duen eraginaren azterketa zehatzago bat eginez gero, zentro edo zerbitzuaren arabera, dibertsitate are handiagoa agertzen da. Alde batetik, ondorioztatzen da 2017an mota horretako enpleguaren pisua % 15etik beherakoa dela enpleguaren arlo esanguratsu hauetan: gizarte-zerbitzuen egiturari, zerbitzu tekniko espezializatuaren eta oinarriko gizarte-zerbitzuetan; adineko pertsonentzako gainerako zentroetan; eta gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonen arretarekin (laguntza goiztiarra izan ezik) edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen babesarekin (gaueko harrera-zentroak izan ezik) lotutako zentro eta zerbitzu ia guztietan.

Pisu hori % 20aren ingurukoa da 2017an, gizarte-zerbitzuetako egitura publikoaren zerbitzu orokorretan eta genero-indarkeriaren biktime ez diren emakumeentzako ostatu-zerbitzu nahiz egoitza-zentroetan. Bilakaera, ordea, desberdina da. Zerbitzu publiko orokorren kasuan, 2017an % 21,6koa zen pisu hori, 2012ko % 13,8aren gainetik, eta 2016ko % 17,7aren aldean berreskuratu zuen gorako joera. Zerbitzu horietan, azpikontratazioaren maila berriz ere 2013-2015 aldiko mailara hurbildu zen % 22,1 eta % 26,9 bitarteko proportzioekin, 2012ko erregistrora baino gehiago. Indarkeriaren biktime izan ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan, berriz, 2017an % 19,7 izan zen, lehenengo aldiz % 20aren azpitik, 2012tik.

Azpikontratazioa nagusi ez bada ere, LOB enpleguaren % 25 eta % 27,5 bitartean azpikontratatuta dago adineko pertsonentzako egoitza zentroetan (% 25,8) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen gaueko harrera-zentroetan (% 27,5). Zentro horietan azpikontratazioaren pisuak egonkortasun handia erakutsi du epe ertainean, batzuetan pixka bat gora eginez, esaterako gaueko harrera zentroetan (2015eko % 25,5etik abiatuta).

Beste zerbitzu batzuetan, berriz, azpikontratazioa nagusitu da 2017an, eta LOB erako enplegu gehiena hartu du. Enpleguaz ari garela, nabarmentzen diren zentro eta zerbitzuak honako hauek dira: gizarte-urgentziazko zerbitzuak (LOB enpleguaren % 97,3 azpikontratatuta dago), adineko pertsonentzako atsedeen- eta laguntza-zentroak eta eguneko laguntza zentroak (% 80,3 eta % 60,8), Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arreta goiztiarra (% 58,4), adingabeentzako egoitza-zentroak (% 78) eta genero-indarkeria eta tratu txarren arretarekin lotutako zerbitzuak (% 84 egoitza-arretan eta % 100 tratu txarren arretako beste zenbait programatan).

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen laguntza goiztiarrean, berriz, 2015ean azpikontratazioa % 33,5ean zegoen; 2016an, berriz, % 54,1ra igo zen, eta 2017an % 58,4ra. Horrek esan nahi du nabarmen eten dela 2012-2015 aldian azpikontratazioaren ezaugarria izan den beherako joera (2012an % 61,2 izatetik 2015ean % 33,5 izatera jaitsi zen).

Handiena izatera iritsi gabe ere, azpikontratazioaren pisua oso nabarmena da adingabeen edo familien eguneko arretaren arloan ere (% 40,5). Kasu honetan, hala ere, 2017an argi ikusten da behera egin duela, 2014-2015 aldian % 50aren gainetik zegoenetik.

Berriz ere 32. taulari erreparatuta, egiaztatzen da langile boluntarioen pisua, LOB enplegu orokorrean, urrun geratzen dela azpikontratazioaren zenbaki handietatik, % 1,6ra ere ez dela iristen ia, aurrera egin badu ere 2014-2016 bitarteko % 1,3tik eta % 1,4tik. Aztertutako proportzioa, oro har, % 0,9 eta % 1,7 bitartean kokatzen da arlo gehienetan. Gizarte-zerbitzuen egituran, gainera, enplegu mota horrek ez du inolako presentziarik; baina bada salbuespen bat: bazterkeriaren aurkako ekintza. Esku-hartzearen sektore horretan LOB enpleguaren % 13,1 betetzen dute langile boluntarioek. Proportzio hori 2012 eta 2015eko % 16,2 baino baxuagoa da, hala ere. Gainera, 2015etik beherako joera progresiboan mantentzen da, eta parte-hartzearen % 3,1 galdu du 2017an.

5.3. Enpleguaren banaketa profesionala

GZEZEren datuek enpleguaren barne-egitura ikusten laguntzen digute, lanbide-talde handietan sailkatuta, baina soilik zentro eta zerbitzuetako langile propioei dagokienez. 34. taulak ematen du horri buruz eskuragarri dagoen informazioaren laburpen bat, LOB datuak kontuan hartuta.

Azalpen honetan aipamen berezia merezi du arretaren esparruko langile espezializatuak zirela nagusi 2017ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuetako 15.912 LOB enplegu propioen artean. 11.827 enplegu espezializatuak enplegu guztien % 74,3 dira. 2014-2015 aldian egonkortu ondoren, enplegu hauek modu argian handitu dute gizarte-zerbitzuen enpleguari egin dioten ekarpena, 2012ko % 72aren aldean. LOB enplegu osoak 2016-2017 aldian % 3,6 handitu ondoren, enplegu mota hau % 4,2 hazi zen aldi horretan (% 4,0 eta % 3,1, hurrenez hurren, 2015-2016 aldian).



Langile espezializatuen barneko osagai nagusia zaintzaren arloko langile laguntzaileak dira, era horretako 7.447 lanpostu baitzeuden, hau da, LOB enplegu osoaren % 46,8. Proportzio hori ez da ia aldatu 2016ko % 46,7ren aldean, baina betiere 2015eko % 45,4aren gainetik dago. Aurrerapena lotzen da enplegu mota horrek 2015-2016 aldian izan zuen hazkunde handiarekin (+% 6,1), eta ondoren ere, modu apalagoan bada ere, EAEko batezbesteko orokorraren gainetik mantendu zen, 2016-2017 aldian (+% 3,8).

Kualifikaziorik altueneko langileek, hezkuntzaren esparruan eta esparru soziosanitarioan, 2.400 LOB lanpostu bete dituzte. Langile horien kopuruak -% 4 egin zuen behera 2016-2017 aldian, 2015-2016 aldian +% 0,3 eskas gora egin ondoren. Lanpostuen kopuruak 2017an -% 6,2 egin zuen behera 2014ko 2.557 enpleguen aldean, baina betiere 2012ko eta 2013ko zifren gainetik (2.268 eta 2.245 LOB enplegu). Enplegu guztien aldean, aztergai ditugun langileak 2017an guztien % 16,1 izan ziren, 2014ko % 17,7ko proportzio gorena baino gutxiago.

Gizarte-langileak beste 914 LOB enplegu dira, guztien % 5,7 2015eko % 5,6aren gainetik baina 2016ko % 5,8aren azpitik. Kolektibo horretako enpleguaren hazkundera % 5,8koa izan ondoren, 2016-2017 aldian apaldu eta % 2,8 hazi zen, batez besteko % 3,6 orokorraren azpitik.

Azkenik, aztertutako langile espezializatuen barruan, langile monitoreek 1.066 LOB enplegu betetzen dituzte, guztien % 6,7 eta 2015eko % 5,5aren gainetik nabarmen. 2015 eta 2016 artean -% 3,3 jaitsi ondoren, lanpostu mota horrek % 35,7 egin zuen gora 2016-2017 aldian.

Arretaren eremu ez-espezializatuan, zuzendaritza eta administrazio arloetako langileak, guztira, 1.859 LOB enplegu dira, eta zifrak egonkortzeko joera du, 2016-2017 aldian % 0,4ko hazkundera txikia zelako eta lanpostuen kopurua ere 2012koaren antzekoa zelako. Gizarte-zerbitzuetako enpleguak izan duen hazkunderari erreparatuta, 2012an izan zuen % 13,4tik behera egin du etengabe, 2016an % 11,7ra iritsi arte.

Langile orokor ez-administratiboak 2.216 LOB enplegu dira, 2015ean baino % 3,5 gehiago. Kasu honetan, enplegu guztien aldean duen pisuak pixka bat behera egin du 2015eko % 14,2 izan zenetik hona. 2017ko % 13,9 hori are gehiago urruntzen da 2012ko % 14,5etik.

Sektoreei erreparatuta, langile espezializatu gehien desgaitasuna edo gaixotasuna dute pertsonen arretaren sektorean daude, LOB enpleguaren % 84,3 baitira 2017an. Proportzioa % 82,6koa da haur, gazte, emakume eta familiaren sektorean, % 79,4koa bazterketaren sektorean, eta % 75,8koa adineko pertsonen arretaren arloan. Proportziorik txikiena, % 48,8koa, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari dagokio.

Langile espezializatuen motak aztertuta, ikusten da 2017an langile laguntzaileek pisu handia izan zutela adineko pertsonen arretan, arlo horretan lanbide-talde horrek LOB enpleguen % 63,5 bildu baitzituen. Oso nabarmena izanik ere, proportzioa dezentez txikiagoa da Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretan ere, % 37,5arekin. Arretaren gainerako arloetan, kolektibo horren pisua enpleguen % 5 eta % 6 bitartekoa da.

Hezitzaile, langile soziosanitario edo espezializazio handiko langileen proportziorik handienak sektore txikietan izaten dira, besteak beste haur, gazte, emakume eta familiei arreta emateko sektorean edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen babesean. Bi kasu horietan, profesional horien nagusitasuna nabarmena da, hurrenez hurren % 74,0 eta % 60,6 direlako.



35. taula. Langile propioen banaketa xehatua, zenbait zentro eta zerbitzu motatan, lanbide motaren arabera. LOB. 2017 (Datu absolutuak eta guztizkoarekiko ehunekoak, adierazle eta zentro/zerbitzu mota bakoitzeko)

Zentro edo zerbitzu mota	Administrazioa eta orokorra	Zuzendaritza eta administrazioa	Egitura orokorreko beste batzuk	Langile espezializatuak	Langileak Gizarte-lana	Langileak Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk	Langileak Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	Langileak Monitoreak/arduradunak/taillerreko buruak	EZB erabiltzaileak
Zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuak	60,4	58,1	2,3	39,6	16,7	12,9	9,6	0,3	0,0
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	37,8	37,3	0,5	62,2	59,5	2,7	0,0	0,0	0,0
Adinekoentzako egoitza-zentroak	24,5	5,7	18,7	75,5	0,8	10,7	63,4	0,6	0,0
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	19,5	7,2	12,3	80,5	2,8	11,6	65,3	0,7	0,0
Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak	18,4	5,4	13,0	81,6	0,8	8,7	51,7	20,4	0,0
Desgaitasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	10,3	6,1	4,2	89,7	1,9	26,6	30,7	30,5	0,0
Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak eta okupazio-zentroak	7,3	5,0	2,4	90,6	0,2	15,3	1,4	73,7	2,1
Adingabeen egoitza-zentroak	17,5	3,2	14,2	82,5	2,1	74,4	0,0	5,9	0,0
Bazterketa-egoeran daudenentzako ostatu eta egoitza-zentroak	14,7	9,9	4,8	85,3	10,0	63,5	4,9	6,9	0,0
Bazterketa-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroak	60,8	7,6	53,2	39,2	4,7	28,5	0,0	6,0	0,0
Bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko zentroak	12,0	9,3	2,7	88,0	9,6	72,8	2,2	3,4	0,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Langile hezitzaile, soziosanitario edo bestelako espezializazio altua dutenak ugari dira Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan ere, haien pisu erlatiboa txikiagoa bada ere, LOB enpleguen % 15,1ekoa (% 10,8koa adineko pertsonen arloan). Azpimarragarria da, ordea, kolektibo honen pisu erlatiboaren galera desgaitasuna/gaixotasuna dutenen sektorean, 2014an izan zuen % 26,4aren ondoren.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arloan du pisurik handiena, bestalde, monitore, arduradun, edo tailerreko buruen kolektiboak, LOB enpleguen % 29,8arekin. Proporzio horrek adierazten du enplegu horien pisu erlatiboa nabarmen berreskuratu dela, 2012ko % 27,2tik jaisten hasi eta 2014an baxuena jo ondoren: % 21,1. Izan ere, 2017ko proporzioak berriro gainditzen du 2012an iritsitako maila.

Gizarte-langileei dagokienez, euren presentzia txikia izan ohi da LOB enpleguan. Salbuespen bakarra gizarte-zerbitzuen egitura da, eremu horretan LOB enpleguaren % 34,2 baitira, nabarmen gora eginez 2014ko % 32,3tik.

Aipatutako bi eremu horietatik kanpo, langile mota (monitoreak edo gizarte-langileak) horien pisua enpleguan beti % 10aren azpitik dago (bazterketaren arloan % 9,1 gizarte-langileak eta % 6 monitore, arduradun edo tailer-buruak).

Zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagokienez, ikus daiteke azken multzo horrek paper erabakigarria duela gizarte-zerbitzuen egituran, LOB enplegu ia gehienak, % 49,6 hartzen baititu (nahiz pixka bat jaitsi 2014ko % 51ren aldean). Gainerako jarduketa-esparruetan, enpleguaren % 4,4 eta % 9,4 artean kokatzen da.

Egitura orokorreko langile ez-espezializatuak eta ez-administratiboak presentziarik handiena adineko pertsonen arretan dute, % 18,4arekin, eta ondoren haur, gazte, emakume eta familien arretan, % 13,0arekin, eta bazterketaren arloan, % 11,2arekin. Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak artatzeko sektorean, azkenik, % 8,8 dira. Gizarte-zerbitzuen egiturako % 1,6 besterik ez da.

34. taula horretan bertan enplegua arreta-sektorearen eta lanbide motaren arabera aztertuz gero, enplegu-dinamika interesgarriak hauteman daitezke. Enpleguaren garrantzi kuantitatiboa eta 2016-2017 aldian ikusitako bariazioen adierazgarritasuna konbinatuta, alderdirik onenean berriz ere egiaztatzen da langile laguntzaileen kopuruaren hazkunde bizkorra adineko pertsonen zaintzaren sektoreetan. Kasu honetan, LOB erako 259 enplegu garbi berri sortu dira (2016an 5.866 ziren, eta 2017an 6.125) % 4,4ko gehikuntza eginez (ez oso urrun 2015-2016 aldiko % 5,2tik). Desgaitasun/gaixotasunen arloan, berriz, 2015 eta 2016 bitartean ikusitakoaz oso bestela, hazkundera askoz ere txikiagoa da, 21 LOB enplegu berri besterik ez baita sortu (1.159tik 1.180ra), 2015-2016 aldian sortutako 129etatik oso urrun (aldi hartako % 12,5eko hazkundera % 1,8ra jaitsi da 2016-2017 aldian).

2016-2017 aldian, desgaitasun/gaixotasunen arretaren sektorean, enplegua sortzeko ahalegina monitore/arduradun/tailer-buru lanpostuetan bildu da. 236 enplegu sortu dira 2016-2017 aldian, % 33,6ko hazkunde garbia eginez, 2015-2016 aldian sortutako 14 lanpostu garbien gainean.

Gizarte-langileen kopuruaren hazkundera ere aipagarria da, baina LOB erako 25 enplegu garbi berri bakarrik sortu dira, 2016-2017 aldian sortutako 49 lanpostu berrien kopurura iritsi gabe. Termino kuantitatiboetan, gizarte-zerbitzuen egituran bildu da (17 enplegu berri 2016-2017 aldian, eta 20 enplegu berri 2015-2016 aldian). Gizarte-langileei dagokienez, LOB enplegua bere horretan gelditu da 2016-2017 aldian, aurreko 2015-2016 aldian 20 lanpostu berri sortu ondoren, gizarte-



bazterketaren arloan. Arlo honetan nabarmen hazi da monitore/arduradun/tailer-buru langileen kopurua, 14 lanpostu berri sortu baitira.

Hazkunde aipagarriak izan dira, 2016-2017 aldian baita ere, haur, gazte, emakume eta familia arloan eta bazterketaren arloan 40 LOB enplegu berri sortu baitira, langile hezitzaile, sanitario eta bestelako espezializatuen multzoan (30 eta 10 lanpostu garbi berri, hurrenez hurren). Haur, gazte, emakume eta familiaren arloan, hazkunde bereziki azpimarragarria izan zen, aurrerapen-ildo oso garbiak finkatu baitziren, 44 lanpostu berri sortuz 2015-2016 aldian jadanik (% 19,9ko hazkundera, 2016-2017 aldian % 11,4 hazkunde bizkorrekin finkatu dena).

Adineko pertsonen arretaren arloan ere aipagarria da 75 lanpostu garbi berri sortu zirela 2016-2017 aldian LOB langile orokorren sektorean (ez zuzendaritza eta administrazioa). Kasu honetan, langileen hazkundera % 4,4koa da, 2016an enplegatutako kolektiboaren gainetik.

Lanpostuak sortzen ari diren arlo guztiek ezaugarri komun bat dute, 2016an jadanik gertatu zen bezala: enplegu-mailaren goranzko joera epe luzekoa dela. Salbuespen erlatibo bakarra da bazterketa-egoeran dauden pertsonen arretaren arloko langile hezitzaile, sanitario edo bestelako espezializazioa duten langileen multzoan. Izan ere, % 2,5eko hazkundera handienetakoa ez bada ere, lanpostu berriak sortzeko joera berreskuratzen da, 2015-2016 aldiko geldialdiaren ondoren.

Jadanik 2015-2016 aldian gertatu zen bezala, 2016-2017 aldian ere beherako joera ikusten da zenbait lanbidetan. Jaitsierarik aipagarriena Desgaitasuna/gaixotasunaren arloko langile hezitzaile, sanitario eta bestelako espezializazioa dutenen multzokoa da, 150 LOB enplegu garbi galdu baitziren, are gehiago luzatuz 2014tik datorren beherako joera.

Hain nabarmena ez bada ere, aipatu behar da gizarte-zerbitzuen egiturako administrazioan eta LOB orokorretan 26 lanpostu galdu direla, eta 10 lanpostu gutxiago daudela bazterketaren arloko zaintzako LOB langile laguntzaileen multzoan.

35. taulak aurkezten du nola dauden banatuta LOB langile propioak zentro eta zerbitzu mota nagusietan; horrela ikus daiteke zer lanbide izan diren nagusi 2017an, kasu bakoitzean.

Zerbitzu orokor tekniko eta espezializatuen azterketari helduz, nabarmena da zuzendaritza eta administrazioko langileen % 60,4a. Bazterketa-egoeran dauden pertsonen gaueko harrera-zentroetan ere nagusi dira zuzeneko arretako langile ez espezializatuak, kasu honetan ez-zuzendaritzakoak eta ez-administrazioakoak ez diren langileak nagusitzen badira ere, % 60,8arekin. Bi kasuetan ere arretako langile espezializatuen presentzia osagarri nabarmena atzematen da, gizarte-lanarekin edo langile hezitzaile, soziosanitario edo antzeko profil espezializatuekin lotzen dena (% 29,6 zerbitzu orokorretan eta tekniko espezializatuetan eta % 33,2 gaueko harrera-zentroetan).

Zuzendaritzako eta administrazioko langileen pisua azpimarragarria da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ere, % 37,8arekin. Kasu horretan, baina, gailentzen den profila gizarte-langileena da, LOB enpleguen % 59,5 hartzen baitute.

Langile hezitzaile, soziosanitario edo antzeko profil espezializatuak dutenek pisu oso handia dute adingabeentzako egoitza-zentroetan (% 74,4) edo bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 63,5), eta azken hauentzako eguneko zentroetan ere bai (% 72,8). Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan ere ugaria da lanbide-kategoria hori, pisu erlatiboa txikiagoa bada ere (% 26,6), modu argian berresten duena 2015eko % 44,3aren ondorengo beherako joera. Kasu honetan, leku erlatibo garrantzitsuagoa du zaintzako langile laguntzaileen multzoak (% 30,7).

Zaintzaren arloko langile laguntzaileak nagusi dira adineko pertsonentzako edo Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan ere (% 63,4 eta % 51,7 hurrenez hurren). Zaintzako langile mota hori nagusi da, baita ere, adineko pertsonentzako laguntza-zentroetan (% 65,3).

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako zentroetan nabarmena da okupazio-jardueretarako langile monitoreen taldea, bai egoitza-zentroetan (% 20,4), baita, are gehiago, eguneko laguntza-zentroetan ere (% 30,5). Langile horiek nagusi dira eguneko okupazio-zentroetan edo Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko bestelako zentroetan ere, LOB enpleguaren % 73,7 lotzen baita lanbide-profil horrekin.

5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera

36. taulan ikusten denez, 2018an, gizarte-zerbitzuetako sektoreko langile propioen % 46,1, guztira 11.076 langile, Bizkaian ari dira. Lurralde horretako LOB enplegua berriro piztu da 2016-2017 aldian eta % 3,5 hazi da, 2015-2016 aldiko % 2aren gainetik. 2016-2017 aldian hazkundearen abiada hori Gipuzkoan bakarrik gainditu da, izan ere, 2012-2016 aldian jadanik lurralde hori baitzen gizarte-zerbitzuetako enpleguaren hazkunderik handiena zuena. Enplegua % 4,4 hazi zen han, ia 2015-2016 aldiko % 4,5eko mailaren parean. Azken urtean lurralde hori 7.255 enplegu-kopurura iritsi da, EAEko guztien % 33.

Arabaren berriz, LOB enpleguaren hazkundera gelditu da, 2015-2016 aldian % 3,7ko erritmoan hazi ondoren. Lurralde horretako 3.540 langileak EAEko guztien % 20,9 dira.

Bizkaiak enpleguan duen pisua handiagoa da zenbait sektoretan. Esaterako, lurralde horrek biltzen du, batez beste, desgaitasun/gaixotasunen arretako LOB enpleguen % 51,2 eta haur, gazte, emakume eta familien babeserako sektoreko enpleguen % 54,2. Bi sektore horietan, enpleguak gora egin zuen 2016-2017 aldian, % 4,3 eta % 16,5 hurrenez hurren, nabarmen gaindituz 2015-2016 aldiko % 2,7 eta % 7,8ko hazkunderak.

Bizkaiaren ekarpena dezente txikiagoa da gizarte-zerbitzuen egituraren enpleguan, LOB enplegu guztien % 41,5 biltzen dituelako. Lurralde horrek bere LOB enpleguaren % 4,5 galtzen zuen 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian ere % 0,1 eskas bat hazi zen. Aztertutako proportzioa % 45,4an kokatu zen bazterketa-egoeran dauden pertsonen arretan eta % 46,3an adineko pertsonen arretan. Enplegua azken sektore honetan hazi egin zen 2016-2017 aldian (% 3,1 gehiago, 2015-2016 aldian % 2,6 hazi ondoren), baina bazterketaren arloan beherakadaren erritmoa areagotu egin zen (-% 1,8 gutxiago, 2015-2016 aldiko % 0,8a areagotuz).

Gipuzkoaren kasuan, LOB enpleguan duen parte-hartzea, konparazioan, 2017an handiagoa da bazterketaren aurkako lanari dagokionez (% 43,8), eremu horretan enplegua % 4,4 hazi delako 2016-2017 aldian. 2015-2016 aldiko % 9,7aren azpitik bada ere, hazkundearen erritmoa handia da 2016-2017 aldian ere.

Gizarte-zerbitzuen egiturako enpleguan ere pisu erlatibo handiagoa du Gipuzkoak (% 35,8), 2016-2017 aldian esku-hartzearen eremu honetan enpleguaren % 2,8 galduta ere. Bestalde, LOB enpleguak nabarmen handitzen jarraitzen du Gipuzkoan, 2016-2017 aldian, Desgaitasuna/gaixotasunaren arretaren arloan (% 4,5) eta adineko pertsonen arretan (% 5,9), eta are gehiago haur, gazte, emakume eta familien arloan (% 8,6 hazi da, 2015-2016 aldiko % 16,7 hazkunde handiari segida emanez). Hala ere, % 30aren azpitik dago, lurralde horren batez besteko ekarpena izaten den % 33aren azpitik ere.



Arabian, sektorekako enplegu osoan duen parte hartzea nolabait orekatua da, oro har % 20,1 eta % 23,9 bitartean dauden zifrekin. Salbuespen bakarra bazterketaren arloan dago, LOB enplegu guztien % 10,8 eskaintzen baititu. Esku-hartzearen eremu honetan 2013-2014 aldiari hazkunde handia izan ondoren, LOB enplegua murriztu egin zen 2015-2016 aldiari (-% 13,5) eta 2016-2017 aldiari (-% 12,7). Enpleguaren beherakadak, gainera, haur, gazte, emakume eta familiaren sektorerara (-% 8,2) eta Desgaitasuna/gaixotasunaren sektorerara (-% 5) hedatu dira 2016-2017 aldiari Arabian, 2015-2016 aldiari enpleguaren hazkunde handiak izan ondoren. Adineko pertsonen arloan, behera egin ez badu ere, hazkundearen erritmoa apaldu da % 2,9ra 2016-2017 aldiari (2015-2016 aldiari % 4,2koa izan ondoren).

Gizarte-zerbitzuen egitura, LOB enpleguak berriro gora jo zuen Arabia 2016-2017 aldiari, % 3,4 haziz, 2015-2016 aldiari beherakada handia izan ondoren (-% 10,5).

Adineko pertsonen arretaren arloa da, betiere, LOB enpleguaren banaketarik egonkorrena duena 2017an, Bizkaian % 46,3; Gipuzkoan % 29,8 eta Arabia % 23,9. Kasu hau da bakarra enpleguaren hazkunde orokorra erakusten duena EAE osoan: % 5 Gipuzkoan, % 3,1 Bizkaian eta % 2,9 Arabia.

36. taula. Gizarte-zerbitzuetako LOB langile guztien adierazleak arreta-sektorearen eta lurralde historikoen arabera (Datu absolutuak, guztizkoarekiko %-a arreta-sektore bakoitzean eta langileen bariazioa 2016-2017 aldiari %-tan)

		LOBeko urteko langileak batez beste: Propioak								Bariazioa 2016/2017 aldia
		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017	
Arreta-sektorea		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%
EGITURA	Araba	389	442	395	409	22,7	22,4	22,3	22,7	3,4
	Gipuzkoa	651	673	672	653	35,3	35,1	35,3	35,8	-2,8
	Bizkaia	1.145	1.191	1.137	1.139	42,1	42,4	42,3	41,5	0,1
	EAE	2.184	2.306	2.204	2.201	100,0	100,0	100,0	100,0	-0,2
ADINEKO PERTSONAK	Araba	1.945	1.989	2.072	2.133	23,4	23,4	23,6	23,9	2,9
	Gipuzkoa	4.028	4.125	4.230	4.440	30,2	30,0	29,6	29,8	5,0
	Bizkaia	6.380	6.619	6.794	7.002	46,4	46,6	46,8	46,3	3,1
	EAE	12.353	12.733	13.096	13.575	100,0	100,0	100,0	100,0	3,7
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	Araba	537	546	629	597	21,1	21,6	21,0	20,1	-5,0
	Gipuzkoa	1.059	1.067	1.149	1.201	32,5	26,5	28,0	28,8	4,5
	Bizkaia	1.610	1.593	1.636	1.708	46,4	51,9	51,0	51,2	4,3
	EAE	3.206	3.206	3.414	3.505	100,0	100,0	100,0	100,0	2,7
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	Araba	262	283	311	285	20,4	20,8	21,0	20,2	-8,2
	Gipuzkoa	501	517	603	655	26,1	27,0	26,5	25,6	8,6
	Bizkaia	582	587	633	737	53,5	52,2	52,5	54,2	16,5
	EAE	1.346	1.387	1.546	1.677	100,0	100,0	100,0	100,0	8,5
BAZTERKETA	Araba	154	155	134	117	12,1	12,5	12,0	10,8	-12,7
	Gipuzkoa	317	268	294	307	41,1	39,2	41,2	43,8	4,4
	Bizkaia	505	504	500	491	46,8	48,3	46,8	45,4	-1,8
	EAE	975	926	927	914	100,0	100,0	100,0	100,0	-1,4
GUZTIRA	Araba	3.287	3.414	3.540	3.540	21,2	21,2	21,0	20,9	0,0
	Gipuzkoa	6.556	6.650	6.947	7.255	33,2	32,0	32,4	33,0	4,4
	Bizkaia	10.222	10.494	10.701	11.076	45,7	46,7	46,5	46,1	3,5
	EAE	20.064	20.558	21.188	21.872	100,0	100,0	100,0	100,0	3,2

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

37. taulak azpikontratazioari buruzko informazioa laburbiltzen du, lurraldearen arabera; taulari begira, esan daiteke lanpostuak esleitzeko modu hori zela hedatuena 2017an Gipuzkoan. Gizarte-zerbitzuetako LOB enpleguen % 33,2 azpikontratatua dago lurralde honetan, 2012ko % 29,7aren gainetik nabarmen, eta pixka bat beherago 2013-2015 aldiko % 33,7-33,9aren aldean eta are 2016ko % 33,3aren aldean ere.

37. taula. Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak arreta-sektorearen eta lurralde historikoaren arabera (LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2016-2017ko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %-etan)

		LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2016/2017 aldian	
		2014	2015	2016	2017		
Arreta-sektorea		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
EGITURA	Araba	4,4	4,7	5,7	5,4	-1	-3,2
	Gipuzkoa	12,6	14,2	11,8	10,1	-13	-16,9
	Bizkaia	12,3	12,6	7,4	9,4	22	26,0
	EAE	11,0	11,6	8,5	8,8	8	4,2
ADINEKO PERTSONAK	Araba	12,3	11,9	12,7	11,9	-8	-3,2
	Gipuzkoa	38,4	38,4	38,1	37,6	59	3,6
	Bizkaia	28,3	28,5	28,2	28,0	49	2,6
	EAE	29,1	29,1	28,9	28,6	99	2,6
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	Araba	31,1	32,4	31,0	33,6	6	3,0
	Gipuzkoa	11,1	11,5	10,6	9,9	-3	-2,8
	Bizkaia	3,5	3,1	3,2	3,3	5	9,4
	EAE	10,6	10,9	10,8	10,7	7	1,9
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	Araba	83,0	80,8	79,0	73,7	-35	-14,4
	Gipuzkoa	78,6	78,6	76,0	75,9	39	8,5
	Bizkaia	71,8	71,4	73,3	75,0	89	19,3
	EAE	76,5	76,0	75,5	75,1	93	8,0
BAZTERKETA	Araba	46,3	48,0	54,9	59,2	-4	-5,7
	Gipuzkoa	21,6	16,8	14,9	19,0	15	33,4
	Bizkaia	2,9	3,1	3,4	3,5	0	0,6
	EAE	15,8	14,6	14,5	15,8	11	7,9
GUZTIRA	Araba	21,7	21,6	22,6	21,4	-43	-5,4
	Gipuzkoa	33,7	33,8	33,3	33,2	95	4,1
	Bizkaia	23,8	24,0	23,6	24,3	165	6,5
	EAE	26,7	26,8	26,6	26,8	218	3,9

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Azpikontratazioa Bizkaian % 23,6 hazi zen 2016an, eta bazirudien horrenbestez aldatzen zuela 2012ko % 22,6tik 2015eko % 24ra bitartean zekarren etengabe hazteko joera. Baina 2017ko % 24,3ak epe luzerako gorako joera berriz hartzea ekarri du.

2017ko ehunekorik baxuena berriro Arabari dagokio: % 21,4. Lurralde historiko honetan azpikontratazioak duen pisua, 2016an % 22,6arekin handitu ondoren, berriz ere 2014-2015 aldiko % 21,6-% 21,7ko mailen azpitik kokatu da eta epe luzeko beherako joera erakusten du. Izan ere, lurralde bakarra da 2017an (% 21,4) gutxitu duena 2012ko (% 24,4) pisu erlatiboan, hiru puntu gutxiagorekin.



Enplegu azpikontratatuaren bolumenaren bariazio absolutua kontuan hartuta, nabarmena da 2016-2017 aldian enplegu mota horrek Araban izan duen beherakada (-% 5,4), Gipuzkoan % 4,1 eta Bizkaian % 6,5 hazi zelarik, Araban bertan 2015-2016 aldian bezala (orduan % 8,2 hazi zen Araban, Gipuzkoan % 2,8 eta Bizkaian % 0,3).

Azpikontratazioak Gipuzkoan duen leku diferentziala lotua dago, batez ere, formula horrek adineko pertsonen arretan duen pisuarekin, LOB enpleguen % 37,6ri eragiten baitie. Arretaren arlo horretan, azpikontratazioaren eragina % 28,0koa da Bizkaian eta % 11,9koa Araban. Aztertutako proportzioak ordea beherako joera erakusten du 2016-2017 aldian hiru lurralde historikoetan, hurrenez hurren % 38,1; % 28,2 eta % 12,7rekin 2016an. Araban joera hori 2016-2017 aldian azpikontratutako langileen bolumen absolutuaren beherakadarekin (-% 3,2) lotzen da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, enplegu mota horren hazkunde absolutu nahiz erlatibo txikiagoarekin, enplegu propioaren aldean.

Gizarte-zerbitzuen egituran ere Gipuzkoan dago gainerako lurraldeetan baino azpikontratazio gehiago: LOB enpleguaren % 10,1 Gipuzkoan, Bizkaian % 9,4 eta Araban berriro txikiena, % 5,4. Araban eta Gipuzkoan azpikontratutako enpleguaren bolumen absolutuak behera egin du, Gipuzkoan 2015-2016 aldian jadanik ikusten zen bezala, eta Bizkaian bakarrik handitu da azpikontratutako enplegua, 2016an % 7,4ko pisu erlatiboa izan zuela.

Araban, berriz, azpikontratazioa, gehien bat, Desgaitasuna/gaixotasunaren arretaren arloan eta bazterketaren aurkako lanaren arloan erabiltzen da. Lehenengo kasuan, LOB erako enpleguaren % 33,6 azpikontratatu da Araban 2017an, Gipuzkoan % 9,9 eta Bizkaian % 3,3. Gipuzkoan ez bezala, gainera, sektore honetan LOB enpleguak handitzen jarraitzen du Araban, bai enplegu absolutuaren terminoetan (+% 3,0 hazita, Gipuzkoan -% 2,8 jaitsi zelarik), baita termino erlatiboetan ere. Araban, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, eta 2012-2017 aldiko terminoetan, azpikontratutako enpleguak LOB enplegu guztian duen pisuak 2017an mailarik gorena iritsi zuen.

Bazterketaren aurkako programetan, Arabako enpleguan azpikontratazioak duen pisua % 59,2ra iritsi zen, Gipuzkoan % 19koa eta Bizkaian % 3,5ekoa zelarik. Enplegu azpikontratatuaren bolumenak 2016-2017 aldian behera egin badu ere (-% 5,7) enplegu horren proportziorik handiena da 2012tik. Kasu honetan, azpikontratazioak berriro gora jo izanaren ondorioz (+% 33,4), Gipuzkoan ere handitu da enplegu azpikontratatuaren pisu erlatiboa. Azpikontratazioaren eragina 2016ko % 14,9tik 2017ko % 19ra handitu da, alegia, 2012tik hona 2014ko % 21,6aren azpitik bakarrik geratzen den proportzioan.

Azkenik, haur, gazte, familia eta emakumeen sektorea berezia da. Kasu honetan, azpikontratazioa nagusi da lurralde guztietan, eta ez dago alde handirik haien artean. 2017an, LOB enplegu osoaren gaineko azpikontratazioaren proportziorik handiena Gipuzkoari dagokio (% 75,9), ondoren daudela Bizkaia (% 75) eta Araba (% 73,7). Araban, ordea, enplegu mota horren pisu erlatiboa jaitsi da, 2016an % 79ra iritsi baitzen. Arrazoi nagusia 2016-2017 aldian enplegu azpikontratatuak izan zuen beherakada handia da (-% 14,4).

Gipuzkoan, berriz, enplegu azpikontratatuaren proportzioa egonkor mantendu da (2016an % 76) eta Bizkaian gora egin du 2016an % 73,3 izan zuenetik. 2016-2017 aldian luzatu egin dira enplegu mota horren bolumen osoan 2015-2016 aldian izandako gorako joera absolutuak (% 8,5 eta % 19,3).



6. Kudeaketa-adierazle nagusiak zentro eta zerbitzuen arabera

Txostenaren azken atal honetan, kudeaketaren errealitatea aztertzeko zenbait adierazle jaso dira, egoitza-zentro eta egoitzakoak ez diren zentro moten arabera.

6.1. Egoitza-zentroak

38. taulan ikus daitekeen bezala, EAeko gizarte-zerbitzuen sisteman dauden egoitza-plaza guztien % 91,4 zeuden hartuta 2017an, batez beste, 2016ko % 90,6aren gainetik. Horrenbestez, bere horretan jarraitzen du adierazle horrek 2012ko % 86,5etik erakusten duen epe luzeko gorako joerak.

Okupazioaren maila % 90etik gorakoa da sektore nagusietan (adinekoak, Desgaitasuna/gaixotasuna eta adingabeak/familiak). Adineko pertsonen arloan, okupazioaren portzentajeak epe luzeko gorako joera erakusten du, 2012ko % 85,5etik luzatu baita 2016ko % 92ra arte.

Gorako joera hori bera ikusten da, epe luzera, adingabeentzako egoitzetan ere, zenbait xehetasun aipagarri tartean direla. Esaterako, 2015-2016 aldiko gorakada azpimarragarriak okupazioaren tasa % 95,2an jartzen zuen, 2014-2015 aldian behera egin ondoren eta 2015aren amaieran 2012 eta 2013ko % 92aren gainetik ozta kokatu ondoren. 2017ko % 94,6a bigarren erregistrorik altuena da 2012tik, eta pixka bat jaitsi da 2016an lortutako erregistrorik altuenetik.

Desgaitasuna/gaixotasunaren arloan, berriz, egonkortasun handia ikusten da okupazioaren tasa altuetan, 2014-2017 aldian % 97,4 eta % 97,8 bitarteko tasak aurkitzen ditugula.

38. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2014-2017 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)
Egoitza-zentroak	89,1	90,4	91,1	92,0	93,9	95,4	89,6
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	89,3	90,5	91,1	92,0	93,9	95,4	89,6
Egoitza-zentroak	97,7	97,6	97,7	97,4	94,6	97,6	98,4
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	97,8	97,5	97,7	97,4	94,6	97,6	98,5
Egoitza-zentroak	93,5	92,1	95,2	94,6	94,7	89,7	97,0
ADINGABEAK/FAMILIAK	93,5	92,1	95,2	94,6	94,7	89,7	97,0
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	67,6	76,7	67,4	78,2	92,3	46,7	83,4
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	44,8	63,7	50,9	57,7	93,0	54,3	41,4
EMAKUMEAK	53,5	68,5	58,2	67,4	92,9	50,8	64,8
Ostatu/egoitza-zentroak	84,7	78,1	81,3	81,8	96,3	76,2	83,2
Gaueko harrera-zentroak	89,6	93,0	86,9	94,8	100,0	97,8	90,3
BAZTERKETA	85,8	81,2	82,5	84,1	97,3	79,3	84,4
GUZTIRA	89,4	90,1	90,6	91,4	94,4	92,7	89,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak.

Aztertutako sektoreetatik kanpo, okupazioaren mailak % 90etik gorakoak dira bazterketa-arazoak dituzten pertsonen gaueko harrera-zentroetan ere. 2016an behera egin ondoren, 2012tik baxuena

zen % 86,9ko tasa erakutsiz, 2015eko % 93aren aldean ere beherago, 2017an % 94,8ko tasak berreskuratu zituen 2012, 2013 eta 2015ean ohikoak izan ziren % 93-95eko okupazio-tasak.

2016an bezala, 2017an % 80ko tasa gaintitu zen, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzu eta egoitza-zentroetan. 2015ean % 78,1era jaitsi ondoren gorako joera berreskuratu zen 2017ko % 81,8arekin. Dena den, 2012-2014 epealdiko % 82,7 eta % 84,7 bitarteko ehunekoetatik behera dago.

Okupazioaren zifrak % 80tik beherakoak dira genero-indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan. 2015ean % 76,7ra igo ondoren, 2016an berriro itzuli zen 2012-2014 aldiko ohiko mailetara, alegia, % 65,7 eta % 67,6 arteko mailetara. Okupazioak berriro gora egin zuen, ordea, 2017an, % 78,2raino, 2012 ondorengo mailarik gorena joz.

Okupazioaren mailarik baxuena genero-indarkeria edo tratatu txarra jasan duten emakumeentzako egoitza-zentroei dagokie, 2017an % 57,7 izan baita. Proportzio horrek gora egin du 2016ko % 50,9aren aldean, eta 2013-2014ko % 44,8a gaintitzen du, baina hala ere, 2015eko % 63,7aren eta 2012ko % 64,8aren oso azpitik dago.

Lurraldearen arabera, hainbat alde hauteman ditzakegu 2017ko okupazioaren datuetan. Alde batetik, Araba nabarmentzen da % 90aren gainetik dauden okupazio tasengatik, aztertutako egoitza-zentro mota desberdinetan. Okupazio-mailarik altuenak bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan jaso dira (% 97,3), eta Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako, adingabeentzako eta familientzako zentroetan % 94,6 eta % 94,7 ingurukoak dira. Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan okupazioaren tasa % 93,9koa da, eta % 93koa da indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ostatu edo egoitza-zentroetan. Proportzio hori oraindik % 92,3koa da indarkeriarik jasan ez duten emakumeentzako zentroetan.

Gipuzkoan okupazioaren portzentajeak % 95etik gorakoak dira adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 95,4) eta Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako zentroetan (% 97,6), eta antzekoak gaueko harrera-zentroetan ere (% 97,8). Zenbakia % 90era hurbiltzen da adingabeentzako egoitza-zentroetan (% 89,7), oraindik oso urrun bada ere Arabako eta Bizkaiko % 95etik gorako mailetatik.

Gipuzkoako okupazioaren tasak dezentez txikiagoak dira gainerako egoitza-zentro motetan, EAEn batez besteko erregistroen azpitik ere bai. Hala gertatzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu edo egoitza-zentroetan (% 76,2koa da Gipuzkoan, EAEn % 81,8 delarik) eta, era berezian, emakumeentzako zentroetan, % 50,8ko tasa erakusten duela. Okupazioak, hala ere, nabarmen gaintitzen ditu 2016ko % 35,7a eta 2015eko % 40a.

Bizkaian, bestalde, % 95etik gorako okupazio-mailak daude desgaitasun edo gaixotasunen bat dutenentzako egoitzetan (% 98,5) eta adingabeentzako egoitzetan (% 97,0). Harrera-zentroetan ere % 90etik gora dago, % 90,3ko tasarekin. % 90etik gertu daude adineko pertsonentzako egoitzetan (% 89,6), beste lurralde historikoetan baino nabarmen beherago betiere (Gipuzkoan % 95,4 eta Araban % 93,9).

Okupazio-maila txikiagoekin bada ere, Bizkaiko zenbakiak EAEn batezbestekoen gainetik daude indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako (% 83,4 Bizkaian eta % 78,2 EAEn) eta bazterketa egoeran dauden pertsonentzako (% 83,2 Bizkaian eta EAEn % 81,8) ostatu eta egoitza-zentroetan. Genero-indarkeriaren biktimen kasuan, okupazioa askoz baxuagoa da, % 41,4koa, EAEn batez besteko % 57,7koa baino are baxuagoa. Hala ere, 2016ko % 38,3koaren gainetik dago.



39. taulan jaso dira erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko oinarrizko datuak. Kasu honetan, 2017an, batezbestekoa 32.330 eurokoa zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitza-zentroen multzorako. Zenbaki horrek adierazten du gastua egonkortu dela 2016ko 32.314 euroen aldean (+% 0,0), eta jaitsi dela 2015-2016 aldian jasotako % 1aren aldean.

39. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2014-2017 Gastu arrunta/erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa % -tan EAE 2016/2017
	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile 2017	gastua/erabiltzaile 2017	gastua/erabiltzaile 2017	
Egoitza-zentroak	30.332	30.401	30.759	31.246	36.088	32.366	29.219	1,6
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	30.285	30.370	30.745	31.246	36.088	32.366	29.219	1,6
Egoitza-zentroak	42.672	43.817	43.884	44.841	40.292	44.023	47.270	2,2
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	42.753	43.884	43.934	44.858	40.399	43.794	47.378	2,1
Egoitza-zentroak	64.895	65.491	66.995	66.086	74.592	94.231	50.883	-1,4
ADINGABEAK/FAMILIAK	64.895	65.491	66.995	66.086	74.592	94.231	50.883	-1,4
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	20.624	23.998	21.889	15.183	44.559	2.099	13.784	-30,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	31.724	23.890	34.619	35.635	13.539	61.950	49.616	2,9
EMAKUMEAK	26.405	23.934	28.088	24.375	19.266	36.558	23.961	-13,2
Ostatu/egoitza-zentroak	14.558	16.297	15.816	13.544	10.951	15.206	12.960	-14,4
Gaueko harrera-zentroak	15.628	16.271	16.008	15.669	17.203	18.745	12.588	-2,1
BAZTERKETA	14.800	16.291	15.860	13.963	12.802	15.833	12.892	-12,0
GUZTIRA	31.606	31.996	32.314	32.330	35.730	33.929	30.363	0,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu diren adierazleak.

Egoitza-zentroetan, gasturik altuena adingabeentzako zerbitzuek izan dute 2017an ere, erabiltzaileko 66.086 euro gastatu baitira. 2015-2016 aldian % 2,3 igo ondoren, gastua murriztu eta -% 1,4 jaitsi da zentro mota horretan, 2016-2017 aldian. EAEko batezbestekoaren gainetik dago, baita ere, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako zentroetako gastua erabiltzaileko, 44.858 euroen gainetik kokatzen baita, 2016-2017 aldian % 2,1 hazita.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeen arloko erabiltzaileko gastuak ere EAEko batezbestekoaren gainetik eusten dio 2017an, 35.635 euroekin, altuena 2012tik. 2015ean jaitsiera handia izan ondoren, pertsonako 23.890 euro gastatuta, 2016ko zenbakia (34.619 euro) altuena izan zen 2012tik, eta 2015aren aldean % 44,9 hazi zen. Joera horri segida eman zion 2017ko gastuak, berriro ere hazi baitzen, apalago bada ere, % 2,9.

Adineko pertsonentzako egoitzetan, ordea, 31.246 euroko gastua ez da iristen EAEko gastuaren batezbesteko orokorrera. Kasu honetan, gastuaren hazkundera 2016-2017 aldian % 1,6koa izan zen, 2015-2016 aldiko % 1,2ko hazkunderari jarraipena emanez.

Erabiltzaileko gastua askoz urriagoa da gainerako zentro motetan. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan, erabiltzaileko 15.669 euro gastatu ziren 2017an, genero-indarkeriaren arazoa izan ez duten emakumeen arretan 15.183 euro, eta bazterketa-

egoeran dauden pertsonentzako ostatu eta egoitza-zentroetan 13.544 euro. Aipatutako hiru zentro mota horietan, erabiltzaileko gastuaren beherako joera ikusten da 2015etik hona, ordura arte gora egin ondoren. 2016-2017 aldian jaitsiera -% 10ekoa da, salbuespen bakarra gaueko harrera-zentroetakoa dela. Zentro hauetan, jaitsiera apalagoa da (-% 1,6koa 2015-2016 aldian eta -% 2,1ekoa 2016-2017 aldian).

2016ko erabiltzaileko gastuaren lurraldekako azterketak joera desberdinak erakusten ditu. Adibidez, Arabako gastua adineko pertsonen kasuan gailentzen da, erabiltzaileko 36.088 euroekin, Gipuzkoan 32.366 euro eta Bizkaian 29.219 euro zirelarik. Arabako gastuak gaintzen du, are argiago gaintu ere, indarkeriaren biktimak ez diren pertsonentzako ostatu eta zentroei beste lurraldeetan dagokien gastua ere, 44.559 euroekin.

Ostera, Bizkaia nabarmentzen da desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzetako erabiltzaileko gastuan: 47.270 euro Bizkaian, 44.023 Gipuzkoan eta 40.292 Araban.

Gastuaren mailarik altuena Gipuzkoari dagokio gainerako egoitza-zentroetan. Aldeak begien bistakoak dira adingabeen/familien sektorean (94.231 Gipuzkoan, 74.592 Araban eta 50.883 Bizkaian) eta indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroetan (61.950 euro Gipuzkoan, Bizkaiko 49.616 euroen gainera). Hain deigarriak ez badira ere, alde nabarmenak daude bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro desberdinetan: Gipuzkoan 18.745 euro, Araban 17.203 eta Bizkaian 12.588 euro, gaueko harrera-zentroetan; Gipuzkoan 15.2016 euro, Bizkaian 12.960 eta Araban 10.951 euro, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gainerako ostatu eta egoitza-zentroetan.

40. taulan ikus daitezke erabiltzaileen urteko ekarpenari buruzko datuak. Erabiltzaileek egoitza-zentroak eta horiekin lotutako zerbitzuak mantentzeko egiten dituzten ekarpenetan, aipagarriak dira adineko pertsonen ordaintzen dituzten kuota altuak. Kasu honetan, erabiltzaileen batez besteko kuota iraunkortasunez handitzen da 2013tik, urte hartako 13.569 eurotik 2017ko 14.592 eurora igaroz¹². 2016-2017 aldian, ekarpena % 1,6 handitu zen, nolabait jarraituz 2015-2016 aldiko % 1,9ko hazkundera.

Desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, eta zerbitzu elkartuetan, batez besteko kuota 5.171 eurokoa zen 2017an. Kasu honetan, ekarpena murrizteko joera ikusten da, 2015eko 6.012 eurotik -% 9,4 jaitsiz 2015-2016 aldian, eta ondoren ere -% 5 behera eginez, modu apalagoan bada ere, 2016-2017 aldian. Kuota atzera itzuli da 2012ko 5.198 euroen edo 2014ko 5.215 euroen inguruko mailara.

Batez besteko kotak 2017an askoz baxuagoak dira bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu edo egoitza-zentroetan, 543 euroekin, hala ere 2016ko 493 euroen gainera.

2016ko lurraldekako datuek erakusten dutenez, erabiltzaileko ekarpenik altuena Bizkaian dago adinekoentzako eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan. Lehen kasuan, erabiltzaileko ekarpena 15.276 eurokoa da Bizkaian; Gipuzkoan 13.819 eurokoa eta Araban 13.743 eurokoa. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu eta egoitza-zentroetan, Bizkaian ekarpena 817 eurokoa da, Araban 448 eurokoa eta Gipuzkoan 223 eurokoa.

Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzetan, ordea, batez besteko kuotarik handiena 2017an Gipuzkoakoa da: 6.469 euro Gipuzkoan; Araban 5.774 euro eta Bizkaian 4.016 euro.

¹² Kalkuluan sartzan dira erreferentziazko zentro guztiak, erabiltzaileen kuotarik jasotzen ez dutenak barne.



40. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2014-2017 Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko

	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	Bariazioa %-tan EAE 2016-2017
Zentro/Zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	14.071	14.122	14.373	14.592	13.743	13.819	15.276	1,5
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	14.044	14.103	14.367	14.592	13.743	13.819	15.276	1,6
Egoitza-zentroak	5.252	6.041	5.480	4.945	5.809	6.494	3.486	-9,8
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	5.215	6.012	5.446	5.171	5.774	6.469	4.016	-5,0
Ostatu/egoitza-zentroak	430	493	493	543	448	223	817	10,3
Gaueko harrera-zentroak	51	59	0	0	0	0	0	
BAZTERKETA	344	391	378	436	315	184	668	15,4
GUZTIRA	11.148	11.344	11.448	11.333	10.593	10.744	11.904	-1,0

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduerara erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.

41. taulan daude ikusgai abenduaren 15ean egoitza-zentro eta -zerbitzuetan lanean ari ziren langile propioei buruzko datuak. Horiek erakusten dutenez, LOB kontuan hartuta, EAEko egoitzetan 46,7 langile zeuden 100 erabiltzaileko. Okupazio horrek gorako joera erakusten du eta 2016-2017 aldian ere hala jarraitu du. Izan ere, 2012 eta 2013 artean egonkortu ondoren (44,1 eta 43,9 langile), 2013tik hona langileen kopuruak etengabe egin du gora: 100 erabiltzaileko 45,9 langile zeuden 2015ean, 46,4 ziren 2016an eta 46,7 (gorena) 2017an. Hala ere, hazkundera nolabait apaltzen dela atzematen da, adierazlearen hazkundera % 1,2koa baitzen 2015-2016 aldian, eta % 0,6koa 2016-2017 aldian.

Okupazioa altuagoa da Araban, LOB erako 52,5 langile baitzeuden zentroetako barne-egituran integratuta 100 erabiltzaileko, 2015eko 49,8ak eta 2016ko 49,4ak baino gehiago. Zenbakia da 46,7 langile Bizkaian, pixka bat gutxiago 2016ko 47,5 eta 2015eko 47,1 kopuruen aldean. Mailarik altuena Gipuzkoari dagokio, 43,8 langile 100 erabiltzaileko, baina hazkunde jarraitua erakutsiz 2015eko 42,0 langileetatik.

Jarduketa-esparru edo sektore bakoitza aztertuta, 2017an 100 erabiltzaileko langile-kopururik handiena desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonentzako zentroetan dagoela ikusten da, 67,9 LOB langile, hain zuzen ere. Kasu honetan herritar enplegatuen kopuruak iraunkortasunez gora egin du 2012ko 61,1 langileetatik, adierazlea % 3,6 haziz 2015ekoaren aldean, 2015-2016 aldiko % 1,7a halako bi luze. Lurraldean arteko aldeak nabarmenak dira kasu honetan, gehienez 74,0 langilerekin Bizkaian, Gipuzkoan 68,8 eta Araban 51,0 direlarik.

Langileen kopuruak batezbestekoaren gaitetik ozta daude adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan: 100 erabiltzaileko 49,1 langile zeuden 2017an, 2016an zeuden 47,9 langile-kopurua baino % 2,5 gehiago. 2012ko datuekin alderatuta (46,3 langile), hazkundera ez da desgaitasun/gaixotasunen sektorean izandakoa bezain indartsua. Adineko pertsonentzako egoitzetan, langile-kopururik handiena Araban zegoen, 100 erabiltzaileko 61,3 langile baitzeuden, beraz, alde handiz gaititzen ziren Bizkaiko 48,6 langileak eta Gipuzkoako 43,7 langileak.

Gainerako sektoreetan, LOB langileen kopurua 100 erabiltzaileko nabarmen txikiagoa da, nahiz eta, adingabe edo familientzako egoitza-zentroetan, oraindik ere 28,5koa den. Kasu honetan gorako joera mantentzen da adierazlean, % 1,8 hazi baitzen 2015eko % 28,0aren gaitetik. Adierazle hori 2012koa (25,5 langile) baino % 3 handiagoa da. Kasu honetan, Gipuzkoak du LOB

erako langileen kopuru handiena 100 erabiltzaileko: 52,2 Gipuzkoan; Araban 34,4 eta Bizkaian 16,1.

Genero-indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako egoitza-zentroetan 25,5 langile daude 100 erabiltzaileko eta 30,9 Bizkaian, maila oso hurbilak erakutsiz. Zentro horietan, hala ere, murrizteko joera ikusten da 2015eko 32,5 langileen aldean, eta luzatu egin da 2015-2017 aldian. Nolanahi ere, zifra hori 2012 eta 2013koak baino altuagoa da, orduan 22,2 eta 22,9 langile baitzeuden 100 erabiltzaileko.

Azaldutako ratioa 20,5ekoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu-egoitzetan, eta arlo horretan beherako joera nabarmena ikusten da 2015eko 26,2ko langile-kopuruaren aldean. Kasu honetan LOB langileen mailarik baxuenera iritsi da 2012tik, urte hartan 21,5eko ratioa izan zela. Ratorik handiena Bizkaia du (25ekoa; Gipuzkoaren 20,7koa baino gehiago).

Tratu-txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitzak alde batera utzita (6,1 LOB langile dituzte 100 erabiltzaileko), ratorik txikiena baztertutako pertsonentzako gaueko harrera-zentroei dagokie: 15,0 LOB enplegu 100 erabiltzaileko, zenbateko horrek 2012. urtekoa (12,9) gainditzen duela soilik. Izan ere, adierazlea modu iraunkorrean jaitsi da 2015eko 15,8 langileen kopurutik. Erabiltzaileko langileen ratorik altuenak Gipuzkoan eta Araban izan dira (20,5 eta 16,8 hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, 10,0 besterik ez).

41. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2014-2017 LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko

	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa % tan EAE 2016- 2017
	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	2017ko langile okupatuak/era biltzaile	2017ko langile okupatuak/era biltzaile	2017ko langile okupatuak/era biltzaile	
Zentro/Zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	46,6	47,2	47,9	49,1	61,3	43,7	48,6	2,4
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	46,5	47,2	47,9	49,1	61,3	43,7	48,6	2,5
Egoitza-zentroak	62,9	64,4	65,3	67,9	51,3	69,0	73,8	4,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	62,9	64,4	65,5	67,9	51,0	68,8	74,0	3,6
Egoitza-zentroak	26,3	27,3	28,0	28,5	34,4	52,2	16,1	1,8
ADINGABEAK/FAMILIAK	26,3	27,3	28,0	28,5	34,4	52,2	16,1	1,8
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	28,3	32,5	26,5	25,5			30,9	-4,0
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	8,1	4,2	6,9	6,1		10,5	11,0	-11,9
EMAKUMEAK	17,8	15,7	17,0	16,7		6,1	25,3	-1,2
Ostatu/egoitza-zentroak	25,8	26,2	24,6	20,5	3,8	20,7	25,0	-16,5
Gaueko harrera-zentroak	15,7	15,8	15,2	15,0	16,8	20,5	10,0	-1,3
BAZTERKETA	23,5	23,8	22,4	19,4	7,6	20,7	22,2	-13,2
GUZTIRA	45,1	45,9	46,4	46,7	52,5	43,8	46,7	0,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astearen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Azpiratu beharreko alderdi bat da, alegia, tratu txarren edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak alde batera utzita, bazterketa-egoeran dauden emakumeentzako egoitza-zentroetan LOB langileen kopurua 100 erabiltzaileko 2012 eta 2015 bitartean nabarmen hazi ondoren, 2015-2017 aldian langile/erabiltzaile proportzioa jaitsi egin zela.



Zalantzarik gabe, hamarkada honen erdialdetik aurrera egoera ekonomikoa hobetu izana bilakaera horrekin lotuta dago.

42. taulan, egoitza-zentroetako langile propioek jasotzen duten batez besteko ordainsariari buruzko datuak agertzen dira (LOB datuetan neurtuta). 2016an, batez besteko ordainsaria 36.079 eurokoa zen. Zenbaki horrek -% 0,6ko jaitsiera islatzen du 2016ko 36.289 euroen aldean, eta neurri batean konpentsatzen du 2015eko 35.988 euroen gainetik 2016an izandako % 0,8ko hazkundera. 2017an ikusitako dinamika azpimarragarria da eten egin zuelako 2012an jasotako 34.607 euroen kopurua handitzeko bide iraunkorra.

42. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2014-2017
Batez besteko ordainsaria/LOB langile

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2016/2017
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	
Egoitza-zentroak	33.442	33.765	34.076	33.904	37.528	35.172	31.948	-0,5
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	33.442	33.765	34.076	33.904	37.528	35.172	31.948	-0,5
Egoitza-zentroak	44.076	44.476	44.527	44.178	40.699	41.417	47.006	-0,8
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	44.078	44.474	44.415	44.200	40.699	41.376	47.009	-0,5
Egoitza-zentroak	56.660	56.369	55.363	50.982	46.020	32.344	81.515	-7,9
ADINGABEAK/FAMILIAK	56.660	56.369	55.363	50.982	46.020	32.344	81.515	-7,9
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	28.065	24.285	25.031	24.536			24.536	-2,0
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	24.146	33.276	31.072	33.844		40.498	31.326	8,9
EMAKUMEAK	27.136	25.705	26.226	26.052		40.498	25.376	-0,7
Ostatu/egoitza-zentroak	30.682	32.897	34.713	35.451	31.905	37.925	34.011	2,1
Gaueko harrera-zentroak	48.574	50.835	50.434	51.495	59.966	46.131	52.441	2,1
BAZTERKETA	33.394	35.682	37.192	37.895	50.212	39.367	35.516	1,9
GUZTIRA	35.574	35.988	36.289	36.079	38.339	36.391	35.143	-0,6

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduerara erregularra duten zentroentzat kalkulatzeko dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Ordainsariarik handienak adingabeen egoitza-zentroetan ikusten dira, 50.982 euroekin. Batez besteko ordainsariak 2012ko 51.485 eurotik 2013ko 56.881 eurora nabarmen igo ondoren, murrizketa progresiboa hasi zen LOB enplegetan oraingo egoerara iritsi arte, murrizketa are gehiago sakonduz 2016-2017 aldian (-% 7,9).

Konparazioan altua da, baita ere, baztertutako pertsonentzako gaueko harrera-zentroetako ordainsaria, 51.495 euroekin. Adingabeentzako zentroetan ikusitakoaren aldean, eta 2015-2016 aldian behera egin ondoren, kasu honetan batez besteko ordainsariak berreskuratzen du 2012ko 44.087 euroetatik hasitako gorako joera (% 2,1eko hazkundera 2016-2017 aldian).

Horrez gain, LOB langileen batez besteko ordainsaria EAEko egoitza-zentroetako batezbestekoaren gainera dago desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretaren arloan, 44.200 eurora iristen baita. -% 0,5 jaitsi zen 2016koaren aldean, eta 2013ko 42.317 euroak salbuespena direla, kasu honetan ordainsarien egonkortasun handia ikusten da, kopuruak 2012ko 44.017 euro eta 2015eko 44.474 euro bitartekoak direlarik.

Adinekoentzako egoitza-zentroetan, ordea, ordainsariak ez dira EAEko batezbestekora iristen: 33.904 eurotan zeuden 2017an. Kasu honetan eten egin da 2012ko 32.254 euroetatik 2016ko 34.076 euroetara bitartean ikusten zen gorako joera apala. Beraz, 2017ko kopuruak lehenengo aldiz eten du aipatutako gorako joera, 2016koaren aldean -% 0,5 jaitsi baita.

LOB ordainsariak, batez beste, oso antzekoak dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako ostatu eta egoitza-zentroetan: 35.451 euro. 2012 eta 2015 bitartean ikusitako -% 1,2 jaitsieraren ondoren, kasu honetan 2015-2017 aldiaren ordainsariek berriro gora egin dute, 2017an % 7,8 hazi baitira 2015eko 32.897 euroen aldean. 2015ean, adinekoentzako egoitza-zentroetako ordainsariak batez besteko ordainsaritik beherakoak baziren ere, hobetu egin dira 2016an eta 2017an, batez ere baztertutako pertsonentzako egoitza-zentroetan lan egiten dutenen ordainsariak.

Batez besteko ordainsaririk hurbil da, halaber, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroetako ordainsaria, LOB langileen ordainsaria 33.844 eurokoa baitzen 2017an. 2015-2016 aldiaren behera egin ondoren, 2016-2017 aldiaren % 8,9 gora egin zuten, eta 2015eko 33.276 euroen gainera jarri ziren berriro ordainsariak. Indarkeriaren biktima ez diren emakumeentzako ostatu-zerbitzuetan, ordea, 2016-2017 aldiak -% 2ko beherakada ekarri du batez besteko ordainsarian. ordainsari hori 24.536 eurotan kokatzen da, alegia, EAEko egoitza-zerbitzuen arloko mailarik txikienean.

Arabako LOB langileek jasotzen dute batez besteko ordainsaririk altuena gizarte-zerbitzuen egoitzen esparruan, hain zuzen ere 38.339 euro 2017an. Horren azpitik daude, urrun ez bada ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko ordainsariak: 36.391 eta 35.143 euro, hurrenez hurren. Aldea bereziki handia da adineko pertsonen arretan (37.528 euro Araban, 35.172 euro Gipuzkoan eta 31.948 euro Bizkaian) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (59.966 euro Araban, 52.441 Bizkaian eta 46.131 Gipuzkoan).

Baina desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan, batez besteko ordainsaria handiagoa da 2017an Bizkaian. Kasu honetan, Bizkaiko 47.009 euroak Gipuzkoako 41.376 euroen eta Arabako 40.699 euroen gainera daude. Adingabeentzako egoitzetan ere Bizkaiko langileek dute ordainsaririk handiena, 81.515 euro batez beste, Arabako 46.020 eta Gipuzkoako 32.344 euroen gainera.

Emakumeentzako ostatu-zerbitzuetan, soldatarik handienak Gipuzkoan daude, 40.498 euro batez beste, Bizkaiko 31.326 euroen gainera.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu eta egoitza-zentroetan ere Gipuzkoan dituzte LOB soldatarik onenak, 37.925 euro jasotzen baitute batez beste, Bizkaian eta Araban baino gehiago (34.011 eta 31.905 euro, hurrenez hurren). Lehen esan den bezala, gaueko harrera-zentroetan, berriz, Araban daude ordainsaririk altuenak.



6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak

43. taulan ikus daitekeen bezala, 2017an EAeko gizarte-zerbitzuen sisteman, egoitzakoak ez ziren plaza guztien % 98,8 zeuden hartuta. Horrek joeraren aldaketa nabarmena dakar, 2013ko % 98,4ko okupazio-tasatik 2016ko % 95,8ra jaisteko joera ikusten baitzen. 2017koa okupazio-tasarik altuena da 2012-2017 aldi osoan.

Zentro eta zerbitzu adierazgarrienei erreparatuz gero, alde nabarmenak ikusten dira okupazio-mailetan. Alde batetik, okupazio-tasak batezbestekotik hurbilekoak dira, % 96,5 eta % 100 bitarteko zenbakiekin adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetan (bai eta egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan ere); gauza bera Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko arretan edo eguneko zentroetan; eta adingabe eta familientzako eguneko zentroetan ere bai.

Zerbitzu horietako zenbaitetan, batez ere Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako zerbitzuetan, okupazioaren maila % 100etik hurbil eta egonkortasun handiz mantentzen da. Beste batzuetan, berriz, okupazioak gora egin du nabarmen. Hala gertatzen da adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetan eta egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan. Lehenengo kasuan, okupazioa jaitsi egin zen 2014ko % 107,1etik 2016ko % 86,1era, eta 2017an berriro % 100era iritsi zen. Egoitzakoak ez diren gainerako zentroetan, 2014-2015 aldian % 95,7 eta % 96,5 bitarteko mailatik 2016ko % 90,6 mailara jaitsi zen, eta ondoren berriro % 98,7ra igo zen 2017an. Horrenbestez, okupazioak berreskuratu zituen 2013-2015 bitarteko % 95etik gorako mailak.

Adingabe edo familientzako eguneko arreta-zerbitzuek, berriz, kontrako joera adierazten dute, izan ere, 2014-2015 aldiko % 93,4 eta % 93,7 zenbakietatik, 2016an % 110,2ra igo ondoren, 2017ko % 96,5eko tasak adierazten du behera doitu dela 2017an atzemandako gain-okupazioaren tasa.

Bestalde, aipatutako zentro mota horietan ikusitakoaz bestela, zerbitzu batzuetan nabarmen urruntzen dira okupazioaren tasak oro har ikusitako batez besteko mailetatik. Kasu batzuetan, okupazioaren portzentajea, batezbesteko orokorra baino nabarmen txikiagoa izateaz gain, % 90etik beherako mailetan geratzen da. Hala gertatzen da adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, % 84,3rekin, eta herritar horientzako jantokietan ere bai, hauen mailarik txikiena 2018koa izan baitzen, % 68,4rekin.

Bi zentro mota horietan okupazioaren portzentajea behera dator aurreko urteetatik hona. Eguneko laguntza-zentroen kasuan, portzentajea behera dator 2015eko % 86,1etik, 2017ko okupazioaren tasa nolabait egonkor mantentzen bada ere, bariazio txikiak erakutsiz oraingo % 84,3 txikienaren eta lehen aipatutako % 86,1 gorenaren artean. Jantokietako zenbakiek, berriz, etenaldia adierazten dute, aldatu egin baita lehengo okupazioaren hazkunde iraunkorra, 2012ko % 53,6tik 2016ko % 74,6ra luzatu zena. Hala ere, 2017ko % 68,4ko datua 2012-2014 aldiko zenbakien gaintik mantentzen da.

Beste zentro eta zerbitzu mota batzuetan kontrako egoera atzematen da, izan ere, okupazioaren mailak espero ziren maila gorenen gaintik egon dira, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro mota desberdinetan. Esaterako, gehiegizko okupazioa nabarmena da, oraindik ere, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan, 2017an % 161,9ko okupazio-tasa baitzuten. 2017ko % 161,9ko tasa horrek adierazten du berriro gora egin duela okupazioak, 2013ko % 260tik edo 2015eko % 224tik nabarmen behera egin ondoren 2016ko % 150,3ra. Hala ere, urrun mantentzen da 2012-2015 aldian % 200aren gaintik zeuden tasetatik.

Gehiegizko okupazioaren tasa bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetara ere iristen da, 2017an % 138,8ko okupazioa izan baitute. Kasu honetan, dinamika hori hamarkadaren hasieran igartzen zen jadanik, igo egin baitzen 2012tik 2014ra, % 93,3tik % 105era. Gehiegizko okupazioa jaitsi egin zen 2015ean, % 91,8arekin, baina 2016an berriro gora etorri eta % 101,9ra iritsi zen. Hala ere, 2017ko zenbakiak aldaketa kualitatiboa adierazten du, gehienezko okupazioa gainditzeko zuten maila horiek ez baitziren lehenago ikusi.

Lurraldeei dagokienez, okupazioaren mailak % 100aren inguruan kokatzen dira Araban (% 99,4) eta Bizkaian (% 100,6). Tasa txikixeagoa da Gipuzkoan, % 95,8ko okupazioarekin, baina betiere okupazio osotik hurbil.

Zentro eta zerbitzuen araberako aldeak ez dira oso handiak, baina zenbait datu garrantzitsu nabarmendu daitezke esku-hartzeen eremurik adierazgarrietan. Alde batetik, okupazioa altuagoa da Gipuzkoan adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: % 87,8 Gipuzkoan, % 83,5 Araban eta % 81,3 Bizkaian.

Bestalde, zerbitzuen gehiegizko okupazioari dagokionez, aipagarria da, adingabe eta familientzako eguneko arretan, Gipuzkoak modu argian gainditzeko duela, oraindik, okupazio osoa (% 175 Gipuzkoan, Araban, % 98 eta Bizkaian % 74,7). Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arreta-zentroei dagokienez, gehiegizko okupazioa batez ere Araban eta Bizkaian dago (% 146,8 eta % 149,6, hurrenez hurren, eguneko zentroetan; eta % 320 eta % 125 jantoki sozialetan).

43. taula. Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2014-2017 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)

	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)	2017ko okupazioa (%)
Zentro/Zerbitzu mota							
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	107,1	97,5	86,1	100,0	100,0		
Eguneko laguntza-zentroak	85,7	86,1	85,7	84,3	83,5	87,8	81,3
Jantokiak	65,5	71,0	74,6	68,4	72,0		24,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	95,7	96,5	90,6	98,7	100,0	80,0	100,0
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	84,4	85,1	84,8	82,9	80,1	87,8	80,6
Eguneko zentroak	96,8	98,0	97,9	98,6	99,2	98,0	99,0
Suspertze- eta arreta-zentroak	94,5	91,0	99,9	98,6	100,0	105,4	96,7
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	97,3	98,3	98,9	99,0	100,6	100,0	97,9
Laneratze-zentroak	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	96,9	97,3	98,8	98,9	100,3	99,6	98,2
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	93,4	93,7	110,2	96,5	98,0	175,0	74,7
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	93,4	93,7	110,2	96,5	98,0	175,0	74,7
Eguneko zentroak	105,0	91,8	101,9	138,8	146,8	101,7	149,6
Jantoki sozialak	234,1	224,0	150,3	161,9	320,0		125,6
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	140,6	132,0	116,0	147,4	261,0	101,7	140,0
GUZTIRA	97,6	96,4	95,8	98,8	99,4	95,8	100,6

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Erabiltzaile bakoitzeko gastu arruntari buruzko datuak 44. taulan jaso dira. 2017an gastua 11.005 eurokoa zen gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez diren zentrozen multzoan. Zenbaki hori -% 3,7 txikiagoa da 2016an baino, eta 2014tik datorren beherako joera luzatzen du, urte hartan gastua 12.025 eurora iristen zelarik. Beraz, 2017ko kopurua lehenengo aldiz 2012ko 11.424 euroen azpitik dago.

44. taula. Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2014-2017 Gastu arrunta/erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa % tan EAE 2016/2017
	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile 2017	gastua/erabiltzaile 2017	gastua/erabiltzaile 2017	
Atsedene- eta babes-zerbitzuak	6.299	7.439	7.965	6.455	6.455			-19,0
Eguneko laguntza-zentroak	15.731	15.739	15.947	16.489	19.810	16.687	14.756	3,4
Jantokiak	2.029	1.965	1.905	1.846	1.841		2.034	-3,1
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	2.483	3.404	3.764	3.753	3.193	3.319	4.251	-0,3
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	13.861	13.937	14.228	14.446	12.099	16.618	14.130	1,5
Eguneko zentroak	16.318	16.975	16.794	16.549	30.112	15.778	15.570	-1,5
Suspertze- eta arreta-zentroak	9.208	9.281	8.879	10.748	19.526	10.287	10.265	21,1
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	15.135	10.085	10.780	11.738	13.202	10.662	11.875	8,9
Laneratze-zentroak	1.397	2.020	1.124	786		366	1.815	-30,1
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	14.165	12.123	11.533	11.531	16.931	9.674	11.923	0,0
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	6.311	8.806	6.367	10.009	18.165	2.765	3.994	57,2
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	6.311	8.806	6.367	10.009	18.165	2.765	3.994	57,2
Eguneko zentroak	6.385	7.742	7.418	5.512	8.595	9.473	4.446	-25,7
Jantoki sozialak	1.996	1.926	2.462	1.471	784		1.872	-40,3
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	4.371	4.743	5.552	3.859	2.280	9.473	3.520	-30,5
GUZTIRA	12.025	11.496	11.431	11.005	11.831	11.990	10.069	-3,7

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedene- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

2015ean bezala, 2016an ere erabiltzaileko batez besteko gastu handiena Gipuzkoan dago egoitzakoak ez diren zerbitzuetan: 11.990 euro; Araban, 11.831 euro eta Bizkaian 10.069 euro.

Erabiltzaileko gastu handieneko zentroak adinekoentzako eta Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroak dira, 16.489 eta 16.594 euroekin, hurrenez hurren. Gastuaren bilakaera, ordea, desberdina da. Esaterako, adineko pertsonentzako eguneko zentroetan gastuak % 3,4 egin zuen gora 2016-2017 aldian, eta bizkortu egin zen jadanik 2015-2016 aldian +% 1,3rekin antzematen zen hazteko joera. Desgaitasun edo gaixotasunaren arloan, ordea, gastuak behera egin zuen 2015ean, ordura arte gora egin ondoren, 2012tik 2015era 16.055 eurotik 16.975 eurora igo baitzen. 2015-2016 aldian erabiltzaileko gastua -% 1,1 jaitsi zen, eta ondoren berriz ere beste -% 1,5 jaitsi 2016-2017 aldian, 2017ko 16.594 eurora iritsi arte.

Eguneko laguntza-zentro mota horietan, gastuaren mailarik altuenak Araban izan dira. Adineko pertsonentzako zentroetan, gasturik handiena Araban dago, 19.810 euro, eta gutxiago Gipuzkoan, 16.687, eta Bizkaian gutxiena, 14.756, azken honek 2015eko 14.205 euroetatik gora egin badu ere. Aldea are handiagoa da desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan: Araban 30.112 euro; Gipuzkoan 15.778 eta Bizkaian 15.570 euro.

Desgaitasunak eta gaixotasunak artatzeko esparruan, erabiltzaileko gastua 11.738 eurokoa zen eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan, eta 10.748 eurokoa, berriz, suspertze- eta arreta-zentroetan. Suspertze- eta arreta-zentroetan gastua oraindik ere 2012an ikusitako (11.854 euro) kopuruaren azpitik dago, 2012-2013 eta 2015-2016 aldietan izandako beherakaden ondorioz, baina 2016-2017 aldian gorako joera garbia ageri da erabiltzaileko gastuan (+% 21,1). Gastuaren susperraldia ageri da, halaber, eguneko eta okupazio-zentroetan, 2016-2017 aldian % 8,9 hazi baitzen, 2015-2016 aldian ikusitakoaren ondoren (+% 6,9), eta neurri batean konpentsatzen dute 2014-2015 aldian ikusitako beherakada handia, gastuaren maila berriz kokatuz 2012koen parean (urte hartan erabiltzaileko 11.761 euro).

Zerbitzu horietan, 2017ko erabiltzaileko gastua handiagoa da, kasu guztietan, Araban: 19.526 euro Araban, Gipuzkoan 10.287 eta Bizkaian 10.265, suspertze- eta arreta-zentroi dagokienez; 13.202 euro Araban, 11.875 Bizkaian eta 10.662 Gipuzkoan, eguneko eta okupazio-zentroetan.

Adingabeen eta familien eguneko arreta-zentroetan ere, 2017an, erabiltzaileko gastua 10.000 euroen mugatik gora dago (10.009 euro), hazkunde nabarmena eraginez 2016ko 6.367 euroen gainera eta are 2015eko 8.806 euroen gainera ere. Izan ere, 2012tik erregistratu den kopururik handiena da. Praktikan, mugimendu hori lotzen da Araban esku-hartze mota horretan aurrera eramandako ekintzarekin, erabiltzaileko gastua 18.165era eraman eta nabarmen gaituz Bizkaiko eta Gipuzkoako gastuak (3.994 eta 2.765 euro, hurrenez hurren), EAE osoan zabaltzen ari zen gastuaren hazkundera bi lurralde horietan ere islatzen zen arren.

Erabiltzaileko gastua baxuagoa da zerbitzu hauetan: adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzu ez-egoitzakoetan (6.455 euro), eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan (5.512 euro). Bi kasu horietan murrizketa handiak ikusten dira erabiltzaileko gastuan 2016-2017 aldian, -% 20koak edo ingurukoak. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, gastuaren beherakada 2015-2016 aldian hasi zen, erritmo apalagoan bazen ere, (orduan -% 4,2 eta 2016-2017 aldian -% 25,7). Bazterketa-egoeran dauden pertsonen eguneko zentroetan, 2017an, Gipuzkoa da berriro erabiltzaileko gasturik handiena duena: 9.473 euro Gipuzkoan, Araban 8.595 euro eta Bizkaian 4.446 euro.

Erabiltzaileko gastua askoz baxuagoa da egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan, esaterako, gaixotasun edo desgaitasuna duten pertsonentzako laneratze-zentroetan, adinekoentzako egoitzakoak ez diren beste zentroetan eta jantoki mota desberdinetan. Jantokien kasuan, erabiltzaileko batez besteko gastua 1.846 eurokoa da adineko pertsonen kasuan eta 1.471 eurokoa bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan. Bi kasu horietan, Bizkaia da gasturik handieneko lurraldea (1.872 euro jantoki sozialetan eta 2.034 adineko pertsonen jantokietan, azken hauetan atzetik hurbil datorrela Araba, 1.841 euroekin).



45. taulan azaltzen da gizarte-zerbitzuen sektorean egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu nagusiak mantentzeko erabiltzaileek egiten duten urteko ekarpena.

45. taula. Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2014-2017 Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko

	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2016/2017
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	2017ko batez besteko kuota	
Zentro/Zerbitzu mota								
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	1.305	1.362	2.449	951	951			-61,2
Eguneko laguntza-zentroak	3.439	3.550	3.628	3.920	4.977	4.489	2.842	8,1
Jantokiak	1.354	1.378	1.474	1.407	1.415		1.107	-4,6
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	951	1.362	1.404	1.449	617	175	2.253	3,3
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	3.117	3.234	3.355	3.548	3.347	4.467	2.800	5,8
Eguneko zentroak	1.665	1.610	1.237	1.727	2.558	1.840	1.530	39,6
Suspertze- eta arreta-zentroak	304	405	389	277	820	135	279	-28,8
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	11	40	22	58	50	0	94	160,7
Laneratze-zentroak	0	0	0	0		0	0	0,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	649	646	473	602	593	649	567	27,3
Adingabeentzako/familiantzako eguneko arreta	0	0	0	0	0	0	0	0,0
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	0	0	0	0	0	0	0	0,0
Eguneko zentroak	149	210	417	104	0	69	120	-75,0
Jantoki sozialak	88	76	125	83	225		0	-33,9
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	121	141	307	96	182	69	77	-68,9
GUZTIRA	1.363	1.461	1.409	1.427	1.838	1.946	942	1,3

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.

Datuek erakusten dutenez, 2017an batez besteko kuota erabiltzaileko 1.427 eurotan kokatzen da¹³, % 1,3 hazita 2016ko 1.409 euroen aldean. Biztanleko batez besteko ekarpenik handiena 1.946 eurokoa izan zen Gipuzkoan, 1.838 eurokoa Araban eta 942 eurokoa Bizkaian.

Erabiltzaileen ekarpenik handiena 2017an adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan izan da, 3.920 euroekin, 2016ko 3.628 euroen gainetik % 8,1. Ekarpene horrek gorako joera erakusten du 2014ko 3.439 euroetatik eta 2013an ikusitako 3.672 euroak gainditu ditu. Ekarpene handiena Arabari dagokio, 4.977 euroekin, Gipuzkoako 4.489 euroen eta Bizkaiko 2.842 euroen gainetik.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan, berriz, erabiltzaileen urteko ekarpena 1.727 eurokoa da. Zenbaki horrek berresten du ekarpen horien gorako joera epe luzerako, 2014 eta 2016 bitartean, aldi batez, behera egin bazuen ere. Lurraldean ekarpenetan aldeak nabari dira, berriro, eguneko zentro hauetan, Araban dela altuena, 2.558koa, eta ondoren Gipuzkoan, 1.840 euro eta Bizkaian 1.530 euro.

¹³ Kalkuluan sartzen dira erreferentziako zentro guztiak, erabiltzaileen kuotarik jasotzen ez dutenak barne.

Adineko pertsonen arretan, erabiltzaileko kuota 951 eurokoa da atsedeen- eta babes-zerbitzuetan, 1.407 eurokoa jantokietan eta 1.449 eurokoa egoitzakoak ez diren beste arreta-zentroetan. Azken zerbitzu mota horretan izan ezik, % 3,3 hazi baita haietan ekarpena, erabiltzaileen ekarpenak murrizteko joera erakutsi du 2016-2017 aldian.

Gainerako zerbitzuetan erabiltzaileen ekarpena askoz ere txikiagoa da 2017an. Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, eguneko laguntza-zentroak salbuespena direla, ekarpena 277 eurotan geratzen da suspertze- eta arreta-zentroetan, 58 eurotan geratzen da eguneko eta okupazio-zentroetan, eta hutsa da laneratze-zentroetan. Lurraldean artean ekarpenik handiena Arabako 820 euroak dira, suspertze- eta arreta-zentroen arloan.

Bide beretik, bazterketaren arloan, batez besteko ekarpena 104 eurotan geratzen da eguneko zentroetan eta 83 eurotan jantoki sozialetan.

Bai Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen suspertze- eta arreta-zentroetan, bai bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuetan, ezaugarri nagusia da erabiltzaileen urteko ekarpenen beherakada, -% 30eraino edo are beherago egin baitzuen 2016-2017 aldian.

46. taulan jasotzen dira EAEko gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez ziren zentro eta zerbitzuetan abenduaren 15ean lanean ari ziren langile propioen datu nagusiak.

46. taula. Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2014-2017 LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2016/2017
	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Langileak/ erabiltzaileko	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2017	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2017	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2017	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	2,8	3,1	3,5	9,3	9,3			162,5
Eguneko laguntza-zentroak	10,3	10,7	10,3	11,0	15,2	15,7	4,1	6,4
Jantokiak	0,2	0,1	0,0	0,0	0,0		0,0	
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	7,3	11,5	9,1	7,0	8,2	0,0	6,8	-22,4
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	9,2	9,6	9,2	9,7	9,2	15,7	4,2	4,8
Eguneko zentroak	25,5	25,9	26,5	25,2	14,8	24,4	27,2	-4,9
Suspertze- eta arreta-zentroak	21,5	22,5	22,8	24,2	22,3	23,7	24,5	6,4
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	16,4	15,0	15,1	17,1	18,4	15,9	17,4	13,1
Laneratze-zentroak	1,9	2,9	1,7	1,4		0,6	3,3	-21,3
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	19,7	19,3	18,5	18,2	17,9	15,2	20,5	-1,9
Adingabeentzako/familiantzako eguneko arreta	5,6	5,8	5,4	5,6	3,6	0,0	11,5	3,3
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	5,6	5,8	5,4	5,6	3,6	0,0	11,5	3,3
Eguneko zentroak	12,5	14,8	12,7	9,5	8,4	9,7	9,5	-25,5
Jantoki sozialak	1,9	2,0	2,6	1,6	1,5		1,6	-37,3
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	7,6	8,2	8,9	6,3	2,9	9,7	6,7	-29,7
GUZTIRA	13,5	13,8	13,6	13,0	9,9	14,8	12,9	-4,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatzeko adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Datuei erreparatuta, egiaztatzen da 2017an, LOB terminoetan, 100 erabiltzaileko 13,0 pertsona okupatu zeudela egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetan. Adierazle horretan jadanik 2015etik 2016ra 13,8 enplegutik 13,6ra jaitsi zen, -% 1eko jaitsiera eginez aldi horretan, eta beherako joera hori finkatu da, eta are sakondu ere, 2016-2017 aldian -% 4,8 jaitsi baitzen. Beherakada horrek kontrastea egiten du 2013ko 13,2tik 2015eko 13,8ra egin zuen gorakadarekin.

Lurraldeka begiratuta, LOB okupazio altuena Gipuzkoan dago, 14,8 pertsona okupaturekin; atzetik ditu Bizkaia (12,9) eta Araba (9,9).

Okupazio-maila altuenak, desgaitasun edo gaixotasuna duten pertsonen arretaren arloan, eguneko laguntza-zentroetan eta suspertze- eta arreta-zentroetan aurki daitezke (25,2 eta 24,2 LOB pertsona okupatu 100 erabiltzaileko). 2016-2017 bitartean 2015-2016 aldiko gorako joera mantentzen da suspertze- eta arreta-zentroetan (+% 6,4), baina eguneko laguntza-zentroetan adierazleak behera egin du -% 4,9.

Aztertutako bi zentro edo zerbitzu mota horietan, LOB enplegu gehiena Bizkaian dago. Aldeak deigarriagoak dira eguneko laguntza-zentroetan: Bizkaian 27,2 enplegu 100 erabiltzaileko, Gipuzkoan 24,4 eta Araban 14,8. Kopuruak antzekoagoak dira suspertze- eta arreta-zentroetan: 24,5 euro Bizkaian; 23,7 Gipuzkoan eta 22,3 Araban.

Aztertutako LOB enpleguaren adierazleak, berriz, hazkunde handia erakutsi zuen 2016-2017 aldian, +% 13,1eko hazkundera, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko eta okupazio-zentroetan. 100 erabiltzaileko 17,1 enplegu izan dira 2017an, kopururik altuena 2012tik hona. Kasu horretan, Arabak du LOB langileen kopuru handiena 100 erabiltzaileko: 18,4 Araban, 17,4 Bizkaian eta 15,9 Gipuzkoan.

Aztertutako adierazlea puskaz urriagoa da adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, 100 erabiltzaileko 11 LOB enplegurekin. Hala ere, kopuru horrek % 6,4ko hazkundera adierazten du 2016ko 10,3 enpleguen aldean, eta enpleguaren daturik altuena 2017koa da, 2012-2017 bitarteko aldi osoan. Lurraldeen arteko aldeak handiak dira eguneko zentro mota horretan: 15,7 LOB enplegu Gipuzkoan eta 15,2 Araban, Bizkaian 4,1 bakarrik direlarik.

Suspertze- eta arreta zerbitzuetan ere LOB enpleguen kopurua handitu eta 9,3ra iritsi zen, oso gaineratik 2014-2016 aldiko 2,8 eta 3,5 kopuruen aldean. Bilakaera hori Araban oso lotua dago zerbitzu horien dinamikarekin.

Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen eguneko eta okupazio-zentroetan, adineko pertsonen eguneko zentroetan eta atsedeen-zerbitzuetan gora egin bazuen ere, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan behera egin zuen 100 erabiltzaileko LOB enpleguen kopurua. 2017ko 9,5 enpleguak mailarik baxuena adierazten dute, 2012tik. Lurraldeen arteko aldeak ez dira handiak kasu honetan, Gipuzkoan 9,7 langile baitaude, Bizkaian 9,5 eta 8,4 Araban.

Beherako joera nabarmena da, halaber, adineko pertsonentzako egoitzakoak ez diren gainerako zentroetako LOB enpleguetan, 2015eko 11,5etik 2017ko 7,0ra jaitsi baitziren.

Adingabe eta familien eguneko arretan, berriz, 2016-2017 aldian egonkortasuna da nagusi, 100 erabiltzaileko 5,6 LOB langilerekin 2017an, 2013-2016 aldian 5,4 eta 5,8 bitartean zirelarik.

Gainerako zerbitzuetan (Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako laneratze-zentroak eta jantokiak), langileriaren pisua oso txikia da, oro har, 100 erabiltzaileko 1,5-1,6 LOB langile edo gutxiagorekin, (adineko pertsonentzako jantokietan izan ezik; bertan, LOB langileen kopurua 100 erabiltzaileko hutsa da ia).

47. taulan, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetako langile propioek jasotzen duten batez besteko ordainsariak ageri dira (LOB terminoetan neurtuta). Taulan egiaztatu daitekeenez, batez besteko ordainsari hori 2017an 39.130 eurokoa da, ia 2016ko 39.135 euroen maila berean. ordainsari hori % 2,6 gehiago da 2015eko 38.129 eurokoa baino. Baxuagoa da, ordea, 2014ko 39.844 eurokoa baino.

47. taula. Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2014-2017
Batez besteko ordainsaria/LOB langile

Zentro/Zerbitzu mota	2014	2015	2016	2017	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2016/2017
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	2017ko batez besteko ordainsaria	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	49.842	53.943	51.932	53.190	53.190			2,4
Eguneko laguntza-zentroak	36.805	36.559	38.779	37.776	53.471	33.327	28.770	-2,6
Jantokiak	25.638	27.326						
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	26.852	20.517	27.421	28.869	30.260		27.500	5,3
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	36.662	36.097	38.579	37.684	52.366	33.327	28.666	-2,3
Eguneko zentroak	38.333	38.004	36.595	36.570	48.841	38.171	33.946	-0,1
Suspertze- eta arreata-zentroak	30.529	30.224	29.724	32.423	55.647	33.632	30.620	9,1
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	50.759	45.462	48.697	48.225	56.998	52.226	43.119	-1,0
Laneratze-zentroak	36.992	32.862	37.723	32.765	!	29.268	34.272	-13,1
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	42.137	39.674	39.833	40.556	54.345	42.414	36.686	1,8
Atingabeentzako/familientzako eguneko arreata	30.782	31.687	30.574	29.828	26.618		31.097	-2,4
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	30.782	31.687	30.574	29.828	26.618		31.097	-2,4
Eguneko zentroak	33.354	33.699	36.514	33.784	32.185	40.956	32.370	-7,5
Jantoki sozialak	36.027	33.252	37.358	30.621	25.249		33.593	-18,0
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	33.656	33.644	36.605	33.453	29.141	40.956	32.477	-8,6
GUZTIRA	39.844	38.129	39.135	39.130	51.737	39.001	35.425	0,0

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2017an, batez besteko ordainsaririk altuenak izan dira egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetan (53.190 euro) eta Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko eta okupazio-zentroetan (48.225 euro). Egoitzakoak ez diren zentroen sektoreko batezbesteko orokorra baino pixka bat baxuagoa izanik ere, eguneko laguntza-zentroetan ere azpimarragarria da batez besteko ordainsaria (37.776 adineko pertsonen arloan eta 36.570 Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonen arloan).

Zerbitzu horiek guztiek duten ezaugarrietako bat da ordainsaria askoz ere altuagoa dela Araban, 50.000 euro inguru edo hortik gorakoa beti; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 40.000 eurotik beherakoak dira, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko eta okupazio-zentroetan izan ezik (43.119 Bizkaian, 52.226 Gipuzkoan eta 56.998 Araban).



Desgaitasun nahiz gaixotasunen bat duten pertsonentzako laneratze-zentroetan, batez besteko ordainsaria 32.765 eurokoa da, eta suspertze- eta arreta-zentroetan 32.423 eurokoa; berriro, zenbatekoa altuagoa da Araban (55.647 euro Araban; Gipuzkoan 33.632 eta Bizkaian 30.620). Adineko pertsonentzako gainerako egoitza-zentroetan, berriz, ordainsaria 28.869 eurokoa da.

Adingabe eta familien egoitzakoa ez den arretan, edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen arretan, LOB langileen ordainsaririk altuena 2017an 33.784 eurokoa da; gutxiago da jantoki sozialetan, 30.621 eurokoa, eta adingabe edo familien eguneko arretan, 29.828 eurokoa. Lurraldeei dagokienez, altuena Gipuzkoan da, 40.956 euro, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan; Araban, berriz, apenas gaintitzen dituzten 25.000 euroak adingabe edo familien eguneko arreta-zerbitzuetan (26.618) eta jantoki sozialetan (25.249).

2016-2017 aldiko ezaugarri nagusi bat da LOB ordainsarien beherakada gizarte-zerbitzuetako langile propioen kasuan, -% 7,5 inguru edo gehiagoko jaitsiera izan baitzuten, esaterako, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako laneratze-zentroetan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat egoitzakoak ez diren zerbitzu desberdinetan.

Beherako joera horren salbuespen nagusiak dira, adineko pertsonentzako arretaren arloan, atsedene- eta laguntza-zerbitzuak eta egoitzakoak ez diren gainerako zentroak, ordainsarien hazkundeak izan baitzituzten, % 2,4koa eta % 5,3koa, hurrenez hurren. Hazkundera are handiagoa da, % 9,1ekoa, Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan.

LOB enpleguen ordainsariak gutxitu diren zentro eta zerbitzuen testuinguruan, 2016-2017 aldiko murrizketa txikiagoa izan da Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko eta okupazio-zentroetan (-% 1), eta praktikan egonkortu da pertsona mota horrentzako eguneko laguntza-zentroetan (-% 0,1). Batez besteko LOB ordainsaria nabarmen jaitsi da, baina konparazioan ez hainbeste, adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroetan (-% 2,6) eta adingabe eta familientzako eguneko arretan (-% 2,4).



KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA

ALDERDI OROKORRAK

Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak

Gizarte zerbitzuak (erdigunea)

Gizarte-zerbitzuen erdiguneak hauek hartzen ditu:

- a) Gizarte-zerbitzuen egitura orokorreko zerbitzuak, edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten erakunde publikoetako zerbitzu nagusiak.
- b) Gizarte-zerbitzuen egitura espezifikoko zerbitzuak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-urgentzietako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzu tekniko espezializatuak.
- c) Egoitzako edo egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu guztiak, honako kolektibo hauei gizarte-arreta ematera bideratuta daudenak: adineko pertsonak, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak, adingabeak, gazteak eta familiak, arrisku-egoeran dauden emakumeak (genero-indarkeria, tratu txarrak edo beste gizarte-arazo batzuk direla eta), eta bazterkeria-egoeran dauden beste pertsona batzuk.
- d) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- e) Familiei eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko programa espezializatuak: genero-indarkeria edo tratu txarren arazoak dituzten pertsonen arreta emateko zerbitzuak (SATEVI Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua barne), familientzako harrera, adopzioa eta familian esku hatzeko programa guztiak (familian esku hartzeko programak, haur eta nerabeentzako gizarte-informazioaren telefonoa, familia-bitartekaritza eta Familia Topaguneak).
- f) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.
- g) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko beste prestazio espezializatu batzuk, genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak barne.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kontzeptu hori bat etorri ohi da praktikan gizarte-zerbitzuen zorroaren egitura osoarekin, nahiz eta modu absolutuan hala izan beharrik ez dagoen. Ildo horretatik, ez da ahaztu behar txosten honetan erabilitako kontzeptua estatistikoa dela, eta, ondorioz, denboran irauteko xedea duela. Funtsean zorroaren egituratik eratortzen den kontzeptu politiko-administratiboarekin bat badator ere, egitura honen definizioa izaera estatistikoa ez duten eta denboran gehiago alda daitezkeen erabakien mende dago.

Txosten honetan eta honi lotutako agiri estatistikoetan erabiltzen den gizarte-zerbitzuen kontzeptu estatistikoa gizarte-zerbitzuen erdigunearen baliokidea da.

Gizarte-prestazioak

Gizarte-prestazioek gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko guztiak hartzen dituzte barne, baita beste zerbitzu batzuek kudeatzen dituzten arren Gizarte Laguntzaren eratze-eta estatutu-kontzeptuaren barruan sar daitezkeen jarduketan berezko elementuren bat duten prestazioak ere. Kanpo gelditzen dira gizarte-zerbitzuen erdigunearen barruan kokatzen diren prestazioak (mendekotasun-prestazioak eta tratu txarren edo genero-indarkeriaren biktimenzako prestazio ekonomikoak), GLLak salbu.

Honako prestazio hauek hartu dira aintzat::

- a) Estatuko lege orokorretan zehazten diren baina Euskadin kudeatzen diren prestazio ekonomikoak: LISMI (Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea) prestazioak eta kotizatu gabeko prestazioak (KGP). Oso antzekoak direnez, kotizatu gabeko prestazioetan Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak ere sartu dira.
- b) Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioak: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL).
- c) Familiei laguntzeko familia-prestazioak: familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak, eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko prestazioak.
- d) Beste prestazio ekonomiko batzuk, orain arte adierazi ez diren gizarte-urgentzia eta -larrialdien arloko gainerako laguntzak barne.

Aztertutako prestazioek, funtsean, adierazitako prestazio publikoak barne hartzen badituzte ere, erakunde pribatuek kudeatzen dituzten era horretako prestazioak ere sartu dira.

Zentroa edo zerbitzua

Kokapen independente eta identifikagarria duen unitatea, azpiegitura materiala duena; bertan gizarte-ekintzaren esparruan artatzen den biztanleriaren sektore edo azpisektore bati edo gehiagori arreta emateko jarduketak gauzatzen dira.

Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra

Oro har, zentroak eta zerbitzuak artatzen duten kolektibo nagusiaren arabera sailkatzen dira, honako irizpide hau oinarri hartuta:

Adinekoak

Erretiroa hartzeko adina gainditu duten pertsonentzako zentroak. Adin hori izan ez arren antzeko profilak dituzten pertsonak ere artatzen dituzte, argi eta garbi lan-merkatutik kanpo gelditu direlako edo zahartzearen ondorioz euren gaitasun psikiko eta fisikoak murriztu egin direlako.

Desgaituak/gaixoak

Zahartzearekin zerikusirik ez duen gutxitasun edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorial baten edo antzeko ondorioak izan ditzakeen gaixotasun kroniko baten ondorioz gizarteratzeko aukera murriztuak dituzten pertsonen zuzendutako zentroak, batez ere buruko gaixotasunen esparruan.

Gaixotasun/desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, esparru honetan sartzen dira pertsona heldu ezinduen tutoretza-zerbitzua eta Tutoretza Fundazioak, baita arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua ere.



Adingabeak/gazteak/familiak

18 urtetik behera dituzten eta beharrizan-egoeran dauden, familia-bizitza egoki edo arduratsurik ez duten, helduengandik jokabide gatazkatsuak jasan dituzten eta familia-giro desegokietan agertzen diren beste arazo batzuk pairatzen dituzten gazteentzako zentroak. Hemen sartzen dira familia osoari arreta eskaintzen dieten zentroak.

Haur, gazte eta familientzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, arreta honetan sartu dira Familia Topaguneak, familientzako bitartekaritza-zerbitzuak eta haur eta gazteentzako gizarte-informaziorako telefonoa.

Emakumeak

Beharrizan-egoeran dauden emakumeei zuzenduriko zentroak, batez ere egoera are gehiago larriagotzen duten baldintzak dituzten emakumeei zuzendurikoak, besteak beste familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak eta genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeak.

Baztertuak

Bazterkeria-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko zentroak. Pertsona horiek pixkanaka sustraiak eta loturak apurtu dituzte, eta, ondorioz, norbanakoaren dimentsio sozial eta pertsonala eratzen duten elementuak galdu dituzte. Honako hauek artatzen dituzte era honetako zerbitzuek: iragaitzako bidaiariak, kartzelan dauden edo egon diren pertsonak, alkoholak edo drogek eragindako gizarte-arazoak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoetako kideak direla-eta gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonak eta bazterkeria-egoeran egoteko arriskua duten beste talde batzuk.

Adierazitako sailkapena zentro eta zerbitzu espezializatuei aplikatzen zaie. Biztanleria osoari zuzenduriko jarduketak, besteak beste gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari edo espezifikoiari dagozkionak, ez dira irizpide horien arabera ordenatzen.

Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, mendekotasunari, adineko pertsonen arretari eta gaixotasun nahiz desgaitasun bat duten pertsonen arretari dagozkien arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak.
- b) Desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak.
- c) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeke laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- d) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.

Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, haurrak, nerabe eta gazteak, familiak eta emakumeak babestetik eratorritako arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Haur, gazte, familia eta emakumeei zuzenduriko zentroak eta zerbitzuak.
- b) Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonak artatzeko programak, harrera- eta adopzio-programak eta familian esku hartzeko beste jarduketak batzuk.
- c) Genero-indarkeria edo tratu txarren biktimenezko prestazio ekonomikoa.

Egoitza-zentro eta -zerbitzuak

Zentro hauetan etengabeko arreta eta laguntza integrala eskaintzen da, egoitza- eta mantenu-zerbitzuen bidez, baita beste zerbitzu batzuen bidez ere.

Talde honetan sartzen dira egoitza-zerbitzua eskaintzen duten zentro hauek guztiak: harrera- eta urgentzia-zentroak, egoitzak, etxebizitza komunitarioak, apartamentuak, ostatuak, gaueko zentroak, neguko zentroak, suspertze-zentroak barnetegi-erregimenean, etxe funtzionalak, eta atsedena- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:

Adinekoak

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, adineko pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
- Tutoretzapeko apartamentuak
- Etxebizitza komunitarioak
- Bestelako egoitza-zentro eta -zerbitzuak

- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, adineko pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.



Desgaituak/gaixoak:

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
 - Tutoretzapeko apartamentuak
 - Egonaldi laburretarako pisuak eta zentroak
- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.

Adingabeak/familiak

- Egoitza-zentroak

Adingabeentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden gazteentzako egoitza-zentro hauek hartzen ditu barne, baita legea haustearen ondorioz kontrolpean dauden adingabeentzako egoitza-zentro hauek ere:

- Adingabe edo gazteentzako zentroak:
 - Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe edo gazteentzako egoitza-zentroak.
 - Jokabide-arazoak dituzten edo legea hautsi duten adingabe eta gazteentzako zentroak.
 - Gazteentzako bestelako egoitza-zentroak.

Urgentzietako egoitza-zerbitzuak eta familiei zuzendurikoak ere hemen sartzen dira.

Emakumeak

Egonaldi labur eta luzeetarako egoitza- eta etxebizitza-zerbitzuak hartzen ditu barne, baita beharizan-egoeran dauden emakumeentzako, familia-kargak dituzten emakumeentzako eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako urgentziako harrera-zentroak ere.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima ez direnentzat).

Gizarte-beharizan egoeran dauden, familia-kargak eduki eta bakarrik dauden, prostituzioari loturiko arazoak dituzten edo antzeko gizarte-arazoak dituzten emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima direnentzat).

Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

Baztertuak

Epe labur nahiz luzerako egoitza-zerbitzuak eta etxebizitzak hartzen ditu barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako honako egoitza-zentro hauek (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Preso dauden edo egon diren pertsonentzako etxebizitzak.
 - GIB duten pertsonentzako etxebizitzak.
 - Mendekotasun-arazoak dituzten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzak, tutoretzapeko pisuak eta komunitate terapeutikoak.
 - Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako egoitzak eta tutoretzapeko pisuak.
 - Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako harrera-zentroak, harrera-pisuak eta urgentzia-zentroak.
 - Etorikinentzako etxebizitzak.
- Gaueko harrera-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera eskaintzen duten honako egoitza-zentro hauek (ostatuak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako ostatuak.
- Adikzioak dituzten pertsonentzako gaueko zentroak.
- Bestelako bazterkeria-egoeraren batean dauden pertsonentzako gaueko zentroak, etorkinentzat barne.
- Neguko zentroak.

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapen garrantzitsua

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei dagokienez, beharrezkoa da adieraztea atsedeen-zerbitzu gehienak egoitza-arretaren sare orokorraren bidez eskaintzen direla, bai adineko pertsonen kasuan, bai desgaitasunen/gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan. Hori dela eta, datuek ez dute atsedeen- eta babes-zerbitzuen eskaintza osoa islatzen, baizik eta soilik zerbitzu horretan berezitzen diren zentroyen datuak.

Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)

Zentro hauek eguneko arreta espezializatua eskaintzen diete gizarte-beharrizanak dituzten pertsoneri. Talde honetan sartzen dira eguneko arreta eskaintzen duten zentro hauek guztiak: eguneko laguntza-zentroak, jantokiak, suspertze- eta arreta-zentroak, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze-zentroak eta atsedeen- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:



Adinekoak

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedeen- eta babes-zentroek eta jantokiak eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Adinekoentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atsedeen- eta babes-zerbitzuak

Adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonen atsedeen hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Egunean zehar adineko pertsonak artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne.

- Jantokiak

Adinekoentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

- Egoitzakoak ez diren zentroak

Adinekoentzako gainerako laguntza-zentro guztiak hartzen dituzte barne.

Desgaituak/gaixoak:

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedeen- eta babes-zentroek, zentro okupazionalak, eta suspertze- eta arreta-zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atsedeen- eta babes-zerbitzua

Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonen atsedeen hartzeko eta haiei babes emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (laguntza-helburuekin).

- Suspertze- eta arreta-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (suspertzeko eta arreta berezia emateko helburuekin).

- Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak

Aurreko kategorietan sartzen ez diren eguneko zentroak hartzen ditu barne, egoitza-egiturekin loturarik ez duten eguneko atsedeen-zentroak eta desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentro okupazionalak barne. Zentro mistoen kasuan (okupazionalak eta enpleguan berezitzen diren zentroak), gizarte-zerbitzuen testuingurua aztertzerakoan, izaera okupazionala duten eta egoitzakoak ez diren plazak bakarrik hartu dira kontuan.

- Laneratze-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako gizareratze- eta laneratze- zentroak hartzen dituzte barne, zentro okupazionalak izan ezik.

Adingabeak/familiak

Egoitza-zentroek eta eguneko zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabe/familien egoitza-zentroak

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako eguneko zentroak hartzen dituzte barne.

Baztertuak

Etxebizitzek, egoitza-zentroek, eguneko zentroek, zentro okupazionalak, gizareratze- eta laneratze- zentroek eta jantoki sozialek eskaintzen dituzten arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro guztiak hartzen ditu barne, eguneko laguntza-zentroak eta zentro okupazionalak barne.

- Jantoki sozialak

Bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

Erabiltzaileak

Erabiltzaileak dira erreferentziako egunean (abenduak 15) zentroak eskaintzen dituen prestazioak eta zerbitzuak zuzenean jasotzen ari ziren pertsonak.



SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK

Plazak

Egoitzakoak

Estatistikan aztertzen den urteko abenduaren 31n erabilgarri zegoen ohe kopurua, horiek okupatuta egon hala ez. Harrera-zentroetan, egoitza-zentroetan eta egoitzako suspertze-zentroetan biltzen dira.

Egoitzakoak ez direnak

Egoitzakoak ez diren zentroetan dagoen plaza kopurua, edo egoitzakoak ez diren zentroetan egoitzakoak ez diren zerbitzuak emateko erabiltzen direnak.

Plazei buruzko zehaztapena

Plazen banaketa artatutako biztanleria motaren arabera aztertzen dugunean, kontuan hartu beharra dago kasu batzuetan arreta mistoa izan daitekeela, hau da, biztanleria talde bati baino gehiagori zuzen dakiokela. Arreta mistoa eskaintzen duten zentroetan, baina, artatutako biztanleriari buruzko informazioa ez da xehatuta agertzen; izan ere, GZEZEren inkestan biztanleria mota bat baino ezin da adierazi. Hori esanguratsua da adineko pertsonentzako egoitza-plazen kasuan; izan ere, arreta-sare horretan askotan desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako plazak ere egon ohi dira. Hala ere, plaza horiek adinekoentzako plaza gisa sailkatzen dira, zentro horien xede nagusia adinekoei zerbitzua ematea baita.

Plazen titulartasuna

Egoitzako plazak eta egoitzakoak ez direnak sektore publikoak duen inplikazioaren arabera bereizten dira, bai titulartasunari dagokionez, bai finantzaketari dagokionez. Hona hemen aztertu diren kategoriak:

Publikoak

Administrazio publikoen (Europako administrazioa, Estatuko administrazio orokorra eta Gizarte Segurantza, Erkidegoko administrazioa, foru-administrazioa, udal-administrazioak eta mankomunitateak) titulartasunpeko zentroei dagozkien plazak.

Itunpekoak

Titulartasun publikoa ez duten baina zati batean edo osorik sektore publikoak finantzatzen dituen zentroetako plazak.

Bazterkeriaren esparruko itunpeko plazei buruzko zehaztapen garrantzitsua:

Itunpeko plaza hauei dagokienez, gogoan hartu beharra dago bazterkeriaren arretaren esparruan interpretazio-arazoak daudela itunpeko plazak zein diren zehazteko. Hori horrela da esparru honetan Administrazioek ez dituztelako itunpeko plazak aipatzen, baizik eta hitzarmenak; horren ondorioz, datuak biltzerakoan, elkarrizketari batzuek itunpeko plazak aipatu dituzte, baina beste batzuek ez (pribatuak). Hasiera batean, emandako datuek elkarrizketari horiek emandako informazio zuzena dute oinarri.

Hala ere, beharrezkoa da adieraztea bazterkeriaren esparruan jokabide horrek gutxietsi egiten duela ekintza publikoaren benetako pisua. Ildo horretatik, erakunde edo elkarte pribatuek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden biztanleei eskaintzen dizkieten arreta-baliabide asko % 100ean finantzatuta daude, eta administrazioa da erabiltzailea sare horretan sartu behar dela erabakitzen duena (hala ere, batzuetan egoera mistoak egoten dira, eta erakundeek ere erabiltzaileak sarean sartzeari buruzko erabakiak hartzen dituzte). Kasu horietan, pribatu gisa sailkatutako plaza ugari egiatan itunpeko plazatzat har daitezke.

Ondorioz, beharrezkoa da egoera hori kontuan hartzea itunpeko jarduketak bazterkeriaren arretaren esparruan duen benetako eragina aztertzerakoan.

Pribatuak

Sektore pribatuak oso-osorik finantzatzen dituen plazak (irabazi-asmorik gabeko jardueraren esparrua, elkarteak, elkarteen federazioak, fundazio pribatuak, ongintzako establezimenduak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakundeak; guztiz pribatua den esparruan, berriz, pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, lan-sozietate anonimoak, ondasun-erkidegoak, kooperatibak eta esparru honetan sar daitezkeen gainerako erakundeak).

GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK

Gastu arrunta

Operazio arruntetara bideratutako gastua da. Informazioa eurotan eman da, berariaz bestela adierazitako kasuetan izan ezik. Hurbilketak erreferentzia egiten dio aztertutako urteko aldiari dagokion gastu nominalari, salbu eta beste erreferentzia bat zehazten denean (esate baterako, urte zehatz bati dagokion balio baliokidearen bitartez zenbatetsitako gastu arrunta, Eustatek ezarritako inflazioaren bariazioa kontuan hartuta).

Gastu arruntak honako kontzeptu hauek hartzen ditu barne:

Erosketak

Kapitala areagotzea ez dakarten ondasun arrunten gastuak, horien iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada, ezin badira inbentarioan sartu eta errepikatu egiten badira.

Kanpoko zerbitzuak

Konponketa eta kontserbazioari loturiko gastuak, profesional independenteen zerbitzuak, hornidurak, garraioak, aseguruen sariak, banku-zerbitzuak eta abar.

Langileen gastuak

Soldatak eta ordainsariak, Gizarte Segurantza eta langileen beste gastu batzuk.

Beste batzuk

Zergak, finantza-gastuak, amortizaziorako zuzkidurak, izangaien bariazioak, higiezinek eragindako galerak eta ezohiko gastuak.

Familiei egindako transferentziak

Kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzea xede duten kredituak, pertsona fisikoei emanak, beharizan-egoerak konpontzera bideratutako programen bitartez.

Emitza

Eustatek ezarritako metodologiaren arabera, gastu arruntak aztertutako zentro edo zerbitzuak erreferentziako urtean izandako emitza ere barne hartzen du, defizit edo superabit terminoetan.



Erakunde publikoen edo zerbitzu publiko orokorren kasuan, arreta zehatz bati lotuta ez daudenean, defizit edo superabit hori gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean integratuta dauden zentro eta zerbitzuei esleitzen zaie. Hori dela eta, Egitura eta Emaidza Orokorra epigrafearen azpian ageri da, batez ere finantzaketari buruzko atalean. Hurbilketa horrek azaltzen du, bestalde, diru-sarreraren dinamikak baldintzatutako urteen arteko zenbait alditan gorabehera handiak egotea egitura orokorrari dagokion gastuan.

Gastu arruntaren adierazleak

Hauek dira gastu arruntaren adierazleak:

Gastuaren ehunekoa BPGd-aren gainean

Ehuneko horrek gastu arrunta irudikatzen du, Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako zenbatetsitako BPGd-aren gainean. Ehuneko hori aldatu egin daiteke eragiketa batetik bestera, Eustatek aldian-aldian egiten dituen balioa eguneratzeko prozesuen mende baitago.

Gastua biztanleko

Kontuan hartutako gastu arrunta, zati Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako ezarritako biztanleria.

Adierazle horiek urteka kalkulatzen dira.

FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK

Finantzaketa: administrazio-jatorria

Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen gastuaren finantzaketak, finantzaketa horren administrazio-jatorriaren arabera, honako administrazio hauek hartzen ditu aintzat:

Erkidegoz gaindikoa

Europako Administrazioaren, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Gizarte Segurantzaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Erkidegokoa

Erkidegoko Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Foru Aldundikoa

Foru Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Udalekoa

Udal Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne, baita Mankomunitateenak ere.

Pribatua

Erakundeek nahiz pertsonak egindako finantza-ekarpen pribatuak hartzen ditu barne, bereziki zentro, zerbitzu eta programetako erabiltzaileek egiten dituztenak.

Finantzaketa: izaera

Gizarte-zerbitzu eta gizarte-prestazioen arloko gastuen finantzaketak honako partida hauek hartzen ditu kontuan, diru-sarreraren izaeraren arabera:

Salmentak

Salmentek zentroa, zerbitzua edo programa ez beste iturri pribatu batzuetatik datozen diru-sarrerak biltzen dituzte, bukatutako produktuen salmentatik eratorritakoak.

Erabiltzaileen ekarpenak (prestazioak)

Prestazioek familiek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerak biltzen dituzte; ekarpen horren truke, zentroak zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie (erabiltzaileen kuotak eta erabiltzaileei dagozkien beste diru-sarrera batzuk).

Diru-sarrera sozialak

Diru-sarrera sozialak familiengandik datoz, erabiltzaileen ekarpenak ez beste kontzeptu batzuegatik. Diru-biltzeak, partikularren emaitzak eta bazkide ongileen ekarpenak hartzen ditu barne.

Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Dirulaguntzak onuradunak trukean ezer emateko beharrik gabe esleitzen diren ekarpenak dira; horien helburua da gutxieneko errentagarritasuna bermatzea edo ustiaketaren defizita konpentsatzea.

Itunek sinatutako hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrerak hartzen dituzte barne. Oro har, hitzarmenak Administrazioarekin sinatzen dira, itunpeko erakunde edo zentroak zerbitzuren bat ematearen truke.

Erakundeari egindako ekarpenak

Beste bide batzuetatik estaltzen ez den defizita konpentsatzera bideratutako ekarpenak biltzen ditu. Administrazio publikoaren mendeko zentroetan, ekarpen hori aurrekontuaren bidez egiten da, oro har.

Diru-sarrera finantzarioak

Zentro, zerbitzu eta programen diru-sarrera finantzarioak hartzen ditu barne.

Beste diru-sarrera batzuk

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren diru-sarrerak hartzen ditu barne, besteak beste alokairuetatik, higiezinek sortutako irabazietatik edo ezohiko diru-sarreretatik datozenak.

Finantzaketa-adierazleak

Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan

EHuneko honek erabiltzaileek zentro edo zerbitzuaren finantzaketa osoari egin dioten ekarpena irudikatzen du. Kuotak eta erabiltzaileek egindako gainerako ekarpenak hartzen dira barne.



LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK

Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera

Zentroarekin duten loturaren arabera, langileak era honetan sailkatuta daude:

Berezko langileak

Berezko langileak dira enpresarekin duten kontratu-harremana gorabehera erreferentziako aldian lan bat egin dutenak, lan hori diru bidezko ordainsariaren bitartez ordainduta edo ordainsaririk jaso gabe.

Ondorio horietarako, GZEZEK erreferentziako urteko abenduaren 15ean zegoen egoerari buruzko informazioa eman du, baina baita urteko batez besteko langileei buruzko informazioa ere.

Langileen kategoria horrek ez ditu azpikontratatuak langileak barne hartzen.

Azpikontratatuak langileak

Langileen kategoria honetan beste enpresa baten mende dauden eta beste enpresa horrengandik ordainsaria eskuratzen duten langileak sartzen dira, baita erabiltzaileei zerbitzua zuzenean ematen dieten langileak ere (arreta zuzenerako langile azpikontratatuak).

Kasu honetan, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langile boluntarioak

Langile boluntarioak euren erabakiz denbora tarte bat laguntza-lanak egiteko erabiltzen duten pertsonak dira, lan horren truke kontratu-harreman baten bitartez kontraprestaziorik edo ordainsaririk jaso gabe. Hala, ordaindu gabeko borondatezko lankidetzak da.

Azpikontratatuak langileen kasuan bezalaxe, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langileak, kualifikazioaren arabera

GZEZEren arabera, abenduaren 15ean, berezko langileak honako irizpide hauen arabera sailkatzen ziren:

Administrazioa eta orokorrak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Zuzendaritzako eta administrazioko langileak: zuzendaritza eta kudeaketa, administrazioko langile teknikoak, administrazio-langileak eta laguntzaileak.
- b) Gainerako langile orokorrak (zerbitzuko langileak): langile urgazleak eta mantentze-lanetakoak, ostalaritza-sukaldekoak, garbiketakoak eta beste zerbitzu orokor batzuk ematen dituztenak.

Gizarte-lana

Gizarte-lanean aritzen diren teknikariak hartzen ditu barne.

Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk

Langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Hezitzaileak: gizarte-hezitzaileak eta irakasleak, baita psikologian edo pedagogian adituak diren langileak ere.
- b) Langile sanitarioak: medikuak, erizainak edo fisioterapeutak, terapia okupazionalan jarduten dutenak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko lanetan aritzen diren teknikariak.
- c) Beste teknikari batzuk: gizarte- eta kultura-animazioan adituak diren langileak.

Zaintzako langile laguntzaileak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Klinikako eta geriatriako laguntzaileak.
- b) Zerbitzu pertsonalak ematen dituzten langileak (zaintzak, etxeko laguntza eta abar).

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak hartzen ditu barne.

EZB langile-erabiltzaileak

Desgaitasunen bat duten eta gizarteratzeko eta laneratzeko enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonak.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kasuan, jarduera okupazionalak eta enplegu-zentro berezietako berezko jarduerak konbinatzen dituzten zentro mistoen kasuan baino ezin dira agertu. Azken mota honetako plazak ez dira, baina, aintzat hartu gizarte-zerbitzuen erdigune horri buruzko txostenean.

Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB

Langileei buruzko informazioa modu orokorrean edo lanaldi osoaren baliokidea (LOB) terminoaren arabera eman da. Azken kasu horretan, langileei buruzko informazioa lanaldi osoa kontuan hartuta estandarizatu da, lanaldi osoa urtean 1.600 ordu edo asteen 35 ordu direla ulertuz.



KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea

Okupazio-adierazlea edo -ehunekoa erreferentzia-urteko abenduaren 15ean zeuden erabiltzaileen eta aztertu diren zentro edo zerbitzuetan zeuden plaza guztien arteko harreman portzentuala da.

Gastu arrunta erabiltzaileko

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu aztertu diren zentro eta zerbitzuei dagokien gastu arrunt osoa eta zentro edo zerbitzu horiek erreferentziako urteko abenduaren 15erako artatuak zituzten erabiltzaile guztiak.

Erabiltzaileko batez besteko kuota

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu erabiltzaileek kuoten bitartez egin duten ekarpenaren zenbatekoa eta erreferentziako urteko abenduaren 15erako aztertutako zentro edo zerbitzuek izandako erabiltzaile kopuru osoa.

LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko

Adierazle horrek erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak lotzen ditu, bider ehun egin ondoren.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Langileko (LOB) batez besteko soldata

Adierazle horrek elkarrekin lotzen ditu erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Batez besteko ordainsariari dagokionez, aztertu diren zentro eta zerbitzuetako langileei egotz dakizkiekeen gastu guztiak hartu dira aintzat, baita enplegatzaileak eskudirutan eta espezetan ordaindutako guztia ere, aztertu den aldian egindako lanaren kontrapartida gisa. Soldaten ordainsariak honela banakatzen dira: eskudirutan eta espezetan ordaindutako soldata eta ordainsariak, enplegatzaileak egindako edo enplegatzaileari egotzi zaizkion gizarte-kotizazioak eta enplegatzaileak langileei ordaindu behar dizkien gainerako gastuak.

LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

Udalergi motak

Hau da txosten honetan erabili den udalergien multzokatzea:

Gasteiz

Gasteiz hartzen du barne.

Arabako beste udalergi nagusi batzuk

Amurrio eta Laudio hartzen ditu barne.

Arabako gainerakoak

Arabako lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Donostia

Donostia hartzen du barne.

Gipuzkoako beste udalergi nagusi batzuk

Eibar, Errenteria eta Irun hartzen ditu barne.

Gipuzkoako gainerakoak

Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Bilbo

Bilbo hartzen du barne.

Bizkaiko beste udalergi nagusi batzuk

Barakaldo, Basauri, Durango, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu barne.

Bizkaiko gainerako udalergiak

Bizkaiko lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Bizkaiko esleitu gabeko erregistroak ere).